

S. ONAINDIA

EUSKAL LITERATURA

(VI)



ETOR

S. ONAINDIA

***EUSKAL
LITERATURA***

VI

Geure mendean

SARRERA ANTZO

GAUZA GORDEA, URRE GORRI.- Jose Lasa Apalategi irakasle lizenziatuak liburu polit bat eskeifii digu oraintsu: «Gure arbasoen jakintza, ots, erderaz esanda, *Florilegio de Proverbios y Refranes antiguos*» (Zarautz, 1982).159 orrialde. Erriak berez emaniko zituak dira: atsotitz, esaera ta errefrauak, Garibai, Bela, Isasti, Oihenarte, Mogel eta Azkue'ren sortetatik jasoak geienak, denak ezpadira ere. Auen artean bat onela dirakurgu: «Gauza gordea, urre gorria».

Aipatu sorta-osatzaillea, esaera au azalduz, onela ari da gogoe-tan: «Emen ere, beste edozertan Igeez, erdiune zeatza artu bear arda-tz. Gure bizitzaren ontzi aula, bestelan, zabu-zabuka tirabira egite-ko arriskuan errez jarriko litzakigu. Une bakoitzean lasta asko bear da kareletik bota, gure bizi-ontzitxoak alai ta ziur itxas-egin dezan; baiña nun dago, zein da gauza batzuk itxas-ondora bota ta beste batzuk gordetzeko irizpide segurua? Ona emen korapilloa. Baiña bearrezko bai dela, batez ere, oroimena garbitzea, gauza ta pertsona asko aztutzea» (87 orr.).

GURE LITERATURA.- Zer aztu ta zer gorde? Gure literatura, egia esan, ez da batzuk uste duten bezin eskasa; ez da gura genukean bezin aberatsa ere. Baiña daukaguntxo ez dezagun ezetsi, ez nar-datu. Ontatik batzuk berria nai dute, beste batzuk zaarra. Zein obe? Leengoz eta oraingoz oretua. Gaurko euskaldunak eskatzen due-na. Zarra gibelera utzi ta berria txalo-zartaka artu? Ez da atzeran-tz begiratu bear, aurrerantz baifio. Berriztu bearra ba-du euskal li-teraturak, gaur-eguneko gizonaren bizia, irrirsak eta ametsak aizatu, gaurko euskaldunaren giro, kezka ta burrukak bizi-azi, munduko literaturaren leena ta oraiña ikasi ta gureari itsatsi...

Begiak ireki ta egia aitortu nai ba'dugu, gure literaturak badauzka zati eder-bikaiñak, aiztu-samar ditugunak, aintzifla baten osatuak, geroago mamituak eta bizi geran mendeen ekarritako aleak. Bazter utziko aal ditugu oiek denok? Ez gaitezen izan gibelkari. Urte asko dira gerkarrak eta latindarrak beren literatura eder egin zutela, eta gaur bertan lurbira zabaleko elertira begiratzuz gero, auek ditugu —Homero, Bergilio, ta abar, Dante, Shakespeare, Cervantes, Dostoievski ta besteekin— modan daudenak. Gaurkoak bakarrik aipatzeko, Lizardi, Orixe, Lauaxeta, Zaitegi ta besteak eskal literaturan gailen ditugu antz-antzera.

NIRE LANA.- Ni urteak dirala ari naiz xede baten gaillur-gain ereiñotza ipiñi nairik. Asmotsua da geienbat gizona, eta oietako xede askodunak garean arren, bat beintzat aurrera eramaten alegindu bearrean aurkitzen. Nire asmoetatik bat, aitor dezadan, aspalditik gero, gure idazleak eta beuron lanak ikasi, aztertu ta saillean jartea izan da. Jakin dezala geroak, gure arbasoak zer arrotu zuten euskal elertiaren barrutian. Urteetan egon nintzan xede ori nola biribildu asma eziñik; lenbizi buruera xee bat zan aidean darka, gurari bat gero eta azkenez naitaezko bultzada, egin-bearra. Eta emen doa geroztik, aizeak ur-azalaren barrena daraman ontzia iduri, seigarren liburua dugun gure idazleen istoria.

Nire lana, ba'liteke, dan-danei atsegin ez izatea. Orrela adierazi dute banaka batzuk: nik aipatu bakarrik egiten omen ditut idazleak eta irakurleak geiago nai ei du. Nik, baiña, nere bidea artu nuen, J. Vinson'ek eta ortan ari izanak artu zuten; eta orretan jarraitua naiz, ez bait da egoki bein bide bat artu ta ondoren, zio gabe, beste batera zapart egitea: eztu ori logikak onartzen.

Nik idazle bakoitzari berea emanez, asieratik ara, auxe opildu dut: aurrenik, idazlearen nortasuna —nor dan, zer egin duen— ikusi ta, bigarren, euskeraz aurrera eraman duen lana adierazi: bitartean datoz lanaren estiloari buruzko zerak, iritzi-emateak, bibliografi ta abar. Lar luzatu gabe, gaifiera. Edu orretan, iñork iñoiz euskal *The-saurus* bat —Mezenas batek naiz Argitaldari esku-zabal batek— osatu gura izango ba'lu ere, or leukake arrobi bikain-bikaiña. Ez-

tabaita ta iritzi zirtziletatik iges egin dut jakiftaren gainean, naiz-eta sarri autore bati buruz ark eta onek zer esaten duten adierazten eman.

MIIN-LUZE ALA AZPI-JALE?.- Beste batzuk aserre dira, itxurapen itxuraz, nik daramakidan jokabideaz. Literaturarik naiko etorri zaizkigu nirearen ostean, euskeraz egin-eginean, nik erabillitako meto-
duz, egillez eta lanez, jokatu dutenak, eta ala ere doi-doi aipatu dute nire lana, iguingarri bai litzan; nire bost aleko lana, bosten artean 1990 orrialde biribildu arren. Ez onerako, ez txarrerako, ez aipatu ta kito! Jaeduera orrek badu bere txildorra. Bakoitzak jakingc du zergaitia. Dana dala jokabide zitala danik ez didazu ukatuko. Eta gizabideak eskatzen digu bakoitzari zor zaiona ematea: baita nere liburuai ere. Onakoak, egia aitortzeko, maiz ikusiak gara gure idazleen artean; zazpi grña-buru, ordea, ezagutzen dira aszetika liburuetan, oietatik bati bekaizkeria, iñartsia edo erreminña deiturik.

Naiz mailla apalago baten izan arren, ba-duzu beste bat —bere kasa ez, besteren baten aoz, nik uste, mintzatzen dana— bereak eta bost nire kaltetan bota dituna. Auñamendi'k bere Literatura V'garren alean, sarreran ain zuzen, ederki kakaztu du bere lan bikaiña. Ez dakit, baiña, zergatik nire aurka, nik lagundu besterik egin ez diodan gizona baita. Origatik diot «beste bateren aoz» dala mintzatzen. Garaiz erantzun niin (ikus nere Euskal Literatura, V,400'garren orrialdean) eta ez dut an esana emen ber-esan bearrik.

Auñamendi ala ere etzan naikotu esanaz. Berdin ats-artzen du bere V'garren alean. Barne-aierkundera etzaio oraindik arindu. 323'gn. orrialdean «Renacimiento literario» dio ta 1936'tik 1970'ra zerbait idatzi zuten gizonak aipatzen ditu, aurreko lau liburuetan sartu gabeak noski. Zuzen. Gero, 439'an «Sintesis literaria vasca (1897-1970)» dator, B.E. Lasa'k idatzita, eta ementxe berton, 448'gn. orrialdean, azken urteotako euskal literaturak aipatzean, nireari buruz onela dakar: «Se sigue, casi literalmente, la historia de la Literatura Vasca de Bernardo Estornes Lasa». Egia ete? Idazlearen burmuñean, bai; ortik kanpo ez. Ikus beza nai duenak eta laister

jabetuko da batetik bestera dagoen aldearekin. Jakiña: idazleak eta beuron lanak, berdiñak izan bearke, baiña pentsamentu, adierazte-tankera, idazkera, ainbat datu ta zeaztasun, oso bestelakoak. Berak niretik eta J. San Martin'enetik ez aal zituen jaso, itzez itz sarrri, zenbait zeaztasun? Leena, ta besteak, borobildu nitzan, ez nituen nik, gaur ere berdin dagit, eskutitz gutxi idatzi! Nere lana oso ta beteago burutzearren, gero.

Ortara ezkeru, nik ere esan nezake: Nere MEOE'ren atzetik dabilkit Lasa; nik an jarri nituen idazle, fetxa —baita gaizki daudenak ere— eta oarrak ber-aipatzen dizkit berean; nire bilduma 1954'koa duzu ta 1969'goa aren leen-tomua. Beta eskatzen du ikerlanak eta alako olerki-sorta mamintzean ez nuen bear aiñakoa izan, baiña sail ederra ta barri-oin bikaiña eskeiñi bai egin nien ondo-rengoai.

Muker izatea ez duzu doain ona. Auñamendi'k, ordea, bereari eusten dio V'gn. liburuan, esan dugunez. Bere lanak dakazki batez ere, erderazkoak eta J.I. Goikoetxea'k euskeraz jarriak. 513'an «Autoría» difio, eta 518'an «guerra aurreko ta osteko idazle punterengo batzuk; 37 idazle ageri dira guztiz sail onetan, eta ni gerra aurretik eta gero, 50 urtetik gora euskal idazle, «Karmel» —beronen zuzendari 12 urtetan— eta «Olerti» —sortu ta zuzendu 10 urtetan— aldizkarietan lan egin arren, eta ainbat liburu —MEOE, «Iru poema», «Onbidea», «Gure bertsolariak», «Jolasketa», «Enbeita oleskaria», «Gure Urretxindorra», «Bergili'ren idazlanak osorik», «Goiznabar» (150 pesi ditun olerki-sorta), «Lamiñak», «Egoitzak»... argitara ekarria izanik ere, ez du merezi izan izendapen azaleko bat ere. Jokabide tristea, egiazki.

IXILTZE LARRIA.- Maltzur-zidorrik badu gizonak begiko ez ziztaizkionak bide bazterrean, aztuta bezela, uzteko. Aspalddanik jokabide ezagun bat dugu ori. Izterbegiak ixil-sastakaiz zokoratu oi dituzte itzal-egilleak, iñoren bizkar gora igo nai dutenean berezikien.

Gizona berez duzu txibiz. Artisten artean ere ez da gutxi edatua gaitz au. Antonio Valverde «Ayalde» kexaz agiri zaigu Donos-

tia'n eman zuen itzaldi baten, gero «Egan»-en (1960) eta bere liburu eder «Ibar ixillean» (157 orr.) azaldutakoan. Regoyos, Ribadesella'n jaioa ta biotzez irundar sentitzen zana, margolarien artean, inpresionista sortzaille ta eskolakoa zan emen inguruan. Pio Baroja'k artaz esan zuen: «Nik ez det ezagutu pintorerik Regoyos bezin gatzdun eta azkarrik». Ala ere, etzan ongi artua izan, aren izadi-bazter, bodegoi, giza-irudi ta argazkiak etzioten ezer esaten ordukoai. Aren margo-laukiak, il zanean, ia arbuatuak izan zirala esan bear. Gerora, baifia, ego-zabal dabilkigu aren entzutea. Valverde'k onela: «Guk, oraingo eta emengo Arte-zaleok gero eta maitago dugu Regoyos-en izen eta oroimena. Ezagutzen ari da, pixkanaka, artista aren izaera umil, alai eta atsegiña, aren Arte fifi ta jakintsua, baita ere —eta euskaldunok eztugu aztu bear— Rogoyos-ek gure Eusko-lurrari zion zaletasun eta maitasuna».

Arroak atzera eragiten digu, umillak erakar. Egiatzko artistak geienez apal lau ta alaiak izan oi dira. Edozer gauza kantatu oi dute, edo pintatu. Regoyos-ek, adibidez, txoko bat margozten digu, aza batzuk, arrantza-sare batzuk eguzkitan, alper bat soro-barrean, gatz-ontzi bat, eguzki-printzak, orma zaar bat, piku berde bat; gauza apalak, ezerezak, berez eder etziranak ere edertasunez jantzirik uzten zizkigun. Eta Valverde'k: «Inpresionista utsa izaki eta, argia bakarrik zuen gai pintagarria. Bañan emengo argia, apal, goxo». Orobat esan dezakegu, Gurutzeko Jon Deun espaiñar olerkari gailena lez, aspaldian erdi-azturik dauden gure olerkari askogatik ere.

Jardunbide orrekin kalte ez txikiago dakarkiogu geure erriari, eta denona dugun, euskerari. Ezer ez dana goretsi ta zerbait duguna ixil-azteak nasketa izugarria dakar errian, ez bait dakigu orrela zein dan alea ta zein dan agotza. Euskal idazle ta olerkarien artean maiz utzi ditugu bazter, zoritxar aundiz, benetan baliotsu izan ditugun, edo-ta gaur ere ditugun, gizaseme argi ta langilleak, bizi-tzarte osoa Euzkadi'ren alde eman dutenak, bat ere oroitzen gabe, eta ez azturik sarri beren-beregi naitara baizik.

Auetan bi Jokin Zaitegi ta Andima Ibiñagabeitia ditugu, ale onetan aipatzen diranak. Ez bata ez bestea ez dira izan gure literaturan bear aiña goratuak. Aizu bekit beiñola Gaztañaga'tar Jesus'ek

«Goiz-Argi»-n idatzitako lorreak emen berriztatzea. «Milla eratarra —dio Zaitegi'z ari dala—, baiña... bazterturik utzi izan dugu. Eta alperrik dira orain, il dan ondorengo ai-eneak eta zotiñak. Nork esan lezake, bear aiña lagundu dionik? Zaitegi'ri ta arek bere eskuz zeraman lanari zor zitzaion aiñean lagundu dionik, nor ausartuko da esaten?».

Ez duzu au aizeak deraman orbela, egi-egia baizik. Onela jarraitzen du Gaztañaga'k: «Geiegikeriak jalkitzen ari geranik uste ez dezan iñork, Mitxelena'ren itz batzuk aldatuko ditugu: «Zaitegi'gan, askok —ni beintzat orietakoa nauzute— idazle landua, ikasia, ikusten dute, euskaltzale sutsuaz gaiñera: antziñakoengandik datorkigun jakinduri aberatsaren ondorengoa, aspaldiko jakinzale eta jakintsuen ondarea euskeraz azaldu eta zabaldu nai duen burulangille bizkorra» (*Egan*, 1963). Eta ala ere ez da izan... ez dute egin «euskaltzain», ez osoko ta ez laguntzaille ta ez oorezko. Adibide txiki bat da, il ondorengo jarrera ta jokaerek zuzendu eziñekoa» (1979, iraillak, 8,18 or.).

Zerbait, orraitio, egin dala aitor dezakegu: *Iokin Zaitegi* (Donosti, 1981) 225 orrialdeko Iiburu bikaiña, gaur Eusko Jaurlaritzan kultur arduradun nagusia dan Josemari Velez de Mendizabal'ek aren bitzta ta lanai buruz idatzia ta argitaratua, gure gurariak betetzekoa da.

Berdin esan genezake Andima Ibiñagabeitia, elantxobetar jakintsuagatik ere. Orain berton irakurria dut: gudu osteko euskal isazleetatik, euskera jatorra ikasi ta lumaz erabilli opa dutenak, Orixe, Zaitegi ta Andima irakurri ta ikasi bearra dutela. Ortan nago ni ere. Irukoitz au ez dala edozelakoa. Izango dituzte beren akatsak, eta gaur, kritika egiteko diot, oien billa gabiltza, zuzatan bezela, arduratsu. Baiña, oroar, nekez idoro oberik.

Ibiñagabeitia'z baifia ezer idatzi ote dugu? Euskeraz makiña bat lan eder burutu ondoren, Karakas'en il zan 1967'an. Adiskide miña nintzan arena; ainbat idazki ditut nere paper gordetakoen artean. Joan zitzaigunean, aren omenez —Orixe'ren omenez bezela— liburu mardul bat ateratekotan nengoan, baita aren illobari Kara-

kas'era idatzi ere osabak zeuzkan lan batzuk eskatuz. Ez nuen eran-tzunik izan. Arek zituen lan batzuekin —biologia ta abar— eta «Gernika»-n eta «Euzko-Gogoa»-n eman zizkigunekin, bilduma eder baten atera nai nituen. Etzan bete nere asmua, eta oraindik ere egiteke dago lan ori.

Ederto, txit ederto zekien euskeraz Andima'k eta aren lumatik irtena beti dugu jakingarri. Liburuaren iritzi-emateari dagokionez, ez da oindio ura lakorik gurean agertu.

OARRA;- Elerti kondaira oni asiera ematerakoan, sei-zazpi liburu izango zirala idatzi genduen. Esku artean daukazuna duzu, irakurle, seigarrena. Ontan laguntzaille izan ditugun guztiak, biotzez, eskerrik beroenak, artutako mesedeari esker ona zor zaio-ta.

Zazpigarrenarekin amaitiko dugu EUSKAL LITERATURA au, azken urteotako idazleak oro aintzat arturik. Asko dira gaur-egun idazten dutenak, naiz-ta nor-tzuk diran sarri ez jakin, izen-ordez idazten dutelako. Ia korapillo au askatzen dugu al danik eta ondoen.

GIPUZKOA 1920-1950

«Gauza batek, eztabaidatzen bitartean irakurten dugu *Goiz-Argi-n* (1979, iraillak 8,19 orr.), bizirik iraungo du. Gauza edo ekin-tza ortaz arduratzen baldin ba'gera, ilko dan beldurrik ez dugu izan bear.

«Jakiña, arinkeriz eta bidegabekeriz ez ditugu eztabaidatu bear. Alde on eta txar guztiak aztertu bearrean aurkitzen gera; neurritz ibilli bear beti.

«Eta zer gertatzen da Euskerarekin? Iñoiz baiño eztabaidatua-goa da; iñoiz baiño ugariagoak ditu, gaur egun, bere alde ta berdin bere aurka daudenak. Guztiok aopean or darabilkigu munduan dan izkuntzarik zaarrena. Eta guztiok dugu arrazoi, guztiok dugu egia.

«Asieran nion bezela, eztabaidatzen dan guztiak ba-du bizia, ba-du bere mundua; baiña, izkuntza batek, Euskerak, beti eztabaidatua egon bear al du?

«Nere iritiz, izkuntzak ez dira eztabaidak sortzeko, ez dira, setakeriak eta borrokak sortzeko ere. Ez lukete izan bear beintzat. Onekin ez dut esan nai, izkuntza bat obetu bear ez danik; ez orixe. Baiña txukundu, jorratu, apaindu ta obetzetik, setakeriak sortu-erazteraiño oso bide aundia ta luzea dago».

1.- MIGEL ITURBE ALDERDI (1900-1976)

Karmeldar. Azkoiti'n jaio zan 1900-2-10'an. Larrea'n egin zitu-
tuen zin-itzak 1916-7-28'an, apaiztasuna 1923-11-1'an arturik. Urren-
go urtean, nagusien aginduz, Txileratu zan, eta ementxe, 52 urte-
tan apaiz-Ianari gogotsu ekin ondoren, Santiago'n il zan 1976-4-30'an.

Bazuen doairik aita Modesto'k —auxe bait zuen Ordenako izena—, izlari errime, organu-jotzaille trebe ta abesle ez axkas izan zitzaigun Txile'ko lurraldeetan; idazle ez nagi ta mixiolari ospatesu Temuko, Puerto Monti, Txiloe ta inguruetan illabeteak eta illabe-
teak egiñik Kristoren uzta-soro zabaletan gari-bal aberatsak eskuratzen.

Eta euskal idazle. Teologi-ikasle zala Begoña'n ba-zuten, toki askotan bezela, barne aldizkaria, «Adarra» zeritzaiona, 1929'tik «Gautxori» biurtua. Emen idazten zuen Iturbe'k, eta gero, Txile'tik bialduta, beronen ainbat euskal lan agertzen dira «Karmen'go Argia»-n.

Jarraibide ona euskal idazleentzat, lantxo bat idatziz gero, idazle titulua merke saltzen dutenentzat. Norbere izkuntza maite duenak, nun-nai aurkitu, beti erakutsiko du barruan daraman beroaren gorria. Uztar-beiak erosi-berri ditun basarritarrak ez du esango, ez orixe!, bein bakarrik ondo tiratu dutela-ta, bikote bikain danik.

Onak badu anai bat ere Karmeldarra, Gotzon Iturbe, 1902-1-14'an Azkoiti'n jaioa ta gaur Santander gure komentuan organu-jotzaille dana. Gu Larrea'n ikasle giñala 1925-26 ikastaroan irakasle izan zitzaigun, eta nik ozenki aitortu bear dut au, bera izan zala niri olerkigintzan leen-urratsak ematen irakatsi zidana. Dizdiz beza esker onak.

(Ikus *Bolelm Oficial de la Provincia de San Joaquín de Navarra*, Gazteiz, 1976, 86 zenbakian, 111 on.)

2, JOSE ANTONIO GARATE MUJICA (1900-1974)

Azkoiti'n jaiotako Aita Narkis —olan deitzen genion Ordena barruan— 1900-1-17'an. Gizaseme ona ta lanari emana. Karmeldar izan naiean, Billafranka (Naparroa)'ra joan zitzaigun Ordenako ikasketak egitera. Asi-berri, Larrea'n jantzi zuen karmeldar soñe-koa 1917-7-11'an, urrengo urtean uztaillaren 22'an profesia egiñik.

Ondoren eliz-karrera osatu zigun Markiña'n, Gazteiz'en eta Begofia'n. Karrera bukatu aurretik Teologi-irakasle izan zan 1925'gneko ikastaroan; urte ortan artu zuen apaiztasuna, iraillaren 19'an, Gas-teiz'en.

1933'ango kapituluan, maiatzaren 12'an, Gasteiz'ko komentuko nagusi-ordeko izentatu zuten, eta urrengo kapitulu edo batzarrean, 1936'an, Probintzialaren Irugarren Aolkulari, gerra aldian ere Gasteiz'en, kuartel edo presontegi biurturiko karmeldar komentuan jarraiturik. Ementxe ezagutu zuen Lauaxeta, ainbat lagundu zion bere naigabeetan, eta gerora ere, urteetan, oroigarri baliotsu bezela zaindu ta gorde zituan aren olerkiak eta...

1938'an Soto-Iruz (Santander)'eko komentuko buru egin zuten, eta 1942'an Larrea'ko Priore. Ondoren emen bizi izan zan ogei bat urtean, asi-berrien maisu ere ez gutxitan izanik. 1963'an Altzo'ko nagusi izentatu zuten, eta antxe zegoela gaixoturik Donostia'n il zan 1974-3-10'an.

EUSKAL IDAZLE.- Begofia'n ikasle zala asi zan idazten, orduko ikasleen artean ateraten zuten «Adarra» aldizkarian. Gerra ondoren «Karmelen» datoz aren lanak. Baiña bere lanik ederrena Alizon egin ziguna da, dudarik gabe: Teresatxo Deunaren «Histoire d'une Ame» (Arima beten kondaira) edo obeto, «Manuscrits Autobiographiques» euskeraz. Lan osoa da, euskera goxoa darabil, bizi-tza guztian egin zuena.

(Ikus *Boletín Oficial de San Joaguín*, (Gasteiz, 1974, Urtarrilla-Bagilla, 592 rr.).

3.- ALEJANDRO EZKURDIA (1902—1979)

Frantziskotarra. Oriñ jaio zan, eta Zarautz'en il 1979-12-24'an «Gizon zeehatza —dio Aita Villasante'k—, isila; bere bizitzarik gehiena natur zientziak irakasten eman zuen, bai Nafarroako Erriber-rin (Olite) eta bai Arantzazun. Bietan kantari taldearen zuzendari izan zen, Arantzazuko kolejioko mutikoen Erretore ere bai. Aranzadi elkartearen bazkide».

Idazle gisan erderaz idatzi zuen geienbat. Ona aren lan batzuk:

1) *Jentillen paso-lekua en Aitzabal-Aranzazu* (Munibe, 1953, 18).

2) *El pastoreo en la zona Urbia-Oltze* (Anuario de Eusko-Folklore, 1955, 161 orr.).

3) *El nuevo Colegio Seráfico de Aránzazu* (Cantabria Francisca-na 1961, 71 or.).

4) *Notas sobre el empleo del patronímico en Orio, Guipuzcoa en los siglos XVI y XVII* (Euskera, 1978, 59 orr.).

(Ikus Aita Villasante, *Euskera*, 1979,2,24,865 orr.).

4.- MIGEL MARIA ZUBIAGA IMAZ (1903-...)

Segura'n jaio zan, 1903-9-29'an. Aita bizkaitarra zuen eta ama giputza; baiña umetan Zornotza'ra etorri zan bizi izaten. Batxilera ta abar osotu ondoren, Loiola'n sartu zan jesuita, gero Oña'n, Barzelona'n, Alemani'n eta Frantzi'n jarraiturik bere ikasteak. Holanda'n apaiztu zan 1934-8-28'an.

Irakaskintza izan da arrezkero bere lanik beiñena. Gazteak maite izan ditu, baita itxasoko gizonak ere: bion ardura ta kezka, leiatsu lan egin du noiznai ta nunai, Orduña'n, Donosti'n, Loiola'n, Logroño'n, Las Palmas'en...

Euskal idazle.- Idazle bikaiña dugu. Toki askotan agertzen dira bere lanak, «Jesus'en Biotzaren Deya»-n, Zornotza'ko «Jaungoiko-Zalc»-n, «Goiko Intza»-n, Donostia'ko «Argia»-n, «Zeruko Argia»-n, eta abar, bere izenez eta izenordez.

Liburuok ere aipagarriak dira:

1) *Loiola'tar Iñazio Deunaren Gogo Jardunetako Gogorakizunak* (Bilbo, 1928). Mensajeroak argitaratuta.

2) *Zerain'go Artzaintxa*. J.I. Gerriko'ren biritza.

3) *Indar-iturria* (Donostia, 1979). 200 orr. Otoitz-bi. Meratako liburua.

4) *Goizeko Izarro* (Donostia, 1980). Usurbil'go «Izarra» irarkolan. 238 orrialde.

Lourdes'en eglña eta ango Andre Maria'z batez ere osatua duzu liburu txanbelin au. «Igaz bezelaxe —dio egilleak sarreran—, aurren ere, eta igazko aldi ta eginkizun ber-beretan —azaroan eta gogojardunak eragiten, alegia—, amar egunez, Lourdes'en genoalarik, bidenabar, liburutxo au biribildu, orraztu eta sarrera-itz auetxek idazten dizkitzut, irakurle. Toki oberik aukera ote zitekean? Nekez oso. Izan ere, gaur-gaurkoz beñepein, Lourdes'i «Andre Mariaren erria» izena bait dagokio. Eta alaxe eun-da-ogeita-amaika urte ezkerero. Orduratean, mendi-zoko ta amildegi tarteko bazter-erritxo ezezagun bat besterik etzana. 1868'an, Andre Mari Bernardatxori,

emezortzi bider, agertzez geroztik, izen argitsua dualazkoa, eta kristauen joerarik aundieneko erria degula, naitanaiez, aitortu bear...

«Ementxe, bada, aspaldi-aspalditik idazteko gogotan genbiltzan Ama Birjuñari, euskera utsean, eskeiñitako liburutxo au bukatzen dizut... Orduan, Loiola'n, makalik eta gaxo-gaxorik egon arren, bizitza osoan langille bizkor, nekagaitz eta bakan izanik, eriotz arterakoxe lanean gogotik iraun, eta lanean il ere egin zitzaigun, Aita Iñazio-Mari Manzisidor, azkoitiar jator zana eta biok, alkarrekin idaztekotan geunden-da. Aspalditik genbiltzan ala...

«Liburuxka au, bada, aren ordeaz eta aren oroigarriz ez-eze, arekin batera idatzitako bezela, jaso, irakurri ta ausnartzen saiatuko aal zaizkit».

(Ikus «Argia»-ren Egutegia, 1936, 75 orr.; J. San Martin, *Apendice a Escritores euskericos*, Bilbao, 1969, 36 orr.; Auñamendi, Literatura, V, 419 of.).

5.- JOSE MARIA BURGANA BELAUSTEGI (1905-...)

Motriku'n munduratua, 1905-6-4'an. Guda aurretik ainbat erri-izpar bialtzen zituen «Euzkadi»-ra ta «Argia»-ra. Idazle ixilletakoa dugu, baña zindo ari dana; oian egal bakarrean egonik ere, igalefrutu ugari dakarren zuaitzaren pareko. Gudaldian emetik aldeegiña, gaur Karakas'en bizi da, ango ta Mexiko'ko euskal aldizkarietan oindio ere idazten duela. «Buru-Mendi» erabilli zizun lanak izenpetzean.

Erderaz ere idatzi izan du zerbait, *Apuntes de la vida del pescador* (Ikuska, 1947, II, 59 orr.), adibidez.

(Ikus Auñamendi, *Literatura*, IV, 105 orr.; Jon Bilbao, *Eusko Bibliografía*, II, 171, orr.).

6.- IÑAKI GOENAGA ALBERDI (1905-...)

Azpeitia'n ludiratu zan 1905-1-11'an euskal idazle yaukal, urdu-ri au. Len-ikasketak bere sorterrian osatu ondoren, 1924'an geukan au ere Zaitegi, Lauaxeta, Andima ta aiekin, alkar-iztetaz ta euskal idazti bipillak irakurriz euskaltzale porrokatu biurtu ziranekin, alegia.

Aien adiskide min eta Orixe'ren ikasJe izan zan gero Xabier'en, ta ikasleari naitaez irakaslearen zerbait itsatsi bear. Eta, egin-egiñean ere, karrera ikasten ari zan tartean ainbat lan azaldu zizkigun. Bilbao'ko «Jesus'en Biotzaren Deya»-n baitik bat. «Sistiya» ta «Oñatz-mendi» darabilzki geien bat bere lanak firmatzean, izkirimiri ta ipuin bizi luzeak nunbait, antzetsu ta ederki borobilduta daudenak. Geroago «Zeruko Argia»-n ere idatzi du, idazle jatorrari dago-kionez.

ANTZERKI-LANAK.- Gaztetatik zekarren gaitasun berarizkoa antzerki lanetarako: «J. Biotzaren Deya»-n atera zitun ipuiñak errez antzetzutekoak dituzu. Beste batzuen artean, teatru-lan biok, bereak ditu, naiz eta itzuliak: 1) *Zenbatean sagarrak?* (Tolosa, 1932). «Antzerti»-n dator 7'garren zenbakian; Lope de Rueda'ren «Las Aceitunas»'tik J.L. Nazabal'dar Jesu'k erderatik euskeraldutako. Lope Mendizabal'en irarkolan. Lau orrialde.

2) *Wilhelm Tell* (Donosti, 1934). Schiller doixtar antzerkigille aundiarena euskeraz. «Yakintza»-n dator: 1934, (II), 89, 177, 263, 344, 413 ta 1935, (III), 24, 105 orrialdeetan. Txit ondo biurtuta daukazu. Ona zatiño au ao-gozagarritzat, laugarren ekitaldiko bigarren agerraldikoa:

EDUBIGE.- Eta zuk, malkorik baiño ez duzu, zure lagunaren zori txarrerako? Gizonik onena lotu zutenean nun ziñan? Nun zure laguntza? Antxe ziñan eta gogorkeriari aurka egiteke, zuen laguna eramaten erraz utzi zenduan. Zurekiko orrela izan al da Tell? Bate-tik, Yaurliariaren zaldunak ondoren; eta, bostetik, aintzira zure aurrean orruka zenduelarik, erruki utsa baiño ez ote zizun erakutsi? Zure zoria malko utsaz etzuan tamal izan; aitzitik yauzkatu ontziskara, ta emazte-semeak azturik, gaizkatu ziñuzan eta...

Walt.- Izkillu gabe ta lagun gutxi izanik, zer egin gentzakean aren alde?

EDUBIGE.- (*Besarkatuaz*). Aita! Zuk ere galdurik duzu. Aberria, guziok galdu dugu. Guziok, ai ene! Bear dugu, eta bera gu guzior bearrez dago. Aren biotza Yainkoak azke dezala uste gekeritik. Gela zulo ondarreraño elduko zaion lagun-itx goxorik ez da... Eta gai-xotuko ba'litz? A! Espetxeko illunpe ezoan, gaixotuko da. Alpen'eko larrosa istingan zurbildu ta yaulkitzen dan bezela, ura ere, ezin ba bizi eguzki izpitan ez ba'da, eta aize gozo eta lurruntsua arnastuz ezezik. Espetxeratua ura? Aren arnasa azkatasuna da; ta ezingo da bizi lurpeko egurats artan» (*Yakintza*, 1934, 420 orr.).

Olerki txanbeliñak ere ba-ditu or-emen.

(Ikus S. Onaindia, MEOE, 1043 orr.; J. San Martin, *Escritores euskericos*, 90 OIT.; L. Mitxelena, HLV, 154 orr.; Bitaña, *Herria*, 1965, 779 zebakian; A.M. Labaien, *Teatro Euskaro*, II, 167 orr.; Auñamendi, *Literatura*, IV, 101 orr.; J. Bilbao, *Eusko Bibliografia*, IV, 64 orr.).

7.- ERRAIMUN ARGARATE (1906-...)

Urretxua'n jaio zan 1906-1-7'an. An bertan lenengo ikasaldiak esotu ostean, elizgizon izan nairik, Loiola'n sartu zan jesuita 1921'an, bertan, Oña'n eta Marneffe'n apaiz-karrerako ikastaroak biribilduaz. 1936'an Txina'ra zuen mixiolari, mixiolur artan urte askoz lan eder-ederra egiñik. Gaur Filipinas'en diardu bere arloan.

EUSKAL IDAZLE.- Au ere, 1924'garren urtean, Loiola'n «junior» bezela latin, eladera ta elertiak ikasten zebiltzala euskaltzale gertatu ziran euskaldun aietakoa dugu, Andima, Zaitegi, Lauaxeta, Muxika, Larrañaga, Zubiaga ta abarrekin. Oña'n zegoela asi zan idazten, eta bertsoz idazten asi ere.

Garai artan, izan ere, ots, mixiolari joan aurretik, ez dira gutxi A. Erraimun'ek ondutako olerkiak, «Euskal Esnalea»-n eta «Je-

sus'en Biotzaren Deya»-n argitara emanak baitik bat. 1928'an Oñatik bialdu zuen Donostia'ko «Euskal Esnalea»-ra K. Etxegarai'ri eskeiñitako *Idazlearen oyua yaioa*; urte berean asita dauzkazu «Jesus'en Biotzaren Deya»-n ere olerki bizi jainkotiak.

Autatik bat aipatzeko, ona *Iñaki ta Mariarena* deritzan ipui atsegiña, ederki borobildutako ahapaldi beroetan trozatuta. Negu batez, afal-ondoan, sua ñirñir bere aitari entzuna du, ipui polita, Iñaki Deun eta Mariarena. An, urruti, Loiola ibarra, eta bertan Loiola jauregia, zuri-gorria, zabal aindua, luze-estuak dauzka leioak... Antxe bizi da Iñaki, erdi-gaxo, argal, txuri-txuri. Goiz batez, eguzkiak ataria argitzean, etxea utzi ta Olatz erako bidea artzen du; nekez doa, baiña barne-kemenak azkartzen.

Mendian zear, ibai ta zerura begira, txapela buruan ta makilla eskuan, neke-neke ta illun dabil lore artean. Olerkariak onela kantatzen:

«Olatz-elizara... Ormatxe ondotik...
arintxu aldapan zijoan. Oi! goitik
sagasti adarren, lore txuri-berrik
burua ikutzen zioten: txori bik
 api bat-baten
 buruk jasoten...
 Olatz bidia
 zoragarria!
Uxoa, zerutik jetxi dari uxoa
zirudin Olazko eliz panpintxoa:
orma zuri-zuri ta tellatu urdiña
aingeruk zioten, jo-joaz txintxiña:
 «din-dingilin-dan...
 ator aizean;
 din-dingilin-dan...
 ator pozean».

Elizan sartu da Iñaki. Eta an dago, bazter batean. Ama alda-rean. Biak elkarrri begira samurkiro. Iñaki'k, negarrez, makil be-

soetan burua etzanik, otoitz gartsua dagio Amari. Poza nai du; zauritua du belauna, baiña zaurituago biotza. «Ikutu nazu —diotsa Amari— Zuk, Ama, ta poztuko zait biotza». Biotza asetu nairik, besoan daukan Semea eskatzen dio, ta Amak eman besoko aurtxoia. Olerkariak darrai:

«Ai! ta nolakp «pa» eman aurtxoari!
poz-pozez Iñakik ekiten negarri.
Ara negarrez,
ara pozpozez.
Negar aietan
bizi nai zuan».

Eguzkiak etxe-atea jo duneko, mendi-zear dator Iñaki Amari abesten.

Olaxe goxo ta atsegingarri idatziak ditu Argarate'k bere koplak, Beraz, «euskal-idazle ta olerkari zoragarri» esaten dio J. Zaitegi'k.

Itz lauz ere poliki asko idatzi digu. *Eusko-langilleei oyuak* adibidez, «Euzko-Gogoa»-k argitaldu zuena. Ikus 1950, (1) 23 orr.; (2) 24 orr.; (3-4) 37 orr.; (5-6) 50 orr.; (7-8) 36 orr.; (9-10) 26 orr.; eta 1952, (1-2) 52 orr.

Oiu oiek, eusko langilleak gogoratuz, ia ogetamar urte lez idatziak dira, gaur ere bir-esan litezkenak. °Itoaldiak —dio— gaur inguratzen gaitu. andik emendik, ekaitza auditu da ta orru ikaragarri gure buruetan bertan lertu zaigu. Amaika euzko ondatu dira. Amaika euzko langille galduak dira. Geienak oraindik oyuka gure zai daude... ito bearren... il zorian... azken zurrunketan... Euzko langille! aurrera bildurrik gabe, zure anai errukarriei lokarri muturra luzatzera. Aurrera! alkartasunaren babesean langille guziak batzera, ekaitz erditik ta zurrunbillo guzien zulotik euzkotarrak ateratzera, ito ez ditezen betiko» (*Euzko Gogoa*, 1952, 1-2, 52 orr.).

(Ikus S. Onaindia, MEOE, 876 orr.; Auñamendi, *Literatura*, IV, 107 orr.; Jon Bilbao, *Eusko Bibliografia* 266 orr.; J. Zaitegi, *Olerkiak-Lauaxeta* 1974, 6 orr.).

8.- JOKIN ZAITEGI ETA PLAZAOLA (1906-1979)

Zaartzaroan, betikoz Euskalerrira biurtu zanean, onela idatzi zigun Zaitegi'k: «Sortzez eta gogoz Arrasate'ko semea nauzue, erri zaarrek «Arteko» kalean jaioa, bizitzez, alabearrez, eta zuzentasunaren alde jokatzearren, bizitzarte osoan erbestean bizi izanda, euskaldun non-naitiar gertatu izan naiz. Zorionez, zaartzaroan bada ere, etxeratu egin naiz».

GIZONA.- Bere errira itzuli zan, Arrasate'ra, ementxe bait zan jaio 1906-7-26'an, goizeko iru t'erdietan. Bere gurasoak: aita Juan Zaitegi Ibarzabal eta ama Franziska Plazaola Martinez Alegria, biak arrasatearrak. Ongi azi zuten beren seme au batez ere, besteei ezer kendu gabe. Amalau urte bete arte Arrasate'ko eskolan ikasi zuen, «kallekume xango xuri» izanik, etxean eta kalean lagunekin euskeraz egiñik.

Egun baten Aita Basabe lekeitiarra, josulaguna, Durango'tik ara joana zan, Gogo-jardunak ematera, eta oni azaldu zion Jokin'ek josulagun sartzeko asmoa. Izan zituen amaren eragozpenak, baiña azkenez ere 1920'ko uztaillean Durango'ratu zan ikasturtea asteko. Aita Biktor Iriarte izan zuen irakasle, «sekulan izan dudanik bikaiñena» dio Zaitegi'k, eta onekin ikasi zitun latera ta gerkerba-
te z ere.

Urrengo urtean, 1921'ko uztailaren 27'an, Loiola'n daukagu; baita auek ere geroago euskal idazle aundi izango diranak: Andima Ibiñagabeitia, Esteban Urkiaga, Plazido Muxika, Argarate, Iñaki Goenaga, Korta anaiak, eta besteak. Aita Martin Garmendia, tolosarra, izango dute nobiziadu-urteetan arduradun; 1923'ko uztaillean botoak, eta Giza-elertia, ots, klasiku zaarrak eta munduko literatura, izlaritza, mintzo-antzea ta olakoak ikasten jarraituko dute. Euskera pizkat ere bai, gaiñerakoaren gain, naiz-ta gero aipatuko dugunez-asmo bikaiñez jantzitako taldetxo bat euskal alorrean ixilpeko lan ederra egiten asi.

1926'an, Loiola'ko egotaldia amaitu ta Bureba'ko Oña'ra doaz josulagun gazteak Filosofia eta Teologia, iru edo zazpi urtez, zelan dan, ikasten. Gaiok ematen ziran bertan: Logika, Metafisika, Fisika, Kimika, Goi-matematikak, Psikologia, Etika eta Natur-Zientziak. Baita Pedagogia ere. Zaitegi'k iru urte igaro zituen bertan eta, gai guztiak kezkatu aztertu zituelarik ere, Filosofi-ikaskizunak bereziki erro-errotik ikasi ta aizatu zizkigun. Irugarren urterako «Doctor in Philosophia» titulua bereganatu zuen.

Amaitu du Zaitegi'k Oña'n iru urteko ikastaroa; ariketak egin bear ditu Ikastetxe baten, eta Venezuela'ra bialtzen dute nagusiak. Merida'n burutzen du lan ori. 1932'an Belgika'ko Marneffe'n ikasten du Teologia, an bertan leenengo meza abesturik 1935'an, Iñaki Deunaren egunean. Urrengoan amaitzen ditu bere ikasketak, eta Morialme'n nobiziadua bukatzeko urte bete osatu ondoren, 1937'an Ameriketara berriz ere. San Salvador'eko apaizgaitegira zuen jomuga, baiña ara orduko sei illabete eman zituen Panama'n, sartzeko baimena lortu artean, ez gero geldirik, ingles ikasten baiño. Zazpi urtez irakatsi zuen San Salvador'en, 1938'tik 1944'ra.

Giza-barrua baif ezkututsu! Zaitegi, ziur zergaitik ez dakigula, Lagundia utzi ta Guatemala'n dago, 1944'an. San Carlos Ikasgu nagusian irakasten du leenengo, eta Instituto America'n gero. Andik zazpi urtera, 1951'an, berak bere Lizeoa, «Landibar» deritzana, sortzen du. Aurretik, 1950'n, «Euzko-Gogoa» sortu ta zuzendu zigun. An ditu laguntzaille Andima eta Orixe. 1955'an aberriratzen da; «Euzko-Gogoa» ez dioa berak nai bezin ondo eta emen atera gura du. Ala ere, egiñalak eginda ere, ez zuen lortu baimenik ez eliz ez erri-agintariengandik: Biarritz'en atera zigun bost urtetan. Eta azkenik, 1960 erdirantza itzali zan, Velez Mendizabal'ek dioskunez, «honela bere sortzailearen bihotza erdi urraturik genuelarik, gerra ondorengo lehen euskal aldizkaria» (*Iokin Zaitegi*, 1981, 124 orr.).

1956'ko iraillean, 23'tik 29'ra, Euskal Kongresu Orokor bat ospatzen da Paris'en.

Paris'en eta ortik sortu zan «Euskal Kulturaren Aide»-ko Batzorde bat; auek osatzen zuten. J. Zaitegi, buru; J.M. Barandiaran, J.M. Leizaola, Josu Solaun, T. Monzon, J. Rezola, eta Manu Sota, bokalak; Gonzalo Nardiz, diru-zai eta Andoni Urrestarazu, idazkari. «Agire Saria» irasi zuen Batzorde onek, 1.000 dolarrekoa, iru urtetik iru urtera emango zana, euskeraz ondoen idatzitako liburuari eman ere. Leenengo urtean (1963) B. Gandiaga'k jaso zuen «Elorri» poemagatik; 1966'an, S. Onaindia'k bere «Bertsolariak» liburuagatik; 1969'an, M. Lekuona buru zala euskeraturiko «Liturjia Berria» osatu zuten taldekoak; 1972'an, Orixe'ren «Jainkoaren Billa» saritua; 1975'an, J. Kerexeta'ren «Eliz Guraso Apostolikuak» izan zan irabazle. Etzan geiago eman.

Berriz Guatemala'ra. 1961'ko urrillaren 13'an onela idazten du Zaitegi'k: «E.K.A.-koen azkenengo batzarrean auxe esan bearrean aurkitu nuen nere burua: ikusiak ikusi, esanak esan, iasanak iasan, ni neu Guatemala'ra ioateko erabakia artua dudala, euskal gaiak utzita apaiz lanetan ari naiten ango gotzainburuaren esanetara. Erabaki gogorra, benetan, besterik ordea enukean». 1962'ko urtarillan irten zan arako eta an arima lanari ekin zion gartsu, amar urtetan noski. Euskal lana utzi gabe, ziurki, antxe bait zizkigun euskeratu Platon'en ainbat liburu, gero argitara emanak. 1972'ko uztaillaren 20'an agur egiten dio betiko.

Arrasate'n bizi dan, naiz-ta osasunez naiko larri. Ama iltzen zaio 1972'ko urrillaren 28'an, 92 urteko zala. Omenaldiak-eta artzen ditu, 1976'ko abenduaren 19'an Arrasate'ko udal-etxeak egiña, adibidez, eta 1976'ko azillaren 25'an, Larrea'n «Olerti Egunez egin geniona. Obeki zaindu ta erosoago aurkitu zedin, Oñati'ko San Martin Egoitzara eraman zuten. Demetrio Aierbe'k eta nik emen egin genizkion bisita batzuk eta beti idoro genduen idazten eta umore onez; azken bisita egunean, bere gelako mai gaiñean kuaderno bat zeukan eta bertan idazten zuen, eskuz, Platon'en liburuetakoz azken itzulpena. Eriotz-unerarte euskera lanean...

1979-8-17'an il zan, Donostia'n.

IDAZLE.- Justo Garate'k eztigu gaizki margozten Zaitegi'ren idaz-zaleetasuna. «Borondate andiko idazlea eta biotz-zabalekoa dugu Zaitegi —dio—, duen ezaugarriarik nabarmenena ia bakardadean lanean aritzea delarik». Gazte-gaztetatik, eta bakar samar, euskal soloa urratu duena. 1920'an Durango'n ikasle zala asi zitzaigun euskerazko bertsoak esaten. Loiola'ko bigarren ikastaroan S. Mendiburu irakurten du, baita «Ami vasco» ere, eta garai artako euskal ikasleekin talde eder bat osatu ere, euskera geiago sakondu, idatzi ta idazle gerkar-Iatindar klasikuak euskeraz jarteko erabakia artu. Orrela egiñak dira auek beintzat: Ibiñagabeitia, Lauaxeta, P. Muxika, Argarate, Zaitegi bera, ta besteak. Emen zegoela asi zan Bilbo'ko J.B. Deyan idazten.

Olerkiz kanpo ere, ezta urria Zaitegi'k utzi zigun liburu sailla, itzuliak eta jatorrak. Ona:

1) *Kizkiña* (RIEV, 1933). Aita Laburu'k erderaz idatzitako «Citologia» euskeraz.

2) *Sopokel. Antigone* (Tolosa, 1933). «Antzerti», 20-21 zenbakiak.

3) *Ebangeline* (Guatemala, 1945). «Hispania» irarkolan. 76 orrialde. Henry Wadsworth Longfellov'en eleberria, euskeraz. Panama'n ingles-ikaskeran egindako lara.

4) *Sopokel'en Antzerkiak I* (Mexiko, 1946). Au eta «Goldaketan» Mexiko'n irarri zituen, «Pizkunde» zeritzan euskal Argitaratzaile etxean, Guatemala'n baiño merkeago egiten ziotelako. Izkuntza ezin egokiagoan itzuliak.

5) *Euzko-Gogoa*, aldizkaria (Guatemala, 1950-1955; Biarritz, 1955-1960). Euzkadi'ri eskeintzen dio bere lana, esanik: «Aldizkari au zuri, Euzkadi laztana, eskeintzen dizugu, gure gogoko ametsen barnemuiña baitzaitugu: bai, gure aleginak oro eskeintzen dizkitzugu asmorik zintzo ta garbienaz: zure gizabide ta betiko askatasun opaz». Olaxe jokatu zuen, an eta emen, gure erria ta bere izkuntza goi-maillatu nairik.

6) *Bidalien Egiñak* (Zarautz, 1955). 336 orrialde. San Salvador'en irakasle zala egifiiko lana. Orixe'ren itzaurreaz.

7) *Sopokel'en Antzerkiak II*: «Aiatz», «Tarakin'go Emaztekiak», «Pilotkete». (Baiona, 1958). 159 orrialde.

8) *Abere-indarra* (Euzko-Gogo, 1950). J. Benavente-ren bi ekitalditako antzerkia, *La fuerza bruta* esana, Zaitegi-Ibiñaga'k euskeratuta.

9) *Platon'en eko Atarian* (Donostia, 1962). «Platon —dio Zaitegi'k—, gizadiaren barnean izan diren lauzpabost filosofilarien arteko dugu», eta jakintsu onen esanak eta oldozkunak jantzi nai izan zizkigun euskeraz.

10) *Platon I*: «*Oturuntza*», «*Protagora*» eta «*Menon*» (Donostia, 1975).

11) *Platon II*: «*Gorgia*» (Donostia, 1977).

12) *Platon III*: «*Eutifron*» eta «*Sokrateren apologia*» (Donostia, 1978).

13) *Platon IV*: «*Kriton*» eta «*Faidon*» (Donostia, 1978).

14) *Platon V*: «*Ipia Txikia*» eta «*Alkibiada*» (Donostia, 1979). Bostok «Izarra» irarkolan.

Eta «Izarra» argitaratzaileak, beste kontu asko aitortu ondoren, au diñosku: «Berak esandako dakidanez, Platon'en lanak bukatzeko beste bost ale prestaturik omen zeuzkan, eta hau diot: Ez ote litzateke lotsagarria izango hainbeste lan egin ondoren, lan horiek argitaratu gabe gelditzea? Ez dakit noren egitekoa izango den» (Iokin Zaitegi, 162 orr.). 10) *Medea* (Donostia, 1963). Euripides'en antzerkia. «Egan»-en dator.

OLERKARI.- Esana danez, danok gara zerbait olerkari ta musikari. Zer da, baiña olerkari izatea? Zaitegi'k onan: «Ederra ederbegiz ikusi ta adieraztea». Eder-begia bear, ba, edertasuna ikusteko eta irakurriz ta ekiñez lortzen dan teknika, eder ori adierazteko. Zaitegi'k, umetatik zuen eder-sena, eder-miña aziagotu ta indarazi zuen gerkar eta latindar klasikuak irakurri ta euskerara itzuliaz.

Eta lan jatorrak osatzen asi zan. Noiz asi ote? Loiola'n zegoe-la, Argarate'k, Lauaxeta'k eta beste batzuk lagunduta, «Jesus'en

Biotzaren Deya»-n prosaz eta bertsoz idazten asi zan. Lauaxeta le-
nengo (1925), Zaitegi gero. Olerki-liburu bi utzi zizkigun mondra-
goitarrak. Ona:

1) *Goldaketan* (Mexiko; 1946). Bolibar irarkolan. «Pizkunde»
Euskal-Argitaratzallean T. Monzon'ek ere ementxe argitaratu zitun
bere «Urrundik» eta «Guda-oroi». 215 orrialde. Guztik 98 olerki,
jator eta itzuli, Loiola'n, Oña'n, Merida'n, Karakas'en, Marneffe'n,
Panama'n, San Salvador eta Guatemala'n egiñak. Auen artean ja-
rri zigun, aurrena ain zuzen, V'garren Olerti eguneko guduana zilla-
rrezko aritz-abarrez sariztutako «Tori nire edontzia». Marneffe'n
mamitu zitun garai artako bere oberenak.

2) *Berriz ere goldaketan* (Guatemala, 1962). «Hispania» irar-
kolan. 106 orrialde. 62 olerki guztira. Geienak jatorrak eta
1960-61'an Biarritz-en zegoela egiñak. Auetatik asko «Euzko-
Gogoa»-n argitara emanak.

Nolako olerkaria ote? Ona. Horatio'ren antzekoa, sarri. Lee-
nengotik irakurri bait zizkigun aren poema labur giarrak, eta aie-
tatik batzuk euskeratu, ezta arritzekoa. Rima onez egiñak dituzu
aren lanak, ots, rima onez eta neurri obez. Irakur amalauko au,
6/5'kokoa, «Ertzetik ertzera» deritzana:

«Neregan baturik ditut inoiz bat
ezin diratenak: nire osina,
bai dala sakona eta zikina!
zer zeranik noizpait asma ba'zintzat!

Neregan otz-bero dira orobat,
lan gorri nintzana, orain urdina:
atzo gozo zana gaur gezamina;
utsa, Iainkoa dut gogo erabat.

Begiak ortziruntz iaso ere nai •
enitukean au «ene Iainkoa
erruki» esaka banabil ernai.
Barreanean orruz dut itsasoa
ozkarbiko bake onaren erpai,
laborrian obe baitut gogoa».

(Ikus *Yakintza*, 1934. 356 orr.; S. Onaindia, MEOE, 996 orr.; *Euzko-Gogoa*, Orixe, 1950-5-6-8 orr.; G. Garriaga, *Bol. A.E.V.*, 1950, 36 orr.; ta 1966, 66,143 orr.; A. Ibiñagabeitia, *Euzko-Gogoa*, 1954, 5-8, 116 orr.; L. Mitxelena, *Egan*, 1962, 1-3, 85 orr.; J.S. Martin, *Escrilores euskericos*, 169 orr.; Auñamendi, Literatura, IV, 114 orr.; J. Bilbao, *Bibliografía*, 227 orr.; *Iokin Zaitegi*, Josemari Velez de Mendizabal, Arrasate, 1981, 225 orrialde; S. Onaindia, *Euskal Elertia*, 193 orr.; Otsalar, *Eusker*, 1979, 1-6, 311 orr.).

9.- ELBIRA ZIPITRIA (1905-1982)

Donostia'n jaioa eta bertan illa 1982-12-27'an. Gure izkuntzak izan duen lenengoetariko andereño izen aundikoa. Gerra orduko zabal zebillen bere izena: «Argia»-n idazten zuen euskeraz eta ikas-toletan euskeraz ta erderaz erakusteko, aur txiki ai ain zuzen, bide-rik errez ariñena berak asmatua dugu. Gerra aurretik au ere, Iruñā'n egin zuen bere aurtxoekin erakusbide onen eginkera soil bat, an Eusko Ikaskuntzaren ardurapean ospatu zan Napartar Irakasle-tzaren Batzarrean.

Guda ondoren ere, naiz-ta ixillik, ortan ari izan zan. An ezagu-tu nuen nik urte asko dirala, bere etxeko ikastolan, umetxo mor-doa lurrean apatx egiñik, alai ta pozik, kantu ta itz ikasten. Aren izakera berezia zanarren, oso adiskide izan giñan geroztik. Berdin dio Arenaza'tar Josu'k ere: «Urte asko dira Elbira ezagutu genduala bere Donostia'ko ikastola berezi ta txukunean. Lenengotik erri-miñez geisoturik egoala konturatu nintzan gorputzez txiki ta zimel baiña biotzez eta gogoz aundia, jakituriz aberatsa zala andereño a. Gure adiskide ona zan Garitaonaindia'tar Gotzon, «Mañuko abadea», ameskide kutun eta begiko izan eban. «Agur» aldizkaria sortu ta argitaratu genduanean lagunkide izan genduan lenengotik».

Garitaonaindia ta Mafiu auzo miresgarria ezagutu zituenetik ames berri sortu omen zitzaion barnean: ango illerian obiratzea nai izan zuen. Onela amaitzen du Arenaza'k: «Bere naia betetzeko Do-nostiko ikasle izandakoak ta beste lagun on talde bat ziran bere gor-pua aurretik zala, autobus eta berebilletan, Bermeo'tar ta beste biz-

kaitar lagun taldetxo bategaz batera Elbira Zipitria izan zanari azken-agurra egitera». Gabonillaren 28 zan. Gotzon il zanean, Zipitria'k, Maria Dolores Agirre'k eta nik Mañu ta il zanari buruz alkar izketa luze goxoa izan genduan.

(Ikus Auñamendi, V, 417 orr.; J. Arenaza, Zer, 1983, otsailla, 2 orr.)

10.- JUAN THALAMAS LABANDIBAR ENPARAN (1906-1981)

Irun'en, Beobia auzunean, jaio zan 1906-4-26'an, umetatik iru izkuntza —euskeraz, prantses eta espainiera— ikasteko giro onean jaio ere. Eliz-deiari erantzunik, Toulouse'ko Ikasgu nausi katolikuan ikasi zuen Jakintza, Paris'ko Sulpitzi Deunaren Apaizgaitegian Teologia osoturik. Ondoren, Baiona'ko ta Biarritz'eko aldaurietan espainiar langilleen kapellau izan zan. 1932'tik 1936'ra Gazteiz'en daukagu Seminarioan, Gizartizti Katolikua ta Prantses izkuntza erakusten; gudatean Prantzi'ra aldatu ta ainbat lan burutu zuen Paris'en, Donibane Lohitzun'en eta Akiz'en batez ere, emen Tilh'en txauburu bait zan izan 1939-1943 tartean. Donosti'n il zan.

EUSKALTZALE.- Idazle porrokatua. Aspertu gabe zirkin eragin dio idazkartzari. Ainbat izenorde erabilli ditu: «Juan de Enparan», «Juan de Landibar», «Basaburu», «M. Astiz Dorrea», «J.P. Yoldi». Olerki sail bat ere argitaratu zigun «Pagogaña»-z firmatuta.

Gerra aurretik, Gazteiz'en irakasle zala, J.M. Barandiaran'ek sortu ta zuzentzen zuen *Idearium* ddizkarian idatzi zuen; baita Donosti'ko *El día* egunerokoan eta Aitzol'en *Yakintza-n* ere, euskal kultura ta irakaskintzari buruzko gaiak erabilliz ia beti. Gerra ostean, 1938'an, Alberto Onaindia'k eta biak sortu ta zuzendu zuten Paris'en *Anayak* aidizkaria, Prantzia'n, Beljika'n eta Ingalterra'n zeuden euskaldun apaizen anaitasuna osotzen zuen lokarri ta atxikidura. Geroago, munduko bigarren guda bukatu zanean, *Genika* aldizkaria sortu zuen Donibane Lohitzun'en Rafael Pikabea ta Isidoro Eagoaga'rekin batera: politika gabea zan, J. Maritain'en kristau gizatasunean oiñarrituta Euskalerraren gogo-bdioak aldeztzen zitun. Arrezkero Irun'go «El Bidasoa», Donosti'ko «La Voz de España» ta «Egan»-en idazten du.

IDAZLE.- Etorri aundiko idazlaria, gauzak txukun eta leun adieraztea atsegin zaiona. Aipagarriak dira argitaratu dizkigun liburuok: *Contribucion al estudio etnográfico del País Vasco continental* (1931), *Laicismo y Cristianismo* (1932), *Aspectos de la vida profesional vasca* (1934), *La Mentalidad popular vasca segun Resurreccion María de Azkue* (1975), eta lan aukeratuak: *El sentido genesico del cosmos en la mitología vasca*; *El sentimiento cosmovital en las poesías de Lizardi*; *Erasmistas y reformadores vascos*; *El concepto personalista del hombre segun Pedro de Axular* *Xabier Zubiri*, ta abar.

Laster argitaratu emateko, aukeratuak: *Ei cardcter sacro de las primeras instituciones vascas*, eta *Tres testigos de lo universal: Francisco de Vitoria, Jose Maria Iparraguirre y Domingo Aguirre*.

Euskeraz ere ederki idazten du. Euskaltzaindiaren urgazle da. 1966'an, Tello kondeak Gernika irasi zuenetik seigarren eun urtebetetzea zala-ta, elerti-batzaldia ospatu zan Areitz Donearen uri gurenean; batzaldi aretako lenengo saria J. Thalamas'en *Euskaldun ospetsu batzuen erakaspenak* zeritzan lanak eraman zuen.

(Ikus J. San Martin, *Escritores euskericos*, 160 orr.; Auñamendi, *Literalura*, IV, 112 orr.; *Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones*, «Estudios» bilduma, 4 zenb., azalean).

II.-JOSE ARTETXE ARANBURU (1906-1971)

J. Artetxe'ren il-berria lau aizez edatu zanean, N. Etxaniz'ek idatzi zigun: «Egin dezu, Joxe, zure mundu ontakoa. Zure lagunartea eta zure berri okerren bat genduanean-edo, liburu baten, naiz aintzinateok gertaera baten billa-edo, bageneukan nora joana... Amaika aldiz igo gera Diputazioko zure lan-lekura, gure kerka eta naigabeak zerbait arintzera. Gaurko gazteak, ez zizuen barkatzen. —Utikan, integristak!— Eta zu, zin zuzen ere, liberal etxeko semea izaki zure Azpeitiko giro estu aretan... Azkenaldi ontan euskerazko zure lanek, erakutsi zuten, gure erriaren mintzaira zaar au zen-

bateraiño sartua ta errotua zendukan zure biotzean. Ez ziñan Jainko, Joxe, ez! Baifia zure kerizak on egiten zigun, gaurko naaste ta sinismen aul auen artean. Eta orain Jaunak eraman zaitu gure artetik. Biotza miñez, ezin etsi degu zure galera orren erdian» (*Zeruko Argia*, 1971, urriak, 3, 1'go orrialdean).

Azpeiti'n munduratu zan 1906-3-12'an. Eta Donostia'n il 1971-9-23'an 65 urtedun zala. Iñazio Artetxe, Zumarraga'n osalari-tza egin zuenaren anai. Ikastez berak bere burua jantzi zuen beste askok bezela. Gerra ostean, urte askoz, Gipuzkoa'ko Aldundegiko liburuzain izan zan. Euskaltzaindikoa.

IDADZLE.- Luma azkarra zeukan, eta atertu gabe idatzi zuen, euskeraz ta erderaz. Donosti'ko «Argia»-n eta «El Dia»-n asi zan bere lanak azaltzen. «Yakintza»-n ere ba-ditu, *Eltzo olerkariya* ta *Jean Barbier idazle ta olerkari*, oso txukun biribilduta. Gero ere idatzi zuen euskeraz «Egan»-en «Zeruko Argia»-n, «Aranzazu»-n eta abar. Erderaz, berriz, BAP, «Vida Vasca», «Banco de Vizcaya», «Yakintza», «Egan» «Libro de Oro»; eta olakoetan idatzi zigun. Liburuei buruzko iritzi-emate asko ere osotu zitun euskeraz ta erderaz. Aita Goenaga jasulagunak amerikar Ernst Hemingway'ren *Old Man and the Sea* (Agueroa ta Itxasoa) euskeraz ipiñi zuenean, Artetxe'k egin zion itzaurrea. «La Voz de Guipuzcoa» irratitik euskerazko itzaldiak eman zituen.

Orraitio, naiz eta bere berezko deia euskal idazle deia izan, gerra osteko giroak baitik bat, erdal idazle ugari biurtu zizun. Eta aren lanik garrantzizkoenak, erderazkoak dira. Ona sail bat: 1) *Una inquietud y cuatro preguntas* (Donosti, 1934); 2) *San Ignacio de Loyola* (Barcelona, 1941), bigarrenez (Bilbao, 1947); 3) Elcano (Madrid, 1942), bigarrenez (Donosti, 1969); 4) *Urdaneta* (Madrid, 1943), bigarrenez (Donosti, 1968); 5) *Mi Guipuzcoa* (Zarautz, 1946); 6) *Legazpi* (Zarautz, 1947); 7) *Caminando* (Zarautz, 1947); 8) *Mi viaje diario* (Zarautz, 1950); 9) *San Francisco Javier* (Zaragoza, 1951); 10) *Lope de Aguirre, traidor* (Donosti, 1951); 11) *La paz de mi lampara* (Zarautz, 1953); 12) *Vida de Jesus* (Zarautz, 1957); 13) *¡Portarbien.J.* (Zarautz, 1957); 14) *Saint-Cyran* (Zarautz, 1958); 15) *Cua-*

tro relatos (Iruña, 1959); 16) *Camino y Horizonte* (Iruña, 1960); 17) *Selecciones vascas* (Zarautz, 1961); 18) *Lavegerie* (Zarautz, 1963); 19) *Siluetas y recuerdos* (Bilbao, 1965); 20) *Discusion en Bidartea en un caserío de Sara* (Zarautz, 1967); 21) *De Berceo a Carlos Santamaría* (Donosti, 1969); 22) *Canto a Marichu. Autobiografía* (Donosti, 1970); 23) *El abrazo de los muertos* (Zarautz, 1970). Argitaratzeko getu utzi zituen: *Euskaldun fueritak* eta *Un vasco en la postguerra. Diario* (1939-1966).

IRITZIAK.- Ander M. Iruxo'rentzat, Joxe Artetxe, atzeko ormea jo duenaren antzera, idazle pot-egina dugu. Euskaldun arima izan eta erderaz ari dan idazlea, berea ez dan izkuntza ortan gailendu arren, beretzat eta beretarrentzat, kale egin duen idazlea danik ezin ukatu. Olakoaren gogai barrenekoena euskeraz sortu ta oretua zegoen, eta alere ez zion berezko itxurarik ezarri, sortzaille edo artistak egin oi duenez; barne-gogai ori adierazteko berea etzan neurkia erabilli zuen, bere adimenari arrotz dagokion jantzia noski. Artetxe, ba, porrot egiña dugu, bere gogoia euskeraz utsitu ez zigulako.

S. Garmendia'k gisa onetan: «Orain dela hiruzpalau urte, Euskaltzaindiak Etxegarairi eta beste batzuri gorazarre bat, oho-rezko aipamen bat egin zien. Etxegarairi Joxek hitzegin zuen Oroitzen naiz. Kopeta zabal, haundi, buruko adatsa atzera. Aurpegia trianguloan. Sendo, bero, sutan bailegoen irakurri zuen irakurri zuen guztia. Harriturik utzi ninduen. Ez zen hura nik ezagutzen nuen Joxe! Bazkal garaian, zenbait gazte bildu ginan haren ondora. Iritzi desberdinik azaldu zen. Joxe, bereari gogor Begiak, *su*. — Liburuetan agertzen den Joxe eta haragizko Joxe ez dira bat eta bera. Isilik geratu zen. —baleike» (*Z. Argia*, 1971, urriak, 3).

Fede sendoko gizasemea genduen Artetxe. Ta fede orren zioa kantatu zuen bere liburuetan; or Loidola'ko Iñaki, or Saint-Cyran, aukakoak noski, baiña bakoatzak bere bidetik Jainko billaketa bortitza osotu zutenak. Saiaera ta billaketa oiek, nola etzitun euskeraz azaldu-ta, asarre xmar dugu L. Aranburu-Altuna. «Artetxe izan zitekean besterik-dio. Euskeraz kanta zezakean bere bilaketa. Baina,

Artetxe horrela zen; eta zen bezala izaki, jaso behar dugu euskaldunok. Kontradizio baten agertzen bezala. Geure bikoiztasunaren expresio bezla. Gizon berantza zen, bai, Artetxe, baina aizken finean uskararen zaporea, ere destatu zuen. Euskaraz jaio zen eta euskaraz hilda. Bitartean bere erdal hitza zinezkoa zen. Eta tristerik bederan, egun, honela agurtzen dut nik: maluraz kutsatutako zintasan heroiko bat bezala. Ez, ez ginan ados. Geure jenerazioaz hitz gogorrik esan zuan. Baina geure eztabaidak jatorri berbera zuan: Egiaren bilaketa» (*Z. Argia*, 1971, urriak, 10, 3 orr.).

Dana dala, iritziak iritzi ta jokabideak jokabide, barne-oldar ziñezkoz eta gizabide leunez jokatu zuen nainoz, bai itzetan eta bai idatzietan.

(Ikus, J. San Martin, *Escritores euskericos*, 41 orr.; N. Etxaniz, S. Garmendia J. Lasa, *Zeruko Argia*, 1971, urriak, 10, 3 orr.; A. M. Irujo, *Bol. Am. de E.V.*, 1971, 87 zenbakian, 170 orr.; Auñamendi, *Literatura*, III, 509 orr.; J. Bilbao, *Eusko-Bibliografía*, I, 336 orr.).

12.- JOSE DOMINGO ARANA ARANA (1906-1970)

Donostia'n jaio zan 1906-2-25'an. Karmeldarra, Teresa Deunaren Basilio Aita. Mutiko zala Eusko-Ikaskuntzaren Idazkaritzan asi zan lanean, bere berezko deiari, ots, euskal literaturari lotua. On eta langille, euskal edesti ta etnografigazko lan batzuk sortu zitzaizkianean, Arana'k burutu zituen lan oiek, eta ederki burutu ere; lan oietarik asko gero «Euskalerrriaren Alde» aldizkariak eratzen zituen elerti-batzaldietan sarituak izan ziran. Onetan egin zuen lana txalogarria dugu.

Gerra aurretxoan, ala ere, beste dei bat ere ba-zuela-ta, karmeldar sartu zan, Larrea'n 1930-9-21'an ziñitzen profesia eginik. Ondoren, eliz-ikasketak bukatu rik, Akize'n mezakotu zan. Bertatik Peru'ra aldatu ta ango karmeldar komentu etatik egin zuen arimazaintza, atertu bakoa. Idazteari ere ekin zion, eta karmeldar

Probintzi aretako kronista zalarik, ainbat gauza eder ta jakingarri bildu ta argitaldu zizkigun liburu batean, jaiotzez naiz jatorriz euskal odoleko ziran karmeldar lekaide-lekaimeai buruzkoak batez ere.

Urte askoren buruan bere sorterrira itzuli ta oraindik ere emen lan egiteko asmotan zebillela, gaitz samurtu-ezin batek erruki gabe eraman zigun, Gazteiz'en 1970-10-15'an.

Ona bere lanetik batzuk: 1) *Catdlogo de Obras Teatrales euskericas publicadas y representadas a partir del año 1880, por orden alfabetico de autores* (Donostia, 1925). «Euskal-Esnalea», XV, 88, 109 ta 126; 2) *Don Patricio de Orcaiztegui y el idioma vasco* (Donostia, 1926). «Euskal-Esnalea», XVI, 154 ta 174; 3) *Fundación de Montevideo, Bruno Mauricio de Zabala* (Donostia, 1927). «Euskal-erriaren Alde», XVII, 244 orr.; 4) *Nuestros deportes. Los palankaris (tiradores de barra)* (Donostia, 1928). «Euskal-erriaren Alde», XVIII, 245; 5) *Antoine Th. d'Abbadie. Biografía* (Donostia, 1929). «Euskal-erriaren Alde», XIX, 153 orr.; 6) *Juegos infantiles. Las canicas* (Donostia, 1930). «Euskal-erriaren Alde», XX, 303 orr.; 7) *Palankaris. Palankariak* (Donostia, 1935), erderaz ta euskeraz. «Libro de Oro», 2 orr.).

Aita Basilio il zanean, F. Arozena'k idatzi zuen: «Eusko-Ikaskuntza sailleko aurrelarietako bat galdu dugu».

(Ikus *Boletin Oficial de la Provincia de San Joaquin de Navarra de Carmelitas Descalzos* (Gasteiz, 1957); F. Arozena, BAP, XXVII, 1871, 1-2; Jon Bilbao, *Eusko-Bibliografía*, I, 212 orr.).

13.- MARIA JULIA ORBEGOZO TA OTAÑO (1906-...)

Goiaz'ko Etxeberritxo baserrian jaio zan 1906-2-17'an. Gaur Bidani'kin alkarturik dagoen erri jator onen emaitza dugu «Aran-tza» idazlaria, Donostia'ko «Argia» astekarira izparrak bialtzen zituen.

Gerra eldu zanean, aukera egin bearrean aurkitu omen zan, errian gelditu ta egingo zizkioten iraiñak jaso, edo, gudariek in or-

tik zear joan. Bigarren bide au aukeratu ta or ibilli zan eusko gudu-zelaietan barna. Gernika erre zuteneko testigu bizia dugu bera. «Egazkiñen bildurrez bi soroen arteko Iuebaian etzanda nengoan lekutik ikusten nuen Gernika erretzen», esaten zidan.

Gerraren ondoren, erbestera bidea artu bearra izan zuen, le-nengo Bretafta aldera, ondoren Frantzi-Euskalerrira, emen urte sail bat eginda itzuli zan bere jaiotetxera. Gaur, Errera'n bizi da, urte-tsu bezin buru argiko abertzale zintzo au.

Euskal idazle dugu. Gerri-zut gorantza zijoan zugatz bidaztia-ren makillakada artu ta betirako il-aunditua gelditzen danaren antzera, noski. Goiazarrak Urrakiko belar fiñez egiten dituzte negu-rako zubatzak. Auen antzera, Arantza'k ere, euskera jatorrean erriko gertaera eta berriak tolestatuz, «Argia»-ren bitartez geroarentzat jasotako Aberri zubatzetik artu genezake besakada bat. Bere lana da, erriarentzat egiña noski. Euskeraren negua arintzeko balio de-zakenak ziur asko.

Bere idatz-Ianetatik ikusten danez, naiko idazle zorrotza bera; bazekian udal-gizon eta erritarrei iñoiz eztenkadak ematen. Gauza bakoitzari bere izenez deitzea eder zitzaion oietakoa nunbait izan!

(Agustin Beloki'k bialdutako zeaztasunak).

Bearrak gogorrekiak, gordinegiak zitzeke-lako, bear bezala, liburutxoaren baranoan gertatuak kontatuko ba'zitun» (*E. Gogoa*, 1951, 1-2, 28 orr.).

2) *Berriz, Santa Cruz Apaiza!* (*Egan*, 1956, 3-4, 20 orr.).

3) *Olabide A.'ren bizitz-arteko berri* (*Euzko Gogoa*, 1958, IX, 448 orr.).

4) *Afijos vascos* (Bilbao, 1969). 78 orrialde. Euskal atzizkiak.

5) *Mendiko Argia* (Bilbao, 1969). Franz Welser'en «Das Licht der Bergen», alemanetik euskerara biurtuta. Lan oni buruz J. San Martin'ek: «Bertako giroa, gazte giroa, mendi giroa, atsegingarria da. Nik nahiago nuen Moll-en mendi gailurretarako igoerak adie-

razi balitu, baina nobelak etzuen horren beharrik. Hori gora-behera nobela polita da, arin irakurtekoa. Euskera samurra du, hitzez aberatsa» (*Egan*, 1969, 1-3, 107 orr.).

Ba-ditu oraindik beste lan tipiago batzuk ere, euskal aditzaren jokoak gipuzkeraz ta bizkaieraz, esaterako.

IZTEGIGILLE.- Aspalditik iztegi-zale genuen, antza danez, A. Muxika urnietarra. Sasoi bateko latin-ikaslek ezagun dute bere *Diccionario Latino-Español* (Madrid, 1940), 7 biar argitaratua izan dana. *Diccionario Griego* (Barcelona, 1941), ta *Diccionario del Mundo Clásico* (Barcelona, 1952), diralakoetan ere esku artu zigen.

Baiña bere lan bikain, bere bizikoa au du: *Diccionario Castellano-Vasco* (Bilbao, 1965. «El Mensajero del Corazon de Jesus» argitaldaria. 1897 orrialde. Zutoin bitan, argi argi irarrita.

Iztegi onen zai zeuden, antzifiatik euskal idazleak. Eta, jakiña, ez dago zertan esanik: mundu guztiak artu zuen txaloka; ez gero A. Muxika'ren lan izugarriagatik soilki, baita iztegiak berak zekar-kigin aukera ta aberaztasunagatik ere.

14.- PLAZIDO MUXIKA BERRONDO (1906-1982)

Gizaseme langille ixilla. Urnieta'n jaio zan 1906-4-16'an. Jesulagun izan nairik, Andoain'en, Loiola'n, Oña'n, Marneffe'n eta Valkeburg (Holanda)'n burutu zizkigun bere eleiz-ikasketak. Ondoren, or-emen ibilirik, Veruela'n eta Loiola'n eman ditu bere bizitzako urterik geienak.

Euskaltzain laguntzaille.

EUSKALTZALE.- Berez zekarrenari sua emanik, an 1924'nerantz asi zitzaigun au ere bizkortzen eta idaz-lanak mamitzen; «Jesus'en Biotzaren Deya»-n, «Argia»-n, «Yakintza»-n, «El Dia»-n, «RIEV»-en, eta olakoetan agertzen dira bere artikulua, gerra aurretik, ikasle

zala idatzitakoak noski. «Txurdiñ» eta «Intzinda» erabili oi zituen lanak izenpetzean.

Oraingoz iztegiak bazter utzirik, ona beronen euskal lanik ur-tenenak:

1) *Noni eta Mani* (Zarautz, 1952). Itxaropena irarkolan. 97 orrialde. Bigarren argitalpena ere izan du: Bilbao, «Encuadernaciones Belgas» irar-etxean. Lenengoz argitaratu zanean, A. Ibinagabeitia'k onela: «Itxaropena-Argitaldaria euskal liburuz egindako sorta berri bat antola gogo dizu, «Kulixka Sorta» alegia, eta Sorta orren aurreneko lilitzat «Noni eta Mani» Svensson yesuita zanaren gertarieleberritua, Muxika'tar Palgida Aita yesulagunak alemaneratik apain-apain itzulia, aukera dizu. «Kulixka Sorta»-k yaio bear izan dizu «Noni eta Mani» euskeraz argia ikusteko. Urte-pilla biotz-barne ta bizkargaineratu zaizkigu Muxika'ren itzulpena egin zanez gero. Urte latzak, malko urteak, goldeak lur apatzean baino ildo sako-nagoa gogoan urratu diguten urteak! Itzulariak ez dio itzaurrerik ez ataririk bere itzul-lanari ezarri. Ez du nunbait, ortarako adorerik izan, edota izan ba'du, eskuak uko egin dio, lotsaz, alkez, yaulkigoratzapena merezi duela erabat, bertan dakarzkina agiri-sail —dokumentu— aberats ia agortzerañokoengatik, kontxa-ezin ala eragozpen garaitu ditulako; baita pitean potean darakusgun neurria beragatik, joera ta eskola bereizi baten barnean noski» (*Bol. Am. del Pais*, 1965, 3-4, 431 orr.).

NOLA JOKATU DUEN IZTEGIA EGIKERAN.- Edozein liburu esku arteratzerakoan, egilleak ez duela, iruditzen zaigu, izerdirik bota ori antolatzean. Idazti batek, alere, zenbat ikutu ta arat-onat bear dituen argitara irten aurretik.

Oni buruz esango liguke zerbait A. Pargida'k. Oso-osoan fitxaz beteta erakutsi zidan bein bere gela: iztegiaren fitxak ziran. Txartelak pilla aundietan zeuzkan, eta «geroko lana erreztu naiean, abedeari jarraituaz zuzen ipiñi ondoren, paper aundietara aldatu zintun iru sailletan, ots, A'tik Z'raño iru dauzkat —dio—, guztira amar tomo lodi, ta orrialdetan berriz 15 millatik gora... Zergatik ordea iru sail berezi? Lenengo sailla osatu nunean, besterik gabe iztegia

idatzi ta argitaratzeko asmoa izan nun. Gero, ordea, euskerazko beste liburu eder batzuk eskuratu zizkidaten, eta bigarren sailla asi nun... eta geroago irugarrena era berean. Iru aldiz izan det, bada, bildu nitun itzekin iztegia osatzeko asmoa». Lan eskerga urteetako noski!

Zein euskaJki artuko zuen oiñarrizat iztegia moldatzean? «Gipuzkera osotua daukat begi-aurrean —diosku berak—. Arazo ontan, gipuzkoar etziran askok ere gipuzkera osotu au aukeratu zuten gure literatura indarberritzeko». Idazleen artean, asko irakurri zuen itzak jasotean; auetan bere ustez, Orixe dugu «idazlerik onena, lengo ta gaurko euskel-idazle guzien gain», eta onen idatziak sakonetik aztertzen ditu. Axular ere bai, erdi-aztuta dauzkagun itz eta esaera jatorrik ba-da aren idatzietan. Alere, «pitxi» eder askoren artean, erdelkutsua darioten joskera nabarmenak geiegi ageri dira Axular'en liburuetan eta beste idazle batzuenetan ere bai. Ori dala-ta, euskeraz ikasten edo dakitena zerbait lantzen eta orrazten asi diranei ez diet nik sekula Axular emango, aurretik oar batzuk egin gabe beintzat. On baño kalte geiago egingo lieke olakoei. Euskel-ikasketan aurrera dabiltzanei ta euskeraz poliki idazten dutenei askoz errexago emango nieke Axular» (*Egan*, 1957, 3-4, 133 orr.).

Eta garbi ta mordoillo-zaleen auzia? Ona beste koska ez txikia, iztegi bat osatzerakoan begi aurrean jalki oi dana. Zeintzuk itzak, berriak ala zaarrak, sartu, auek itxi ta aiek artu, alata alderantziz; nola jokatu? Ona A. Muxika'ren iritzia, bai erderatiko itzai begira, eta bai itz berriai begira ere, teknika gaietan bereziki.

Landa onetan bakoitzak du bere iritzia, tamalez, eta ez gara alkartzen iñolaz ere; euskeraren kalte aunditan, jakiña! A. Muxika'ren aburua, nik uste, jarraigari dugu oso. Euskerak beste izkuntzetatik artuak dauzkan itzakaitik au dio: «Askok ez uste arren, euskerak (espalditik, gero!) itz asko artu ditu bere inguruko izkuntzetatik. Guziak zapuztu nai dituztenak oker dabilta, nere ustez. Itz oietatik asko nai-ta-naiezkoak ditugu ta ezin ditzakegu zokoratu. Nai-ta-naiezkoak ez izan arren, erderatiko beste itz batzuk ere erabiltzea komeni dan gauza izan diteke. Beste izkuntza guzietan

gertatzen dan bezela, gure euskera garbitu ta txukuntzeko eskubi-dea ez liguke iñork ukatu bear; baña Ian ori astiro egin bear da ta ez dana batean. Idazleak, gidari baitira, beti erriren *urretik* joan bear dute, baña ez urrutiegi. Urrutiegi aurreratzen ba'gera, erriak nazka artuko digu ta ez digu jarraituko. Ontaz, bada, nai-ta-nahiezkoa ta komeni diran itzei ez diegu muzin egin behar» (*Egan*, 1957), 3-4, 129 orr.).

Uz berriak, ordea, naiz teknika-gaitan naiz bestetan, noiz er-tuko, edo-ta sortuko? Ontan ere A. Muxika'ren iritziari zen-tzuñezkoa derizkiot. Irakur iabur-zurrean berak dioskuna:

a) «Euskerazko itz berria euskaldunak kanpoko itza baño erre-xago ulertzen dutenean. Adibidez, *alfitofago*, *antropofago*, *creofa-go*, *litofago*, *rizofago* e.a. esan bearrean, *garagar-jale*, *giza-jale*, *arogi-jale*, *erro-jale*, e.a. esango genuke; eta olatsu egin bear litzake nere iritiz besteitz askotan ere. Kaiku aundienak ere ulertu ditzake euskerazko itz oiek; kanpoko beste itz «dotore» oiek erabiltzean, ordea, zer dioten ere ez dakite geienak.

b) «Erri xeak itz berria zearo ez ulertu arren, geiena beintzat edo ia guzia ulertzen ba'du, batez ere itz berria errian sartu ba'da, *eutsi egin bear diogu* olako itzari. Len niona: ez degu ibilli bear beti *aurrera-atzera* ta irabazi degunari *eutsi egin bear diogu*. Adibi-dez, *telefono* euskeraz *urrutizkin* esango nuke. Itz ori zerbait sartu zitzaigun, erri xeak gaifiera errex ulertzen ditu itz berri orren zati geienak. Olako itzei ez diegu ukatuko beren tokitxoa gure iztegian.

z) «Itz berriak ordea erriarentzat oso zaillak diranean, zokora botako ditut ta erderazkoa artu. Adibidez, *txauneskiña* (edo *txoneskiña*) esan bearrean, organua esango det iñungo lotsarik gabe. Beste izkuntzei, komeni zaien neurrian, itz berriak sortzeko esku-bidea ez diegu ukatzen; zer dala-ta ukatu bear diogu eskubide ori gure euskerari?» (*Loc. cit.*, 130 orr.).

Irizpide auetan tinko, osatu digu A. Muxika'k bere Iztegi ede-rra. Axular'en «Gero» bezela, iztegi au ere zentzunez erabilli bear dana dugu, baiña Ian izugarri, baliotsu ta guztiontzat onurakorra. Ondoren datorkikegun euskal-erdal dalakoa ere, bedi gisa ortan egiña.

(Ikus A. Ibinagabeitia, *E. Gogoia*, 1952, 1-2, 28 orr.; L. Mitxelena, *Egan*, 1957 3-4, 127 orr., ta BAP, 1965, 3-4, 431 orr.; J. San Martin, *Escritores euskericos*, 133 orr., ta *Egan*, 1969, 1-3, 107 orr.; Auñamendi, *Literatura*, IV, 109 orr.; J. Bilbao, *Eusko Bibliografia*, V, 507 orr.).

15.- PEDRO SARRIEGI LARBURU (1906-1968)

Ernani'n munduratu, 1906-5-26'an. Berton il zan 1968-6-10'an. Berez, bere zaletasun eta gogoz iritxitakoa besterik etzuen ikasi-arloan; baiña, alere, gizon eragillea ta euskal-landan aspergaitza izan zitzaigun, bere bizitz-azkenerantza batez ere. Erriko paper-fabrika baten zeukan bere oizko ogibidea; begiko zituen, baiña, euskal kultura gaiak, teatru, dantza ta kantuak. Oiei indar ematen etzuen nagirik erakutsi.

ANTZERKI-GILLE.- Naiko teatru-lan dauzka, batzuk argitalduta, beste batzuk oindio eskuz idatzita bakarrik, noiz argia ikusiko zai. Ona batzuk:

1) *Etxerako... noñ* Karraskedo-Olarra'tar Jakinda'k zerbait ikututa, «Jarrai» dantza taldeak eman zuen lenengoz 1964'an.

2) *Jokaldi txar bat*. 1966'an, «Agora» saria eskuratu zuen antzerki onekin.

3) Bereak ditu auek ere: *Biotzaren neurria*; *Ama izaten lanik dira orratik*; *Zauritutako lorea*; *Gazteak*; *Joxe Mari'ren urrepuxkak*.

Gure teatru-zelaia pitxi dotorez aberastuteko, ale auek ere beren txikian jaso ta zaindu bearra daukagu.

(Ikus J. San Martin, *Escritores euskericos*, 157 orr.; Auñamendi, *Literatura*, IV, 481 orr.).

16.- TXOMIN JAKAKORTAJARENA (1906-...)

Berastegi'n jaioa dugu euskd idazle jator au, 1906-12-19'an. Andoain'go ta Gazteiz'ko apaizkastegietan osotu zitun bere eliz ikas-teak. 1932'an apaiztu zan Gazteiz'en bertan, Mateo Muxika go-zaiaren esku-ezartez. Bertatik Nafarrete'ra bialdu zuten arimazai, ta urrengo urtean, 1933'an, Aiala-ibarreko Salmanton erritxora.

Gerra aldian erbestera jo zuen, eta andik zeazki Argentina'ra. Ementxe lan egin du, beti arimazai urduri, arrezkero guztian. Mo-nes Cazon'go txauburu edo aitapaiz. Bere errian bizi da gaur.

EUSKAL OLERKARI.- Ez gara berdin gizaseme guztiok, aiurri ta seta bereziz bakoitza bai dator ludira. Berastegitar onek ba-du bere arima bedegarra, literatura barnean, ezker-eskubi dauzkagun zerak era apartekoz ikusi ta jasote gaitasunez ornidua. Askok ez diote egunero geure biran gertatu oi diran gauzai jaramonik egiten; bes-te askok bai, ta onek ditugu ain zuzen ere egiazko jakintsuak, filo-sopuak, gauzak zer diran, zergatik jazo ta osotu, zer esan nai du-ten, somatu ta jasotzera irixten diranak noski. Onelakoa dugu Tx. Jakakortaxarena.

Olerkaria ta filosofua ez omen dabilta alkarregandik urruti. Eta Jaka olerkari danik ezin dezake iñork uka. Gure izkuntza ederki ezagutzen du barnean dauzkan izkutu guziekin; gartzetan asi zan neurtitzez idazten, beti zorrotz, somakari ta oarle. Gogora guda aurretiko «Euskaltzaleak» bazkunak eraturiko batzaldietara bial-dutako olerkiak. «Eusko-Olerkiak» liburuetan datoz: «Mitxeleta», «Ametsak», «Aingerutxoa», «Gure astoak», «Amandrea'ren olloal-dra» «Maite eziña», «Len-Euzkotarra Gaia», «Burgos aldeko eizak» (1931-1935). Auetatik batzuk «Yakintza»-n ere argia ikusi zuten. Gero «Euzko-Gogoa»-n idatzi ta azaldu zizkigun beste batzuk, erbestean zegoelako erri-miñez okituak: «Eleberria», «Markiegi'ren oroime-nez», «Ameriketarra», «Aberri maite-maitea utzirik»; eta *Bol, Am. E.V.* dalakoan ere bai beste batzuk.

Berein olerki mota ezagun dira literaturan; mota oietan, poema txikiak, epiku-sailekoak zaizkio atsegiñen, irudi danez. Besteak bes-

te, «Len Euzkotarra» deritzaiona tankera ortean burutua da. Euskaldunak ditu gai, aintziñakoak noski; eta olakoetan oi danez, euskorarren aspaldi bateko egitsak taiuz abesteko, Goikoari eskatzen dio aurrenik arnasa, argia. Ona:

«Goiko Jaunaren arnas sutua
betor nire biotzera,
nire itz murrizaz, Euzkadi zarra
bait-nator abestutzero.
Eda itzatzu, Zuk, Jauna, nire itzok
mendi, baso, uri muinera
orrocka ostots izugarria
edatzen duzun antzera».

Ondoren, ahapaldi giarretan, euskalduna noiztikan bizi zaigum txoko zar ontan esaten digu, nolako odola duen, Aralar ganeko sugea, Basajauna, Tartalo ta Tartalo-etxeta, erraztuna, gerrikoa, birraua, Basurde-eizea, Mari'n agerketa ta agintzak, Euzkadi ta lenengo euzkotarrak, oparia ta abar. Elezarrez oretutako poema jatorra. Onako asko bear genituke.

Bere bertso-lanak lenengotik izan ziran goraiatuak. J. Ariztimuño'k, Tolosa'ko Olerti-jaietara bialdutako lanak bilduma polit batean batu ta itzaurrea egiterakoan, onela idatzi zuen Jaka'ren «Gure Astoak» poemaz: «Erri-errietatik dagerkigun olerkaria degu Jakakortajarena. Jende xeeak darabilzkin gaiak bere olerki gunatzat aukera, erri erara asma eta erritarrei dagozkieten bezela tajutzen dizkiguna. Ijitoen asto tratua ez ote da gai errikoi berezia? A zer nolako bertso iaioetan adierazten digun salketa oiek dakarkiten galera! «Gure Astoak!» bai asto makalak. Zorrotz eta biziki, irria darioten neurtitzetan ijito-astoen ajiak abesten dizkigu. Ez-tenkada parragarria ahapaldi bakoltza. Olerki zarren antzera tajutu dira «Gure Astoak»-en bertsoak. Gaia, bera ere, jatorriz antziñako olerkariei atsegin zitzaiena» (*Eusko-Olerkiak*, 1931, XIV orr.).

Agirre'tar Toma'k ere, gure olerkari batzuk —J. Bedoña, Tapiaperurena, Lizardi, Jautarkol— aztertu ondoren, Tx. Jakakortajarena'z onela diardu: «Errikoia. Gai irrigarriak aukeratzen ditu. Irri-etzenka erabili ere. Erriaren biotza inork jotzekotan, onexek bai. Ateraldi zorrotzak bururatzen zaizkio. Gure erriari oso atsegari zaio olerki-era au. Arin, zailu, zulaka dijoazko neurtitzak. Bata bestea- ren atzetik Iekatuz gogaiak. Asto zarraren maltzurkeriak eta ollo antzuen nebarmenkeriak nork obeki jantzi? Amaierako ateraldiak irri-karkara askatu digu maiz. Errez-itxura izan arren, ez da gain-berakoa olerki-era au. Barruti onetan ain trebeki jokutzen dana, ezta makala izango besteetan ere» (*Yakintza*, 1933, 25 orr.).

ITZULTZAILLE.- Esana dut sarri ere, bakoitzak duela bere doai berezia gauzak ikusi ta adierazteko. Txomin aprizari eder zaizkio irri-gaiak, sarkutzak askatzeko lain diranak. Eta Argentina aldetik dabilkigula, bein eskuetra eldu zitzaion ango gautxoan gauzak ederki oso abesten dituen Jose Hernandez argentinar olerkari aundia- ren *Martin Fierro* poema liburua. Irakurtzen du, eta bikaiñik bi- kaiñena iruditzen euskerara biurtzeko. Lanean ari da, arimazaintzak uzten dion asti-unez baliaturik. Urte batzuen buruan amaitua du bere *Matxin Burdin* 1193 ahapaldiko gautxo-poema.

Eta gaur esku artean dugu: *Martin Fierro-Matxin Burdin* (Buenos Aires, 1972), «Ekin» etxe argitaldaria irarria. Erderaz ta euskeraz. 382 orrialde, Luis Beltran Sola'ren marrazki dotore askorekin.

Matxin Burdin'en goraberak, Buenos Aires probintziaren egoal- deko landa zabaletan, panpetan gertatzen dira. Indi-gizonen gora- berak, eta an egokitu ziran kristauenak; burrukak eta alako nas- teak: odol-naasiko semeak omen dira gautxoak. «Aurrenetakoak izan ziran euskaldunak landazabal aietan saleroski-lorreen eta ostalaritzan. Erri berri bakoitzak bazuen bere euskal ostatua eta pelotalekua». J. Hernandez'ek bere bertsoetan gautxo oien ezbea- rrak eta goraberak abestu zituen.

Poema au itzultzea etzaion noski lan erreza izango Jaka'ri. Aita Bonipagi kaputxinoak, itzaurean onela: «MARTIN FIERRO'ren izkuntza ez da batere erreza landazabal berean oituak ez diranen-

tzako; areago beste edozein izkuntzetan emateko; esakera asko ditu gautxoen izkuntzan bakarrik eman ditezkenak, Beraz, MARTIN FIERRO euskeratzea ez da edozeiñek errez egin lezaken lana. Euskeraren korapillo eta bibistak ondo jakin bear lituzke eta gautxoen izkuntza eta oiturak ongi ezagutu. Alik obekiena euskeraturik ere, MATXIN BURDIN ez da iñoiz MARTIN FIERRO berbera izango. MARTIN FIERRO Txomin Jakakortajarena apaizak egin du MATXIN BURDIN. Gaurko euskaldunen artean ez degu noski beste iñor bera baiño egokiagorik lan ori egiteko. Jaiotzetik euskaldun eta euskalzale; bere aitazana alderdi auetan ibillia zalarik, txikitatik bazuen gautxo berri; ogeitamar urte ta geiago ontan gautxoerrian bizi da. Ikaragarrizko lana izan du, iñolaz ere, MARTIN FIERRO'ren bertsoak euskeraz neurri bereko bertsoan ematen. Euskalkutsu aundia arkitu omen du euskeratzalleak Jose Hernandez'en espa-ersian, eta eman ditu bere azalpenak liburua zearreko oar ugarietan» (*Atarikoa*, 14 orr.).

Lan eder izugarria, bai egillearena eta bai itzultzailearena. 1972'an betetzen ziran eun urte J. Hernandez'ek bere bertsolanaren lenengo zatia argitara zuela: bigarrena, andik sei urtera, 1878'an eman zuen. Egilleak arretaz egin lana: euskaldunakin alako artu-eman izan omen zuen, eta euskera mintzatzen ere, gutxi-asko, ba omen zekien. Itzultzaileak, ordea, langille trebea izaki, Argentina'ko euskaldun guztien izenean, eta esker onez, MARTIN FIERRO'ren lenengo eunurtean, MATXIN BURDIN eskeiñi nai izan die «Argentinari eta Euskerari».

BESTE LIBURU BATZUK.- Aipaturiko lanetatik kanpo, auek ere bereak ditu:

- 1) *Irri-bertsoak* (Donostia, 1950). Ziri-bertso sail mardula.
- 2) *Eusko ami* (Buenos Aires, 1958). Aita Ebangelista Ibero'ren *Ami Vasco* euskeraz jarrita.
- 3) *Gernikako Arbola* (Buenos Aires, 1963). Enrike Gartzia Vello's'rena, euskeraz eta erderaz.
- 4) *Iztegi bi*: 1) Erdera-euskara; 2) Euskera erdera.

NOLAKO EUSKERA?.- Sarri etzaigu errez barne-bultzadari eus-tea. Berezkoa lez da idazle batek nola moldatzen dituen bere gaiak jakitea ere. Ona, bada, berastegitarra *Matxin Burdin* euskeratzean nola ibilli zan zerbait adierazten digun idatzune au.

«Zail izan da arloa; olerki ederrenetako onek dituan katramilla guziak garaitzeko, izan da buruausterik naiko; ala ere itzetik-itzera izneurkera berberetan, egin-egiñetan, apaldi ideidekotan, itzamaikide osotan eta erdarenak berarenak bezin aberatsetan, esakunetako izkera motz eta izbiurrikerik naste, salkeri gabe ongi itzulitzeko, gai izan da gure Euskera apala eta bai noski, ziur nago beste izkuntza batek, naiz aberatsenak eta ots aundikoenak, ez lezakela ain egoki itzuli ifiola ere, askoz gutxigo emon leiokela orde, bereberea ba'lu bezela Euskerak damaion bezela itzulkeran, Matxin Burdin'ek zelaizabal oietako lurrunez uielaseturik daukan gautxo barnegogo bizi bizia. Izketa mota oro, arrotz zaizkio, biziki biziki noski, Euskera bakarra zaio etxeko mintzo. Eunurteurren ontan guk argitu dizkiogun izikutuen eta illuntasunen argitara, Martin Fierro, erderatik euskerara ez baiña euskeratik erderara egiña izan zala esan genezake, aurreragoko edesolerki iatorra, erderazkoaren sortzama arkitu ba'genu bezelaxe.

«Begiak zabaltzen eta ezagueraz iabetzen asi giñanekoxe; Goiko Iaun onak lan ontarakoxe edo, eskutik bezela ekarri izan gaitu egi-egitan. Gizazken aroko egun oetan beretan ere, gure aurtzaroko leenbiziko oroimen aantzeziñak, supazterrean goxoki aitazanak ialgitzen zizkigun arrigarrizko zabaldi oetako bizikera ta gertaera goxo ta latzak, begien aurrean dauzkagu bizi bizirik. Euzkadi'ko mendi goituen suarte bildurgarri guztietatik, ormari bizkar, suizkilla aetatik, bein baiño geiagotan, bospasei espetxe zuloetatik, itxasoko uin eta osinpetik, gudontziak burugain sua ziraunskitela, Goiko Alguztidun Ark, eskutik artuta aitazana bizi zan Pampa'ko txoko bereborean kokatu gaitu ogeitamar urte luze oetan. Aitak baztar oetara, bizi-aurrerapena ekarri zuen bezelaxe, semea ere Iainko sinismena ekartzen alegindu izan da, aurrerapenakin eta iakintzakin batera. Arek erretako suarriluz egindako etxeren batean, sartua izan-

go naz; aren izardi diruz ustiatuki altxatako pilotatokian ioka al izango nun, apaiztegiko saloketari iararaiki, arek egindako arrillukin altxatako elizaren batean ere emana izango naiz meza-oparia. Aren lagun zar batzuekin ere, arkitu izan naiz, aren garaiko euskaldunen lagunartetan, euskaldunen semeen eta gautxo iator askoren baltsan ibili nauzu, aien oiturak, iostaketak, musketak eta eizaketak ere ezagutu izan ditut, xaki guria ipurkankarrean ipintzeko bei ingurabilketan, oillabaz lotzeko ierratan, zaldi ezibako ipurñausgatan zalduna uzkaile eziñik arriturik begiraka egon izan naiz, itz bitxiak entzun eta iaso izan dizkiet, mendi muturretako etxe bakanetan ere, arriturik ikusi izan ditut giro obegoetan iasotako pillotokiak, lengo zarata eta euskal oi u gozoen orde, illerri batzuk iduri, ixil-ixilik. Gautxo arte ortan, ameika euskaldun odoleko lagunarte orietan, Matxin Burdin'en esaerak, aren ateraldiak, aren bertsoetorria, aren eupeda ta ozarkeriak, itz batean, Matxin Burdin berbera, bizi-bizirik ikusi izan dur bost aldiz» (*Sarreritzak*, 21 orr.).

Orain ere bere errian, urtez amatua, leenago egifiiko euskal lanak atontzen ari da. Apaiz eta olerkari ez-zezik erle-zale ere ba-dugu Txomin, eta azken bi urte auetan erle-gaiari buruz tomu gizen bi eman dizkigu «ERLEZAINZA» izenburuz. Lenengoa (1988) 888 orrialdekoa da ta bigarrena (1988) 1.312 orrialdekoa, Kardaberaz Bildumak argitaraturik.

Orain, ordea, bere bizitzaren edestia osotzen ari da.

(Ikus *Eusko Olerkiak*, 1931, XIV orr.; MEOE, 940 orr.; B. Estornes Lasa, *Estelica vasca*, 1952, 166 orr.; A.M. Labaien, *Teatro Euskaro*, II, 170 orr.; G. Garriga, *Bol. Am. E.V.*, 1966, 143 orr.; J. San Martín, *Escritores euskéricos*, 107 orr.; Auñamendi, *Literatura*, IV, 124 orr.; J. Bilbao, *Eusko Bibliografía*, IV, 467 orr.).

17.- INAZIO MARIA BARRIOLA IRIGOIEN (1906-1987)

Donostiarra, Gipuzkoa'ko uriburuan bait zan jaio 1906-8-15'an. Sendagilletza ikasi zuen, eta Irakasle (Doctor) dugu Osakuntzan Madrid'eko Ikasgu nagusitik. Eta ortik bizi izan da, osalaritzatik, antziñako Easo uri apain sotillean.

IDAZLE.- J. Abelino Barriola, aurreko alean (201 orr.) aitatu genduan antzerkigille ernearen seme bezela, bear-bearrez euskaltzale izan bear, ta idazle. Gerra aurretik «Agi»-n eta «El Dia»-n azaldu zituen bere euskal lanak, eta ez gutxi, 1930'rantza batez ere. Berea du itzaldi au: *Errisendagintza euskaldunen artean* (Donostia, 1931).

Erderaz auek eman dizkigu: 1) *El enigma de la muerte de Napoleon* (Donosti, 1950); 2) *La Medicina popular en el País Vasco* (Donostia, 1952), Biblioteca de VAP, 8 zenb.; 3) *Los Amigos del País Vasco* (Donostia, 1963); 4) *Algunas peculiaridades de la sangre vasca* (Donosti, 1954), *Munibe*, VI, 322 orr.; 5) *Las Aguas de Cestona y los Caballeros de Azcoitia* (Donosti, 1956), eta abar.

Euskaltzain urgazle.

(Ikus, J. San Martin, *Escritores euskericos*, 53 orr.; Auñamendi, *Literatura*, IV, 124 orr.; J. Bilbao, *Eusko Bibliografía*, I, 565 orr.).

18.-ERRAMON MURUA ARRUABARRENA (1906-...)

Apaiza. Gaur Arnoeta'ko arimazai. Ordizia'n sortua 1906-7-30'an. Gazteiz'ko Apaigaitegian osotu zitun bere eliz-ikaskizunak.

EUSKALTZALE.- Filosofi ta Teologi ikasle zala asi zan euskaltzaleekin ar-emanean, eta, jakiña, suak sua pizten. Orrela gertatu zitzaion Murua jaunari. Ta arrezkero, nun-nai agertu izan da euskaltzale jator. Luma arin, giartsua du.

Azken urteotan «Goiz-Argi»-n eta «Zeruko Argia»-n idatzi digu. Bere ixilletik atera-ta, bi liburu auek ere argitara dizkigu:

1) *Asarre bidetan* (Donosti, 1967). Akosta eta Montoro'tar Joseba'k erderaz egiñiko *Peregrino de la Ira*, Agirre'tar Lope'ren jorkaldia azaltzen duan antzerkia. «Auñamendi Sorta» 52'garrena. 179 orrialde.

2) *Ipui jatorrak* (Zarautz 1967). Erramun Zulaika'k erderaz ondutako *Cuentos liberales'en* itzulpena.

3) *Aitonaren Ipuiak* (Gazteiz, 1973). «Eset» irarkola-etxean. 140 orrialde. Guztiz 37 ipui. «Kardaberaz Bilduma»-ko 5'garren liburua. Egilleak «Umeentzako» ipuiak dion arren, adiñekoentzat ere bitxiak dira euskal Folkloreтик jasotako auk. Euskera bizkor, le-gunean urkulduta daude.

Lenengo lanaren gaiari buruz, J. San Martin'ek diosku: «Lite-ratura ugaria zabaldu duenetako dugu gure Lope Agirre'koa. Orain-dik argitara berri da Sender'en *La aventura equinoccial de Lope de Aguirre izeneko* nobela. Antzerkian ere ez da lenengoa, ta segu-ru asko ezta hoberena ere. Madrilgo Ediciones Escorial'ek eman zuen 1941'e'an Gonzalo Torrente Ballester'en *Lope de Aguirre* (Cro-nica dramática de la historia americana), hiru ekitaldikoa; eta Elias Ametzaga'k argitaratu zuen Bilbon, urte gabe, *Yo, demonio* izenez beste antzerki bat. Acosta Montoro'k, liburuaren eskeintzan ageri danez, Artetxe'ren «*Lope de Aguirre, traidor*» izan du oiñarri. Bizi-tza arrigarri hartatik lan ona ateratzea ez da zailla ta egilleak berea ongi bete duela esango genuke. Behar bada, Torrente Ballester'en antzerkia ezagutu balu kementsuago aterako zuen. Erdera aberat-sa eta teatru teknika on baten jabe baita lehenengo antzerkiaren egillea». Eta itzulpenari dagokiola: «Itzulpenaren zeaztesunetan ez gera sartuko, baiña bai esan genezake Gipuzkoako euskera samur batean ematen jakin duela Erramun Murua apez jaunak» (*Egan*, 1967, 1-6, 115 orr.).

(Ikus J. San Martin, *Escritores euskericos*, 136 orr.; ta *Egan*, 1967, 1-6, 115 orr.; Auñamendi, *Literatura*, IV, 124 orr.).

19.- INAZIO MARIA MANZISIDOR (1907-1961)

«Langille porrokatua izan zan bere eriotz uneraño, gaixoaldian ere lumari jaregiteke. Bere prediku, liburu, artikulu ta lan guztiak euskeraz eman zizkigun. Erlijio-gain besterik ez du erabili oietan denetan. Hagiographia baizik ez, esan diteke uts aundirik gabe» (Iru-garate, *Euskera*, 1961, VI, 351 orr.).

Azkoiti'n jaioa 1907-4-8'an. Gaur au naiz bestea esan, beti izan du, ta baita izango ere, zer-ikusi andia gure bizitzan gurasoakan-

dik artutako azi ta eziketak. Umeak zer ikusi ura ikasi dio euskal esaera zarrak. Eta orrelaxe da, ezpairik gabe. Gure gaztetxoak ikas-bide ederra izan zuen, urrean, bere sukaldean. Berak *Santu Bizitzak* idaztiaz: «Nere etxean, ni ume nitzala, iñoiz *Mariaren Glo-riak* eta onelako zerbaitzuk, euskeraz, aitak irakurtzen zizkigun. Geiagotan, berak erderaz irakurritako Croisset'en liburuetako san-tuen istoriak euskeraz esan oi zizkigun... eta on egiten ziguten. Urte oietan ikasten diranak —batez ere onelako maixuagandik— ez dira errez aztutzen».

Eta bere erritik urbil zeuzkan jesulagunen biziera atsegin zi-tzaiola-ta, arakoxe bidea artu zuen au da, beren arteen eskolatuko zala iñon baiño obeki ta, 1918'an, Ordufia'ra joan zen ikasten, bere lendabiziko ikastaldiak an egiñik. Gero, Komillas'en ikasi zituen Jakintza ta abar, gai ontan, ots, Filosofian Maixu —*Doctor*— irte-naz. 1927-10-11'an sartu zan jesuita, eliz-karrera Salamanka'n asi ta Marneffe'n (1938) bukatutik.

Ondoren Venezuela'ko lurraldeetan ibilli zitzaigun izlari trebe; etorri aundikoa zan eta gaiak ederki xheetuta azaldu oi zizkion erriari. Karakas'en zegoela, ango euskaldun lagunak zirikatuta, euskeraz idazten asi ta naikoa lan aurreratu zuen geroagoxe emen argitara emateko. Euskalerriraturik, Loiola'n jardun zuen bere egitekoan, izlari ta idazle. Berton il zan 1961-10-16'an, 54 urtekin.

Euskaltzaindikoa zan 1958-5-29'tik.

EuSKAL IDAZLE- Izlaritza ta or-zear ibiltzeak ez dira bat libu-ruak idazteko egoki, ez bait dute betarik lagatzen. Idazteari ekite-ko bakea ta ixiltasuna lakorik ez duzu. Aita Manzisidor'ek, ala ere, bere erria ta euskera maite zitueta, eta bere goidei apartekoa ori-xe zalako, bizkor, xalo ta maitekor erabilli zuen bere idazkortza. Ain-bat liburu eder taiututa joan zitzaigun mundu onetatik. «Apaiz-lanati lotua bizi izan zan —dio Iru-garate'k—. Idatzi, tarteka mar-teka egin zuan. Arritzekoa, orratio, argitara duen liburu ta artiku-lu pilla. Irubat milla orri argitaratu, edo idatzi beñepein, egingo zitun».

Artikuluak idazten ikasle zala asi zan. Garaia artan Bilbao'n agertzen zan «Jesus'en Biotzaren Deya»-n datoz bere len-lanak, 1931'tik 1937'ra. Lenengo lanak ere aipatzen dizkigu Aita Irugarate'k —Juan Goikoetxea Maiz'ek—. «Fray Luis de Granada'ren itzulpen batekin —dio— (Andre Mariaren Negarra eta Jesus'en Saie-ts Irikia, 1931-orriIIa) idazle estreiñatu zan. Aurreragokorik ez diot beintzat arkitu. Arrezkero ez dio bere lumari pakerik eman, lanean urratu dan arte».

Ona argitara eman zituen liburuak:

1) *Deusto'ko Atezai Garate Jesu-Laguna* (1936).

2) *Otoitz-Bidea* (1948).

3) *Jesukristoren Bizitza* (1943).

4) *Gure Patroi Aundia* (Zaragoza 1956). «Hechos y Dichos»-ek argitara zuen Donosti'ko Valverde'ren irarkolan, Ayalde'ren apain-garriekin. 237 orrialde. Euskaldun gizasemeak goratzen ditu itzaurrean. Ona: «Euskalerrria lurrez ez da ain aundia. Ala ere mundu-bazter guztietan bere semeak zabalduta daude; ta geienetan, ia beti, onak, zintzoak, tajuzkoak agertu izan dira; esan bear, euskalduna esan ezker, gizon jatorra ere an nunbait esaten dala. Au ez da arrokeria; egi uts da. Gizon aundirik asko sortu ditu gure Erriak. Aspaldikoak bakarrik aitatzeke: or Elkano, Legazpi, Urdaneta, Txurruka, Okendo, eta beste ezin esanala; iaioak, bulardetsuak, beren erriaren izena alde guztietan, lurbira osoan jaso zutenak». Eliz-gizonen artean Xabier, Igokundeko Martin Deuna, Berriotxo, Loiola'ko Iñaki Deuna... aitatzen ditu. Azken au «Gure Patroi Aundia», baiña bear bezela askok ezagutzen ez dutena. Etsaiak ere ba-ditu. «Onegatik —dio idazleak— gure artean ere ba-dira Gipuzkoa'ko gizonik aundien orri bear bezelako aintza ematen ez diotenak, bear ainbat maite ez dutenak. Gaitzez baño ezjakiñez geiago. Oientzat eta euskaldun guztientzat liburutxo au idatzi nai det; begiz ikusi dezaten zenbaterañoakoa izan zan Gure Patroi Aundia». Bera il zanetik 400'garren urtea ospatzea ere nai izan zuen liburu eder onekin.

5) *Santu Bizitzak* (Bilbao, 1958). Egunean egunekoa. Lenengo xorta: Ilbeltza, Otsailla, Epailla, Jorrailla. 537 orrialde. Itzaurrean onan dio: «Iru liburu atera nai ditut. Ona emen lenengoa, (lenengo xorta), urtearen asierako lau-illabetetan diran Santuen izenekin... Juan dan urtean «Gure Patroi Aundiarena» eskeñi nizun. Eta mai-terez eskeñi nizuna aitzakiak aitzaki, onez artu zenidan. Eskerrikas-ko! Berealaxe, aurtengorako zer idatziko ote nizun nere barruan asi nitzan: ez zitzaidan berealekoan jausi. Baña noizbaiten argia izan nun. Ez al zan ba Loiola'ko Eneko gaztea Jaunganatu Deunen bizi-tzak irakurtzen ari zala? Zergatik aren senidei arek irakurtzen zi-tun antzeko santuen bizitzak ez antolatu euskeraz? Beita! Alaxe dek. Orixe egingo diat! Ongarri izango zaiek. Or nere asmoak». Guz-tien eskuetan jarri nai ditu bere liburuak, baiña batez ere gurasoen eskuetan, bere aitak egin oi zuen bezela. «seme-alabatxori irakur-tzeko, edo irakurritakoen mamia eman dezaien». Erriarentzat idaz-ten du. «Liburutxo onetzaz auxe jakin zazu: nere liburua, literatu-ra, ez dala; deunen bizitza errex eta al dedan gozoena eta errikoiena azaltzea baizik. Ta ori onbiderako edo birtuterako bultzada irakur-leak izan dezan». Berau sortzerakoan, laguntzaille bi izan ditu Ka-rakas'en: Artzalluz'tar Klaudio'k, berak eskuz idatzia makiñaz ja-rri dio, ta Ibinagabeitia'tar Andima'k, berak idatzitakoak irakurri ta txukundu egin dizkio, baita sarri lanean azkeneraño jarratzeko sus-pertu ere.

6) *Santu Bizitzak* (Bilbao, 1959). Bigarren xorta: Orrilla, Gara-garrilla, Uztailla, Dagonilla. Ellakuria irarkolan. 567 orrialde. I-tzaurretsoan onela: «Nere irakurle maite ori! Ona emen *Santuen Bizitzak'm* bigaren xorta: lau illabetekoa au ere. Laister irugarrena eskuratuko dizudala uste det, Jainkoak nai ba'du. Ezer geiago esan bearrik ez det, irakurtzeko eta emen aitutzen diran gizon-emakumeen antzeko izateko baizik. Aurrenenko xortan bezelaxe, nere oraingo lan onetan ere, Aita Juan Goikoetxeak eta Aita Pelipe Yurramendik lagundu didate. Anai Amianok bere eskulana maki-naz aldatu du. Irurai Jaunak ordainduko al die».

Liburu oetaz gaifiera, argitaratu gabe utzi zituen: 1) *Santu Bizi-tzak*, irugarren xorta; 2) *Berri Ona* Mateo'k dakarrenez, osorik, eta

Joan'ek dakarrenez XII kapitulua, Olabide'renetik euskera errezerat aldatuta; 3) *Maiatzeko Loretako Irakurgaiak*; 4) *Igandetako Berri-On itzalditxoak*; eta 5) *Irrati saioak*, azken aldikoak noski, txukun idatzita.

IRITZIAK.- Liburu bat, naiz asko, esku artean dugunean anitz egaletik begiratu genezake ziurki: gai aldetik, idaztankeratik, euskal-kutsuari begira... Azkoitiarraren lana goretsia izan da geienik; ark Pio Baroja'ren estiloa ikusi edo aurkitu dio, onek idazkera aldetik akats poxi batzuk ere egozten.

M. Lekuona'k onela San Iñazio'ren bizitzari buruz: «Ederkitxo bete du A. azkoitiarrak bere egitekoa. Eman digun bizitza, erriaren gustokoa izango da beti ere. Liburu giarra, Retorika gutxikoa. Gauza asko ta itz gutxi dituana. Norbaitek esan bait-du (J. Arretxe'k) Baroja'ren estiloan ote-dagon ere... Ez degu ezetzik esango, itz gutxiri bagagozkio. Itz gutxiri. Retorikarik-ezari... Ez bait-degu uste, ezik, Baroja'k Retorika gutxi duanik... *Prosa aceitosa ta figuras de diction* erabiliko ez dituana bere idestietan, ori bai, ori egia da. Ta berak aitortzen du. Nolako generoa dion ere olako prosari, garbi ta ausarki aitortzen bait-du gañera. Aita Manzidor'ek ere olako retorika gabeko liburua eman digu oraingoan. San Inazio'k berak ere beste orrenbeste esango bait-zuan. Eta euskal-estiloari ere orixe dagokio. Orra, beraz, era guttiz «egoki» etorri dan liburua. Santu azpeitiarraren bizitza azkar ta garbi ikasi nai duanarentzat, egokia benetan» (*Egan*, 1956, 3-4, 107 orr.).

L. Mitxelena'k *Santu Bizitzak*, Ienengo xortari buruz: «Kristaurtea, gogoko irakurgaia da aspaldidanik mundu guztiko kristauentzat; ortik atera dute eta ateratzen on eta atsegin. Euskaldunok, ordea, urri genbiltzan. Eztakit ba ote genduen beste bildumarik, Joannateguy'ren bi liburuez kanpora: *Ehunbat Sainduen bicitcea* (1876) eta *Sainduen bizitza* (1890), Ibeltz-Apirilla bakarrik). Gipuzkoaldean beintzat oraingo au da, noski, leenbiziko sorta. Santu bakoitzaren kondairari buruz enaiteke ezer esaten ari, eta eztago ezer esan bearrik, iturri onetara jo baitu A. Manzidor'ek ur-billa. Gertakariak kontatzen mutilla izan da beti (eztago *Gure Patroi Aundiari* begiratu besterik) eta bizi eta argiro kontatzen duena euskera erraz,

laster, malkarrik gabeko batean esaten du. Euskera ori txukunago agertzen da oraingoan bestetan baiño: Ieen falta zuen azkon leunketa apur bat badu orain... Egingo nuke izango duela liburu onek irakurle ugari. Ori merezi du eta orrela izango al da arimen eta izkuntzaren onerako. Euskal-idazleak berak ere eztu ezer galduko ori irakurtzearekin» (*Egan*, 1959, 1-4, 97 orr.).

Iru-garate'k, azkenez: «Mantxik bertatik bertara eri nai du irakurlearekin, obeto esan, entzuleakin. Mantxik, idatzi ordez, itzegiten bai'du, sarritan beintzat. Bere irakurleak irudipenez ondora ekarrita, entzule bai'litu, xamur xamur, goxo goxo, ari zaie Mantxi bere itza jaulkitzen. Bazekien esatari atsegiña zalata, bere idatziei izketako doai ori erantsi nai zan zien. Etzuan ortara ezin bestez jo. Asmoz eta jakitez aritu zan. Erri billa zebillen eta, zoriz, bai erriakin topo egin ere... Neretzako, Mantxi'ren meritu aundi bat da auxe, alegia, nora dijoan garbi ikusita, artarako bideak artzen ez lotsatu, naizta ez izan nabarrak alako bere bideak. Gauzak bere berean eman nai zitun, ur-jaiotzaren kolpe-indarrean. Eta nori etzaio atsegin ur garden gardena, antuxunean epeldua ordez? Irakurleek gusto artu diote ta ori ondo» (*Egan*, 1961, 212 orr.).

Bai, eztago zertan ukaturik, elerti saillean toki berezia merezi du A. Manzisidor'ek. Sail ortan gurendu diranak txalotzea dago-gigu guri. Aren il orduan, Loiola Erri irratiak esan zuenez, «kurri-ueak igaro ziran Iaño artean karraxika, neguaren igesi». Betoz' alere, udaberri zantzu, zozo kantariaren txinta eztiak. Ark argitaratu gabe utzi zizkigun lanak merezi lukete liburu bikaiñen ospe dizditsua.

(Ikus M. Lekuona, *Egan*, 1956, 3-4, 107 orr.; L. Mitxelena, *Egan*, 1959, 1-4, 97 orr.; Iru-garate, *Euskera*, 1961, 351 orr., eta *Egan*, 1961, 4-6, 209 orr.; Nikolas Altzola Gerediaga, *Herria*, 1961-11-16'an, *El Bidasoa* 1954-1-16'an eta *Cien Autores vascos*, 99 orr.; J. Artetxe, *La Voz de España*, 1962, otsaila; J. San Martin, *Escritores euskericos*, 1869, 127 orr.; Añamendi, *Literatura*, III, 410 orr.).

20.- JESUS ERRAMON ELOSEGI IRAZUSTA (1907-1982)

Tolosa'n jaioa 1907-1-4'an. Soro bikain landuak bezela, Tolo-

sa'k arnari onak, au da, euskaltzale zintzoak ekarri izan ditu. Aipatzeraz goazen au ere oietako duzu, ezpairik gabe. Euskaltzaindikoa.

Sorterrian bertan osatu zizkigun bere biziko ikasketak. An-oremengo etxe ta lantoleetako kontu-liburuak eramanez bizi zan, ta euskal gauzai lotua.

Iker-saillen batez ere, gizon jakintsua. Ainbat idatzi du euskeraz ta erderaz. 1930'rantza asi zan idazten Donostia'ko «Argia»-n eta «El Día»-n; geroztik lankide izan da aldizkari askotan: «Munibe», «Egan», «Ikuska», «Zeruko Argia», BAP, «Pyrenaica», «Pan-Pin», «Antzerti», eta abar. «Zimitz» eta «R. de Gaintza» erabili ditu lanak izenpetzean.

Ona beronen erderazko lanik garrantzitsuenak:

- 1) *Biospeologia (Munibe, 1949, I, 31 orrian).*
- 2) *Catdlogo dolmenico del País Vasco (Zaragoza, 1953). 229 orrialde.*
- 3) *Catdlogo espeologico de Guipuzcoa (Munibe, 1951).*
- 4) *Materiales para el Catdlogo dolmenico del País Vasco.*
- 5) *Exploraciones de la Laguna Deseada (Donosti, 151).*
- 6) *Pequeño ensayo sobre la prehistoria y paleontologia del cuaternario en Guipuzcoa y sus materiales de estudio (Ikuska, 1947, I, 185 orr.).*
- 7) *Juan Ignacio Iztueta Echevarria (1767-1845) (Donosti, 1969). «Añañamendi» bilduma 65-66 zenbakiak.*

Euskeraz burutu ditun Ianak ba-dute beren gatz-ozpiña. Itz gutxitan ezagun izan oida idazle naiz esalariaren era pitxia. Elozegi'k, besteak beste, solas-aldi bat izan zuen 1954-11-25'an Donostiko Urkixo-Mintegiko areto apañean. «Euskel-irakurketak» bere itzaldia-aren gai. Ez, noski garrantzi gabea. Adiskide bat omen du «eguneroko ogiak eska oi dun lansaio latzaren ondoren, zine, teatro ala radio xixtriñ-arrotzak damaien bazkari muziñ egiñik», euskeraz irakurri ta irakurri ari dana. Alakoa eredutzat arturik, guk ere nola jokatu bear dugun, ongi irakurtzen ikasteko, adierazten digu itzaldian.

«Euskeraz irakurtzen jakitea —dio—, nere adiskideak dionez, idazleak idaztekoan darabilkin aria, izki, lerro, ahapaldi ta orrikkak elkar eransteko erabilli oi dun ari xume-xotilla, ongi ta txukun berriro matazan ariltzea omen da. Batzuetan joskera extuz erabilli du ari ori idazleak; besteetan nasaixeagoz; batek, xuxen eta urri; bestek irabioka ta jori... Norberaren idazkerak du or zer-ikusirik nagusiena. Irakurle dan irakurleak orde ari xume-xotil ori Ieen-izkian jaso ta arilketa bizian, txori-Ieporik gabe, etenik gabe, airoski ta errazki, azken-izkiraflo, mataza txukunez biribiltzen du irakurketa amaitzeaz bat.

«Seda algodoi ala artillezko mataza-biltzen emakumezkoak nagusi. Amaika gonadun neskatx pinpirin dela, etxekoandre zabal, ala amorta xar ikusten ditugu, eskumutur arin trebe, mataza bikaflik pillotatzen... Gutako gizasemea jarri bear arlo berean! Ikustekoak lirake ango trabak, ango eten-aldiak, ta ango poto-egiteak... Zer esan nai onek? Arian ariak ba-dakarrela beti beste eraz ezin diteken etekin berezia. Trebetasuna!

«Irakurtzekoan, euskal-irakurketan alegia, berdin-berdin... Ari dana nagusi. Saiatzen dana errearki burutzen. Alegintzen danarentzat idaztiaren altxor-muña. Irakurtzen orduk sartzen ditunak, euskal-idaztien bidez gozamenik barnekoenak. Euskeraz idatzitako ainbest orrialde zoragarri irakurle langillearentzat bakarrik. Irakurtzeko trebetasuna, gaitasuna! Ta onekin, iaunandreak, gure euskal-literatura idaztiaren osasun betea.

«Aolku emateko esku balu auxe barreatuko omen luke ezker-eskuiraneme adiskideak. «Irakurtze-lan ontan, aslerako nekeak gaintzeko... ekin. Iñoiz asper-aldia baletor... ekin. Gaur ongi uler-tzen ezpadet... ekin. Mingañak traba ta itzak zuzen eta eroso eldu ezpadira ozenki irakurriz, gogoatik, EKIN... Be ti EKIN... EKIN ETA JARRAI...!!» (*Egan*, 1957, IX, 38 orr.).

(Ikus J. San Martin, *Escritores euskericos*, 11 orr.; Auñamendi, *Literatura*, IV, 137 orr.; J. Bilbao, *Eusko-Bibliografía*, III, 125 orr.).

21.- ANTONIO AROTZENA GOMENDIO (1907-1989)

Arotzena'tar Andoni, Fausto Arotzena'ren lengusua, Lasarte'n jaio zan 1907-5-30'an. Jaiotz-errian osatu zitun bere len-ikasketak. Eta, geroago, marrazki ta margogintzarako deia barnean izanik, Donosti'ko Gordon Ikasguan eta Paris'ko A. B. C.'kuan ari izan zan erti-gintza ortan trebetzen.

Baiña ba-zuen gaztetan, eta gero, beste dei bat ere: eder du euskeraz idaztea. 1923'an asi zan ortan, «Argia» sortu-berri zalarik. Lan politak biribildu zituen, bai itz lauz eta bai olerkiz, eta argitaratu «Euskal Esnalea»-n, «Euzkadi»-n, «El Dia»-n, «Antzerti»-n, «Egan»-en «Euzko-Gogoa» eta abar. «Andoni» ta «A-BL» sarri erabilli izan ditu lanak firmotzerakoan.

«Euskaltzaleak» bazkunak eratuta, 1930'an, lenengo Olerti eguna Errenderi'n ospatu zanean, Arotzena'k ere ara bialdu zuen bera «Egun bat» olerkitxoa, leen-saioa bezela nunbait. Batzaldi artara igorritako Ianak argitaratzean, J. Aitzol'ek onela zesan: «Minkun eta xamur Arozena euskaltzale zintzoa, esaridun neurtitz laburretan» (*Eusko Olerkiak*, 1930, I, 128 orr.). Beste batzuk ere orobat ondu zituen, «Euskal Esnalea»-n, 1931, 51'an, datorrena adibidez.

Antzerkia ere atsegin du. Ta aizu bekit gisa ortako bere lantxo batzuk aipatzea. Ona:

1) *Andregaia nai ta...* (Tolosa, 1933). Lopez-Mendizabal'enean. «Antzerti», 19'an zenbakian. Bakar-izketa duzu.

2) *Urteurrena* (Tolosa, 1933). «Antzerti»-n dator, 23 ta 24'en zenbakian. 1933'an ospatu zan Lenengo Antzerki batzaldi ta sari-keta. Bakarrizketak eta antzerkiak eskatzen ziran. Bakarrizketa saillean Andoni'ren lan au izan saritua, 75 laurlekoz. «Arozena'tar Andoni, lasartear ertilari bikaña etorkizun aundiko antzerkigille degu», dio *Antzerti'k*.

3) *Txilibitu* (Donosti, 1930). Bakarrizketa. «Euskal Esnalea»-n dator, XX, 239 orrialdean.

4) *Mox, Miss, Xapñ* (Tolosa, 1935). 1934-7-18'an, irratiz eman-dako antzerkitxo arin polita, lasartearrak antzeztua. «Antzerti»-n dator.

5) *Balujan* (Tolosa, 1935). 1934'an, H'garren antzerki sariketa. Lau bakarriketa artu ziran: Muxika'tar Tene'ren «Gabon»-ek eraman zuen lensaria; Arotzena'ren «Balujan»-ek bigarrena.

6) *Xanko ta Parko* (Tolosa, 1936), 1935'ko lotazillean ospatu zan teatru sariketan bigarren saria irabazi zuena.

7) *Zorigaitz malkoak*. Bakarriketa.

Urteetan atzerri-zale ibilli ondoren, berriz ere erriratu ta sutsu asi zaigu idazten. «Goiz-Argi»-n (1977-1-22'an, 23 orr.) onela dio: «Berrogei urte luze jaioterritik at ibilli ondoren Lasarte'n izan berri nauzute; izan berri edo... or nonbait! Gauza asko egiteko asmo-tan nintzan, baiña erdiak eta bost ortan gelditu ziran; asmo utsetan». Berrero Karakas'era itzuli ta antxe il zan 1989'an.

(Ikus A.M. Labaien, *Teatro euskaro*, II, 159 orr.; Auñamendi, *Literatura*, IV, 135 orr.; J. Bilbao, *Eusko Bibliografia*, I, 285 orr.).

22.- TXOMIN AMASORRAIN ZENITAGOIA (1908-...)

Arrasate'ko seme, an bait zan jaio Udalaitez-pean 1908-5-12'an. Bere errian len-ikasteak osotu ondoren, Bergara'n Aita Dominikuen Ikastetxean burutu zuen batxiller-karrera. Frantzia'n urte bete ta Bilbao'n egin zituen gero bost urte ikerlaritza (peritaje) ikasten.

Industri-ikerle, Arrasate'ko «Union Cerrajera»-n Laba Garaie-tako iyezta-tallerretako buru izan da urteetan; baita bidenabar Bergara'ko Bizibide-Eskolan irakatsi ere, egin izan du.

Euskaltzale jator bezela, gerra aurretik Donostia'ko «Argia»-n idatzi zigun, eta oraintsu Baiona'ko «Gazte»-n eta «Zeruko Argia»-n.

Ba-du euskal aditza ikasteko tankera berezi bat *Itz urratuak* deritzaiona. Zertan datza, baiña, ikasbide bedegar onen guna? Kolore jakin batzuen bitartez osoturiko irakaskintza da; idazbide bat dago berau zelan erabili dioskuna, ta onen laguntasunari esker, errez bereratu dezakegu edozein unetan.

«Artiga», «Txomin» ta «Iturrozpe» erabili dizkigu lanak firmatzean.

(Ikus J. San Martin, *Escritores euskericos*, 25 orr.; Auñamendi, *Literalura*, IV, 147 orr.).

23.- ZIRIAKO GABILONDO F. ARROIABE (1908-...)

Aita kaputxinoa. Leinz'ko Gatzaga'tar Damian, euskal literaturan «Zaraia». Leinz ibarreko Gatzaga erritxoan sortu zan 1908-8-8'an. Altxatzu'n burutu zituen latin birako ikasteak, 1925'an Sangotza'n ordenako jantzia arturik. Ondarrabi'n eta Lizarra'n ikasi zuen filosofia eta Irufia'n teologia, 1933'an apaiz sagaratua izanik; urrango urtean Txile'ra bialdu zuten nagusiak eta antxe eman izan ditu mixiolari bere bizitzako egunak.

Euskal idazle jator zetorren gaztetan. Loramendi'ren ikaskide zalarik, biak asi ziran, ikasle oraindiñokarren, «Zeruko Argia»-n idazten, eta biok genduzan garai aretan itxaropentsu dizdiz zegiten izar goiztar bi, eta nik nere «Milla euskal Olerki eder» bilduman Zaraia'ren iru poema aukeratu nitun, ederki biribiiduak ziralako.

Au idazten du Aita Yurre'k: «Doi-doi urtetxo bat egin zuan Euskalerrian, apaiz sagaratua izan ondoren eta urtetxo orretan 11 lan argitara zituan, danak politak eta ederra baiño politago ta ederra-goak: 8 olerki ta 3 itz-lauz. «Zaraia» Aitagan ere itxaropen argi-argitsua ager zan; baiña Nagusiak mixioetara igorri zuten... Ai! Orduko Ordena erlijiosoaren Nagusiak euskeraren aurrerapenez, garrantziaz eta biziaz ajola gutxi zuten! Ordukoak ajolarik ez. Eta oraingoak bai?»

Alan eta guzti ere, Zaraia'ren denboretan ba-zan norbait —edo norbaitzuk— «Zeruko Argia»-ren bitartez-eta, orduko kaputxino gazteak euskaltzaletu ta euskal idazletzan jarten zituztenak. Aita Damaso Intza eta Buenabentura Oiiregi ziran oietariko bi, guztiz txalogarriak.

Dana dala or daude Gatzaga'tar Aita argiaren —naiz-eta gutxi— ian liraiñak, euskal literaturan gizaldiz gizaldi iraungo dutenak.

(Ikus S. Onaindia, MEOE, 1003 orr.; Auñamendi *Literatura*, IV, 153 orr.; Aita Yurre'ren oarrak).

24.- JUAN IÑAZIO GOIKOETXEA OLAONDO (1908-1983)

Urrituz doa euskal idazleen esparrua?, idatzi nuen nik alkarren ondoren legez itzali zitzaizkigun Gaztelu, Iñaki Olabeaga ta Bordari il ziranean, eta itzali oien utsunea nork bete gutxi ikusten bazterretan. Eta Joxe Mari Aranalde, zenaren aideak, bere aldetik: «Bukatu ditu lanak. Joan zaigu. Hori dugu lehengo Errege Egunak ekarritako erregalietako bat. Eta nik, familiako bat gutxiagoz gain, lagun bat gutxiago badut orain, lagun garbi, lagun argieta gozo bat gutxiago. Esker-on dagoit bihotzez» (*Argia*, 1983, otsaila, 27, 31 orr.).

GIZONA.- Gaztelu giputz erritxoan jaio zan J.I. Goikoetxea (Juan Bautista Ordenan) 1908-5-5'an, «Bordaxuri» baserrian, gerora Zapatari izenekoan bizitu bazan ere familia. Mutil koskor zalarik, kaputxinoetara jo eta an osatu zituen eliz-ikasteak, Altxatzu, Ondarribi, Lizarra ta Iruña'ko komentuetan. Mezakotu orduko ere euskaltzale bipil agertu zan, «Zeruko Argia»-n lan txukunak idatziz. 1936'ko ekaitz biurrian gaizki erabillia, Ameriketara jo bearra izan zuen beste lekaikide askoren artean.

Ogeitabi urtetan an ekin zion eliz-arazoetan, Argentina'ko Mar de Plata, Lavallol, Kordoba eta Mendoza'n batez ere. Buenos

Aires'en zegoelarik, ango «Euskal-Etxea»-n euskeraz irakasten zuen. 1958'an, aurretik ere agerraldiren bat egiña zan arren, betiko Euskalerriratu zitzaigun, arrezkero guztian emen lan egiñik arima-zaintzan eta Auñamendi argital-etxean, euskal egingoetan.

Ogeitaz urteak etxe onetan lanari emana igaro ondoren, 1983-1-6'an Jaunaren eskuetan utzi zuen bere azken arnasa. Urren-go egunean, ostiralez, egin zitzaizkion illetak Artzain Onaren elizan, Gipuzkoako eliz-barrutiko eliza nagusian, ainbat apaiz-lekaide, senitarteko, adiskide, euskaltzale ta euskal idazle bertan zirala otoi-tz-lagun.

ITZULTZAILLE.- Aipaturiko etxe-argitaldarian, eta aurretik noski, itzultzaille bikain agertu zitzaigun beti Gaztelu, bietara ain zuen ere, euskal ndera ta erdal euskera. Gai oni itsatsirik, konta-ezin beste itzulpen ditu Auñamendi sortaren lau aleetan, Literatura aleetan alegia; beronek aurrera atera zitun, prosaz eta itz-neurtuz, lanik geienen biurpenak. Lan izugarria, benetan! Neketsua, baiña gizonki eramana.

Alere, gisa ontako lanean osperik beteena «Musika ixilla» liburuaz iritxi zigun. Frai Luis de Leon eta Gurutzeko Juan Deunaren emeretzi olerki ematen dizkigu bertan euskeratuak. Iruron artean osatu genduan liburua, Gaztelu, Orixe ta ni tarteko giñala; iruron itzulpenak eta lan jatorrak datoz liburu orretan. Norbaitek esan omen zuen Frai luis zala eguzkipeko lirikurik aundiena eta M. Mendez Pelayo'k, Jon Gurutzekoaren olerkiengatik, onen eresiak gizakienak baiño aingeruenak geiago zirala, aitortu zigun zabalzabalik.

Orixe'k onela dio liburuaren sarreran: «Gaztelu'k bi aundienetara jo du; euskeraz poliki jantzi ditu bi aundien orien olerkirik onenak. Ez ote du joko laister goiena gure izkuntzak? Gu baiñan obeki itzuliko duztenak etorri ditezke, jakiña, ta jatorrizkoakin berdindu ere egin ditezkelat dirudit, erabat gaintzea neke ba'da ere. Gutxi al lirake gure ele ederrarentzat, besterenak olan emaita, geronetik aiek lako olerkaririk atera ez ba'ledi ere?»

Eta L. Mitxelana'k: «fray Luis'en amar olerki eta San Juan de la Cruz'en zortzi jo ditu begiz Gaztelu'k eta euskal-neurtitzetan eman. Nolako trabak eta oztopoak arkituko zituen bere bidean, ezta gaitz igartzen. Izkuntza bateko bertsoak edozein besteko bertsoetan itzultzea eginbide larria da beti eta gutxi batzuek baizik onduko eztutena. Orretarako bear du biurtzailieak «anapoeta» izan; Unamuno'ren itzez esateko, poeta ez ezik, ots, ber-egillea edo ber-sortaillea. Ezpaita aski, prosaz beala, besteren muifia eta mamia adieraztea; aren itzen musika ere, eta ez musika ixiiila, belarriek suma dezaketena baizik, nolabait ere berritu bear baita beste soñuigaillu baten bitartez» (*Egan*, 1963, 1-3, 141 orr.).

Luze-sakon goraipatu zuten ainbat idazlek liburu onen eina. Aipa-berri dugunak onan bukatzen du berea: «Euskal poesiaren atzeaz eta geroaz kezkatzen denak usu erabilliko du, ezpairik gabe, esku artean». Nik ez dakit arrezkeroko olerkariak olan egin dutenik, baiña merezi lukena da. Gaztelu'k, beingoan dakuskegunez, bide ortatik jo zuen bere bizitzan; bai, aren lanak ildo eta azatz ortatik ibilliz landuak dituzu. Guren, gozo, giar, mami naiz azal. Orraxe jo bear luke euskaldunon olerkiak, geure euskalduntasun oso-betean, ez txoro, noraezeko, amets arlote, irudikizun ziztrin. Egia esa, gutxi baiño ez dituzu beste izkuntzetan ere, era ontako olerkariak.

Liburu onen amaian Gaztelu'k euskal neurkerari buruzko lan garrantzitsu bat dakar. Gaiok aztertzen ditu: 1) Mintzoa eta igikera; 2) Ritmua; 3) Euskal neurkera legeak; 4) Koplarien egitura, ta 5) Neurtizketarako eredua. Gaztelu'k ba-zuen ontaz bere iritzi apartekoa, «01erti»-n eta «Musika ixilla»-n adierazia.

Lan ederra osatu zuen, baita, Auñamendi'k argitaratu asmo duen Iztegi nautsi erdel-euskerazkoan ere: oraindik sei ale dira argitarata emanak.

OLERKARI.- Nik olerkari ontzat euki izan dut Gaztelu. Ar eta irakur aren poesi-lanak; olerkiz idatzi zuenetik ez duzu ezertzo ere kaskar idoroko. Gerra baiño leen «Zeruko Argia»-n eta «Yakintza»-n asi ta gaurdaiño ondu digun guztia daukazu sakon, bitxi ta eder

oretua. Tamalez, bizitz-egunik geienak euskal girotik urrun eman zitulako bear bada, etzizun Orixe naiz Zaitegi baten erako lan ugarria utzi, baiña aren lumatik irtena, oro, ez dugu iñolaz ere arbuia garri.

Zeregin askoz lanpetua bizi izan zalako, etzuen poesi askorik sortu al izan, baiña utzi ziguna edozein antolojitan, baita atzerritarrenetan ere, ezeren lotsakizun gabe agertzeko moduan dago. Ez dituzu bolada bateko lanak, txapligu-zarta bezela, ixio ta itzali, euskal literaturan mendeak zear iraungo dutenak baizik.

Orixegatik, ziur asko, olerkion barne-balioaz konturaturik, epai-maikoen ustez onak ziralako, ainbat sariketetan sarituak izan ziran aren poesiak. 1959'an «Loramendi» sarian aipamena lortu zuen; 1961'an, emen Larrea'n, «Olerti» leiaketan leensaria eskuratu zingun; 1970'an, «Irun-Saria»-n irabazle izan zitzaigun; 1971'an ere bardin, berak irabazi zuen «Irun-Saria», 50.000 pezeta eta Urrezko Gaztelua. Lan sarituok argitaratuta daude —*Biziaren erroetan*, 1972 eta *Gauean Oihua*, 1972—, baiña beste asko or-emen sakabatuak, «Zeruko Argia», «Yakintza» eta «Olerti»-n datoztenak batez ere. Ederki legoke guztiokin sorta jori bat osatzea.

Bere illoba azkenez, osaba poeta dala aitortuz gero, taiu onetan mintzo da: «Ez du poesia bakarrik egin, baina hori da batez ere landu duena eta hortan erakutsi du gehienik nor zen eta zer zen. Eta poeta bihozpera eta maitabera bat batez ere Haatik kantatu ditu maitasuna ta mina hasi eta buka» (*Argia*, 1983, otsaila 27, 31 orr.).

Izen-ordeok erabili zitun: «Gaztelu'tar Jon Bautista», «Gorota», «Gaztelu», «Bordatxuri».

(Ikus S. Onaindia, MEOE, 1056 orr.; J. San Martin, *Escritores euskericos*, 92 orr.; J. Bilbao, *Bibliografia*, IV, 67 orr.; Auñamendi, *Literatura*, IV, 141 orr.; L. Mitxelena, *Egan*, 1963, 1-3, 141 orr.; S. Onaindia, *Zer*, 1983, 62 zenbakia, 8 orr.; *Argia*, 1983, otsaila, 30 orr.).

25.- BASILIO IRAOLA ZABALO (1908-...)

Aita Pasiotarra. Anoeta'n jaio zan 1908-7-14'an, Bustiñaga base-txean, baiña umetatik Atiñaga'n bizi izan zan. Bertan egin zituen lenengo asi-masizko ikasteak. Eta, gero, mutiko Jainkozalea ta onera makurra zetorrelako amabi urtekin Gabiria'ko pasiotar ikastetxera jo zuen eleiz karrera ikasten. Goi-maillako ikaskintzak, berriz, Angosto'n, Mellid (La Coruña)'n eta Deustu'n osotu zituen.

Apaiztu ondoren, Latin eta Euskera irakatsi zitun Gabiria'ko ikastetxean. 1936'eko gudate ostean, erbastetik ibilli zitzaigun urte mordoan. Baiña aspaldian Irun'en daukagu ango arimen zerbitzuan.

EuSKAL IDAZLE- Alderai ibiltzea aitzaki izan oi da euskaldun askorentzat euskal-ianik ez egiteko; «nere lurrean ba'nango... — esan oi dute ainitzek— nik au ta bestea egingo nuke», edo-ta «egin izango nuen». Akiakulu politak ezer ez burutzeko. A. Basilio ere orrela bideak zearkatua duzu, baiña bein ez bein euskal arloa laga gaberikan. Egia da; ortik zear ibilliz, umetatik berezko dugun errez-tasuna, naiz itzegiteko naiz idazteko, zearo ezik ere, oiturarik ezak laster auldu oi digu.

Aita anoetarrak berak aitortzen digu ederki. «Geienetan, ortik zear, erdera erabilli bear izaten degunoi —dio—, gero euskeraz mintzatzeko mingaña zerbait moteldu egiten zaigu. Neri beintzat. Bai, mingaña moteldu, luma-muturra erdoitu ta eskua... alpertu». Egia bera duzu. Aita Basilio'k, ala ere, Lugo'ko Foz'en zegoela bukatu zuen bere liburuetatik ederrena: Santa Jema'ren Bizitza.

Idazle bezela, prosaz ta neurtitez ari izan da. Gerra aurretik Donostia'ko «Argia»-n idatzi zuen, «Mototxo» izengoitiz. Arrez-kero, ere, «Redencion»-en idatzi digu, ia beti izena estaliz.

Ona argitara dituen liburu batzuk:

- 1) *Lourdes'ko Ama'ren Bederatziurrena.*
- 2) *Pelitzisimo Deuna'ren Bederatziurrena* (Ezizenez).
- 3) *Gabirel eta Jema Deunen Bederatziurrena.*

4) *Eder-ederra... zera, Maria* (Zarautz, 1951). 94 orrialde. Egizko edertasunez apaindutako Maria guttiz Garbiari Bederatziurrena.

5) *Elurra ta sua. Santa Jema'ren Bizitza* (Irun, 1960). I-txaropena'ren irarkolan. 442 orrialde. XXXIII ataletan zatitutako liburu joria, euskera errez aberatsean eiota. Egilleak beren berengi jokatu du orrela; gisa ontan adierazten digu bere asmua: «Euskeraz irakurtzeko oitura gutxikoak edo batere gabekoak diran euskaldunentzako liburu bat egiterakoan, izkera samurra, konprenitu-erreza, erri-euskera erabilli bear. Bestelako liburuak, itz-berri askorekin, euskera garbiegian egindakoak, irakurle xumea bereala aspertu egiten dute».

Eder-ederra zera, Maria idaztia ondo baiño obeto artu zion erriak, olako izkera errez samurrean osotua eman ziolako. Eta ale guztiak aitu arte arrapalaka erosi zuten «liburutxo aren azalaren barruko tolosturan, beste au laister jaioko zala» agintzen zuen. Agindua, baifia, etzuen berak nai bezin arin bete al izan, eta irakurlari parka-eske diardu itzaurrekoan. «Bai —dio—, agindua berandu betetzen dizudala, agiri-agiriko gauza da. Baña, zer nai dezu? Bitarte ontan lumaritzan bakarrik jardun bearra izan ba'nintza, emandako itza onezkero beteta neukan, noski. Luma ordez mixiolari-gurutzea eskuetan erabilli bearrak, ordea, agindutakoa nai bezin laister betetzea galerazi dit».

Liburu au ere txaloka artu izan zan; erri zeeak bakarrik ez gero, baita euskal literatura zelaian maixu diranak ere. L. Mitxelena'k onela, *Elurra ta sua'ri* begira iritzia emakeran: «Santa Jema'ren bizitza berri onek baditu ia 450 orrialde eta nekerik gabe irakur diteke burutik burura, ain dago ederki antolatua, banatua eta kontatua. Izkuntza ere jatorra du, joria, eta joria bezain erraza. Maiz esan oi da, eta okerrik gabe noski, irakurgarrien bearrean gaudela gure izkuntzan. Euskal-irakurleen egarri ori berdintzeko, bada, berebizikoa da bere saillean Aita Basilio Pasiotarrak idatzi duen liburu au» (*Egan*, 1961, 148 orr.).

(Ikus L. Mitxelena, *Egan*, 1961, 1-3, 148 orr.; N. Kortazar, *Cien autores vascos*, 86 orr.; J. San Martin, *Escritores euskericos*, 102 orr.; Auñamendi, *Literatura*, IV, 151 orr.).

26.- DEMETRIO GARMENDIA OTEGI (1908-...)

Berrobi'n jaio zan 1908-12-20'an. Aita Prontziskotarra. Lekai-de izan gura ta, Arantzazu'n asi zan eliz-karrera ikasten, La Aguilera (Burgos), Olite-Erriberri ta Arantzatu'n bukatu rik. Apaiztu ondoan, Euskalerriko komentuetan egin du arimazaintza.

Euskal arloan ez du zabar jokatu, «Aranzazu», «Irugarrengoan Irakaslea», «Argia», «Goiz-Argi», «Ensayo» ta olakoetan idatzi digu, «Antzi» ta «Bat» erabillirik; «Goiz-Argi»-n illero idatzi izan zuen aldakada batean, bere baserriaren izena, «Antzi», izenpetzat artuaz. Euskera oso errikoia darabil.

Liburu auek argitaratu ditu:

1) *Aita San Antonio'ri Bederatziurrena* (1963), «Aranzazu»-n emana.

2) *Aranzazu*. 120 orrialdeko liburuxka, Santutegiko liburutegian geien saltzen dana.

Federiko Zabala'ren «Euskal Herriaren Historia» liburuan ere berak itzulu zuen 2'gn. Kapituluua.

27.- PABEN LOIDI PEÑA (1909-1985)

Apaiz olerkari. Ainbat urtez Igeldo'n arima-zaintzan ari zaigun gizaseme biotz-zabala. 1977'an, beronen bertso-idazti mardul bat argitara eman zuen Kardaberaz Bazkunak. Eta M. Lekuona'k egin zion itzaurrean onela goraltzen du apaiz langillearen euskal olerkigintza.

«Ez nuke lotsarazi nai —dio—, nere konparantza onekin, gure lagun Loidi olerkaria. Txori kantari batekin nai nuke konpara: erresiñularekin, urretxindorrarekin. Gure olerkari guziak ez bait dira erresiñul. Ba dira, turut-ots bildurgarria dariotenak. Gure Paben ez da turutalari; soñu ezti, soñu apain, soñu jostalaria dario beti bere Iratik. Ba dira, beti norbaitekin asarre diarduten olerkari erretxiñak.

Gure Loidi'k ez du iñor etsairik munduan —Ondarribia'ko estropazaleren bat zerbaitetan izan ezik—. Jaunak munduan egindako oro, adiskide du. Ez du etsairik. Ba dira, beti lantu jo diardutenak ere. Gure Loidi'k mundua erroxa-kolore ikusten du: Euskeraren etorkizuna izan ezik, eta benetan izan ere. Gure Paben'en olerki-jarduiroak, erresifiul poxarena dirudi: jardurio ezti, apaiz, jostailu, dantzari: umoretzar-aldian umore-ongarri irakurtzeko olerkariaren erregali. Eta grazi ori ez bait du oraingoa. Guk beti ola eza-gutu degu, Orio'ko txoria, Gasteiz'ko egun gogoangarrietatik eta orain arte». Beude emen andespen eta gorantzazko itzok, asiera-asieratik nor nor ezagun dezagun.

Afiorga'n jaio zan Loidi, 1909-12-22'an. Bost urte edo zituala, aita il ondoren, Orio'ra aldatu zan bizitzeez bere sendikoekin. Gero, goi-deiari erantzunik, Andoain, Saturraran eta Gasteiz'ko abade-ikastetxetan osatu zituen ikasketak. 1936'an, Mujika'tar Mateo, Gasteiz'ko Gotzai zalarik artu zuen apaizgoa, urte berean, Aitzol izlari zala, Añorga'n meza berria emanik; eta bertatik Musitu'ra arima-lanera eta Martin Lekuona'ren lana jarraituz, Araba euskalduntzera. 1935'an, Regulares'ko kapellau, ara ta ona. 1939'an, guda dunbotzak itzali zirala-ta, Bizkai'ko Karrantza baillarako Aldeacueva ta Sierra erri koxkorretan arima zaindari. 1945-11-15'an Igeldo'ra, eta arrezkero guztian ementxe daukagu.

OLERKARI.- Doai gurenez aberastua da, ezpairik gabe, ederraren berri ondo dakiguna. Loidi'k berez zekarren delako jita ta gerora ikasiz eta ekifiaren —praxis— bitartez —ez goregi ez beeregi, bai tarteko, ots, erri— ta eliz-olerkari fiña gertatua. Gasteiz'ko apaiz-gaitegian asi ta gaurdaifio, ortan jarduna da. Ba-dira bertsolari batzuk edonoiz eta edozelango jai naiz festa-buruz erria barne-giro-tzeko deituak diranak. Loidi ere oietakoa dugu. Or lekuko ta testigu bere liburu bakarra, «Txiruliruka» deritzaiona, oraintsu Kardaberraz Bazkunak argitara emana (Gasteiz, 1977, 145 orr.). Or duzu Loidi'ren poesi-lan osoa.

Bost zati dauzka. Leenengo *Oroitzapenak*. Orio'n bada umezur-tzik eta ari abestuko dio, eta kanta onek Zarautz'en V'garren Eus-

ko Olerti-Egunean —1934— euskal poemaetan leenengo saria irabaziko du; Orío, bere bigarren sorterri, goratuko du, «Tarrabillon», Arrantza, Bale-arrantza, arraunlarik, Orío'ko aundia, patroí aipatuak, estropadak, arraun-dofiuak, Erramun itxua, Orío'ko motxa, Orío'n San Martifiz.

Bigarren saillean, lirikan noski, auek goretsiko dizkigu: Ama, agur; Maitere, Martín Lekuona, Josexo ere il...! Telesforo Galparroso, Arantzazu'ko gudari-billeran, Don Julian Rezola; Eztaiak Elizondo'n eta abar.

Irugarrenean elizkoiak datoz: Nere meza-berrian, Ondarroa'ko arrantzaleak eskatuta egiñiko Bateltxoa kulunkaz, Josexo aldarean (Zamora-Arrillaga'tar D. Jose), Añorga'n meza-berri (nere erritar Jose Antonio Pagola-Elortza'ri), Pazko-Eguna, Hipona'ko arranoa, San Isidoro'ri, Milla esker, Yokin (bere adiskide Dorronsoro'tar Yokin apaizari), apaizen Amari (Donosti'ko Eukaristi-Batzarrean, 1946, orrilla), gaurko apaizari, zigor-Iana apaizari, Sortzez Garbiari (Seminario-egunean, radioz), Txori lepo gorria, seminario-egunean, radioz (1940), mixioak Igeldo'n (1956-111-4), Luzarbe gogojardunetan (1973), Larrea'ko Amabirjiña koroitzean (1968).

Laugarren zatiak. auek dakarzki: Txapela, Pelota, Aizkolariak (1950-XII-16), Agirre txirrindularia mutikoen txapeldun, Iparragirre, Erne Naparroa...!, Orreaga'ko gudua, Don Alejandro Alberdi, Igeldo'k organistari bere Omen-aldian egilleak abestuek (1971-IV-18), Gurelesa'ren deia, Igeldo, Isidro Ansorena txistularia, Aralar mendian, Urrezti'ko aingeruari, Pasaia'ri begira, Baserria ta euskera, Musitu, bai ta ez... Altxerri'ko aitzulua ta Oteiza, baleo ta balitz... Eliz baten zar-berritzea auzo-lanean, Txakurra zauzkaz, Etume, Karrantza'ko izpiak.

Eta bostgarrenak, lagun artekoak: Eztaiak Biriatu'n (1955-I-31), Jaka'ri eskutitza, Mariano Azurtza'ri, Eskudero, Aita Onaindia'ri, Xabier Peña'ri, Basarri, Usurbil'en gertatua...? Pako Muñoa'ren bixigua...

Jauzika legez aipatutako neurtitzok eta gaiñerakoak osatzen dute Loidi'ren «Txiruliruka» bilduma. 105 poesi gutziz. Danak irudimen

azkarrez eta euskera txukunez onduak. Zortziko txikia darabil geinez, rima aberatsaren barruan.

Bi begik batek baiño obeki ikusi oi dute. Zu ere liburu apain onen guna txasta-irrikaz jar zaitezzen, ona Lekuona zarrak leen-aipatu itzaurrean dakarrena. «Nik, besteak beste —dio—, gauzato bat ikusieraziko dizut olerki oietan: bertsoaren txukuntasuna. Mamia ere bai: mami poxa —leen ere esan det—; bañan batez ere, iñun gutxitan ikusten dan bezelako txukuntasuna bertsoaren soñean, azalean. Ikus, batik-bat, bertsoen puntu-rima, Xempelar'en iduriko, zeatz landua; bañan puntu errex oparo, ugari dariona. Atsegin bait da, noiz-nai, olerki oietako edozein bat eskuan artu, eta xaloxalo, pake-pakean irakurtzen goxatzea».

Olerki oietarik naiko sarituak izan dira: «Orio'ko Umezurtza», Zarauz'eko V'garren Olerti-Egunean, Aitzol zanak eder-etsia eta sarizatua, 1934'an; «Aizkolariak», 1950'an, Educación y Descanso'k Donostia'n (1950) ospatutako olerki-batzaldian; «Ixildu eziña», 1953'an, Gipuzkoa'ko Aldunetxeak eratu zuen leiaketan sariztua; «Arraunketa», «Erne Naparroa», «Meza berria» eta «Bateltxoak kulunkaz» lanak ere dedu-aipua merezi izan zuten.

Igeldo'n il zan (1985-IV-IO).

(Ikus Aitzol, *Eusko Olerkiak*, 1930, 23 orr.; S. Onaindia, MEOE, 1007, orr.; J. San Martín, *Escritores euskericos*, 124 orr.; Auñamendi, *Literatura*, IV, 168 orr.; J. Bilbao, *Bibliografía*, V, 200 orr.).

28.- KARLOS SANTAMARIA ANSA (1909-...)

Donostia'n jaio zan 1909-12-25'an. Zientzi zeatzetan Irakasle (Doctor) Madrid'eko Ikasgu Nagusitik. Oraingo Algebra irakatsi izan du Donostia'ko «E.U.T.G.» dalakoan. Erdel idazle bezela, Eli-zeak laikoekin ditun ar-emanakin ari izan da batez ere. «Pax Christi» elkarteko idazkari. Igandero idatzi izan digu *El Diario Vasco*-n, lan jakingarriak.

Euskaltzaindian urgazle. Urte batzuk dirala, «Zeruko Argia», «Jakin» eta «Anaitasuna»-n idatzi zuen euskeraz. Ba-du gatza gaiak biribiltzerakoan. Ona erakusburu legez «Zeruko Argia»-n (1967, jo-naillak 23) azaldu zigun «Apaiza» lanaren zatiño bat.

«Beste egun batean —idazten du—, batzar batean giñelarik, apaiz batek galdetu zidan ia apaiz geienak intelektualak ala profesionalak izaten diran. «Ortarako, esan nuen nik batzarrean, erriak gidatzen dituztenak ez dira profesional utsak izaten, egiazko intelektualak baizik, bi gizon mota oiek oso ezberdiñak diralako...» ta ortik sortu zan eztabaida. Nik, apaizak intelektualtzat artzen ditudala erantzun nion eta batzuek arriturik gelditu ziran bere erantzunagatik; beren ustez, apaizak profesionalak bezela jokutzen dute geienetan. Baiña ni nerean nago oraindik». Apiaz-etsaigokoentzat ur-parrasta larria.

Ba-dauka argitaratu gabe euskal esaera zahar moltzo bat ere. Beronen erdel-liburu batzuk:

- 1) *Jacques Maritain y la Polemica del Bien Comun* (Madrid).
- 2) *L'Etat ideal* (Donostia).
- 3) *Espiritualidad y Política* (Madrid).

(Ikus J. San Martin, *Escritores euskiricos*, 155 orr.; Auñamendi, *Literatura*, IV, 172, orr.; J. Bilbao, *Bibliografía*, VII, 434 orr.).

29.- TXOMIN SAN SEBASTIAN (...1964)

Astigarraga'ko seme. Il zanean, *Zeruko Argia*'k onela idatzi zigungun: «Gizon bikaiña galdu degu egun auetan. Lengoak garanok, askotan irakurri genituan «Txadon-Zaia» izenpeaz idatzitako euskal-lan burutsuak. Astigarraga'n bizi zan Txomin San Sebastian genduan idazle jator ura. Lanbide asko zituan eskuetan: sakristau, kanpai-joile ta organista txapel baten azpian, alajaiña; ta oiez gain Donosti'ko Erriaren Txistulari Astigarraga'n. Berrogei ta zortzi urte

luzetan egin zituan bere lan oiek zeatz-meatz» (Z. A., 1964, 80'garren zenbakia, 1 orr.).

Irakurri, idatzi ta lan pozik bizi zala ere, zoritxarrak maiz esitu zuen. Bein gaiñera, «gau batean etxerik gabe utzi zuten kale gorrian, bere emaztea gaizorik zuala. Andre gaixoa ospitalean il zitzaioren andik laster. Egun aietan seme bat ere, trenak jota galdu zitzaioren». Ordun Ernani'ra aldegin zuen; ala ere, «Astigarraga'ko jaietan txistu ta danboliña aidatzen ikusiko zenduen».

1964-8-21'an, Ernani'ko elizan zala, ondoezik aurkitu zan; etxera eraman zuten, eta andik laster gorpu. Urrengo eguneen Ernani'n egin zitzaizkion illetak, bere ezagun eta lagunak eliza betetzen zutela; illaren 26'an, Astigarraga'n, beste ainbeste egin zion bere jaioterriak ere, gizon jator orrekin zeukan zor aundia zelanbait —ez geiegirik noski— kitutu naita.

EUSKALTZALE.- Guk geure euskaltzaindia, zentzu zabalean aurki, errian daukagula esan oi dugu. Izan ere, guztiok dakigu, nola ko itz eder eta esaldi jatorrak jalgi oi dituzten, ustekabeen, beren ezipaiñetatik! Txomin olakoxea zan, idatzi zigunetik atera genezakenez. Etzan ez amotsa. «Ba-zekien, berak bere buruz ikasita, nainkoa gure euskal-saillean. Idazle zar eta berriak irakurriak zituan, eta aditzekoa zan itzen iturriak adieratzen asten zanean» (*Loc. cit.*).

Donosti'ko «Argia»-n eta Bilbao'ko «Euzkadi» ta «Euzkerea»-n idazten zigun batez ere, ipuin, izkirimiri, erriko berri ta goraberak. Origatik edo, esan oi zion A. Kanpion'ek «Astigarraga'ko pillosopo txikia». Baita iñoiz —«bere» zala-ta— Orixe ta Altube'ren aurka ere idatzi zuen. Ba-dute giarra ta funtsa idazle xume onen sorpenak, bai euskeraz eta bai erderaz.

(Ikus Anai Balentin Berriotxoa, BAP, 1964, 472 orr.; Añamendi, III, 440 orr.; *Zeruko Argia*, 1964, 80'garren zenbakia, I orr.; *Euzkerea*, 1929, 200 orr.; eta 1930, 286 orr., ta abar).

30.- ELIAS KORO (1909-...)

Elgoibar'ko semea; Deba ibai ondoko erri langille orretan munduratu zan 1909'an. Idazkaritza ikasi zigun, eta 1936'arte, Elgeta'n Udaletxeko idazkari izan zan.

Euskeraz idatzi du «Euzko-Deya»-n eta «Alkartu» aldizkarietan beintzat. «Egizale» zerabilen.

(Ikus J. San Martin, *Escritores euskéricos*, Bilbao, 1968, 63 orr.; Auñamendi, *Literatura*, IV, 174 orr.).

31.- ESTANISLAO URRUZOLA ETA BITORIA (1909-...)

Gizaseme grifñatsu ta ziri-mara; abertzale aundi ta euskal idazle aspergaitz, teatru-zelaian batez ere. Eusko Jaurlaritza'ko Kultura Saillak (1983) ateratako «Antzerti» aldizkarian berak mugatzen digu bere bizitza urduri ta langillea. Ortik artuak dira emengo ontan doazan zeaztasunik geienak.

Urruzola —«Uxola»— 1909-11-13'an jaio zan, Tolosa'n. Komerzio ikaskekak egin zituen bertan Eskolapioetan, eta 15 urte zituela, etxeoak diruz urri zebiltzala-ta, lanean asi idazkola baten. Baita laister asi zan atzilo giroaz jabetzen ere: bein Baztan'dik Zudaire'ra bitarteko mendietatik zebilela, muga ondoko zaiñak oratu ta aibat galdera egin zizkieten; Bilbo'ko «Excelsior» egunkariak ere zarata pizkat atera zuen gertakizun haretaz.

Gazterik egin zan (1929) jelkide eta Errepublikara garaian abertzale lanari ekin zion gartsuki. Guda sortu zanean (1936), Illarrazu'n gertatu zan gudari eta, Tolosa naparrak artu zutenean, Loiola'ko Gudarozte Etxera joan zan, Beizama, Mendizorrotz-Oriamendi, Ernio, Elgoibar'ko San Migel Gañean eta... ibillirik. Gero, Elgeta, Basalgo, Legutiano ta beste zenbait menditan zorroztu zituen ortz eta atzamarrak... Elosu, Nafarrete, Igoire, Artxanda, San Roke eta Laredo... Emen erori zan etsaien eskuetan, «Itxarkundia»-ko bere lagunekin.

Ondoren, arat-onat, gorriak ikusi zituen giltaperik giltzape eta zigor-zelairik zigor-zelai, Miranda-n, Bilbao'ko Eskolapioetan, Larrinaga-n, Puerto de Santa Maria-n, Madrid'eko Yeserias'en eta Valladolid'eko espetxe probintzian. 1946'an Huarte-Arakil'era-ko bidean lotu, Tolosa'n makillatu ta Donostia'ko Ondarreta-baitegian sartu zuten. Azkenez, bizitzen ere ez ziotela uzten-eta, atzerrira joanik (1947),an erre zituen amabi urte, Brusela'en eta abar, ixilpeko sindikalgintzan lan egiñik eta Nazio-arteko Kristau-sindikalisten Batzarrean (1966) euskaldun sindikalisten ordezkari izanik. Aberriratu zanean, berriz atzilotu zuten laister (1968) Ernani'n, sei illabeteko itzalpe-zigorra ezarririk. Geroztik ere sarritan izan ditu politikoen «ikertaldiak».

EUSKAL IDAZLE.- Uxola'k, aberri-barrutian ez-ezik, euskal literaturan ere bere lan bikaiña osatu du. Guda aurretik asi zan idazten «Euzkadi»-n eta «Argia»-n. Tiots artean zebillela, Bilbo'ko «Eguna»-ra igorri oi zituen izpar eta lanak. Gerra ondoren, eta atzerri zearkako egunetan batez ere, ainbat lan agertu zituen «Euzko-Gogoa»-n eta «Egan»-en. Geroz, «Zeruko Argia»-n, «Goiz-Argi»-n, «OIerti»-n, «Agur»-en eta abar idatzi digu. Berdin «Lan-Deya», «Gudari», «El Diario Vasco», «Redencion», «La Voz» eta olakoe-tan. Luma emankorra bene-benetan. Ezin dezakegu uka, bertso, ipui, eleberri ta antzerki, «oparo erne» dira Uxola'ren lan-saillak.

Bizitoki zeatz gabe, luzaroan, andik ona billita ere, idazteari ekin zion. Ikasbide ederra guztiontzat. Garai artan euskeratu zizkigun Georges Simenon belgarraren «Le dependu Saint Pholis» (Lieja'ko urkatua), Edgar Wallace'ren «Iron-Greep» (Burni-atzapar), Andreiev'en ipuiak, Andersen'enak eta Dickens'enak. Eta beste batzuk.

Baifia teatrua izan du gogokoen. Eta lan izugarria egin digu orre-tan. Berak eskintzen digu orain arte (1977) osatu dituen antzerki-lanen zerrenda, 49 lan noski. Batzuk, geienak, berak bere kasa sortuak dira; beste batzuk, euskeratuak.

Jatorrak: «Lengusu amerikanoa», «Gurutz ori nere bizkarrean», «Biotz zekenak», «Pernando Amezketarra», «Biok... Jeolimo, alajaña» (antzeztua), «Eskalearen Eguberria», «Neronek galdu nuen

nere alaba», «Indarraren legea» (antzeztua), «Larreborda» (antzeztua), «Eskergaiztokoa», «Askatasun garratza» (antzeztua), «Buzokiko bost ziran» (antzeztua), «Ezkontzeko deia» (antzeztua), «Sor Gurutze» (antzeztua), «Espetxeratua 2.000» (antzeztua), «Odol urdiñekoak» (antzeztua), «Eskolari piper» (antzeztua), «Iñakitxo'ren altxorra» (antzeztua), «Itzulera» (antzeztua), «Billaua bainan billauagoa» (antzeztua), «Barkapena», «Iñauterietan», «Gorrotoaren emaitza», «Untzabe'ko kimu-berriak», «Kontuz Dalila'ren», «Begi ta biotz gabeko aragi multzoa», «Yolanda», «On egiteagatik irakasle» (antzeztua), «Lapur eta maltzur» (antzeztua), «Lau Iore erregin batentzat» (antzeztua), «Ikastolaren aurrean pastel bat», «Marrubiak», «Aitor'en altxorra», «Ekintza: Polonia» (1), «Mamuxka» (2), «Euskal mendien ezkontza», «Perretxiku batzaldia», «Beltza,oa askatasunean», «Andragai bat Arregi baserriko», «Sal-kindaria».

Euskeratuak: «Andra Txintxarri», «Zaldiko-maldiko biurria», «Illik dagoen Amal'i», «Zaldilaria», «Pigmalion», «Tipuliñen arrapaketa», «Mimintz'en ikasketak», «Lixuontzia», «Legegizon baten estuasunak».

Zerk eragin ote zion Uxola'ri antzerkiak idazteko? Berak one-la: «Asieran eleberrigintzari ekin ba'nion ere, antzerkiagana itzuli nintzan gero. Eleberriak argitaratzea baiño antzerkiak antzokietan agertzea errezago dala ba-dakizu, eta gure izkuntzarentzat ongarrirago ere bai». Ortara, berriz, zerk? «Ene abertzaletasuna —dio— izan da neretzat ezten eragillerik zorrotzena. Abertzaletasuna nigan nabaitu nuenean asi nintzen euskeraz idazten, izkuntzarik gabe ez bai da erririk». Auxe berau esaten zigun Orixe'k ere. Beraz, badakigu.

Saririk? 1956'an. urtera arte lakaripeko lanean ari onen zan, baiña urte orretan «Año Jubilar» iragarri zuten Arantzazu'n, eta ango sariketan leen-saria berak eraman zuen «Zotaletzeko Artzaiarekin». Olerkari ugari ere bai dugu-ta, bigarren saria jaso zuen 1964'an Donostia'ko Euskal Jaietan. Geroztik, ipuiak eta aur-antzerkiak, bereak noski, sarituak izan ziran Zarautz'en, Errenderi'n, Bilbo'n...

Polizi-nobela bi ere ba-dauzka: 1) *Xixorien gertaera*, sariketa baten aipamen berezia lortu zuena, eta 2) *Pelotariak*, Oesteko nobela.

Oraindik ere ez dago gelditua: bera da Euskerazaintza'ren idazkari.

(Ikus J. San Martin, *Escrilores euskericos*, 1968, 165 orr., eta *Apendice*, 1969, 39 orr.; Auñamendi, *Literatura*, IV, 166 orr.; J. Bilbao, *Bibliografía*, VIII, 118 orr.).

32.- JOSE MARIA LOJENDIO IRURE (1910-1979)

Donostia'njaioa, 1910-10-18'an. Berton il zan 1979-12-28'an, eritasun luze baten ondoren il ere.

Il-berri ematean, onela Aita Villasante'k: «Asko zor dio Euskaltzaindiak. Gerra ondoko urte zail haietan, Ignacio M.^a Etxaide jauna hil zenean (1962), Euskaltzaindiak berarengana zuzendu zituen begiak. Ez alperrik. Euskaltzainburu izan zen denbora laburrean euskaltzain oso berri hauek izendatu ziren, gutxienez: Jean Diharze «Iratzeder», Alfonso Irigoien, Pierre Larzabal, Jose M.^a Satrustegi, Antonio Zavala, Antonio Labayen, Juan San Martin, Jean Haritschelhar. Horietarik ez gutik orduan berean egin zuten sarre- ra hitzaldia. Beraz, garai hartan aurpegi berri bat hartu zuen Euskaltzaindiak. Gainera, haren denboran bi Biltzar egin ziren: bat Arantzazun eta beste bat Loiolan. 1963tik 1964ra egon zen euskaltzainburu, eta ez 1964tik 1966ra, leku askotan idatzirik ikusten dudana bezala» (*Euskera*, 1979-2, 863 orr.).

Lege-gizona. Donostia'n ikasi zuen batxilerra. Eskubide Lizenziatura Valladolid'en lortu zuen eta Irakaskintza (doktor izatea) Madrid'en eta Paris'en. Julio Urkixo Mintegiko bazkide. Gipuzkoa'ko Adin Laburrekoen Auzitegiko Buru.

Euskaltzale zanez, Gontzaga'tar Luis Deunaren gazteen artean, berak sortu zuen 1930'an «Luistar Euskal Idazle Bazkuna (L.E.I.B.), bertoko leen-idazkari izanik. Orrez gaiñera, naikoa idatzi zizun gerai aretan «Junior», «Gure mutillak», «Argia», «El Diario Vasco» ta olako aldizkari ta egunerokoetan; batzutan «Bidasoro», «Matia

Polloe» ta «Mazkelet» goitizenez. Gerra ondoko denboretan, «Egan», «Euskera» eta «Aranzazu»-n lankide izan zitzaigun.

Islari joria zan, etorri gozo ta oparoa zuena. Solasaldi asko eman zituen Euskalerriko bazterrik ezkutuenetan ere; katoliku zabalkunderako eliz-itzaldiak gogoko zitzaizkion bereziki. Auetatik bat interesgarria, 1931'an emana: «Euskal-Bakaldun bat; Iturbide ta Aranburu'tar Agustín, Mexiko'ko lenengoa (1783-1824)».

Berdin, 1959'an Loramendi'ri eskeiñitako omenean Bedoña'n egin zuena ere. Aita Yurre'k onela: «Bazkari bitartean Lojendio yaun txit agurgarriak ta euskaltzaiñak itz egin zuan garbi ta mamitsu ta euskera ederrean» {*Olerkiak*, Loramendi, 14 orr.}. Urteak aurrerago, 1935-6-2'an, igandez, Euskaltzaleak Loramendi'ri antxe bertan eskeiñi zion gorasarre aundian ere, Lojendio'k itz egin zuen.

(Ikus J. San Martin, *Escritores euskericos*, 124 orr.; Auñamendi, *Literatura*, IV, 183 orr.; *Euskera*, 1968 (XIII), 297 orr., eta 1979-2, 863 orr).

33.- DOMINGO IRIGOIEN LARRAÑAGA (1910-1983)

Gizaseme zintzo, leial, langillea. Lurbira ontatik on egifiez igarro zena, aitor genezake. Oiartzun'en jaio zan, 1910-10-20'an. Eta Zumarraga'n il zan 1983-3-4'an, 72 urte zituala, Eliza Amaren Sakramentuak eta Aita Santuaren bedeinkapena arturik, eta illak zortzi, arratsaldeko zazpiretan, Zumarraga'ko Andra Mariaren Jaso-kundearen eliz nagusian egin zitzaizkion gorpu-aurreko meza ta elizkizunak.

Garzeiz'en burutu zituen apaiz-ikasteak. Eta 1941'tik beintzat, Zumarraga'n egon zan bertoko bikario.

EUSKAL IDAZLE.- Umetatik zekien oiartzuarren euskera jatorra, urteak joan urteak etorri, ikasiz eta idatziz asko obetua. Ikasle zala zebillen euskal-griñak ikutua. Zeukan egitekoak etzion tarte aundirik ematen idatziari ekiteko, baiña ondorengo lanok, bereak ditu.

1) *Elerti euskaldunaren zuzenbidea* (Donostia, 1931). «Euskal Esnalea»-n dator, XXI, 65 orrialdean.

2) *Ermitas e iglesias de Guipuzcoa. Ensayo de catalogacion* (Gasteiz, 1934). «Anuario de Eusko Folklore», XIV, 7-92 orrialdeetan.

3) *Bizi...* (Gasteiz, 1951). Montepio Diocesano'k irarria. 395 orrialde. Itzulpena duzu, M.M. Arami'ren *Vivrel* euskeraz. Gipuzkeraz dago. Itzultzaileak onan: «Auxe dezu, irakurle, urte askoz zai-zai euki gaitun liburua. Trinkoa ta goxoa, mamiz; garbi ta erreza, euskeraz. Zerorrek antz emango diozu ondoen». Eta Aita Garmendia'k: «*Bizi* au goznartu ta milixkatu nai gendunak askotzo giñan. Gañontzekoak zer diogun? Ao batez auxe: «Lan bikaiñagorik, gustagarriagorik, egokiago egiñik... ez dagola gurean, erligio gaie-taz beintzat».

4) *La ceca de Oñate* (Oñate, 1954-55). IV, 77 orr.

5) Zumarraga'ko parroki zaarra (Gasteiz, 1972). Kardaberaz Bazkuna, II, 191 orr.

Nolako izkera ote du? Lau, errez, jaikia. Txasta: «Esker donetzallea —idazten du— *izadigaiñetiko* emaitza bat da. Giza-izatea baño goragokoa ta giza-izateari dagokion aal, indar eta irabaziak bafio ere garaiagoa da esker donetzallea. Giza-izatea, izate utsari ba'gagozkio, soin eta gogo, gorputz eta anima besterik ez da. Goi-izateari ba'gagozkio, ordea, soin eta gogo, gorputz eta animaz gain, esker donetzalle ere ba-da giza-izatea»...

«Esker donetzallea *barruko* emaitza da, ta gogo edo animari bakarrik ematen zaio. Gañera, *iraunkorra* da. Ez du iges egiten, anima goi-esker edo grazian dagoño; pekatu aztuneratu arteño, alegia. Ongi dabillenari ta gaitzik ez duenari «osasuna daukazu» esaten diogu. Orobat, gogo garbidunari, pekatu larririk ez duanari «Jainkoaren esker donean bizi zera» esan bear diogu. Tximixtak, ortzian zear, igeska bezela argitzen ditu bazterrak. Ez da orrelakoa esker donetzallea. Egunak diraufio argi eder egiten duan eguzkia bezelakoa da esker donetzallea».

Gai ta gauzarik sakon-soillenenak ere, orra or argi ta ulertzeko moduan jarrita. Ez, izkuntza errotik dakianak, ezta eragozpenik edozein gai dala ederki erabilli ta adierazteko; euskera menderatzen ez

duenak, berriz, nolako istilluak gauzarik errezenak ere taiuz adierazi aal izateko.

(Ikus J. San Martin, *Escritores euskéricos*, 105 orr.; A. Ibiñagabeitia, *Euzko-Gogoa*, 1952, 11-12, 22 orr.; *Bol. Amer. Estudios Vascos*, 1953, 239 orr.; J. Bilbao, *Bibliografía*, IV, 421 orr. eta IX, 582 orr.).

34.- FERNANDO ARTOLA SAGARZAZU (1910-1983)

Adiskise-lokarriz ondo bilduak giñan. «Bordari» ta ni, alkar eza-gutu genduenetik, an 1953'an noski, euskal lurrari itsatsitako kimu bi gifian zugaitz-enbor gora, euskal barrutian langille, idazle ta olerkari alkarrekin eskutik giñoazenak.

GIZONA.- Ondarribi'n jaio zan F. Artola, «Bordari», 1910-2-14'an, eta berton il zan 1983-2-3'an. Aita gazterik galdu zuen; ama, ordea, «fede aundiko emakumea genuen, ezitzaille aparta», dio Bordari'k. Amaika anai-arreba izan ziran, zazpi neska ta lau mutil, baiña ama ezitzaille on arek danai erakutsi zien ikasten eta bizitz-urteetan aurrera jotzen.

Zazpi urtekin Guadalupe'ra igoten zan meza laguntzera. Erriko ikastetxean osatu zitun bere lenengo ikasteak; gero amalau urte zituala, eskola geiago ikasi bearrez, Irun'era jo eta an bi urtez ikas-teari eman zion Lasalletarretan. Amazazpi urtekin ango txokolate fabrika baten asi zan lanean, bederatzi urte errerik bertan.

Errepublikan etorri zan. Eta Bordari lanean aspertu gabe, aberiaren lanean. «Lantegiko eginbearrak zintzo bete ondoren — diosku—, txolarte guztiak gutxi ziran neretzat aberriaren aldeko ekintzetarako. Nunnai eta beti gure elburu-asmoak edatzen, mueta askotako biltzarretan esku artuaz, abesbatzako lagun, antzezketak ematen, mendigoizaleen taldeko, ots, saltza guzitan, ta nolako saltsetan! Leia bizian, bizkor eta kementsu JEL'en alde».

Ondarribi frankotarren menpean erori zanean, Bordari urez bestaldera aldatu zan. Zati batean, Beloke'n egon zan praille artean,

emendik osterata batzuk Hazparne'ra ere egiñaz: emen aurkitu zuen beintzat emaztegaia, Henriette. Gero Akitania ta inguruetan lan-billa, bein Bordele'n lanean zegoelarik, Espafia'ko gauzak pizkat obetu zirala-ta, andik zetorren ontzi batean Pasai'ra jo zuen, eta emendik Ondarribi'ra. Txapel okerrak bein baiño geiagotan joan zitzaizkion billa, baita giltzaperatu ere Irun'en. Lan-eske saiatu arren, ez zioten eman lengo lanposturik, eta Barzelona'ra jo zigun, baiña an ere lau illabete ortan egifiagatik, ezer ere ez. Ondarrabira-ta bertan ezkondu zan 1943'ko maiatzean.

Eskeifii zioten laguntzaz denda txiki bat iriki zuen Ondarribi'n. Berak onela: «Ni, gauza orotan bezala, saltzaille on bezain kobrazaille txar agertu nintzen. Bezeroei arrera ona egiteko trebea; kobratze kontu orretan, ordea, oso tontoa». Ala ere, arrebak lagunduta, aurrera eraman zigun denda ori. Gaiñera, urte askotan, bertako Arrantza Kofradiko idazkari bezela egin zuen lan, diruz naiko ondo aurkitzen zalarik. Aberri aldeko ixil-lana urteetan osotu zuen. Iru seme-alaba izan zituen.

OLERKARI.- Itz-lauz eta olerkiz idatzi zigun Bordari'k, idazle ta olerkari ez-ezik izlari trebe ere ba-zanak. Begi erneaz eta biotz irekia, bizitzari korapillatua bizi izan zala diosku Martin Iturbe, aren lagun miñak. «Bere arnasa eta odolaren lurrun beroa dario —idazten du— eten gabe idazlan guztiaren zear. Buru arrigarri orretan daraman asmamen ugari eta irudimen oparoan oretuak dakartzki, gero paperera irauliko dituan erabakiak. Asko ikusitako gizona, asko bizitutako gizona, inguruan gertatzen diranetatik ezer ez du zokorako».

Idaz-griña zekarren aurtzarotik eta gerra orduko asi zan idazten Donostia'ko «Argia»-n eta «El Dia»-n. Guda ostean, «El Diario Vasco» eta «La Voz de España» euskal girotu ziranean, zerbait idazteko eskatu zioten, orrela egiñik. Arrezkero, «Euzko-Gogoa»-n, «Zeruko Argia»-n, «Aranzazu»-n, «Egan»-en, «01erti»-n agertu dira aren lanak, itz-neurtuz eta askatuz. «Bordari» ta «Sedeaa» izeordeak erabilli zituen.

Olerkari zan, urduri ta bizia. Olerki-billa nenbillela ezagutu nuen nik urte mordoa dala, 1953'an, eta geroztik ere, beti, eta sarri, olerkiari buruzkoa izan oi zan gure autua. Larrea'ko Olerki-Egunean emen izaten zan beti, alai ta kantari. Sariketa askotara igorzen zitun bere poemak. Baita eurrez sariak jaso ere. Bakoitzak du bere idazkera, estiloa, eta neri atsegin zait Bordari'ren estilo bere-berea. Oni buruz irakur ezazu M. Lekuona'k dioena: «Estilo arin, irudimen bizi, txirrixtalaria, alde batetik; baiña baita kontraste garratzalea ere bestetik». Itz-joko bitxia du beti, estiloaren barrengo muifia maite izan du batez ere, eta orrela, Artearen kurpil ederra ederki du osotu.

Konta-ezin-ala saio, itzaldi ta poema idatzita ere, auetatik banaka batzuk bakarrik irarkolara eraman zitun, irakurleen biotz-betegarri. Urrengo bi liburuok, alan ere, ba-dute garrantzirik.

1) *Goraintzi (Giza-alargunaren eskeintza)* (Ondarribia, 1968). 107 orr. Bere emazte Henriette il zitzaionean ondu zituen olerkiekin osaturiko idaztia. Itzaurrean onela dio: «Emaztea galtzea zerbait da. Ez dakit olerkari naizenik; bihotz samurbera dutela, ori bai, badakit. Nereak ar dezan deskantsu, arteka behartua nauzu gogoeleketa bide, sentimenak agertzera». Oso txukun egindako 24 poesi dituzu.

2) *Bakoitzak berea* (Donostia, 1982). Aspaldi dala zebillen Artola bere lanak, or-emen ostoa igar antzera sakabanaturik zebiltzanak, bilduma baten ipiñi ta argitara eman nairik. Ortarako, sarri bultzatu nindun ni ere. Azkenez, oraintsu oraindik, «Sendoa» argitaldariak bete zion luzaroan asmotan iraulitako gurari jatorra, aren lanak oro ale eder bitan, «Bakoitzak berea» titulupean, argitara emanik.

Ale mardul bi dira, lenengoa itz-lauzko lanez eta bigarrena poesiz orniduta. Lenengoan sail auek datoz: «Urratsak», «Kukuxo», «Ipui eskutada», «Kontu ondarrak», «Itzaldiak», «Odolaren mintzoa», «Chalbador hil da», «Bertsolarien inguruan», «Ezpal xumeak» eta «Bakarriketa». Interesgarria, ziñez.

Bigarrenak, ordea, auek: «Ene baitan», «Olaxta», «Izadi kanta», «Goraintzi», «Eraskiñak», «Ama», «Iparragirre», «So! banatorkizue», «Tori Arantzazu», «Alegiak». Ale onek 423 orrialde dauzka. Bigarren liburu oni J.M. Lekuona'k egiten dio itzaurrea, eta onela bukatzen du: «Bordari'ren olerki-lan geienetan olako lirikotasunaren amorio fiña agiri da alderik alde». Bi liburuok ikusita joan zitzaigun zerura.

Euskaltzaindikoa zan. Bertsolarien goraberetan sarri sartu zan, txapelketetan-eta maiko egiñik. Ba-du teatru-lan bat, «Tomas'en buruaustak», argitara gabe.

(Ikus J. San Martin, *Escritores euskéricos*, 42 orr.; S. Onaindia, MEOE, 1067 orr.; J. Alustiza, *Aranzazu*, 1969, XLXVIII, 271 orr.; J. San Martin, *Egan*, 1969, XXIX, 155 orr.; Auñamendi, *Literatura*, IV, 174 orr.; J. Bilbao, *Bibliografía*, VIII, 540 orr.; S. Onaindia, *Zer*, 64^{gn}. zenbakia, jorraiilla, 8 orr.).

35.- PEDRO IRIZAR BARNOIA (1910-...)

Euskal idazlari ez dala ere, merezi du emen gaiñeko aipamen bat, euskalkiei buruz eta aditzaz zeazki, naiko idatzia dugu-ta.

Azkoiti'n jaio zan 1910-8-1 l'an. Industri-maisua Madrid'eko Ikasgu Nagusitik, eta Ekonomi-Jakintzetan Lizentziatura tituluduna. Euskaltzaindikoa eta BAP'eko bazkide.

BAP aldizkari onetan ainbat lan argitaratu zizkigun 1947'tik 1962'era, euskal aditzaren kako, azalpen eta garaz; baita euskalkiez eta Bonaparte Printzearen bizitza ta lanen inguruan ere.

(Ikus Auñamendi, *Literatura*, IV, 182 orr.).

36.- JON OÑATIBIA AUDELA (1911-1979)

Euskaltzale gotor onen il-berria ematerakoan, onela J.A. Arana Martija'k: «Jaunak eman beizula, Jon, merezi izan duzun atse-

dena. Inor izan bada apalki euskal kulturaren alde lan egin duena zu izan zara, Jon adiskide eta maisu. Baina apalki eta protagonismorik gabe egin duzun lan hori ez da isilean ahaztuko, Euskalerrian bizia eta iraunkorra delako» (*Euskera*, 1979-2, 855 orr.).

Oiartzun'en jaio zan Oñatibia, 1911-11-24'an. Eztigu gutxi esaten inguruko giroak, txikitan artan ere; orduantxe jarten bait gera bizi guztirako bandan. Jon koskonduz zijoan garaia pizkunde garaia zan euskal kulturaren, eta kultura gisa askotakoa bait dugu, bera txistulari izango zitzaigun, eta dantzari. Griña orrek aize emana eta atxikia ibilli zan, izan ere, bere bizitzaldi guztian.

Argia zan. Lege-gizona. Zaragoza'n ikasi zigun Zuzenbidea. Euskaltzaindikoa, 1966-11-25'tik.

TXISTULARI.- Gudari ibilli zan gudatean, gero Paris'era iges egiñik, pake-billa. An, lazo ta zaldi urdiñari emana egon eziñik, beingoan asi zan ango giroa txistuarekin sustatzen eta dantzak, euskal dantzak antolatzen. Atzerriko ogia garratza oi da-ta, txistuz arindu nai izan zuen arrotz-ibiltea. Ba-ziran ara igesi joanen artean musikalaria ta abar, mordoia —Paul Legarralde, Julian Axuriagerra, Jose Etxabe, J.L. Esnaola, Enrike Jorda, Gabriel Olaizola ta besteak—, eta guztion artean Jon Oñatibia'k Euskal Abesbatza eta Koreografi Taldea sortu zuen, eta 1937-12-18'an Pleyel aretoan bere leenengo ekiñaldia euki zuen *Eresoinka* taldeak. Talde ontako txistulari J. Oñatibia'k egin zuen lau urtetan.

1941'an Venezuela'ra jo zigun Jon'ek eta, Karakas'en, 13 urtetan ekin zion musika ta dantzak zabaltzen, ainbat txistulariri eragiñik urte oietan jairik jai. Orrez gaiñ, euskeraz erakusten zuen aspertu gabeko lanean. 1954'an Laterri Batuetara jo zuen Agirre lendakariaren eta Eusko Jaurlaritzaren erreguz, eta an ere aginduarazoetatik kanpo, bere barne-zaletasunari amor-emanez, euskera erakusten eta txistu-doiñuak an-or entzun-erazten jardun zigun.

Sei urte Ipar-Amerikan igarorik, 1960'an, Euskalerrira biurtu zan. Eta langille porrokatu nun-nai ta noiznai, «Larraun» abesbatza ta koreografi taldea antolatu zuen; baita amerikar teknikak onartuz, Euskal Show'a berton jarri ere. Ortarako, musikalaria bai ge-

nuen eta, zenbait kantu sortu ta ereskidetu zizkigun; bereak dira auek: «Gabon gaba», «Gabeko izar», «Jaiki gaiten kristauak», «Poztu bedi», «Din, dan, don», «Ave Maria», «Aunitz urtez», «Xoxuak galdu du», «Aintza gurutze», «Agur, Zuberoa», eta besteak.

Dantza arloan, ordea, ainbat aire berri asmatu zuen, eta sariz jabetu. 1966'an dantza-berri txapelketa eratu zan eta Jon'en «Donibane» dantzeak jaso zuen leenengo saria.

EUSKERA IRAKASTEN.- Denok ditugu geure eraspén, apeta eta etsigitasun bereziak, eta Jon'ek zeuzkan guztien artean euskal irakaskuntza ark barne somatzen zuen ardurarik bizi ta aundiena zala esan genezake. Ortan saiatu zan beti, bizitza guztian, idatzi ta erakutsi, naiz bestera. Karakas'en berak sortu ta New York'en ere argitaldutako «Argia» asterokoaren bitartez mesede aundia ekarri zien ikasleai. Oiartzun'en kokatu zanetik ikastoletako andereñoak gaurko teknikaz erakusleak ezi ta eskolatzen alegindu zan. Otan zebillela, euskera irakasteko irakas-era, metodu berriak asmatu nairikan, ongi oar-azi zan «haurren bihotzetan hizkuntza sartzeko ezala odola, musikan baizikan bide egokiena. Eta bere metodia apurka apurka hobetuz, azkenean ondorio batetara iritsi zen: *Euskara jolas bidez* erakutsi behar zela eta izen-buru hori jarri zitzaion bere metodoari». Aurrak ez-ezik adiñekoak ere bear zuten alfabetatu, eta auentzat osatu zuen batez ere gero aipatuko dugun «Metodo de euskera Radiofonico».

Lau-bost urtez, Iruña'n, alkarrekin ari izan giñan, udako oporaldietan noski, Euskalerriko andereñoai ainbat gai erakusten asko biltzen giñean, neska ta mutil; ba-zan gero urte aietan ikasi naia, geroztik ikusi ez dan lakoxea. Gure artean zan Jon Oñatibia, ikas-taro aien prestatzaille ta erakusle bezela, jakiña. Ikas-bitartetan ba'zan aldarte ona ere kanta ta txistu! Kantuz erakutsi oi zituen ark euskal gaiak. Eta atsegin zitzaien ori ikasleai, pedagogi alde-tik; gazte aiek pozik ikasi oi zituzten gaiak, gero beraiek beren irakas-tokietan metodu berdifiak erabilteko asmotan. Nik euskal literatura erakusten nuen.

Ixtripuz il zan 1979'an. Oiartzun'go eliz nagusian ospatu ziran aren omenezko illetak berrogei bat apaizek alkar-meza emanik; an

zan «Lartaun» abesbatza eta beste zer askoren artean J. Oñatibia-ren «Ave Maria» abestu zuen. Txistuak ere iltegiraiño lagundu zion, soiñu itsetan.

EUSKAL LANA.- Aipatu dugun «Argia» asterokoaz gaiñera, aurrentzako lantxo aukeratuak itzuli ta argitaratu zizkigun:

1) «Edur-zuri», «Ipotx triskaria», «Txano gorritxu», «Erruskiñe», «Hamelin'go Txirularia», «Aatetxo itxusia», guztiok Bilbo'n argitaratuak.

2) *Ikusi* (Bilbao, 1965).

3) *Metodo de euskera radiofonico. Euskera Irratibidez* (Bizkaie-raz RX. Quintana'k, Felix Baragaña'k apaingarriak) (Donosti ta Bilbo, 1965). 326 orrialde.

4) *Metodo Radiofónico en discos* (Barzelona, 1967).

Bilbo'ko «Euzkadi»-n, Donosti'ko «El Dia» eta «El Diario Vasco»-n eta batez ere bere «Argia»-n (Karakas-New York, 1946-1958) idatzi zizun. Sorbona'ko Ikastetxe Nagusiak omenaldia egin zion 1983'ko martxoaren 22'an, Jose Maria San Sebastian, «Atxaga»-k bere tesisa, «Aditza euskeraz», defendidurik.

(Ikus J. San Martin, *Escritores euskericos*, 144 orr.; Auñamendi, *Literatura*, IV, 195 orr.; J. Bilbao, *Bibliografía*, VI, 282 orr.; S. Onaindia, *Euskal Elertia*, 204 orr.; J.A. Arana Martija, *Euskera*, 1979-2, 855 orr.).

37.- JOSE ANTONIO ARKOTXA MARTIJA (1911-...)

Mutriku'n jaio zan Arkotxa, 1911-3-29'an. Bere errian asi ta «nere bizi guztian ikasten ari naizela esango nuke —idazten dit—, ortara Kontabilidade eta Teneduría de Libros egifiak ditut eta Cuestion Soziala ere ango maixu eta nik aukeratutako Iiburuak eta korrespondenzia bidez. Ez naiz iñongo ikastegietan aritu nere erriko frantsez monjetan lenengo eta gero San Migelkoetakoetan izan ezik. Ni nerezko ikaslea izan naizela argiago esana legoke» (1983-8-4).

EUSKALTZALE.- Berri-emaille, teatru ta abar, Arkotxa beti izan da euskaltzale ta euskal idazle. Futbol partidu bat zala-ta, egin zan euskal idazle. Berak diosku poiiki: «Naiz eta ni euskeraz idazten oitua izan ez, Mutrikuko berri-emailleak guk Elgoibar'tarrekin izan genuen ostikoketan irabazi genuen arren, aiek geiago zirala zabaldu zuen eta ta ura izan zan nere lenengo aukera «Kirol-Zale» izen-ordea arturik «El Día»-ra idazteko. Gero, Errepublika etorri zanean, amaika idazle edo berri-emaille izatera eldu giñan Mutrikun, ni aietako bat izanik».

Aurretik ere Batzokiko dantzari izana, Errepublika etortean, ezpatadantzari ez-eze, antzezleri izan zitzaigun, eta antzerkiak — geroztik ainbat idatziko zituanak— gertatzen asi zan. Berak dio: «Ain antzerki onak etziranak ere ba-zirala konturatuaz, nik ere zerbait egin nezakeala eta «Markesaren Alaba» gaia arturik, «Mutriku» izenaz idatzi nuen... Gaia batez ere Sebero Iturrino, mutrikuarak egiñiko bertsoak ziran eta nik ere, erri maitasunak eraginda, geure-geuretzat jarri nuen «Arnope antzerkia».

Eguneroko ta aldizkarietan lankide izan da, «Euzkadi», «El Día», «Zeruko Argia», «Stella Maris», «Argia», «Timon», «Egan», «Agur», eta Donosti'ko «La Voz de Guipuzcoa» irrastian. «Kirol-Zale», «Joxantonio» eta «Atxukale» ezizenak beintzat erabilli ditu. Euskaltzaindikoa da. Teatru-lanakin eta irratorako gioekin ainbat sari jaso dizkizu. Serafina Ituarte Etxeberria'rekin ezkondata dago eta iru seme-alaba dauzka. 1943'an Motriku utzi eta Ondarru'ra aldatu zan Kruzelegi Anaiak eta «Arrate» arrain-ontzikoak deituta. Arrezkero guztian bertan bizi da, lanari eta euskal antzerkigintzari emana.

ANTZERKLLANAK.- Teatru-lan asko dauzka Atxukale'k. Leenengoz erritarrentzat idazten asi zan, baiña laister edatu ziran beronen lanak euskal erri osora ere; «kristautasun eta euskaltasun aldeko»-ak osatu zizkigun beti. Ona berak idatzitako lanak:

1) *Nork nori ziria sartul* (1949). Azpeiti'n lenengoz antzeztua. Bakar-izketa.

2) *San Piñastei eguna* (1951). Mutriku'n ospatzen dan oiturazko jaialdia.

3) *Antzerki ikasketa berezia*. Egintza bakarrekoa, lau zatikin. Zarautz'en 1954'an lenbiziko saria eman zioten.

4) *Arantzazuko Anai Patxi* (1956). Iru ekitalditan.

5) *Gabon Gabontzeta* (1957). Ekitaldi batean, Mutrikuko Gabon oiturak jasoaz.

6) *Leniz'ko Alaba* (1959). Iru ekitalditan: Loramendi olerkaria goratuz.

7) *Brokel jauna* (1964). Iru ekitaldi. Markesaren alaba bertsoak gai arturik.

8) *Josan* (1966). Iru ekitaldi. Maitasun-gaia.

9) *Porteraren semea* (1967). Iru ekitalditan. Sozial antzerkia.

10) *Naximentu barria* (1969). Atal batean. Gazteentzat.

11) *Itxas-lanburuak* (1970). Iru ekitalditan.

12) *Tan tarran tapatatanV.* (1971). Iru ekitaldi ta azken azalpena.

13) *Joxemaritarrak* (1981'an Bilbo'n saritua). Iru ekitalditan.

14) *Kresal txipixtriñak* (1982). Arrantzaleen arteko gaia. Iru ekitaldi.

Antzerki-sail onen ondoren, Atxukale'k berak dio: «Alakoren baten errietako gazte eta zaarrak ere konturatuko al dira antzerkia degula euskera eta euskal izatea adierazten emateko gairik goenetako». Gaur biztuaz doa gure artean antzerki-zaletasuna. Erri-teatru-antolatzaileak, gaitan urri baldin ba'dabiltzate, badakite nora joan orren billa.

(Ikus J. San Martin, *Escritores euskericos*, Bilbo, 1968, 32 orr.; A.M. Labaien, *Teatro Euskaro*, Auñamendi Bilduma 42 eta 43; N. Kortazar, *Cien aulores vascos*, 121 orr.; Auñamendi, *Literatura*, IV, 189 orr.; Zelia Lopez Sainz, *Quien es quien en Vizcaya* (Bilbo, 1975), 39 orr.).

38.- JUAN BEISTEGI UGALDE (1911-...)

Eibar'en jaio zan 1911-10-21'an. Leenengo ikasteak Eibar'en bertan eginik, gero Gasteiz'en osatu zituen batxiler-urteak. Txirringutsuzeneko Beistegitar, orretan ari izan zan gerra aurretik, eta berebat bake-aldian.

Guda sortu zanean, ernai mendiratu zitzaigun aberriaren alde jokatzeko. Azpiratuak izan giñanean, leotz illuna izan zuen soinkide. Ortik ere askaturik, Mexiko'n bizitu zan urte-moltzoan; gero, Bilbo'n bere ogibidean eta azkenik, gaur Zarautz'en bizi zaigu osasun-urri.

EUSKAL IDAZLE- Aberri-miñak eraginda, Mexiko'n asi zan idazten, an azaltzen zan «Euzko Deya»-n, geroztik «Euzko-Gogoa», «Alderdi», «Eibar», «Olerti», «Karmel» eta olakoetan lankide izanik. Ederto darabil idazkortza. Ona «Laugarren tarte dala-ta», «Euzko-Gogoa»-n argitaratu zuen lantxoaren zati pitin au.

«Kizi edo atomoa ez ei da ale bakuna, bera ere beste ale batzuen batasunaren bilduma ei da; eguzki txiki baten biran dabiltz aletxu bizkorrak. Eguzki au ere ez da bata, zati txikiagoak alkaturik egiten daben muina sarri eta bere inguruan dabilitzen aletxuok ezin esan bakartsuak diranik. Ori ezker, balitzake beste eguzki txikiagoa izatea euren barrenean, eta onen birundan beste izarbaltz batzuk ere bai, gure ludi onen antzera, baiña txikietan be txikiak. Eta zelan ukatu ludiño orretan bizitzarik danik?» (1957, otsailla-jorrailla, 88 orr.).

1970'an. urteko orrillean asi ta lau bat urtez Bilbo'n atera zan «Agur», lenengo illerokoa ta gero asterokoa, beronek eta beste euskaltzale jator batzuk sortua, beronek zuzendu zuen, eragozpen izugarriak gaintitu bear izanik. Beronek arteztu oi zituen irar-utsak eta lanak; beronek borobildu oi zituen ainbat lan, prosaz eta bertsoz, birako idazle mordoari ere akulakada ez goxoak emanaz.

«Karmel» aldizkarian naikoa idatzi zuen, 1970'tik batez ere, «Beiztegi'tar Jon», «Aixola», «Ubitza» izen eta izen-ordeak erabi-

liz. Emen jorratu zigan gai bat auxe: «Ibaiko Arraiñak», aspalditik bere baitan zekarren asmoaren garatzea.

«01erti»-n ere lan egin zigan, eta poesiz ain zuzen. Batzuk jatorrak, beste batzuk ingleseratik poliki euskeraztuak. Auetariko ugarri aurki ditezke poesi-gutun orretan.

(Ikus J. San Martin, *Escritores euskericos*, 55 orr.; Auñamendi, *Literatura*, IV, 194 orr.; J. Bilbao, *Bibliografía*, VIII, 403 orr.; Zelia Lopez Sainz, *Quien es quien en Vizcaya*, Bilbao, 1975, 73 orr.).

39.- FRANTZISKO ZALAKAIN ILLARRAMENDI (1911-...)

Errendere'in jaio zan Zalakain 1911-7-5'an. Leenengo ikasteak bere errian egin ondoren, idazti-kondugiña ta onen inguruko beste gaiak jorratu zituen. Guda ostean, Mexiko'n eta Paris'en bizi izan da geienbat.

Mexiko'n asi zan euskeraz idazten 1943'an, Euzkadi'ko Alderdi komunistaren Ordezkaritzak an azaltzen zigan «Alkartu» aldizkarian; gero «Euzkadi Obrera» (Bilbo, 1959-1960), eta euskal kulturazko «Arragoa»-n (1964-1967) idatzirik. Berak zuzendu zigan azkenengo au.

(Ikus J. San Martin, *Escritores euskericos*, (Bilbao, 1968), 170 orr.; Auñamendi, *Literatura*, IV, 192 orr.; J. Bilbao, *Bibliografía*, VIII, 522 orr.).

40.- ANBROSIO ZATARAIN ETXEBESTE (1912-...)

Donostiarra, Donostia'n bait zan jaio 1912-9-27'an. Berton osatu zizkigun bere lendabiziko ikasteak, gero Industri-maisu ta Bordele'ko Ikastetxetik Zientzietan Lizentziatu-tituluaren jabe egifiik.

Euskaltzale porrokatu, eta Euskaltzaindikoa. Musikara ere, euskal doiñu ta kantetara oso emana. Onetzaz, ain zuzen, lan bat dauka jakingarria, *Gure kantadoiñuben tuntunak* «Eusko Jakintza»-n (1948, 43 orr.) argitaratua. Gai beretzaz ba-du Zatarain'ek beste Ian eder bat ere, 37 orrialdekoa, beste batzuen artean egiña; au da: Jose Maria Martin de Retana'k bere «Gran Enciclopedia Vasca»-n Azkue zanaren «Cancionero Popular Vasco», bi aletan (Bilbo, 1968), argituratu zuenean, bigarren alearen azkenean, «Notas al Cancionero» geigarria bezela jarri ziona.

EUSKAL IDAZLE.- Gurasoengandik dakar Zatarain'ek idazteko lera, bere aitagandik bereziki. Eta gaztetan asi zan euskerazko lan-txoak biribiltzen, Bilbo'ko «Euzkadi»-n eta Donostia'ko «Argia» asterokoan gerra baiño leen ere idatzirik; gerra ostean, Paris'eko «Euzko-Deya»-n, «Zeruko Argia»-n, «Euzko-Gogo»-n, «Olerti»-n, «Euskera»-n eta azken urteotan Bilbo'ko «Deia» egunkarian idatzi du. Euskaltzaindiko urgazle da, eta Euskerazaintzakoa, eta al-karte onen izenean eman oi ditu batez ere «Deia»-n datozen astean-asteango «Itz-Sariketa» lanak.

Ba-du beste lan oraindik interesgarria, esku artean darabilena ta laister argitaratua izango dana: «Duden» alemana euskeraz, ots, irudizko Iztegia, 25.000 bat gauza zeatzi dagozkien itzak irudi apain adigarritz jantzita.

Bertoz ere idatzi du. Badut nik bere olerki-txorta mardula, argitaratzeko txanda-zai. Eta Matematika testuak, eta drama bat, «Alos-torrea» eta «Euskera»-n dauzkazun (1974, 115, 119 ta 121) lanak. «Zatarra», «Basati», «I-ko Bakartiya» bera da.

(Ikus, J. San Martin, *Escrilores euskericos*, 171 orr.; Auñamendi, *Literatura*, IV, 219 onv, J. Bilbao, *Bibliografía*, VIII, 342 orr.).

41.- ZIRIAKO ANDONEGI TA ANDONEGI (1912-1982)

Motriku'n munduratua, 1912-3-16'an. Berak ederki 1979-1-31'an bialdu zidan idazkian:

«Motriku'n jaio nintzan,
Motriku'n naiz bizi,
Arno-mendi oiñean
ur-ertzean azi.

Jainko ta euskeraren
babesean ezi,
gure oitura zaarrak
maitatuaz beti.

Nere azken-asnasa...
emen izan bedi!...»

Abertzale zala-ta, beti zigorpe erabillitako gizona. Ogei urte zituelarik, eta Motriku'ko Batzokiko lendakari, erriko ormetan Espaiña'ren aurkako zirriborru batzuk agertu ziran goiz baten, eta orduan Gipuzkoa'ko Gobernadore zan Artola jaunak 500 laurle-koko diru-zigorra ezarri zion.

Gudatean etzan nagi egon, eta burrukea amaitu ondoren ere, gorriak ikusi bear izan zituen sarri. An, 1937'nko. dagonillarantz, etsaiaren mende jausi aurretik, estu ta larri zebillen lagunekin Frantzia'ra iges egin naian. Onela idatzi zidan egun aietakoa edestuz: «Santander'tik Frantziko itxas-bidean, guda-ontziak arrapatu eta Bermeo'ko Falanje etxera (lengo Batzokira) eramán ondoren, ogei ta bost gizonetik ni bakarrik jipoitua izan nintzan, eta guztia, euskerazko idazlan batzuk arkitu zidatelako. Ondoren, Donostiko «Ondarreta» espetxean ikusi-alak ikusi nitun. Denunzia gogorra bai neukan «Escritor vasco separatista» ori zela-ta, eriotz-zigorra. Emendik nolabait atera ninduten. Geroztik Miranda'ko atxillo-zilaira, eta emen oso zatarki erabilli giñuzen; berdin Guadalajara'n, Segovia'n eta abar ere. Guzti oi geien bat beintzat lagun artean euskeraz mintzatzeagatik. Orixe dala-ta, nere euskerarengako maitasuna».

EUSKAL IDAZLE.- Dei bat geure barne-osiñean zirika dabilkiguan, ez da errez dei orren durundutik alderatu ta bakantzea. Naiz-ta Ziriako ogibidez jostuna izan, bere barne-joera berezia idaztea zala esan genezake: gerra aurrean asi ta il arterako guztian ekin zion beintzat euskerazko lanean ere.

Guda aurretik Donostia'ko «Argia»-n eta «El Dia»-ko euskal atalean eta Bilbo'ko «Euzkadi»-n eta «Eguna»-n lankide izan zan: ostean, «Euzko-Gogoa»-n, «Eusko»-n, «Herri Lan»-en, «Karmen»-en, «01erti»-n, «Aranzazu»-n eta «Redencion»-en beintzat idatzi zigun. Idazlanak, berriz, erriko berriak ziran, abertzaletasuna, euskerari buruzkoak, bakar-izketak, alkar-izketak, bertsoak, olerkiak, ipui eta izkirimiriak.

Oles-bertsoen artean ba-du bat aspalditik zabal dabiUena Euskalerrri osoan: «Aitorren Izkuntz zaarra». Ba-dauzka antzerki bi ere: 1) *Egiatzko maitasuna*, iru atalekoa, oraindik argitara gabea, ta 2) *Belen'go bidean*, aurtxoentzako Gabon-antzerkia. Olerkari legez, lan politak ditu «Euzko-Gogoa»-n eta 01erti»-n.

Erabili ditun izen-ordeak: «Kuireka», «Andonegi'tar Kuireka», «Mutriku-zale», «Lau», «Andonegi'tar Ziriako» ta «Aitona».

(Ikus J. San Martin, *Escritores euskéricos*, 27 orr.; Auñamendi, *Literatura*, V 201 orr.; J. Bilbao, *Bibliografía*, I, 164 orr.; Gorri, *Zer*, 1982, epailla, 12 orr.).

42.- BIKTOR ANDUEZA TA ZANGITU (1912-...)

Legazpia'ko errian, Brinkola auzoko Agirrezabal baserrian jaio zan Andueza, 1912-4-12'an. Aurtzaroan artzain, beizain eta itaur-lari izana batera, sei urteko zala eskolara asi zan, erderaz irakasten zan eskolari erderaz tautik ez zekien mutikoa. Sarri egona, beraz, orma bazterrean belauniko. Gero, Brinkolan Sarriegi'tar Jeronimo apaizarekin; ikaskizunak erderaz izanarren, euskeraz egiteko bai-mena ematen zieten. Gaztaroan, amabost urteko, lantegira asi zan, «etxean lan asko eta diru gutxi zegoelako».

Gudatean, gurasoak etxean laga ta Bizkai aldera jo zuen; gero, «Itxarkundea» taldean sartu ta Euzkadi'ren alde burrukau zigun, Laredo'n etsaipeko artu arteraño. Arerioaren mende, esaera dan bezeia gorriak eta bi igaroz, lanerako gudu-taldean, Soria, Guadajara ta Teruel alderdietan, gau ta egun goibel, piko-palaz lan ta lan, gose ta zorri ugari, bi urte igaro bear izan zituen. Egun gorri aiek amaitu ondoren etxera itzulirik, lengo lantegian lanerako aukera egokitu zitzaion. Ogetamar urtekin ezkondu zan «Saletxe» olerkari entzutetsuaren arrebarekin. Lau seme-alaba izan dituzte. Gaur, bere zartzaroan, etxekoekin eta iru billobarekin gozatsu bizi zaigu.

Idazle legez, idatz-griña beti zekarrenagatik izate barnean, e-tzuen izan aukerarik berandura arte. Baiña Ondarribi'n zeukan lengusu batek eta Saletxe'k zirikatuta, erriko berriak «Zeruko Argia»-ra leenengo ta gero «Goiz-Argi»-ra bialtzen saiatua dugu; euskal idazleakin ar-emanean sarturik, or eta emen zenbait lantxo argitaratu dizkigu, «An-Zan» izenordea erabilliz. Legazpiarrak ateratzen duten «Legazpia», 72, 73, 74 ta 75 zenbakietan lan ederra osatu zuen.

«Loiola» erri-irriatiak eraturiko sariketa baten berak eraman zuen leenengo saria.

(Andueza'k berak bidalitako datu ta zeaztasunak).

43.- INSAUSTI TA URKIRIZAR'TAR JESUS (1912-...)

Euskal literaturan «Uzturre» erabilli du, geienez, bere lanak izenpetzean, eta antxe jaio zan, ain zuzen ere, Uzturre azpiko Tolosa'n, 1912-1-11'an. Sendikoak integristak zirala ere, berau laster jabetu zitzaigun abertzale-ideiaz, eta euskaltzale gartsu Aita Mokra'ren eragiñez.

Kazetaritza ikasi zuen bereziki, eta laster asi zan izparkari legez Tolosa'ko ta inguruetakoko berriak garai artako abertzaleen izparringietara bialtzen. Bi ta irutan atxilotua izan zan, eta giltzapetua, Primo de Rivera ta Errepublikak denboran. Gerra aldian, gogotsu esku

artu zigun ango ta emengo burruketan. Bilbo'n, «Euzkadi'ko Agintaritzaren Egunerokoa» (iru ale marduletan, oraintsu argitara emana, Durango-Bilbo, 1977) euskeraz ipintean ari da.

Gureztat guda bukatzerakoan, El Dueso'n katigu, bertan eta Puerto de Santa Maria'n iru urte ta erdi kartzelan egiñik, 1940 arte. Pruden Ibarguen'ekin ezkontzen da. Urte batzuetako barealdi ondoren, 1947'an berriro espetxera; baiña Jesus Solaun eta Juan Aju-riagerra'k lagunduta, Buitrago de la Sierra'ko baituen zelaitik iges egiten du. Ordutik aurrera Paris'en eta Bruselas'en; Paris'en OPE'ko kolaboradore ta Bruselas'en, «Munduko Lan-alkartea» dalakoan 19 urtez lanean.

EUSKAL IDAZLE.- Amazortzi urtez ekin zion euskeraz idazteari, Donosti'ko «El Dia»-n eta «Argai»-n, baita Bilbo'ko «Euzkadi» egunerokoan ere. Guda aurretik bere idazkiak zirala-ta, esan dugu, sei illabete kartzelan igaro zituen. Guda garaian Bilbo'n, «Eguna» egunerokoan jarraitu zuen idazten. Garai berean, esan dugu, Fausto Leunda'rekin «Euzko Jaurlaritzaren Egunerokoa» erderatik euskerara itzuli zuen.

Aldizkari auetan eman dizkigu bere lanak: Paris'ko «Euzko Deya»-n, Mexiko'ko «Euzko Deya»-n, Buenos Aires'ko «Tierra Vasca»-n, Zaitegi zanaren «Euzko-Gogoa»-n, Euzko Alderdi Jeltzalearen «Alderdi»-n; ondoren, «Goiz-Argi»-n eta gaur egun «Euzkadi» asterokoan eta «Deia» egunerokoan.

«Labor» illerokoaren zuzendari. Idazle ona.

(Ikus J. Bilbao, *Bibliografia*, IV, 385 orr.; Auñamendi, *Literatura*, V, 387 orr.).

44.- SEBASTIAN ALUSTITZA (1912-...)

Euskal idazle, ez kaxkar. Biotz zabal eta irudimen aundiko gizasemea. Gerra baiño leen, Donostia'ko «Argia» asterokoan eta «El Diario Vasco»-n eta Bilko'ko «Euzkadi»-n idazten zigun «Illintxa» izenpean.

Gudatean Legazpi'tik igeska Bizkaiko guda-zelaietan ibilli zan Abarri alde leiatsu eta gero Laredo'n etsai-mende jausi ondoren, espetxerik espetxe gorriak ikusi zituen. 1983-8-7'an Aurre-Apr aiz'ek eta nik Legazpia'ra egin genion ikustaldian, arek eta onek, bazkal ostean, alkar-izketa gozatsuan gogorazi zituzten Bilbo'n, Larrinaga'ko espetxean igaro urteak.

Etxera itzuli, ezkondu ta sendia aurrera aterateko lan egiñik, ementxe bizi da gaur ere zartzaro leunean. 1912-1-20'an jaioa duzu.

Guda ondoren ez zuen izan aukerarik idazteko. Biotza zauritua bait zeukan, eta irudimena kamuts. Euskaldun askotxoren zoria nunbait!

45.- RODOLFO BOZAS URRUTIA (1913-1981)

Donostia'n sortu zan 1913-11-19'an. Donostia'n bertan «El Pais Vasco» zalakoaren zuzendari izan zan Ebaristo Bozas-Urrutia erren-deritarraren semea. Astigarraga'n azia, baiña umetan Uruguai'ra joana, an zearo aztu zitzaion zekien euskera. Buenos Aires'en asi zituen Jakintza ta Letren ikasteak, baiña laister utzi zituen auek musika ikasteko 1935 ta 1943 bitartean ainbat pianu-konziertu eman zituen, ez Ego-Amerikan bakarrik, baita Kataluña'n ere. Kanalda'rekin eta Agirresarobe'rekin ikasi zigun kantua. Luzaro izan da Madrid'en, Santa Maria de la Cabeza elizako organu-jotzaille. Berton il zan 1981'an.

EUSKAL LANA.- Esan dugu: amaren magalean edoski zuen euskal mintzo ederra aztu egin zitzaion Ameriketean, baiña etzitzaion itzali oni zion maitasuna eta 1937'an berriro asi zan ikasten, ainbat liburu —Arrigarai, Lopez-Mendizabal, Azkue, Zamarripa eta Zabala-Arana'ren gramatikak batez ere— esku artean zituela.

Naiko idatzi zigun erderaz eta euskeraz. Erderazko lanak BAP-en eta «Euskera»-n datoz, eta euskerazkoak «Egan», «Jakin» eta «Zeruko Argia»-n batez ere. Bere kabuz osatu zitun lanai ezertxo

kendu gabe, itzulpen-zale agertzen zaigu, eta italeratik euskeratu zigan Boccaccio, Guareschi, De Amicis florenxiar idazlari ezaguna (*Egan*, 1955, 5-6, 19 orr. eta 1969, 46 orr.); prantsesetik J. Vinson, J. Verne ta G. Duhamel (*Egan*, 1967, 69 orr. eta 1967, 69 orr.); gaztelertatik bere aita Ebaristo'ren lan batzuk, Muedra, A. Cuyas, I. Fagoaga, Pelai Orozko eta besteak; katalanetik R. Lull.

Betor lan auen osagarri lez egin zigan argitalpen dotore au ere: «Atheke-gaitzeko Oihartzunak». 1970'an, leenengo euskal eleberria eman ziganaren —J.B. Daskonagerre'ren— eun-urte urrena zalarik, aren nobela argitaratu zuen bigarrenez, gaztelertazko itzulpenaz, eta itzaurre oparo batez jantzia. Liburu txukuna. Euskal testu ber-ikusia, oar askoz, iztegiz eta azter-lanez ornidua, «Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones, S.A.»-k argitara emana (Donostia, 1970, 285 orr.).

Itzaurrean damazkigun oarkizunen artean ba'liteke ondorengo au guztiontzat jakingarri, zerbait beintzat, izatea. Euskal joskerari dagokiona duzu. «Gauza jakina da —dio—, Bidasoaz heraindiko euskal-idazleek gureek baino joskera lasaiago bat erabiltzen dutela. Ez da nere arazoa, joskera hori okerrago hala zuzenago den esatea, ez eta euskararen legeri gehiago edo guttiago atxikia den epaitzea. Baina bai, esan nahi nuke, hango idazleek, gurek sarritan ez duten holako airostasun eta grazia ba-dutela. Ziur nago zuk ere, bizkaitar naiz gipuztar irakurle zeran horrek, atsegin handiz irakurriko duzula, baldin grinarik gabe, aurre-iritzirik gabe hartzen bazu, esakunen kanpozko tankerari baino barneko muinari gehiago begiratzuz, zure ohituraz kontrako zerbait arkitzean musua okertu gabe» (9 orr.).

Lan au lendabizikoz Baiona'n argitaratu zan 1870'an, Lamaionere Alargunaren inprimerian.

(Ikus N. Kortazar, *Cien Autores vascos*, 88 zenbakian; *Egan*, 1969, 53 orr.; Auñamendi, *Literatura*, IV, 232 orr.; J. Bilbao, *Bibliografía*, II, 123 orr.; *Euskera*, 1975, 521 orr.).

46.- ERROMANA ELUSTONDO OTANO (1913-...)

Gure lur-bazter askoren antzera Bidania ere ez dugu exkasa euskal idazlaritzarako. Emen jaio zan E. Elustondo —«Intza» euskal literaturaren, Elbire Zipitria'ren adiskide miña izan zana—, 1913-8-9'an.

Bere abertzaletasunagatik, aldi gozo ta minkatzak igarotako emakume leiala. «Nere etxean —idazten dit—, nere sendian, ez zan iñoiz iñungo politikarik bizi izan, nere gurasoak atxilotuak izan ba'ziran ere, nere anaiak espetxeratuak izan ba'ziran ere, ta anaie-tako bat eriotz zigorraren mende egoteraño iritxi ba'zan ere, neri illea moztu eta erriko kaleetan ibilli ba'zidaten ere, ez zan politika egin genuelako, abertzale eta euskeraren maitale izatea ezin eraman zutelako baizik». Baiña onek etzuen lots-erazi, ezta abertzale go-goa gutxi-azi ere aberri alde lan egiteko lera piztuazi baifto.

Lera au, izan ere, eguzkiaren ditzira antzo, ezta errez itzaltzekoa. «Intza» 1958'tik gaur arte, Bruselas'en bizi izan danarren, bere barenean ezta bat ere moteldu euskeraren giarra, maitekiro zaindu du aberri arnasa. Onelako seme-alabak sortzen dituen erria, iñoiz ez da ilko.

«Intza»-k gerra aurretxoan, 1932'tik 1936'ra, ainbat lantxo bialdu zituen Donostia'ko «Argia» asterokora. Erri-izparkari bizkor, Bidani'ko berriak ez-ezik inguru-errietakoak ere igorri oi zituen, Errexil, Azpeiti ta abar barne sarturik.

Ona zatitxo au, Bidani goratuz idazten duena. «Intza —dio— azaldu dala pinpoxta, bañan... Basoko-loretxua etzait iruditzen askoz itxusiagua izango danik, ego-aizea ez dagonian. Intza beti izaten da, bañan... basoko ta baratzako loretxo ederrak usaia emanaz egoten dira, udara guztian; oraintxen ere baratzeko loratxuen ondora inguratu ezkeru, ikusi egin bear da nolako usai ederra botatzen duten, zer edertasun ta alaitasuna ematen duten loretxuak zabaltzen diranian beren margo ederrarekin.

«Ia bada; Basoko-loretxua, au ainbat baldin bazera, intza ere eroriko zazu, zure igali margoetara, mardul, zure loretxuak ugari-tu ditezen, eta indar berriturik, zure landaratxuak Euskotarren ga-ñera erori ditezen».

Onelaxe txukun eta eder idazten bait zuten, orduko erri-izparkariak merezi dute tokia gure euskal literaturan.

Gaur, zar-saritu bezela, jaiotetxean bertan daukagu Intza, Ka-legoena etxean.

(Ikus Agustin Beloki'k, 1983-4-25'an egin zidan eskutitza).

47.- JULIAN ALUSTITZA JAUREGI (1913-...)

Idazle ona bertsoz naiz prosaz. Aunitz gairi ekin dio asti-unetan, literatura kritika, euskal elerti, erri oitura ta erlejioz jardunik. Aita prantziskotarra. Literaturan «Aztiri» izen-ordea erabili digu geie-
nik, «Arantzazu» aldizkarian agertu ditun lanak izenperatzean ba-
tez ere.

Gabiria'n jaio zan 1913-10-30'an, Aztiri auzuneko Etxetxo deri-
tzaion etxaguntzan. Amar urteko zalarik, Arantzazu'n sartu zan
Asis'ko Frantzisko Deunaren lagundiko izan naian; bazter zoraga-
rri ontan egin zituen bere leen-ikasteak, gero Olite'n Filosofia eta
Teologia ikasirik. Arantzazu'n amaitu zuen eliz-karrera, 1936'an
apaiztasuna artuaz. Apaiztu zanetik bere leenengo zazpi urteak Va-
lladolid'en igaro zituen. Oargarri au ere: erri-miñak joa zebillelako
edo, ementxe aurkitzen zalarik ondu zuen euskal olerki pillo ederra.

EUSKAL IDAZLE.- Tolosa ta Zarautz'eko komentueta nagusi-
tza eraman zuenarren, aspertu gabe ibilli zan erriz erri izlari, Kris-
toren fede-azia ereiten. Ezagun du beraz euskal jendea eta beronek
ditun buru-auste, istillu, kezka ta korapilloak, bai Ieengoak eta bai
azken-urteotakoak; onak eta ez ain onak, danetatikoekin topo egin
oi du eliz-otsegilleak. Onak, ordea, poza ekarri oi digu gaur eta biar
larritasuna. Eta bizipenez norbera asko ere asko aberasten. Orrela
duzu eliz-izlaria.

Esan dugunez, Gaztelerrian zegoela asi zan euskeraz idazten eta, zerbait esateko diran idazle askoren oitura danez, bertsotan asi ere. An *Egan'en* (I zenbakian), 1950'an, agertzen dira bere lenengo lanak —*Iurrian* (Valladolid, 1941), *Kobentuko sagarrondo*a (Toro, Zamora, 1939), *Amamaren errosarioa* (Valladolid, 1942), *Zorionetara* (Valladolid, 1942), *Gure labesua* (Valladolid, 1941), *Nere sorroa* (Valladolid, 1940)—. Gaztelerrian sermolari zebilela asmatu zizkigun olerkiok eta beste asko, denak beretzakoxe bakar-bakarrik, bere pozgarrirako sortuak, berezko duen olerki-miñak eraginda.

Argitaratzaileak oar bezela jarten du asieran: «Alustitza'tar Julian, Aita prantziskotar gaztea, Gabirin jaioa, izlaritzan maisu dan añaxe, euskal-olerkaritzan fiña, agertzen zaigu, zernaitarako ikusmen aundikoa, eta euskalduntasun guzizkoa. Nunai billatzen daki poesi-muña, ta baitare poliki neurtitez adierazten».

Gero, «Euzko-Gogoa»-n, «Aranzazu» aldizkarian eta «Goiz-Argi» asterokoan ari izan da. «Aranzazu»-n prosaz batez ere. Beti izkera argi, eder eta errikoian. Bildumaturik, argitaratzea merezi luketen lanak, alegia.

(Ikus *Egan*, 1950, 7 orr.; N. Kortazar, *Cien aulores vascos*, 134 orr.; J. San Martin, *Escritores euskéricos*, 22 orr.; Auñamendi, *Literatura*, IV, 231 orr.; S. Onaindia, MEOE, 1070 orr.; J. Bilbao, *Bibliografía*, I, 127 orr.).

48.- IÑAZIO EIZMENDI MANTEROLA, «Basarri» (1913-...)

Basarri'k eztu goralpenik bear. Euskal idazle, bertsolari ta izlari trebe dugu, ezertxo ere kendu gabe. Aurrera orduko, naiz-ta berri esan, aipatu dezagun «Gure Bertsolariak» liburuan idatzi nuen: «Basarri dugu gure bertsolari. Nire aburuz, bertsolari bi izan ditugu Euskalerrian, besteak baiño gorago ibilli diranak: Enbeita zaarra ta Basarri. Biok batera ibilliak sarri, plazarik plaza, gurean eta erbestean. Ogeigarren gizaldi ontako lenengo zatian berrogetaz urtetan saiatu zan Enbeita bertsolaritza, sagardotegietatik aterarik,

gaur dauan goi-maillara jasoten. Landara barriak (Basarri), aren indar zarrez kemendurik, gero ta gorago jaso dau «gaur eguneko edozein gai erabiltzeko diña izatera» (237 orr.).

Errezil'en jaio zan Iñazio Eizmendi 1913-11-27'an, Granada baserrian, beti polpolka doan erreka ertzean. Izadiak eta zugatzak, mendiak eta lats zaratatsuak laguntzen die, ezpairik gabe, berez dakargun barne-kezka ta ixuri bereziari. Zazpi urteko Zarautz'era aldatu ta ementxe darama bizi guztia, baserritar-arrantzale. Irakurzale porrokatu, oroimen oneko, irakurria gomutan errez artzekoa.

Bertsolaria zan Kepa Enbeita'ren aita, baita Basarri'ren aitona ta aita ere, bertso-zale amorratuak, aspertu gabe bertso-kantari zebiltzanak. Onek piztu zuen sekulako bertso-garra semeagan, oraindik eskola mutiko zala piztu ere. Ari entzun eta au irakurri bertso-miña azi egin zitzaion. Amazazpi urte zitula agertu zan plazara lendabizikoz, nun eta Zestua'n: Errauskin errotaria ipiñi zioten saiolagun. Lotsati xamar aurrena, ausarta gero, Euskalerra osoari lenengo agurra egin ziona, 1935'an, Donosti'n ospatu zan I'go Bertsolari-Egunean izan zan. Onela kanta zigun Kursaal'go aretoan:

Uso zuri bat inguratu zait
goizean egun argitzez,
alaitasuna aritxek sortu dit
jaun maiteak, bere itzez:
eta ni orain zuen aurrean
nazute pozaren pozez.
Lendabiziko, entzule onak,
Agur danori biotzez.

Amaikatxo olako agur egingo zuen gerora euskal erri osoan zear.
Irratiz ez gutxi.

Bertsolari garaia dugu, dakigunez, eskolatua, zorrotza, edozein gaitan moldatzen dana. Gizasenez leial ta zintzo; famili eder baten aita, bi seme ta bi alaba dauzka.

1936'tik 1962'ra berak jantzi zigun bertsolari-txapela, eta aurrerantzean ere berea izango zuen noski, iterazko jokia erabili izan ba'litza.

KANTARI TA IDAZLE.- Zein euskeraz eta zein erderaz, euskal bertsoetan kantari bezela, idazle ugari dugu Basarri. Gudate aurretik Donostia'ko «Argia» eta «El Dia»-n eta Bilbo'ko «Euzkadi»-n agertu ziran bere lanak; gerra aldean Angelu'ko «Euzko-Enda»-n, Guatemala'ko «Euzko-Gogoa»-n eta Paris'eko «Euzko-Deya»-n; eta «Gernika»-n, «Zeruko Argia»-n eta «01erti»-n. Baita Donostia'ko irratiko euskal saioa berea izan zan luzaro, eta «La Voz de España»ko kirol-lanak, ia egunero, urteetan, eta gaur «El Diario Vasco»-koak oindio... Langille porrokatua, errikoi, goxo ta oparo idatzi du beti, zintzotasun eta prestutasun berezia bere idatzi eta ar-emanetan noiznai erakutsirik.

Ainbat artikulu, bertso eta iritzi-emateren artean, bereak ditu liburu auek ere:

1) *Atano III*. Bere edestia bertsoetan (Zarautz, 1949). Itxaropena irarkolan. 52 orrialde.

2) *Basarri'ren Bertso Sorta* (Zarautz, 1950). Itxaropena irarkolan. 110 orrialde. Andima Ibiñagabeitia'k onela: Basarri bertsolari eskolatua zaigu; ala ere ezin ukatu dezaiokegu bertsolari eskolagabeen ziri, askatasun eta gatzik. Bertsolari eskolatuak izan genitun Bizkaia'n, Enbeita eta Arrese Beitia, biak bikaifiak, osoak, eskolagabeak baiño izkuntza apaiñagokoak. Gipuzkoa'k ere bereak izan ditu, Iparragirre, Otaño Pedro Mari... Basarri ta Otaño, lerro-lerro dabiltz bertsoeritza. Biek eskolatu, biek benetako bertsolari. Eta Basarri'k maite du Otaño eta aren bertsoetan ikasia duzute. (*Euzko-Gogoa*, 1951, 7-8 znb., 29 orr.).

3) *Kantari nator* (Zarautz, 1960). Itxaropena irarkolan. 191 orr. Aita Karmel Iturria'k itzaurrean: «Ortxe dezute Basarri bertsolaria, aundia ta sendoa, luzez eta zabalez, bere abots eder eta zoliez mikrofonu baten aurrean bertsoak kantatzen... Ogeigarren gizaldiak aurrerapenik ekarri dio munduari. Edozertan aurrerapenak. Jakintzatan eta teknika-gauzetan, gogozko eta besozko gauzetan, dane-

tan. Bertsolaritzan ere bai. Bertso-mamiari, bertso-gaiari begiratu ezker, berak jaso du bertsolaritza gaur duan mailla ederrera... berak altxa du gaur eguneko edozein gai erabiltzeko diña izatera... berak eraman du bertsolaritza periodiku ta radioetara. Ez al zaigu aspalditik egunerokoetan eta euskal aldizkarietan eta batez ere azken-aldi ontan radioan bertsoak kantatzen ari?»

4) *Laugarren txinpartak* (Tolosa, 1966). «Auspoa» liburutegiak, 134 orr. Argitaratzen duen 4'gan idaztia dalako, Basarri'k berak ugutzatu du izen orrekin. Aita Zabala'k itzaurrean, iñork aipatu ez duen zeaztasun bat ematen digu. «Basarri —dio—, guziok dakigun bezela, plazako bertsolari ez-ezik, paperetako bertsolari degu, kantuz bat-batetan bertso botatzen bezela, paperetan jartzen ere daskiana». Idazti ontan datozen bertso guztiak bi edo iru izan ezik, «emengo bertso guziak paperetatik jasoak dira. Bertso-paperak, errebitak, periodikuak eta nik dakit zenbat paper-mota, guziak apaindu izan dira, asko edo gutxi, Basarriren bertsoz. Oietan arkitu ditugunetik osatua da gaurko sorta au».

Emen daukagu, ba, gure bertsolaria, liburuz eta bertso-paperez aberats. Leku berezia du aspaldi danik irabazia izkera erritar eta landuaren artean ankalatraba. Ederki A. Iturria'k: «Berak erakutsi du garbiro etorriak eta eskolak eztutela, zenbaitek uste duen bezala, elkarren etsai izan bearrik».

(Ikus S. Onaindia, MEOE, 1077 orr.; idem *Gure Bertsolariak*, 234 orr.; J. San Martin, *Escritores euskericos*, 75 orr.; L. Mitxelena, *Egan*, 1960, 1-2, 112 orr.; A. Ibiñagabeitia, *Euzko-Gogoa*, 1951, 7-8, 29 orr.; J. Bilbao, *Bibliografía*, III, 98 orr.; Auñamendi, *Literatura*, IV, 234 orr.).

49.- MIGEL PELAI OROZKO (1913-...)

Donostiarra dugu idazle jator au, 1913-3-6'an jaioa. Bertson osatu zituen bere ikasteak, Kondularitzakoak baitik bat. «Olarso» izenordea erabili du.

Liburu pilloa du erderaz. 1941'tik 1951'ra arte Karakas'en bizi izan zan, eta bertan *Ekin* taldea sortu zuten idazle mordo baten artean: Iñaki Urreiztieta, Jon Oñatibia, Jose Estornes, Andoni Arozena, Bitor Elgezabal eta beste batzuk. An aldizkari batek (1948) iragarritako nor-geiagokan lenengo saria jaso zuen beronek onduriko «El abuelo y el nieto» ipuiak, gero R. Bozas Urrutia'k euskeratutakoak. Garai artakoak ditu *La traccion del Crepusculo* (1946), *El ritmo de la epoca* (1948), *Retablo vasco* (1946) eta *A la sombra de Aitzgorri* (1951).

Ixillaldi luze baten ondoren, berriz asi zan: *La ruta de Baroja* (1962), *Crimen en los rododendros* (argitara gabeko eleberria), *Diálogo del camino* (1962), *El escritor y su brújula* (1964), *Portico euskariano* (1966), *Los pelotaris*, *Cuadernos de un solitario*, *Las intuiciones de Sotero Bidarte*, *Gran País, difícil país*, *La encrucijada*, *Kapero y los dos* (1967, *Jai-alai en America* (1968).

Eta ondoren, a *Choperena el contrabandista*, *Baroja y el País Vasco*, *Palabra, palabras...*, *Bitinch a los cien años de su muerte*, *El País y sus problemas* eta *Oteiza*. Azken-orduan, Indalezio Bizkarrondo. 1831-1876. «Bilintx», A. Zabala'k euskeraz egiña erderaz jarri du.

Euskeraz ere idatzi digu, «Oarso», «Zeruko Argia», «Goiz-Argi», «Jakin» eta «Aranzazu»-n beintzat lanak emanik. 1978'an M. Lekuona'ren omenaldi eun bat idazlek osaturiko iru aleko liburu lodian ere agertzen da Pelai Orozko'ren lumak ekarritako *Goi-mallako gizona* deritzaion lana.

(Ikus J. San Martin, *Escritores euskéricos*, 148 orr.; Auñamendi, *Literatura*, IV, 226 orr.; J. Bilbao, *Bibliografía*, VI, 447 orr.; Zelia Lopez Sainz, *Cien Vascos de proyeccion universal actuales*, Bilbao, 1981, 188 orr.).

50.- JOSE ANTONIO GARATE UNANUE (1914-...)

Azkoiti'n jaio zan, 1914-1-16'an, Kale Nagusiko 94-3° etxean, abarketero sendi batean. Gurasoak, Antonio ta Katalin, aita azkoitiarra ta ama urrestildarra; aitaponteko, Joxe Manuel Lizarralde, bertsolaria: «Auspoa» bilduman agertzen dira bere bertsoak, 95 zenbaki-liburuxkan.

Amabi urtekin, 1926'an, Arantzazu'ko apaiztegian dago; 1931'an, Zarautz'en, praille-profesa egiten; 1939'an Azkoiti'n, meza berria ematen. Valladolid urian bi urte igaro ta gero, Tolosa'ra dator, eta ementxe bizi da ondorengo 43 urtetan. Prailletako erdelgiro artan murgil, euskera zearo aaztu omen zitzaion; baiña gero ogei urtetan asita, barne-muiñetan zeramakin izkuntza berpiztu omen du.

Garate'ren merezimendurik aipagarriena onoko auxe da. Franko'ren agintepe eta debekapen gorrietan, euskerari eusteko laneetan jo ta ke, etengabe arnas batean, bizi izan dala. Idaz-lanetan bereziki, elizako eta baserrietako gaiak eldu eta baliatuaz, al zitekean geiena luza-zabalduz, zuurtasunez erri-ofiziñetan jokatuz.

Labur bederen, ikus eta aipa ditzagun A. Garate'k zuzenduriko lau bat aldizkari. Ona urtez urte aspertu gabe egin zuen lan gotorra.

1) *Irugarren goen Maixua* (1944-1950). Illeroko prantziskotar aldizkaria, Irugarren Ordenari zegokiona; batzuetan 8 orrialde zituen, eta beste batzuetan 4, baiña beti aurrera euskeraz ezer idazten ez-tzan urteetan ere. Ementxe asi ziran idazten gero ospetsu egingo ziran Agirretxe, Villasante, Salvador Mitxelena eta beste.

2) *Anaitasuna* (1950-1983). Leenengoa txikiegi zalako, atzetik zetozten gazteak ere bultzatuta, izenburua aldatu, orriz ere aunditu ta kalera. 12.000 arpededun lortu zituen. 1952'an, Aita Imanol Berriatua'k bizkieraz ere argitaratu nai du, Tolosakoaren eraskin bezela. Olaxe egiten da.

3) *Arantzazu'ko Andre Mariaren Egutegia* (1947-1983). Garate'ren burutddi argitsua ta biozkada beroa izan zan Egutegi au sortu

ta berpiztea, guda aurretik Lopez Mendizabal'ek idatzi oi zuen gisara; euskera zanpatua zuzpertzearren ezezik, berak Oria-ibai aldetik zeramazkien erromes-taldeai pitxi polit bat eskientzearren. Berak urte aietan Arantzazu'ra zuzendu zituen erromes-taldeak, 140 izan ziran: ogeita bi urteko lana. Urte bakoitzean 24.000 egutegi-ale irakorlaratzen zituen: 16.000 gipuzkeraz eta 8.000 bizkaieraz; gaur-egun ere zenbaki orrekin jarraitzen du.

4) *Goiz-Argi* (1960-1983). Eragillea da, batez ere, A. Garate, eta gazteen kezkek aintzat jasoten dituana. Astekari bat sortu nai du, mardula, eliztarrak, «Astea» deritzana. Erri-agintarien eragozpenak nolaz zelaitu dabillen bin-bitartean, «Arantzazu» illerokoak base-rritarrai zegozkien orri gutxi batzuk, erderaz-euskeraz argitaratzeko baimena lortzen du. Aitzaki onekin sortzen da «Goiz-Argi», 1960'an.

Leenengo lau urteetan, ekonomi ta propaganda lanei eltzen die biziki Garate'k. Baiña 1964'an bere bizkarrera datorkio Zuzendari-tza oso-oso. Alperrik Donosti'ko agintarien deadarrak, azkenen-goz, ia-ia dana, euskera utsean plazaratzen da aldizkaria. Laguntalde egokiz inguratzen da: Agirretxe, Labaien, Basarri, Oñatibia, Antzi, Gaztañaga, Uxola, Joxe Iturria, eta abar. Lanik luze ta astunena berak daramaki, izenpetu gabe, edo-ta «Joxe Urkiola» ta «Joxate» izen-ordekoekin.

1970 ezkeroz idaz-giroa naspildu egiten da. Garate'k 150.000 pezetako multa jasan bear du. Idazlarien bi billera ospatzen dira, Tolosa'n eta Loiola'n. «Goiz-Argi» ta «Agur» aldizkariak alkartzen dira. Azkenez, Garate'k sekularren eskuetan uzten du zuzendari-tza 1976 urtearen bukaeran.

A. Garate'k jaso ditun sarien artean bat au izan da: Aita Nemesio Otaño azkoitirra jaio zanetik (1880-1980) eun urte betetzea zala-ta, Azkoiti'ko udaletxeak idazleiaketa antola zuen eta A. Garate'k irabazi len-saria. «Aita Nemesio Otaño» deritzan liburuak 30 orrialde dauzka.

(Ikus J. San Martin, *Escritores euskericos*, 86 orr.; Auñamendi, *Literatura*, IV, 237 orr.; J. M. Torrealdai, *Anaitasuna* (bilbokoa), 1976, iraila, 323 zenbakia, 21 orr.; Jesus Gaztañaga, *Goiz-Argi*, 1978, iraila, 16 orr.; Basarri, *El Diario Vasco*, 1981, jorrala, 4 orr.).

51.- XABIER PENA ALBIZU (1914-1980)

Tolosa'n jaio zan gizaseme zintzo ta langille au, 1914-6-30'an. Iruña'n ikasi zuen irakaslaritza ta orretan jardun zuen bere bizitza guztian, euskal arloan bereziki. Erbestetik ibilli zan gerra ondoren eta Lovaina (Belgika)'n ikasi zigun gizarte-iztia (soziologia). Bere aberrira bihurturik, Bilbo'n erakutsi izan zuen euskeraz; «Seguros Bilbao» alkartean eguerdi osterarte lagun egiñik, arratsalde ta gau euskal irakaskintzari emana zebillen, beti alai ta gogotsu; millaka dira Bilbo'n uragandik gure izkuntzaren gozotasuna xurgatu zutenak, or-emen zeuzkan ikas-tokietan klaseak artuaz.

Uda aldian, Kirikiño'k egin oi zuenez, bi-iru autobusetan ibillaldi atsegingarriak burutzen genitun Naparru'ra, Araba'ra, Gipuzko aldera naiz Bizkaiko erritxo lerdenera. Meza eman eta itzaldia egiteko eramaten ninduten ni. Guztiz mendizalea zan. Ba-daki ori Gorbeia'ko «Legoaldi» arpeko aterpeak. Oporretan, ia beti, bere anai Sebe'k eta beste batzuk lagundurik, urrutietako mendietara joateko oitura zeukan: Afrika'ko Kilimanjaro, angoo mendirik garaienera (liburuxka bat idatzi zuen txango ura goraziz, *Afrika-Sorkaldean Ibillaldi bat*, Bilbao, 1975, 28 orr.), Andes'etako Akonkagua Amerika'ko mendirik altuenera, eta batez ere Suiza'ko Alpes'etara: andik jasota daukat nik idazki bat, berak il baiño zortzi egun leenago andixek egiña. Finlandia'n illabete bat egin zuen, Laponia'raiño eldurik. Eta Euskalerrriak dauzkan gaillur, ibar, zugazti bitxi ta besteak ez zuten beretzat ezkuturik.

Argia zan, eta zorrotza. Idazteko ez zuen izan beta aundirik; ala ere, bialdu oi zituen bere lank «El Dia»-ra, «Euzkadi»-ra, «Izas-kin»-era, «Karmel»-era eta abarrera. Eder zitzaion olerkia, eta Olerti-Egunean, urtero, emen izaten genduen utsik egiteke.

Idazti biok bereak dituj:

- 1) *Ene potxolo*. Euskerazko antzerki laburra.
- 2) *Euskal Irakasbide laburra* (Bilbao, 1958) Graficas Ordorika,

127 orr. Euskeraz eta erderaz, gerora sarri argitaratua. Bizkaieraz dago; nik ortik erakutsi dut 25 urte auetan eta ezer ez dakienentzat legez irakasle-karrera egin ondoren euskereaz bizkor jabetu nai dutenentzat, auxe da, nik uste, euskal ikasbiderik bikaifiena. L. Mitxelena'k gramatika oni buruz, au diño: «Esango nuke bere mailan gaur arki ditekean beste edozein bezain ona dela, ohea ezpada» (*Egan*, 1960, 1-2, 111 orr.). 1980-10-1'an il zan eta il zanean, Tolosa'n eman zitzaion lurra bere gorpuari, baifia beste toki askotan, Bilbo'n Indautxu'ko Karmen elizan batez ere, bera Iuzaro bizi izan zan ondoko elizan noski, elizkizun erdiragarriak eskeñi zitzaizkion.

Euskaltzain urgazlea zan.

(Ikus J. San Martin, *Escritores euskericos*, 149 orr.; L. Mitxelena, 1960, 1-2, 111 orr.; Auñamendi, *Literatura*, IV, 240 orr.; J. Bilbao, *Bibliografía*, VI, 454 orr.; *Zer*, 1981, azilla, 3 orr.).

52.-BALENDIÑE ALBIZU AIZPURUA (1914-...)

Zumaia'n jaio zan Balendifie, 1914-9-18'an. Bere errian osatu zizkigun, eta gero bere kasa irakurriaz, dauzkan ezaguera ta jakitateak. Gerra sortu zanean, 1936'ko agorraren 24'an erritik irten bear izan zuten zazpi anai-arrebak. Or ibilli zitzaigun gero, aizeak ego-gain darabilen osto antzera, Balendiñe batez ere. Bilbo, Mundaka, Santander... Emen ezkondu zan mundakar batekin. Frantziaturik, Bidarte'n izan zuen lenengo seme Josu 1939-12-12'n. Gero, Marsella'tik zear Venezuela'ra jorik otel bat jarri zuen an. Eta ementxe bizi da gaur ere, lendabizi otel baten jabe, ta aspalditik, olako buru-auste barik, atsedean patxadazkoan.

Lau seme-alaba dauzka, batzuk ezkondata, beste batzuk karre-
ra ikasten. Bдениñe'k maite du bere sorterrria eta al duenean onuntz jo oi du illabete batzuetarako. Berton dauzkan seme, adiskide ta lagunak agurtzea eder zaio, baiña ez bere erriak gaur dauzkan gauza asko: Euzkadi pakean, alkar maitasunean, langille ta zorionsu ikusi nai Iuke.

OLERKARI.- Soñiez ez, baiña arimaz urduri duzu Balendiñe. Jainkoak, bere erriak eta familiak kezkatzen du oso. Bakarrik bezela zebillan munduz mundu; bere ama an gelditu zan Zumaia'n, itxas egalean, dabaren oroiz mindua, eta aita... Mingarria ziñez gazetetan erri utzi bearra! Berarekin zituen senarra ta umetxoak, baiña orrez gaiñ ba-ditugu beste biotz-zati batzuk ere. Guzti onek, ostera, olerkari biurtzen gu. Zer ote da olerkia? Barne-garraxia. Eta barne-intziriak dira Balendiñe'ren poesiak.

Noiztik dugu olerkari? Berak onela: «Ciudad Bolivar'en nengoela olerkiari eman nion. 1944 urtean Caracas'ko Eusko Etxea'n, euskal idazleen sariketa zala-ta, *Nere urtearen lau aldiak* biali nuen sariketa ortara. Beste askoren artean Jon Andoni Irazusta ere sartu zan sariketa artan eta oneri eman zioten Ienengo saria, eta neri bigarrena «Euzkadi» aldizkarira nere olerkiak bialtzen jarraitu nuen». Emen ez-ezik «Irrintzi» eta «Euzko-Deya»-n ere agertzen ziran bere olerki-lanak. Itzaldi asko eman ditu, baita ango irratitik, Caracas'en euskal kutsuzko zer guztietan esku arturik.

Bere olerki txortak:

1) *Nere olerki txorta* (Zarautz, 1972). 114 orr. 78 olerki guztiz. Lau zatitan banatuta: 1) Nere oroitean; 2) Ipar eta egoaldetik; 3) Nere biotzeriak, eta 4) Gogoketak. Eskeintza: «Nere seme alabato maite Goiz-Eder, Josu, Jon Imanol eta Asier'entzat, beren amaren biotz gogoetan sortutako olerki txorta au». Irizar'tar Sabin'ek itzaurrea.

2) *Olerkiak* (Bilbao, 1984). Igarri irarkolan, 259 orr. A. Onaindia'ren itzaurrea. Tropiko lurriñez usaindua daukagu berau, Euskalerra miñez ernetua. «Lore lurrin, usai, asmo, biotz, amets, erri-min, egamin... Eta irudimen egoetan, tropikotik Euskalerra'runtz, Parnaso zear, ederrez asea» datorkigu, Arozena'tar Andoni'k dioskunez.

(Ikus S. Onaindia, *Zer*, 1982, maiatza, 8 orr.).

53.- JUAN AGUSTIN ZUMALABE MENDIBURU (1914-1981)

Gizaseme on eta langille jator. Euskeraren onerako gogotsu jokatatu ziguna. Eusko-Ikaskuntza erakunde barruan leenik. Gaur aren alaba Olatz'ek dagian legez. Donostia'n jaio zan 1914-4-28'an. Berton illik, 1981'an.

Gudatean Frantzia'ra jo zuen. Eta Donibane Loitzun'en jarraitu zuen leendik zeukan arloan, ots, euskal arloan, «Eusko-Jakin-tza» sortu ta ildo berriz zuzenerazten. Ondoren, Paris'en lan egin zuen luzaroan, eta azkenez Donostia'n «Eusko Ikaskuntza» zuzertu ta Komertzi-Ikasketen Akademia sortuz.

Gaztetan asi zan idazten. Eta lan auek beintzat aipatu genitzake:

1) Barzelona'ko J. Cases Carbo argitaldari etxearentzat *Olerkiak* (Poesfas) A. Zumalabe'k itzuli zituan, 1934.

2) «Libro de Oro» deritzan liburuan, 19'garren orrialdean datozen *Joku ta Kirolak* (1935), beronenak ditu.

3) B. Estornes Lasa'k erderaz egiñiko «Sabin Euskalduna» berak jarri zuen euskeraz.

4) Berak euskeratu zuen orobat Juli Verne'ren «Le tour du monde en 80 jours», 1936'an Eusko Ikaskuntza ixil-erazi zutenean galdua.

5) *Euzko Aberri Alkartasuna* (Frente nacional vasca) (Karakas, 1960). «Alderdi»-k idatzitako lan bat zala-ta, 4 orrialdeko agiri-papera.

(Ikus Auñamendi, *Literatura*, IV, 239 orr.; J. Bilbao, *Bibliografía*, III, 412 orr., eta VIII, 368 orr.).

54.- SEBASTIAN SALABERRIA (1915-...)

Idazleak gaia bear izaten du. Salaberria'k, berriz, berak bizi izanetik naiko gai digu eleberri jakingarria osatzeko, «Neronek tiratu nizkin»-a osatzeko noski. Merezi duelako, zuzen bekit beratzaz zerbait luzatzea.

Oiartzun'en munduratu zan 1915-12-26'an, gabeko amabietan, Elbitxuri izeneko baserrian. Zortziren bat ilabeteko zala, Errenderi'ko «Sagasti» baserrira aldatu zan sendia. «La Fanderia» pentsu-fabrika ezagun duzu, eta emendik eskubi aldera, Astigarraga'ko bentara bidean dago Sagasti.

Gaur morroi ta biar maizter ibilli bearra izan zuten Salaberria familikoak. Sebastian bein, Donosti'ko gas-fabrikang egokitu zan. Bertso-griña ere antxe sortu zitzaion, berak amazapi urte zituala, Basarri txapeldun gelditu zanean Kursaal'en ospatu zan bertsolarien jaialdian batez ere.

Atsegin zaizkion jaiak, Iruña'ko San Ferminak baitik bat. Berak onela: «1936-garren urteko uztaillaren 6-an, atera giñan Ayetik nere lagun Pedro ta ni bizikletan, arratsaldeko laueta, Pamplona-ko San Fermin festetara». Amarretan lez iritxi ziran Iruña'ra, eta ostaturik eza, tiroak, zezenak... Eta azkenez, «baratxuri aundi bana artu ta aek lepotik zintzilik zituztela, Donosti-ra berriz ere bizikletan. Andik amar bat egunera Espaiña'ko gerraren asikeran, zalaparta ugari Donostia ta inguruetan.

Goerriak ikus zituzten agorraren amabian. Lanari lotua zebillela, ura zan «ango ixkamilla eta jendearen zoramena! Danak, koltxoiak eta arrapatzen zituzten etxeko tresnak arturik, arrantzaleen baporetan sartu eta al zan guztia bazijoan Bilbao aldera». Berak Donostia'n jarraitu zuen oindio, baiña soldadu joan bearra izan zuen eta beste gazte askorekin Iruña'ra joan zan eta an, parra ta beldur, instruzioa ikasi zigun aurrena ta gero frentera, Araba ta Bizkaiko mugan dagoen Legutiano'ra. «Villarreal aldeko mendietara —dio— eraman ginduzten, eta, mendialde aietan genbiltzala, tokatu zan Aste Santua ere. Oroitzen naiz Ostiral Santu gunez nola

gure agintariak esan ziguten egun artan fusilla bera begira ibiltzeko. Ala ibilli giñan egun guztian, eta ez genduan tiro bat bakarrik ere ifiun entzun».

Oso tristea iruditu zitzaion Sebastian'i guda nazkagarri ura. «Auxon —dio— izango ukek munduan izan leiken gauzik tristee-na, sekulan ezer izan ez degun anaiak alkarri tiroka batak bestea iltzea!» Andik Otxandio'ra ta Urkiola'ra. Eta Gorbea-Txiki'ra, eta Gorbea-Aundi'ra, Dima, Igorre... Piñadi baten lerkiz zauritua Gaz-teiz'ko eritegira daramate, eta Iruña'ra, luzaroan gaixorik egiñaz. Bitartean jausi zan Bilbao... Zer guztiok edesten dizkigu b erak «Ne-ronek tiratu nizkin» liburuan. Berez bezela dijoakio luma, berak ikusi, sentidu ta bizi izanak kontatuz.

Liburua argitaratu baifio leen, 1964'an, bere bizitzako gertaera ta zeaztasunekin osaturiko idatzi bat aurkeztu zuen Donostia'ko «Agora» eleberri-sariketan eta berak jaso zigun urte artako «Gi-puzkoa» nobela-saria.

L. Mitxelena'k liburu au goratuz onela: «Itz bitan esana dago non datzan *Neronek tiratu nizkin-en* gozoa eta indarra. Gure ar-tean eunka eta millaka ditugun erriko gizon apal orietako bat min-tzatzen zaigu Sebastian Sdaberria'ren aoz, gizon argia, ez ikasie-gia eta ez ezjakiña. Orrexek kontaktzen dizkigu, argi eta bizi, bere bizitzako gertaerak eta gora beherak, Oiartzun'go jaiotetxetik asi eta azken gerrateko ezbearrak eta naigabeak burutu arte. Irakurgai erraza eta atsegiña au, iñon errazik eta atsegiñik baldin bada, eta batez ere bizia dariona. Eleberriak lekuko izan bear duela diote-nak badira, besterik baino lehenago. Dena dela, Iekukoak ere bear dira, gutxienez, eta nekez arkituko dugu onelako lekukotasun eta testigutza zintzoagorik» (*Egan*, 1966, 1-6, 173 orr.).

(Ikus J. San Martin, *Escritores euskericos*, 154 orr.; L. Mitxelena, *Egan*, 1964, 1-6, 173 orr.; A. Zabala, *Auspoa*, 1964, 38 zenbakia; Auñamendi, *Literatura*, IV, 285 orr.).

55.- ANASTASIO ALBISU ETA AIERDI (1915-...)

Apaiza. Langillea oso, zein arima-zaintzan zein euskal idazleztan. Lazkau'n jaio zan 1915-3-27'an. Abade-karrera asterakoan, 1927'an Saturrarán'go apiazgaitegira jo zuen. Leen ikasteak an osatu ondoren, Gasteiz'en egin zizkigun Filosofi ta Teologiari dagizkie-nak; gerra aurretik eta bitartean eliz-karrera amaiturik, 1939-6-2'an abadetu zan. Geroztik, or-an-emen ari izan da eliz-lanetan, Araba'ko Fontetxa'n eta, baiña Azkoiti'n batez ere urte mordoa daramararik.

EUSKAL-LANA.- Gazterik zion begi ona euskerari, eta Gasteiz'en ikasle zegoelarik, «ordukixe det —dio berak— euskeraz idazteko nere zaletasuna ere. Kardaberaz Bazkun barruan, beste bazkun berezi bat sortu genduan zenbait lagunek. Eta auethek giñan Gasteiz'ko apaizgaitegian «Kardaberaz» aldizkaria argitaratzen genduenok ere. Garai ontakoa (1935) da nere lenengo saria ere. Apaizgaitegian izan txapelketa batean, itz neurtuz egindako «Ni ez kristarra» antzerkitxoagatik eman zidaten sari au».

Gerrak, beste askori bezela, egoak moztu zizkion. «Gerrateak ausi zizkidan —darrai—, ordea, beste askori bezela, idaz-lan oietarako bideak. Ala ere, ez nion idazteari erabat utzi, ta, argitaratzerik izan ez arren, ordukoak ditut nere antzerkietako batzuek. Badiara auen artean betirako galduak eta argirik ikusiko ez duten beste lan batzuek. Auxe izan bait zan garai artako euskal-idazleen zorigaitza...!» (1983-2-1).

Guda ondoko amar-amabi bat urtetan, egia, euskal idazleak e-tzuten izan beren Ianak nun azaldu, mugaz emendiko Euskalerrian beintzat. Geroagoan asi ziran txapelketa batzuk, eta aldizkari batzuk arnasa artzen: *Egan* (1949), *Karmengo Amaren Egutegia* (1949) —gero *Karmel* biurtua—, *Zeruko Argia* eta gaiñerakoak; eta luze, eritzirik zeuden idazleak auetan asi zitzaizkigun idazten.

Albisu ere —nola ez!— txapelketa ta aldizkari oietara bere lan-txoak bialtzen asi zan. Eta 1954'an bigarren saria jaso aal izan zuen Zarautz'eko antzerki-sariketan; leenengoa, berriz, Arantzazu'n

1956'an, eta ohorezko aipamena 1967'an, Gerediaga'k Durango'n eratu zuen Kirikiño ipui-sariketan. *Karmel'en* (1957, 1958 ta 1959) datoz bere leenengo antzerkiak, «Ni ez neskar», «Trabenan» eta «Garoa». *Sustraitz* izen orde zuzenpetzen ditu.

1970'an Aita Kardaberatz il zanetiko berreugarren urtea zala-ko, jaiak ospatziran Donostia'n, Ernani'n eta Loiola'n. Urrengo urtean, otsaillaren'18'an, batzar nagusi bat Loiola'n, ainbat euskal idazle bertan zirala: antziñako Kardaberatz Bazkuna berriztu zan, asmo ta zeregin bereziekin. Asmo oietatik bat zan liburuak argitaratzea. Geroztik zenbait liburu interesgarri azaldu izan ditu Bazkun eragille onek.

Ona A. Albisu'renetik sailtxo bat:

1) *Sortzetik Garbia* (1954).

2) *Biblia* (Gasteiz, 1970, 261 orr.). Donato Arrinda'k erderaz egiña, euskeraz.

3) *Erreka-zuloan eta...* (Gasteiz, 1973, 339 orr.). Ementxe datoz kontakizun bat eta urrengo antzerkiak: 1) *Moskorra parregarri* (E Xabier M. Munibe eta Idiakez'en «El borracho burlado» euskeraz); 2) *Jerusalen'era erromes*; 3) *Nekaldia* (Mateo Deunaren liburutik); 4) *Ipuiak*, bost; 5) *Ipui-antzerkitxoak*; a) «Ni ez neskar...!»; b) «Trabenan», aurrekoa lez erri-ipui batetik ateratakoa; z) «Ogi ta ardo, Eduardo»; d) «On egitean dago zoriona», maitagarri-ipui batetik; e) «Gabon-gaua»; f) «Ni ez, ba, kristarra», 1935'an, Gasteiz'ko abadegaitegian saritua eta abenduaren l'an, Xabier'ko Frantzisko'ri egin zitzaion jaialdian, antzeztua. Bertsotan dago.

4) *Gartzi-Ximeno, eta...* (Gasteiz, 1975, Eset irarkolan, 228 orr.). Bost antzerki datoz emen. 1) *Gartzi-Ximeno*, bi ekitalditan; 2) *Mesederik aundiena*, iru ekitalditan; 1955'an Arantzazu'n leen-saria eskuratu zuena; 3) *Garoa*, iru ekitaldi, D. Txomin Agirre'ren nobelatik aterarik; 4) *Loiola-Xabier*, lau ekitalditan; Iñaki ta Xabier'en arteko ar-emanak; 5) *Leen bear zuan...* Antzerki labur poliki egiña, besteak legez.

5) *Amezketako Permando* (Gasteiz, 1975, 77 orr.). Kardaberaz liburuxkak.

6) *20 Ipui eta...* (Gasteiz, 1975, Eset irarkolan, 145 orr.). Antzerkitxoak ikastoletarako.

7) *Kosmos* (1975). Anaya'k argitaratu zuen liburu au, askoren artean itzulia; itzultzaile oietakoa genduan A. Albisu ere.

8) *Jehova'tarrak*. Testigos de Jehova (Madrid, 1977, 157 orr.). Donato Arrinda'k gazteleraz idatzia, euskeraz.

Kardaberaz Bazkuna berriro sortu zanean, 1970'an, sortzaileetako bat berau izan zan, eta bertako idazkari nagusi 1973'tik 1980'ra arte. Beronek osatuak dira, ba, «Kardaberaz» aldizkarian aurkitzen diran Bazkunaren zeaztasunak eta kondairak.

«Karmel», «Zeruko Argia», «Egan» eta abar idatzi du.

Euskera lau ta erreza darabil.

(Ikus J. San Martin, *Escritores euskericos*, 20 orr.; Auñamendi, *Literatura*, IV, 252 orr.; S. Onaindia, *Euskal Elertia*, 108 orr.).

56.- MIREN ARANZAZU URRETA ZULAIKA (1915-...)

Donostiarra. Bakoitzak du sortzezko jita, griña, eraspena. Fransesa ta inglesa ikasi zitun Arantza'k Madrid'en, ango Ikaskuntza Eskola nagusian. Ederto daki euskeraz, eta betaz dagoenean artikulua idatzi izan ditu «Zeruko Argia»-n (1963).

Bi itzalpenok ere berak burutuak dira:

1) *Lartaun Eguzki-semea* (Zarautz, 1960). Kuliska Sortan dator, 39-40 zenbakian. Jose Luis Mufioyerro bilbotar idazleak erderaz egiña, Arantza'k euskeraz.

Ona zatifio bat nolako euskera arin goxoz diarduan jakin dezazun. «Olerkari zarren abestian —idazten du— antxiñako oroigarri ditugu. Emen ez dezute zuen auzoko iberotarren galsoroak bezelakorik. Feniziotarren itxaso barearen antzik ez du zuen itxas-ertz

arroak, ezta ere gure etsaien sorlekua bezelako lur apañik. Gure lurraldeak ez du, ez urrerik, ez arri-bitxirik. Urtzi'k ez digu eman nai izan gizona arrotu ta galdu dezakenik. Janari gutxi ta zindoak, gure edaria berriz, Urtzi'ren malkoak ur biurtuta. Ondo daki azkatasunak ez duela berdiñik».

2) *Illargian ere euskerctz* (Donostia, 1967). 116 orrialde. Ipuiak. Muñoyerro'tar Jose Luis'ek egifia Agirre'tar Maria Dolores eta Urre'tar Maritxu'k itzulpena eta marrazkiak.

Liburu au ere, emakumearen barne-txairotasunari dagokionez, euskera jatorrak berezkoa duen jaikitasunez jantzia.

(Ikus J. San Martin, *Escritores euskericos*, 164 orr.; *Zeruko Argia*, 1963, 14an. Zenbakian, 4 orr.; Auñamendi, *Literatura*, IV, 187 orr.; J. Bilbao, *Bibliografía*, VIII, 114 orr.).

57.- LUIS MITXELENA ELISALT (1915-1987)

Errenderi'n jaio zan 1915-8-20'an. Leen-ikasteak bere errian osatu ondoan, Madrid'eko Ikasgu Nagusian egin zuen Filosofia eta Letren karrera, izkuntza klasikua batez ere. Zizpalari ibilli zitzaigun guda garaian eta gero, zigortua, El Dueso'n eta Busgos'en; atxilo ta itxia zegoelarik ere, ikasteari eman zion, ainbat gaitan sakonduz leen-ikasiak. Espetxea ezta —neronez dakit— lekurik txarrena izkuntzak ikasi naiz beste gai batzun mami-gunez jabetzeko. Labor: pentsatzen ikasteko. Mitxelenak berak eder zituen gai oietan aise atera zuen gero, 1959'an, Irakasle (Doktor) titulua.

1954'tik aurrera lan aundia egin zigun Julio Urkixo'ren euskal Mintegiko zuzendari izan zan aldetik. Salamanka'n eta Iruña'n eskolak eman ditu; 1952'tik Euskaltzain osoa, eta bertoko idazkari; «Egan» aldizkariko batzarkide ta zuzendari, A. Irigarai ta A. Arrue'rekin batera; Paris'eko Izkelaritza Bazkunakoa; eta Zientzizko Iker-sailleko Goi-Bazkunean lankide. Zeinbat aldizkaritan lan egin du: BAP (Donostia), «Euskera» (Bilbao), «Emerita» (Madrid), «Archivum» (Oviedo), «Pirineos» (Zaragoza), «Munibe» (Donos-

tia), «Zephyrus» (Salamanka), «Principe de Viana» (Iruña), «Via Domitia» (Toulouse), «Bulletin de la Societe de Linguistique» (Paris), «Word» (New York).

IDAZLE.- Erderaz: Ugaria noski, eta ez zaizu errez or-emenka argitaratu ditun lanen zerrenda osatzea. Liburuak, orraitio, beude emen urtez urte.

1) *Apellidos vascos* (Donostia, 1958). Bigarrenez ere argitaratua. 185 orrialde. Aurretik eta gero, idatzi izan da gai ontaz; lanik ederrena eta arnasa aundikoa, baiña, Arana-Goiri'k asi ta asmo-tan zeukana. Lan bikaiñak egin diran arren, ainbat eta ainbat euskal-abizen ez dizkigu iñork ere sakonki aztertu ta adierazi. Ain dituzu ezkutuak!

2) *Las escrituras apocrifas de Andramendi* (Donostia, 1954). Milagros Bidegain'ekin batera osatua.

3) *La Posicion fonetica del dialecto del Roncal* (Via Domitia, Toulouse, 1954).

4) *De Onomastica aquitana* (Pirineos, Zaragoza, 1954).

5) *Hispanico antiguo ya vasco* (Archivum, Oviedo, 1958).

6) *A propos de l'accent basque* (Paris, 1958).

7) *Dictiomarium linguae cantabricae* N. Landuchio'rena, 1562'garrenekoa (Donostia, 1958). Manuel Agud'ekin batera.

8) *Literatura en lingua vasca* (Barzelona, 1958). «Historia General de las literaturas hispanicas» deritzanean dator, V, 479 orr.)

9) *Historia de la Literatura vasca* (Madrid, 1960). Minotauro, 157 orr. Bada bigarren argitalpen bat ere. Argiro datoz euskal literaturaren arorik beiñenak, antziñakoak baitik bat, zeaztasun geiegira jatxi gabe. A. Villasante'k osatu zigunekin batera, auxe dugu gaur ere euskal literatura idatziaren edestirik bizi ta tajutsuena.

10) *Fonetica historica vasca* (Donostia, 1963). 455 orr.; L. Mitxelena'ren lanetan garrantzizkoena, bear bada. Gipuzkoa'ko Aldunetxearen laguntzaz argitara emana. Maisu-tesiserako lana; 3.150 itz aztertzen dira bertan; au da, euskeraren zokondoak oro ikertzen, itz-otsei buruz bederen. Egilleak berak dioskunez, Uhlen-

beck'ek eta Gavel'ek auzi onetan burutu zituzten lanak gainditu egin ditu, agiri geiagoren jabe bait zan, baiña oraindik bada lanik egiteko ere, ordun nai duenerentzat.

11) *Lenguas y protolenguas (Salamanka, 1963)*. 1961-1962'ra Mitxelena'k Salamanka'n eman zituen ikastaroko lanak. Ementxe dator aren izkuntzari buruzko irakaspena oso-osorik.

12) *Textos arcaicos vascos* (Madrid, 1963). Biblioteca vasca, Mi-notauro. 8'garren zenbakia, 106 orr. Egilleak aitortzen digunez, bilduma bat da, bigarren eskukoa geienbat, euskerearen edestirako zer adierazi nai diguten aspaldiko idaztietan eta Erdi Aroko idazburu, ikurriz, agiri ta dokumentuetan datozen datuak lendabizi, eta gero, XV, XVI eta XVII'garren gizaldietako esku-idatzi ta liburu irarrietan, itz eta bertsoz, aurkitzen diran esaera ta idaz-zati luzeagoekin osaturiko bilduma naiko zeatza. Lan on-ona izkuntzalarientzat.

13) *Sobre el pasado de la lengua vasca* (Donostia, 1964). 200 orr. Bizkaiko Kultur-Batzordeak leiaketa bat iragarri zuen, gai oni buruz: «Orfgenes de la lengua vasca y proceso evolutivo de sus dialectos». Mitxelena'ren lana izan zan saritua.

14) *La lengua vasca* (Bilbo, Bolueta, 1977). 87 orr. Leopoldo Zugaza, argitaldaria. Lan bat eskatu diote egilleari; ez du gogo aundirik ori burutzeko, sarri idatzi du-eta euskerataz eta gauza asko berriro esanen ote dituen beldur da. Baiña ala ere... Gaiok dira bertan dauzkagunak: 1) Euskaldunak eta beren izkuntza; 2) Izenetaz zerbait; 3) Izkuntzak duen garrantzi zientifikua; 4) Mugak; 5) Aintziñatasuna; 6) Izkuntzaren barne-egitura; 7) Aditza; 8) Itz-jarrai eragillea; 9) Izelgiak; 10) Bonaparte'ren sailketa; 11) Aidetasunak; 12) Ondo-solasa.

EUSKERAZ.- Espetxean asi zan «Espetxe» zeritzen aldizkarian, 1938'tik aurrera. Gero, berak eta leen aipatu biak zuzentzen duten «Egan»-en agertu dizkigu batez ere bere lanik geienak, euskeraz; or izan zituan leen bi gai bere-bereak, zinema eta iritzi-emateak: egoki ta zorrotz jokatu zuen bietan. Idatzi izan du, baita, noizean beinka, «Euskera»-n eta «Jakin»-en, eta itzaldi ta konferentzi asko eman. Orixegatik A. Villasante'k ondo dio: «Mitxelena jaunak bi-

kainki bete du bere egitekoa». Euskal idazleok, ail, ba'giña beste orrenbeste egiteko! Errenderiarrek, egia da, erderaz aski geiago idatzi du euskeraz baiño; euskeraz ederki dakianarren, erderari ekin dio sutsuago.

Urte batzuk dirala Etor'ek liburu eder bat azaldu zigun: «Mitxelena'ren Idazlan Hautatuak» (Bilbo, 1972, 404 orr.). 9 lanetan datoz lanak: 1) Orri azpiko oharrek hornituriko idazlanak; 2) Txostenak; 3) Elkar-hizketak; 4) Gure klasikoak; 5) Saioak; 6) Hil ondokoak; 7) Hitzaurreak; 8) Filmak; 9) Liburuen iritziak. Bilduma ederra. Iñoiz entzun dut, Iiburuen iritzi emakeran, zorrotzegia izan dala eta idazle batzuk oriatik idazteari utzi egin diotela. Baliteke egia izatea.

Gaur Gasteiz'ko Ele-Jakintza eskolan daukagu Mitxelena. Urteen barrena ez ditu omenaldi gutxi artu. Azkenaldi ontan «Osian» saria eman diote Gasteiz'en. Merezi duenari omen egitea edertzat jotzen du munduak.

(Ikus P. Lafitte, *Bol. Am. Pais Vasco*, 1963, 3-4, 315 orr.; L. Villasante, *Historia de la Litteratura vasca eta Egan*, 1960, 3-6, 228 orr.; Bitáño, *El Bidasoa*, 1960, 6-28'an; h San Martin, *Escritores euskericos*, 129 orr.; Auñamendi, *Literatura*, IV, 264 orr.; Jon Bilbao, *Bibliografía*, V, 409 orr.; S. Onaindia, *Euskal Elertia*, 201 orr.).

58.- ANTONIO VALVERDE CASAS (1915-1970)

Valverde edo «Ayalde», margolari ta euskaltzale, gazterik joan zitzaiguna. Ura il zan urtean, 1970'anko abenduan, Lekuona'tar Manuel'ek «Actualidades» aretoan eman zuen itzaldian, onela: «Erderaz ari bagiaña, «Ayalde» izena, Antonio Valverde'k inmortalizatu egin duala esango genduke: «illezkortu» euskeraz —illezkortasun txiki bat—. «Ayalde» ori, Oiartzun'en jauregitxo baten izena da; «Aia'ko arrira» begira dagolako, ipiñi bait zion Antonio'k izen polit ori, berak egindako jauregitxoari. Ori dalata, izen bera artu zuan, baita, bere seudonimo idazle-izentarako ere. Gaur Ayalde esaten degun bakoitzean, gure adiskide biozkor biotzekoaren irudi ta imaji-

ña datorkigu gogora orain lau-bat illabete «joan zitzaigun» adiskidearen irudi bizia» (*Egan*, 1973, 1-6, 12 orr.).

Errenderi'n jaio zan Valverde, 1915-1-17'an. Ikastuna, Eskugoan Lizenziatura atera zuen Zaragoza'ko Ikastetxe Nagusitik. Euskaltzaindikoa. Eta margolari: sarri esana dut, ingurua artista sortzaille dala. Valverde errenderiar izanik ere, oiartzuartzat joten zuen bere burua, eta erri onek ainbat eder-gai eman zion bai literaturako eta bai margogintzarako.

Valverde'ren euskaltzaletasunari dagozkiola, jaiotzez erdeldun izanagatik, euskeraz ikasi naia, eskola-mutil zalarik miñez artzen zuen euskeraz ez jakitea bere eskola-lagunen antzera. Ezkontzeko asmoa artu zuenean, neska euskalduna nai zuen andregai: «Maria Dolores Lamfus eta Retegi, lenengo abizenez alemana, bañan jaiotzez eta izatez eta biotzez euskaldun jatorra». Onekin asi zan ikasten etxean, eta ordu edo garai barean sartu zan eskola-mutil Donosti Zaarreko Ikastola ezkutu batean, Zipitria andereñoak zeukanean. Eta oroimen onekoa zanez, Iaister jabetu zitzaigun euskeraz. Eta emen daukagu Ayalde, bizitzako amets eder bat aserik, euskaldun oso, ederki mintzatzeko eta idazteko gai delarik. Entzun, irakurri ta idatzi, or euskalduntzeko bide egokia.

EUSKAL IDAZLE.- Irarkola-lanez bizi zan Valverde —Gráficas Valverde berea zuen—. Baiña ba-zituen txolarte batzuk irakurri ta idazteko. Zer irakurri ote zuen? «Lizardi zuan bere irakurgai aukeratuetan bat —diosku M. Lekuona'k —, irakurgai kutun. Lizardi lenengo; eta Orixe urren; edo-ta biok berdin». Lizardi'ren «Biotz-begietan» ain panpoxki dotoretu zigun, bigarren argitalpena egiterakoan. Orixe'ren «Euskaldunak» poemaren bigarren argitaldirako ere, berak osatu zituen kantu guztien edergarriak. Liburuok irakurri ta gaiak pintatuz idazle oso bikaiña egin zitzaigun.

Erderaz eta euskeraz idatzi zuen. Erderaz, Donostia'ko «El Diario Vasco»-n eta «La Voz de España»-n. Eta euskeraz, «El Bidasoa», «Egan», «Olerti», «Jakín», «Zeruko Argia»-n. Itz Iauz eta bertsoz saiatu zan. Olerkari bezela, guztiz fiña dugu: «0lerti»-n, «Egan»-en eta «Ibar Ixillean» ba-dauzkazu olakoak. Ona bere bi luburuk.

1) *Confondo cle chistu* (Donostia, 1965). Auñamendi Bilduma, 46'gn. zenbakia. 166 orr. Aurretik, 1952'tik asita, Irun'eko «El Bidasoa»-n eta Donosti'ko egunerokoetan azaldu zituen lanakin osaturiko sorta, egilleak berak jarritako ainbat apaingarriz ornituta. Atsegiñez irakurten dan lan jakingarria.

2) *Ibar Ixillean* (Donostia, 1970). 236 orrialde. M. Lekuona'ren itzaurrea. Or-emen —«El Bidasoa»-n, «Zeruko Argia»-n, «Egan»-en, «Aranzazu»-n, «Oarso»-n— 1955'tik aurrera argitaratu zituen lanak. Erderazkoak baiño ere jakingarriago ta irakurteko goxoagoak diranak, alegia.

Bi liburuok daude, esan dugu, berak margozturiko apaingariekin jantzirik. Eder zitzaion apainketa au, oiek ez-ezik, J. Basurko'ren «Iñazio Deuna», Kirikiño'ren «Abarrak» (Donosti, 1956), Manzisidor'en «Gure Patroi Aundia» eta K. Sagartzazu'ren «Intza begietan» ere berak bait zituen apaindu.

Pio Baroxa'ren *Mari Beltxa* ipuia, *Vidas sombrías'en* datorrena, berak euskeratu zuen (*Egan*, 1956, 5-6, 183 orr.).

(Ikus, J. San Martin, *Escritores euskericos*, 166 orr.; M. Lekuona, *Egan*, 1973, 1-6, 12 orr.; J. Bilbao, *Bibliografía*, VIII, 138 orr.; S. Onaindia, *Euskal Elertia*, 192 orr.).

59.- GOTZON GOENAGA TA GORRITI (1915-1974)

Aita josulaguna. P. Altunak onela edesten digu aren eriotza: «Udazkeneko arrats euritsu batean ez bat ez bi hil zitzaigun Gotzon Urumea hibai ondoan, U.S.A.-tik etorri berria zelarik, E.U.T.G.-ko Filosofia saileko Dekanotza oster hartu berria zuelarik eta euskeraren aldeko lan latzetan buru eta belarri sartu-sartua zegoen garaian» (*Euskera*, 1974, 439 orr.)

Zegama'n jaio zan 1915-3-1'an. Aita tolosarra zuen eta ama oiartzuarra, biak euskaldun jatorrak. Goi-deiari erantzunik, Lagundiko ikasketak, nagusiak beintzat, Tournai'n eta Marneffe'n (Belji-

ka) eta Bureba aldeko Oña'n osatu zituan, 1945'an apaiz egiñik. Bilbo'ko Indautxu'n eta Kanarias'en eskolak eman zituen iaubost urtez, bidenabar Barzelona'n Filosofiako Lizentzia, eta gero Teologian ere Iortuaz. Geroago oraindik, ez-oizko sariz, bietan Irakasle (Doktor) titulua ere atera zigun. Ikasteari oso emana bait zan.

Ikasteak bukatu ostean, irakasle izan zan Iruña'n eta Donostia'n, jesuieten ikastetxeetan, Donostian Gizarte-laguntzailleen eskolan eta «Zabalegi» Erakundean eskolak ematen jarraituz. E.S.T.E. sortu zanean, berriz, ara igaro zan Etika eta Izadi-Eskubidezkoak irakastera. «Gehiago ikasi nahiez —diosku P. Altuna'k— eta gogoan zituen euskal lanak hobeki burutzeko bere burua areago trebatzearren, U.S.A.-n sei urte handi eman zituen. Garai hartan berrogeitahamaika urte zituen gure Gotzonek. Columbiako Inibertsitatean *visiting scholar* izan zen eta Fordham eta Syracusekoetan Espainiako Literatur irakasle E.U.T.G.-ra itzultzean eta bere bizitzako azken urtean, lehen esan bezala, Filosofia sailleko Dekanotza hartu zuen berriro. U.S.A.-n hasiak zituen euskal lanak osatzen ari zelarik atzeman zuen herioak».

EUSKALTZALE- Ardura ta gai askotan sartua zebillearik ere bere izkuntzaz ez zegoen aztua. «Jesus'en Biotzaren Deya»-n eta «Zeruko Argia»-n idatzi zuen euskeraz. Liburuok ere bereak ditu:

1) *Breve exposicion sobre la figura del P. Olabide* (Gasteiz, 1956, 11 orr.; euskeraz eta erderaz). Euskerazko itzaldia da, Euskaltzadiak Olabide'ren omenez an egindako batzarrean egilleak irakurria.

2) *Baskisch and romanisch* (Vascuence y romano, 1959). Hugo Schuchardt'en lana alemanetik gatzeleraz ipiñita. BAP-en dator, 957, 463 orr. Gai ontaz ba-ditu beste lan interegarri batzuk ere.

3) *Agurea ta Itxasoa* (Zarautz, 1963). Kuliska Sorta, 52 zenbakian. 118 orr. Ernest Hemingway (1899-1961) ipar-amerikar nobela idazlearen «The Old Man and the Sea» euskeraztuta. Asko eta ederki ondu zituen Ernest'ek bere liburu ugariak, itzerdika lez gauzak adierazten mutilla dugula, baita poesiz bateriko edestiak poliki asko biribiltzen saiatzen zaigularik ere. Auetariko bat da Goenaga'k euskera bikaiñean damakiguna.

4) *Algunas categorías semánticas de la lengua vasca* (Madrid, 1967). Barzelona'ko Unibersidadean otsegindako Irakasle-tesisa; onen bitartez lortu zuen «Oiezlako Saria» Jakintza-Lizentzian.

5) *Filosofi-lanak*. Aristotele, Kikeron, Kant eta Hegel'i buruzko lanak «Revista de Ideas estéticas»-n datoz. Ona, berriz, esku artean zituan lanak, P. Altuna'k dionez: «Sikoligi hitzen euskal hiztegia»; «IZAN EGON—EGOKA EDUN-EDUKI eta euskal izatea»; «Ahal izatea eta ezina. Nahitaezkoa eta badaezpadakoa»; «ARI-IHARDUN-EGIN: galdegaia»; «GEI, GAI, GA(I)tik, ERAZI: kausaldadea»; «ALDI, ALDE, ALDA: lekua, denbora, mugimendua». Eta sail onetan jakingarria dugu gure idazle zaarretan gai oni buruz agertzen danaren kezka ere. «Baina GOGO —dio— zuen hitz denetarik maiteena eta aztertuena, bere azken urteetan. Hitz horren zentzu sakona, hobeki esan, dituen zentzu guztien barrenbarrengo muina zein zeitekeen kezkatu bizi zen. Atzinako eta georagoko iturrietara jo eta Detxepare, Tartats, Oihenart, Axular, Leizarraga, Mendiburu-rengan eta atsotitz zaharretan agertzen zen parrarte guztiak ikertzen eta aztarrikatzen ari zen. «Fontes Linguae Vasconum»-en argitara zituen lan horietarik gehienak».

Euskaltzaindiko laguntzaille zan 1965'tik.

(Ikus J.A., *Agurea ta i/xasoa*, Bol. Am. Pais, 1963, 110 orr.; L. Mitxelena, *Egan*, 1963, 1-3-149 orr.; J. San Martín, *Escritores euskericos*, 91 orr.; Auñamendi, *Literatura*, IV, 250 orr.; J. Bilbao, *Bibliografía*, IV, 64 orr.; P. Altuna, *Euskera*, 1974, XIX, 439 orr.).

60.- JOSE ANTONIO LOIDI BIZKARRONDO (1915-...)

Errenderi'n jaioa, 1915-8-22'an. Gaztetan Sendakintzan Lizentziatura atera zuen, Optikan eta Akustikan (argizti ta ots-iztian) agiri ere lorturik, Madrid'etik. Gaur Irun'en daukagu sendagaitegi batekin. Ezkondua. Udaletxeko sendagai-zaiña.

EuSKAL IDAZLE.- Euskeraz mintzatu oi da Loidi, geienik. Asko irakurri du, eta irakurtzen, eta irakurriz ikasi egiten. Idatzi ere egin

du. Ifioizka, ez asko, sariketetara aurkeztu izan da, eta sariak jaso. Bein, Euskaltzaindiak jarritako konkurtso batean aipamen garaia merezi izan zuen bere polizi-nobela *Amabost egun Urgain'en* deritzanaren bidez, ainbat bider argitara emana.

Eguneroko ta aldizkari askotan lan egin du zenbait artikulukin: «El Bidasoa», «La Voz de España», «Olerti», «Egan», «Oarso», «Kuart Creixent», «Nova collecció lletres»-en eta abarren. «Egan»-en agertzen da bere *Itxasoa...!* J. Antonio Zunzunegi'ren *El Mar...!* euskeraz, lau ta errez, berezkortasun itzelean egiña (1957,3-4,162 orr.).

AMABOST EGUN URGAIN'EN.- (Zarautz, 1955, Itxaropena). 227 orrialde. Auxe duzu Loidi'ren lanik ederrena. Katalanera ere itzulia, titulu onekin: «Quince dias en Urgain». A. Irigarai'ren itzaurrea darama biurpen onek. Iduriak, Nabaskues'tar Jose Luis'enak dira. L. Mitxelena'k, Euskaltzaindiaren konkurtso ontan epai-maiko izan zanak, onela idazten du: «Ona non sortu zaigun bat-batean, idazle trebea ez-ezik, askozaz geiago bear duguna: novelista bat. Eztu saiaketa luzeetan aritu bearrik izan. Badakizki, iñon ikasi gabe, nove-lagille batek jakin bear dituen gauzarik nagusienak. Pertsonak ederki ikusten ditu, bai barrendik eta bai kanpotik; nor bere bizia du, berez ari dira eta berez mintzatzen, iñork beartu gabe. Badaki baita, ariak bata besteari josten eta, ori aski eztela, ederki —arin, zorrotz eta biziro— ematen dizkigu aditzera» (*Egan*, 1955, 5-6, 72 orr.).

Ondoren ez ohea izan zuen egilleak. Milla bat ale atera zituan eta egun gutxi barru salduak. Bigarrenez ere, 1958'an agertu zan Irun'go «EI Bidasoa» astekarian. Katalanak ere katalanez nai zuten, eta Josep Agirre'k biurtuta, Barzelona'ko Alberti etxe-argitaldaria irarri zuen bere«Nova Collecció Lletres»-en, 61'gn. zembakian.

Aranzazu'ko argitaldaria atera zuen laugarrenez, A. Irigarai, E. Mas, J. Alberti eta M. Lekuona'ren itzez orniduta. Argitalpenaren aurkeztea egitean, onela idazten du N.A.G. (Nikolas Alzola Gerediaga) izurtzarrak: «Gaien arloan bearrezkoa zan gure Literaturari bide berriak zabaltzea, eta gure nobelarien artean polizi-nobela

muetakin saiatu zan Loidi. Neurri on bat irabazi eban *Amabost Egun Urgain'en* nobelak gure Literaturan. Baita egilleak be izen ospetsua euskal idazleen artean. Bibliographi aldetik ikusi dogu zelako zabalera-neurria euki daben urte gitxien barruan. Polizino-belagillen artean, noraiñoko neurria? Iritzi-emoteilleek berba egin eben ezkerero bere egunean, ez naz orain emen barriro lengoak eta ifiorenakin asiko ni, alperrik litzake-ta. Agatha Cristie edo Simonon batzuen maillak irabaztea errex izango danik ez dot uste, baiña or dagoz beste idazle asko be, eurekin berdiñean ipinteko iritzi bidean bakoitzarenak zeatz aztertu ta gero» (*Egan*, 1968, 1-6, 149 orr.).

Frantsesera itzulita dago nobela au, Miarritz'eko Arbiru poli-ziak; inglesera eta alemanera ere bai. Ezta euskal literaturan orrenbesteko arrakasta lortu aal izan duen nobelarik; Mogel'en *Peru Abarka* ta Txomin Agirre'renak kendu ezkerero.

Euskaltzaiña duzu Loidi.

(Ikus L. Mitxelena, *Egan*, 1955, 5-6, 72 orr.; J. San Martin, *Escritores euskericos*, 123 orr.; Bitañio, *Karmel*, 1961, azilla-lotazilla; *Zeruko Argia*, 1957, XXIII, 303 orr. eta *Egan'en* 1968, 16, 149 orr.; Auñamendi, *Literatura*, IV, 195 orr.; S. Onaindia, *Euskal Elertia*, 200 orr.; Enrike Zabala, *Euskal Alfabetatzeko Literatura*, 219 orr.; J. Bilbao, *Bibliografia*, V, 200 orr.).

61.- JOSE MANUEL ESTONBA ARRUABARRENA (1916-1982)

Elizgizon. Mixiolari, Euskal idazle. Olan zekarren On Manuel il zanean «Zer» illerokoak, 59'garren zenbakian. «Adimen argia, naimen sendoa, biotz ona izan dirala esango neuke —idazten du Olazar'ek— bere osotasunaren izaerarik berezienak; eta artu-emonetara begitu ezkerero, besteak onartzea agertzen dala uste dot lenengo: Edozeiñek aurkitzen eban beragan adiskide on bat. Irudimen aundikoa be ba-zan, Kondairari buruz egiten ebazan berbaaldietan, eta asko egiten ebazan, ez zan jakiten zein zan kondairako eta zein bere irudimenaren jazkia, eta geroari begira ez zan erre-

za ames utsak eta benetako eginbideak bereiztea. Eta ames aundia eginbide ta egite biurtzen maixua zan».

Irun'en jaio zan Estonba, 1916-5-29'an. Gasteiz'en osatu zitun bere eliz ikasteak, 1941'an mezako egifiik. Irakaslaritzan ari izan zan ondoren, Bergara'n (1941-1944), Gaztelu-Elexabeitia'n (1944-1953) eta Derio'n (1953-1956). Emen zegoela kanonigu izatea otu zitzaion. Kasimiro Morzillo'ren aldian zan; kanpotar apaiz asko jarten zituan gotzaiak goterkiko ta gotzaitegiko kargurik onenetan, eta Estonba, emen ere ba-zirala elizgizon baliotsuak erakutsi nairik, kanonigutzarako aurkeztu zan, baita nor-geiagoka ederra egin ere Deustu'ko josulagunen ikastetxean. Baiña etzioten ezer eman, bai ostera Madrid'etik etorritako bere aurkalari Abalos jaunari.

Estonba etzan kikildu, naiz-ta beste bide batetik jo: Mixiolari izango zan. 1956-9-4'an, Donato Arrinda bere ikaskide ta irakaslagunarekin Guayaquil'eko mixiorako bidean jarri zan «Reina del Pacifico» itxas-ontzian. Ekuador'en, Matxala, EI Oro'ko uri nagusian, gotzai-ordeko izan zan. Lanok burutu zitun an: katedrala, gotzai-jauregia, apaiz-etxea, ikastola, mojentzako etxea, zortzi edo bederatzi kapillatxo, elizak Matxala inguru guztian... «Guztiak amaitu eta sekulan dirurik ez patrikeran», gaiñerutzen du Donato Arrinda'k.

Euskalerrira itzulirik, Urkiola'n taldeka legez, egin zigun ari-ma zaintza ta euskal lana. Edonori ta edozer gauzari erantzuna ematen bazekian. Biotz-zabal eta adiskide-zale; baita bakar-zale ere, orduak eman oi zituen Urkiola'ko ikuspegi ederrak begipean zeuzkala, izadiaren sorgintasunez gogo a ase nairik, ziur asko. Ezpiritu bizi-tza aundikoa, eder zitzaizkion ortarako idazle bi: Teillard de Char-din eta gure Orixe, «Jaunaren Billa» Iiburua beti eukan esku mende. 1982-8-28'an, abadiñotarren urteroko jai ospetsuz izan nuen nik arekin azkenengoz mintzatzeko eretia; meza ondoren, nun-zer-berri nenbillela, albiste billa joan nintzakion, neure «Egoitzak» liburua esku-erakutsi bezela opatzen niola. Nola eskertu zidan Santa Tere-sa'ren idazti bikain-bikaiña! Orixe'renaren ondoan jarri zuen.

Kirol-zale genduan, ostikoketa ta esku-pelota eder zituana. Eta esku-lanari ere egiazki emana. Bere lankideai ezertxo kandu gabe, Matxala'n naiz Urkiola'n, inguruak jantzi ta dotoretzen alegifiaf alegin saiatu zitzaigun.

Mixio-lurrean eta Urkiola'n urteetan lagun izan zuen Legar-tza'tar Joseba'k onela: «Manuel baiezkorra zan, geiegi bear bada. Beretzat dana zan ona, dana egoan ondo. Ez ekian ezetz esaten. Gizonengan eta gauzetan beti alderdi ona ikusten eban. Ez zan etor-kizun illunaren aztuak lakoak. Larri-uneak ez eutson eragin aundi-rik egin. Bera bizi zan tokia munduko onena zan beti, naiz Macha-la naiz Urkiola izan. Urkiola onena eta euskaldunak onenak».

Amabi urte erre zituen Urkiola'n, alai ta langille. Biotzeko gai-tzez estu xamar ibilli oi zan arren, etzuen iñork uste ain gazte joan-go zanik; baiña Jaunaren asmo, erabagi ta burubideak ez izan gi-zonenak lakoak, eta egun batez, 1982-9-22'an, berera eraman zigun, bertako apaiz-lagun eta erritarrak atsekabez eta otoizka utzirik.

EUSKAL IDAZLE.- Gasteiz'en «Kardaberaz» aldizkarian asi zan idazten. Gero, irakasle zala, zenbaiti erakutsi zien euskeraz! Anes Arrinda'k onela: «Zenbat apaizgairi sortu ote zitzaien euskal-sena Manuel'en eskutik? Badakit Ander Manterola eta Mikel Zarate, bes-te batzuen artean, bere eskuetatik pasatu izan zirala apaiztegian... Bere biotz zabaletik euskal usiña zerion eta berarekin ibilli ezkeru, kutsutu egin bear nai-ta-nai-ez». Orrez gaiñera, esan dugu, Urkiola'n zegoela bereziki, asko idatzi zuen. Beronen lanik geienak kon-daira ta ipui dira. Ona batzuk:

\\Etxepare. Diseño de un joven audaz (Donostia, 1943, 140 orr.). Irun'go adiskide ta gazteentzat. Bergara'n irakasle zala idatzia.

2) *Izartxo* (Zarautz, 1959, Kuliska Sorta, 33-34'gn. zenbakia, 177 orr.). Eleberri oni buruz «Zer» illerokoan daukazue lan eder bat, Bermeo'ko Josu Penades Bilbao'k osatua. Sasoia, bigarren gizal-dia; tokia, Olearso, Kalagurri ta Aralar; norkiak, Izartxo, Erko, Ba-surdi ta Kisti; gaia, triku-siñiskerak, sorgin-kontuak, Izartxo ta Erko maitez minduak, Basurdi aurkalari. Erromantiku kutsuzko elebe-ri au gipuzkeraz dago. Irakurtzeko atsegingarria, euskera jatorrean.

3) *Arrano beltza...*

4) *Los Vascos. Euskal Kondaira* (Bilbo, 1980, 229 orr.). Donato Arrinda'k erderaz eta Estonba'k euskeraz. Bilboko Aurrezki Kutzaren babespean. Lan ederra, ikastola eta beste erakus-mailletarako, gazteak edestiz kutsutu ta aberastu ditezen. Il aurretxoan eskatu zioten inglesera ere itzultzeko baimena.

5) *Etnia Vasca*. «Ez da berak bakarrik egiña —dio Anes Arrinda'k—; baifia, bere azkeneko lanak emen daude. 145 atal dauzka liburuak. Oietatik irurogei Manuel'ek egiñak».

6) *Ego-Ameriketako mixioak eta Euskalerrria* (Donosti, 1972). Kardaberaz Aitari Omenaldia, 135 orraildean.

7) *Urgoiti'ko Mutillak*. Eleberria. Argitaratzeko.

«Zolozarreta» eta «Luberri» izen-ordeak erabilili zituen.

(Ikus J. San Martin, *Escrilores euskericos*, 81 orr.; L. Mitxelena, *Egan*, 1960, 232 orr.; Auñamendi, *Literatura*, IV, 292 orr.; J. Bilbao, *Bibliografía*, III, 218 orr.; S. Onajndia, *Euskal Elertia*, 200 orr. eta *Zer* illerokoan, 1982, 59'gn. zenbakia, 9 orr.; L. Akesolo, *Zer*, 1982, zemendia, 14 orr.).

62.- MANUEL OÑATIBIA AUDELA (1916-...)

Oiatzuarra, bere anai Jon'en antzera, an bait zan munduratu 1916-6-30'an. Leenengo ikasteak bere errian osotu ondoren, Zaragoza'n amaitu zuen, ango Ikastete Nagusian, goi-gaietakoetan abel-osalari edo albaiteru titulua aterarik.

EUSKAL IDAZLE.- Oñatibia'rrak denak ditugu, pizkat bederen, idazle. Manuel'ek «El Dia»-n gerra aurretik eta «Goiz-Argi»-n eta «Zeruko Argia»-n idatzi izan du gerora. Eta bide batez irratiko saioak bizkor-azi izan ditu.

Bizi-bearrak eta familia aurrera atera-bearrak askotan estu zuten euskal alorrean gura ainean lanari ekiten. Beste batzuetan au ere jazoten da, gaurko euskal idazleekin. Urte aietan, 1936'tan, guda sortu zanean, Madrid'en eta Espaiña'ko beste uri nausi askotan,

gudalburu mordoak aldarrikatzen zituzten kaleetan zear abots-goragailluz, izugarrizko gauzak burutu zituztela-ta; bi egunez ola-xe ta gero ixillera zijoazenak noski, ur-puztilla gisa. Berdin gure idazle askorekin ere, tamalez: gauza aundiak burutu dituzte, lan eta esan, itxaropentsu agertzen bi egunez. Eta gero?

Au ez diot Manu-gaitik. 1956'an, esate baterako, «San Francisco de Asis» saria eskuratu zuen *Baserría diru-bidean* (Donosti, 1957) lanaren bitartez. Izarra irarkolan; 172 orr. Irrarisaioak, esan dugu-nez, ez dira lo egonaz gertatzen.

Aipatu Iiburu au zala-ta, onela idatzi zuen M. Lekuona'k: «Manuel Oñatibia jaunak oiturik gaduzka itz-lau eder batera, prosa eder batera. Donostia'ko Irrarisaioetan, astean bi aldiz, ortxe eukitzen gaitu bere itz ederrez eta jatorretik, esan oi dan bezela, txintxilik. Eta bere liburuan ere olaxe azaltzen zaigu: prosa-zale jator, euske-ra jatorra nunaitik dariola».

(Ikus M. Lekuona, *Egan*, 1958, XI, 104 orr.; J. San Martin, *Escritores euskeri-cos*, 143 orr.; Auñamendi, *Literatura*, IV, 294 orr.; J. Bilbao, *Bibliografía*, VI, 282 orr.).

63.- MARTIN UGARTE ETA AZURMENDI (1916-...)

Eder-sen aparta duen euskal idazle baten aurrean gaude. Orixe bait dugu Martin Ugarte, ezizenez «SaJetxe». Ezizen au ezta ez-izen, gure idazlea jaio ta bizi dan baserriaren izena baizik. Aurten-go dagonillaren 7'an (1983), igandez, andik ibilli nintzan ni, Agustín Beloki Iagun nuela. Naiz-ta etxea, Lizardi'k dioskunez, «euri zaarrek usteldua/; marraskilloek bide biurri/ dirdaitsuez apaindua» izan, gaindegian kokatua daukagun baserri-inguruak, zoragarriak dira; ikuspegi ederrez goi ta bee, eun motako igali-zugatzez, barazki-soro ta belazez txairo...

Martin Ugarte Legazpi'ko Teilleriarte auzunean jaio zan 1916-2-14'an. Beronen gurasoak: Damaso oñatiarra eta Jertrudis Azurmendi, zegamarra. Ortxe ezkondu zan 1949-1-8'an, Oñati'ko

alaba Juana Arregi Idigoras'ekin; bi alaba izan dituzte, Maria Pilar eta Maria Anjeles, gaur ezkondata bizi diranak.

Bere leen-ikaskizunak Brinkola'n, Legazpi'ko bigarren auzunean, egin zituan, garai artan apaiz-etxean eskola ematen zuen elizgizon argiarekin; berezkoari lagunduz zenbait gaitan trebetuz. Geroztik beti izan zuen ikas-griña. Gaztaroa artzaintzan eman zigun eta «Saletxe» baserriko lanetan, gero berrogeitaz urtetan Legazpi'ko Patrizio Etxeberria'ren lantegian izan da langille zintzoa ta maitatua. Gaur atsedean ederrean daukagun arren, baserrian nekazaritzari ta fabrikari ofizial ona bezela, lanari gogotsu ekiña dugu Ugarte.

EUSKAL IDAZLE.- Esanak esan, gure baserrietan dabil oraindik dantzari euskal literaturarik bikaiñena, itz, esaera ta joskeraz. Baserrian jaio, azi ta bizi danari, euskal idazle baldin ba'dugu, bolbolka legez dario gure izkeraren ederra. Orrelako da gure Ugarte; ogibidez baserriar, artzain eta langille dalarik, euskal idazle gertatu zaigu, barruko deiaz gertatu ere. Ederki Jokin Otaegi'k: «Saletxek, lehengo mundua dakargu batez ere gogora. Joanaren lainopean galtzen ari zaiguna: hitzak, ohiturak, lanak eta beharrak. Nahiz olerki eran nahiz hitz lauz idazten du». Eta beti aspaldiko euskaldunaren gogoia, arimea bizi-bizi azaltzen digu.

Itz lauz baiño bertsoz geiago idatzi digu. Itz lauz, ordea, liburu bat du irarkolan emana: «*On egiñaren obaria*» (Zarautz, 1972). 205 orrialde. Itxaropenaren «Kuliska Sorta»-n dator, 75 zenbakia. Izenburuaren azpian au dio: «Arraintxo sasi-medikuaren bizi-moldez, nobela tajura tolestua (1821-1909)». *Arriantxo*, Beasain'go Arriaran baserrian jaio ta Legazpi'ko Zabaleta'ra ezkondu zanaren semea. *Arriantxo* onen gomuta bizirik geratu zan Legazpi aldean bere sasi-mediku ibillerengatik batez ere. Auxe duzu poliki biribilduta daukazun nobela onen gai nagusia.

Kezkati da Ugarte, olerkari onak izan bear duenez. Esperimentu aberatsa. Benetako ertilari, artista. Gogoko izan zaio olerkia, eta neurtitz asko ondu digu, poemak batez ere. Ainbat poema ditu «Olerti» aldizkarian. Ogetaz urteak dira emen Larrean Olertu Eguna ospatzen dugula, sariketarako Iirika, alegi, bertso ta olakoen artean

sail berezi bat, poema sailla, eskatzen dalarik. Sail ontako saria, ia beti, beronek jaso izan du. Ona sarituetatik batzuk: «Aizkorri», artzain poema (1962'an saritua); «Belaun giroen olerki ixilla» (1964'an saritua); «Itxas-poema» (1970'an saritua); «Bizitzaren bo-rroka», gazte-giroko 16 kantu (1975'an saritua); «Lana kantu-gai» (1977'an saritua); «Eguberri irudiak». «Osterantzeko olerkiak» eta abar. 200 foliotik gora dauzka bertsoz osatuak. Azken onduan eman digu olerki liburu eder bat.

Itz egoki, esaera zorrotz eta joskera ernez, ba-du zer ikasia guztiontzat legazpiarraren olerki-lanak. «01erti»-n eta «Zeruko Ar-gia»-n idatzi du geien baten.

(Ikus J. San Martin, *Escritores euskericos*, 162 orr.; Añamendi, *Literatura*, IV, 228 orr.; Aranzazu, 1973, LIII, 172 orr.; J. Bilbao, *Bibliografía*, X, 600 orr.; S. Onain-clia, *Euskal Elerlia*, 204 orr.; Jokin Otaegi, *Egan*, 1980, 1-6, 159 orr.).

64.- SALBADOR BARANDIARAN BALANZATEGI (1916-...)

Barandiaran'dar Gaizka, josulaguna, Oñati'n sortu zan 1916-3-3'an. Durango'n egin zituen batxiller-ikasteak; Tournai (Bel-gika)-n osatu zituen, berriz, latin eta abar, Marneffe'n Filosofia eta Bureba'ko Oña'n Teologia. Gero, oraindik ikasnaiez, Filosofi ta Le-tretan eta Eliz-Teologian Lizentziaz jabetu zan eta Filosofian Bar-zelona'ko Ikasgu Nagusitik Irakasle (Doktor) maillatua. Geroztik, luzaroan daukagu Muskaria (Tudela)-n Filosofia eta gerkeraz ango ikasle gazteai erakusten.

Orrezaz gaiñera ba-ditu Gaizka'k beste leia ta eraspén batzuk ere, umetatik sortuak agian, Oñati'ko kale ta lur-bazterretan. Maite-maite ditu euskal dantzak eta eurotaz makifia bat gauza eder idatzi digu. Zaletasun oni ta osatu dizkigun liburuai esker, aomen zaba-lekoa zaigu munduan eta erbestetako alkarte askok artu dute beren lankide bezela, London'go «International Folk Musik Council»-ek, USA'ko «Ethno Musicology»-k eta IFMC'ko «Folk Dance Com-mission»-ek, adibidez. Itzaldi asko emana da.

IDAZLE.- Erderaz eta euskeraz, ain zuzen ere. Erderaz, euskal dantzai buruz, iru liburuok bereak ditu:

1) *Danzas de Euskalerrria* (I) (Donostia, 1963). Auñamendi Bil-duma, 30'gn. zenbakia. 183 orr. Deba'ko Markiegi Olazabal sendiari eskeiñia. «Bikotea», «Brokel dantza», «Uztai txiki dantza» ta abar.

2) *Danzas de Euskalerrria* (II) (Donostia, 1963). Auñamendi Bil-duma, 31'gn. zenbakia. 177 orr. Deba'ko Markiegi Olazabal sendiari eskeiñia. J. I. Iztueta; «Ezpatadantza», zaarra ta abar.

3) *Danzas de Euskalerrria* (III) (Donostia, 1969). Auiamendi Bil-duma, 67-68'gn. zenbakia. Deba'ko Markiegi Olazabal sendiari eskeiñia. 237 orr. «Uztai aundi dantza»; «Pordon dantza»; «Belaun txingoa», eta «Zinta dantza».

Euskal dantzak aipatuz BAP-en eta «Journal of the IFMC'en beintzat idatzi du.

Euskeraz ostera, «Euzko-Gogoa»-n, «Egan»-en, «Euskera»-n, Iruña'ko «Principe de Viana»-n idatzi duenetik kanpo, itzulpen au du bere lanik ederrena ta arnas aundikoena: «Ilias'ena», gerkar idazle-olerkari bikaiñaren «Iliada» euskeraz (Gasteiz, 1956). Liburu ontan dator gaiñera azkenengo zazpi orrialdeetan idazle berberaren «Sagu-igelen burrukia».

Neretzat, berriro diot, arnas aundikoa da itzulpen au. Ala ere, etzan ongi artua izan bere garaian. L. Mitxelena'k kritika gogorrez artu zuen, autsak auts ateraz. Etzitzaion gogoko oñatiarraren lana. Txibita luze ta zearka asieratik erabilli ondoren, onela dio pizkat arinduz: «Irakurle euskaldunak eztu liburu au ireki besterik, nai duen Iekuan. Zenbat ere euskaldunago, eramangaitzago eta gogai-karriago izango zaio irakurtzen duena. Itzulpen onetako izkerak, leku malkarretan barrena katazka bizian dabillen gurdi zaar negartiak baiño kurrinka eta karranka geiago dario... Oillarrak goizegi jo digu, eguna argitu baiño leen. «Iliada» iñork itzuli nai badu — eta izango da egun edo biar egiteko larri orri ekingo dion euskaldun ausarten bat—, aurkituko du laguntza Aita Barandiaran'ek egin duen lan izugarrian. Baiña oraindik itzultzeko daukagu».

Ondoren, beste itz gogoangarriok: «Euskera ezta nerea ez zurea: guziok erdizka aurrekoengandik artu dugun ondasun ederra da. Eta eztu ifiork bere-berea balu bezala nai duen gisara erabiltzeko —*utendi et abutendi*— eskubide osorik. Eta zorigaiztokoak euskera eta gu, besterik uste badugu» (*Egan*, 1956, 3-4, 102 orr.).

Bai, euskera guztiona da. Baiña ezta asko agiri. Salatzailleak berak obendari aundi diralarik, bakoitzak nai duguna egin oi dugu, azken urteotan batez ere, geure euskera maitez. Batasuna dala-ta, ikus zenbait lotsagabekeri! Dana izkuntzaren kalterako! Eta beste-
ra aitortuz, lasai bizi gara. Neretzat, «Ilias'ena» gaizki itzulita ba'dago, askotaz ere gaizkiago dago gaurko euskera-naastutzaille askoren jokabidea.

(Ikus L. Mitxelena, *Egan*, 1956, 3-4, 102 orr.; N.A.G.; *Herria*, 1964-4-23, 717 zenbakian, eta urrangoetan 718, 71%, 721, 722 eta 724'an; J. San Martin, *Escritores euskéricos*, 50 or.; Auñamendi, *Literatura*, IV, 289 orr.; J. Bilbao, *Bibliografía*, I, 445 orr. eta VIII, 579 orr.).

65.- LUIS EGIA ERREZOLA (1917-1984)

Tolosa'an jaio zan gizaseme langille au, 1917-12-27'an. Eliz-karrera Saturrarán'en asi ta Logroño'n (urtebete, Espáñiko guda zala-ta) eta Gasteiz'en ibiliaz, egin zuen. Meza berria, Tolosa'n: 1943-6-29'an. Beronen leen-tokia, Galdames'ondoko Montellano (Bizkaia)n; 1946'an Zumarraga'n apaiz-laguntzaille; 1947'an Sevilla'n errimixiolari; 1952'an, Los Rios (Ekuador)'en, eta 1960'an, mi-xio jardunetan Kolonia, Panama, El Salvador, Peru ta Argentina'n zear. 1969'an Tolosa'n daukagu Parroki nagusiko apaiz laguntzaille. Gaur naiko gaixorik dago, baiña lanerako gogotsu.

EUSKAL IDAZLE.- Euskal alorrean aspertu barik lan egiña dugu Egia jauna. Zeinbat liburu dauzka argitarara emanak, eta beste asko argitaratu gabe. Ona batzuk:

- 1) *Oraingo Aste Santua* (Arantzazu, 1957). Argitalpen bi. 280 orr.
- 2) *Neurritzia. Geometria* (Gasteiz, 1972). ESET irarkolan. 323 orr. «Andima Ibiñagabeitia Saria», Karakas, 1971, irabazitakoa. Kardaberaz Bilduma, 2. Liburu ederra.
- 3) *Ume txikientzako soinketa* (Gasteiz, 1972). ESET irarkolan. Kardaberaz bildumak.
- 4) *Aljebra* (1974). «Andima Ibiñagabeitia Saria» irabazi zuen.
- 5) *Euskalerriko Lurralde* (Donostia, 1975). Auñamendi Argitaletxearena da.
- 6) *Eneko Arista* (Auñamendi).
- 7) *Loiolako Iñazio Donearen Gogo-Jardunak* (Bilbao, 1970). La Gran Enciclopedia'k argitaratua.
- 8) *Neurritzi Txixia*.

Argitaratzeko gertu, berriz, ainbat lan dauzka. Ona batzuk: 1) J.C. Sotelo'ren *Arresia* (Muralla); 2) *Kristautasun Bideak* (Cursillos de Cristiandad); 3) *Bakar izketan eta pentsaketan* (Agustin deurenarenak); 4) Eliz idazkiak: «Pacem in terris», «Mater et Magistra», «Ecclesiam tuam» eta «Populorum progresio», eta 5) «Gaudium et Spes». Eta beste batzuk.

Azken aldirako lanen artean, auxe duzu beingoena: «Filosofi gaietarako iztegi txikia», Asun Marin Etxeita'ren itzaurrearekin.

1984'ko dagonillaren 26'an il zan, urrengo egunean, astelen arratsalde, Tolosa'ko Santa Maria elizan, jendetza aundia lekuko zala, illeta-meza ederra ospatuz.

(Ikus M. Lekuona, *Egan*, 1957, 3-4, 227 orr.; J. San Martin, Apendice de Escritores euskericos, 19 orr.; Auñamendi, *Literatura*, V, 379 orr.; Jon Bilbao, *Bibliografía*, III, 92 orr.).

66.- JESUS MARIA AROZAMENA BERASTEGI (1918-1974)

Donostia'n jaio zan 1918-1-19'an. Lendabiziko ikasteak Donostia'n bertan burutu ondoren, Madrid'eko Ikastetxe Nagusian bete zituen Eskugo urteak eta Donostia'n Irakaslaritzakoak.

Gizaseme argi ta eder-zalea. 1937'tik Donostia'ko «La Voz de Espafia» egunerokoaren zuzendari-ordezko izan zan; baita, 1958'tik, Idazleen Alkarte Orokorren aolkulari be.

Naikoa idatzi du euskeraz eta erderaz.

Euskeraz:

1) *Ene ixil-oiuak* (Donostia, 1969). «Izarra» irarkolan. 27 orrialde. Euskeraz eta erderaz. Tomas Garbizu'ri eskeintzen dio, onela: «Nere lagun Tomas Garbizu'rentzat, musikari aundia; bere aoz ikasi bai det euskeraren jatorrizko edertasuna». Amazortzi poema dira, 11 ixil-oiu —«Auek dira, gau ta egun/ nere barrengo ixil-oiuak/, sendoenak/, bizienak/, iñork ez bai ditu entzun...»—, eta 7 Donostiko bertsoak. Danok dituzu poliki ta sentimentu aunditan egiñak.

2) *Donostiko kantu zarrak: Viejas canciones donostiarras* (Donostia, 1971). 332 orr.; Donostiko Aurrezki Kutxa Munizipalak aterata. Tomas Garbizu'rekin batera.

Erderaz:

1) *San Sebastidn, biograffa sentimental de una ciudad* (Madrid, 1963). 437 orrialde.

2) *Donostia, capital de San Sebastidn* (Donostia, 1964). 214 orrialde.

3) *Jesus Guridi. Inventario de su vida y de su musica* (Madrid, 1967), 404 orrialde.

4) *Joshemari (Usandizaga) y la bella epoca donostiarra* (Donostia, 1969). 395 orrialde.

(Ikus F. Arozena, BAP, 1964, XX, 334 orr.; Auñamendi, *Literatura*, IV, 301 orr.; Jon Bilbao, *Bibliografia*, VIII, 508 orr.).

67.- JOSU OREGI ARANBURU (1919-...)

Bergara'n jaio zan 1919-12-18'an. Lendabiziko eskolak Bergara'n eginda, gerra bitarteko zala-ta, erbestera jo ta Liege (Belgika)-n osatu zuen bere injiniere-karrera. Bere erriratu ta aspalditik bertoko Eskola Profesionalean irakatsi du.

Euskaltzale bipil, urteak eman ditu euskeraz erakusten, Bergara'n batez ere. Eta, gaiak erakutsiz ikasten bait dira sakon eta errotik, euskal aditza izan du, eta ba-da gaur ere, orain esan oi danez, bere berarizko «hobby», koskaldi, zorakeria.

Idatzi ere, euskeraz ain zuzen, onetaz idatzi du geienbat, «Euskerera», «Jakín», BAP, «Fontes Linguae Vasconum», «Kardaberaz Bazkuna» ta abar. Idazle zaarrak aztertu ditu, Beskoitze'ko Leizarraga baitik bat lan jakingarriak osatuz.

Euskaldun berriak estu ta larri ibiltzen zaizkigu aditz «iragan-korra» eta «iragangaitza» ezin berezita. Bego emen, eredu bezela, Oregi'k, «Euskal aditzen sailkakera jator baten billa» deritzan artikuluan dioena.

«Hauzoko ditugun erderen gramatikalariek, bere hizkuntzetako aditzez dihardutela, bi mota bereizi ohi dituzte, esanahiari dagozkiola: *Transitivo* eta *Intransitivo* direlakoak, alegia. Lehenbiziko saillekoetan, diotenez, aditz-jabeak (*sujeto-ak*) egiten duena, hots, aditzak diona, bertatik bertarako osagarri batengana (*complemento directo* delakoarengana) heltzen omen da, ezinbestean. Horrela, norbaitek esan badeza, ekarte horrek gai bat du noraezako, eta esakuneak «yo traigo PAN, yo traigo UN LIBRO» edo horrelako batez osatzea eskatzen du, aditzak adierazten duen gertakaria (ekartea alegia). NI aditz-jabearengandik PAN nahiz UN LIBRO aditz-gaienganaino heltzen dela. *Intransitivoetan*, alderantziz, aditz-jabeak egiten duena besterik gabe osorik dago, eta «yo vengo» esaten, adibidez, esakunea bete-beteko agertzen da. Hortik datozkie sail bakoitzekoei, hain xuxen, bere izenak: *Transitivo*, diona bategandik bestearengana igaro-arazten duena, eta *Intransitivo*, horrelako igaro-arazterik egiten ez duena. Aditz bakoitzaren esanahiari

lerioke, beraz, sail bateko edo besteko izatea; «traer», «Hevar», «poner», «ver»... *transitivo* dira beraz, eta «venir», «ir», «andar» bezalakoak berriz, *intransitivo*» (*Euskera*, Bilbo, 1975, XX).

«Osirantz» eta «Zubiartea» beintzat erabili ditu lanak firmatzean.

Euskaltzaindikoa.

Gaur Eusko Jaurlaritzan lan egiten digu.

(Ikus, J. San Martin, *Escritores euskericos*, 144 orr.; Auñamendi, *Literalura*, IV, 312 orr.; J. Bilbao, *Bibliografía*, X, 297 orr.).

68.- BIZENTE LATIEGI (1919-...)

Gizaseme urduri ta euskaltzale jatorra. Valenzia'n jaio zan Latiegi, 1919-2-11'an, Euskalerritik urrun noski; bere aita Joxe Frantzisko an bait zebillen lanean. Tximist-indarrari buruzko lanetan yaioa zan, tekniku elektrikua, eta denbora artan Alemani'ko injenieru batekin, tximistindar-ola bat eraikitzen ari zan Valenzia'ko erritxo batean.

Ango klinika baten jaio zan, Lourdes'ko Ama Birjiñaren egunean. Baiña amaika egun bakarrik egin zituen an, bera jaio ta berealaxe amaitu bait zituen bere aitak ango eginbear guztiak. Olan, ogei egun zituela, epaillaren asieran, Euskalerrian zan. Irun'en aurrena, Ernani'n gero, Betelu'n geroago, eta zazpi urte bete zituen ezkerotzik, Tolosa'n; erri oietan danetan tximist-lanetan aritu ondorean, bere aita Tolosa'n gelditu bait zan azkenean, elektrika-zentral batzuen arduradun lez. Beraz, ezaguera izan zuen ezkerero, Tolosa izan da aren erria.

Eliz-karrera asi, guda-goraberak jasan eta apaiz-egiñaz, aspaldian daukagu Gasteiz'ko Ikastetxe batean maisu, eta eliz-gizonari dagokionez arima zaintzan.

EUSKAL IDAZLE.- Ondo menperatua dauka euskera, prosa eder baten jabe izanik. Urteetan idatzi digu «Zeruko Argia», «Goiz-Argi», «Principe de Viana», «Deia», «El Diario Vasco», «Saski-Naski», «Karmel», «Zer» eta olako aldizkarietan.

Orrez gaiñera, «Elizaren Edestia», lan mardula, lau tomotan eratu ta idatzirik dauka, baiña argitaratu gabe oraindik, lenengoak argia ikusi duten arren. Eliz-Edesti sorta izango da.

Eta «Euskaltzaindiari Epaiketa», Dionisio Oñatibia, Urretxua'ko abel-osalariak bildutako izparringi-artikulu sail bat, eta beronek ere bildutako beste batzuek oifiarri artuta, Latiegi'k idatzi bait du liburua. Orain iru urte argitaratua. Eta berdin bion artean aurten argitaratu duten «Euskaltzaindia, el Batua y la Muerte del Euskera» (Donostia, Lorea Artes Graficas). 466 orr.).

(Ikus B. Latiegi'ren idazkia, 1983-6-9'an; *Argia*, iraila ii, 984 zbkia.).

69.- SALBATORE MITXELENA LAZKANO (1919-1965)

Beti da eder Andima'ren iritzia. Eta Aita Salvatore'ri buruz, au diñosku: «Etorri andiko olerkaria. Noiztanka poema luzetxoegiak ere egiten ditula esango genioke. Olerki labur-zale naiz izatez, baiña orrek ez du esan nai beste irakurle guztiak ni bezelako diranik. Salvatore Mitxelenaren doai bereziena, nere ustez, erri euskera ta euskera landua iñork ez bezela elkartzean datza. Ori azalari gagozkiola. Mamiz berriz, bete ta okituak dira aren bertsuak, asmo ta irudi berrien aberaska goxoak» (*Eusko-Gogoa*, 1955, orrilla-lotazula, 141 orr.).

GIZONA.- Zarautz'en jaio zan 1919-1-18'an, Etxebeltz baserrian, Iñurritza auzoan. 1930-9-14'an Arantzazu'ra doa praille frantziskotar izateko. Emen egin zituen iru urte ta Foru'n bi urte gramatika, latin, eleder, itz-eder, edesti ta gaiñerakoak, ikasten. Oso argi zetorren eta ikasteari emana. 1935-9-13'an Zarautz'eko komentuan dago Nobiziadu urtea asita, urrengo urtean iraillaren 14'an le-

nengo zin-itza emanik. Ondoren Nafarroa'ko Erriberri'ra Filosofia ikasten. Anai arteko gerra ta soldaduzka, bi urtez. 1940'ko iraillean, berriz, Arantzazu'n dago Teologia ikasten. Eta ementxe bertan, 1943-12-28'an Jainkoaren apaiz sagaratua izan zan.

Teologi-ikasturteak amaitu arren, apaiz-bizitza batez ere pastoraltza dala-ta, Burgos'ko La Aguilera'n ikastaro aparteko bat egin zigun gai ori ikasi ta ortan trebetzen. Gero, amar urtetan —1945-1954— Donosti'n Atotxa'ko frantziskotar komentuan ari da pastoralgintzan, ainbat mixio, gogo-jardun, bederatzi-urren eta ola-ko eman eta egiñik. Ondoren, Ameriketarik mixiolari eskabidea artu zutelako, Ordena askotako lekaideen artean eraturiko taldean, 1954-1962 bitartean, Erdi ta Ego Ameriketako lurraldeetan lan egin zuen, Urruguai'tik asi ta Bolibia, Ekuador, Peru, Kolonbia, Kuba, Panama, El Salvador, Kosta Rika'ra. Kuba'tik Castro'k bota zuen 1962'an.

Andik etxeratuta, Suiza'ra bialdu zuten nagusiak 1962-12-28'an. Espaiña'ko emigranteen eta Maria'ren Frantziskotar Mixiolari lekaimeen kapillau izan zedin. La Chaux-de-Fonds erritxoan kokatu zan. Eta bertotik, inguruetakorrietakor emigranteei ere lagundurik, burukomin askoko lan izugarria burutu zuen iru urtetan. Lendik ere ez zebillen ongi osasunez, baiña emengo lanaren lanez gaitzak geiago egin zion eta bertan, Chaux-de-Fonds'en, Jainkoaren eskuetan utzi zuen bere arnasa, aberritik urrun noski, 1965-12-20'an. Ona ainbat euskaldunen zoria: Aberri miñez bizi, aberritik urrun il. Aren gorpua, ala ere, Arantzazu'n dago lurperatua.

OLERKARI.- Euskal idazle dugu Mitxelena, baiña olerkari batez ere. Foru'n ikasle zala idatzi zituen bere leenengo olerkiak. Zarautz'en, Erriberri'n eta Arantzazu'n oartu zan barne zeramaken aberri-suaz, min berezia, erri bat zuen berea, erri au katigu zegoen, kateak austeko alegifiak erreko zituen. Luma erabilliz noski. Ikasle zala etzuen gutxi idatzi eta gero Donosti'n lan aiek orraztu ta berriak atera. Bertsoz eta itz-lauz. Ona aren lanik beiñenak:

1) *Arantzazu euskal-poema* (Zarautz, 1949). Itxaropena irarko-lan. 247 orr. eta doñuak 5 orr. Onela egiten du eskeintza: «Aran-

tzazuko Ama: tori zuretzat, ainbeste zor dizun seme onek eskeintzen dizun lana. Ez da nerea. Zure erriarena baizik. Gizaldiz-gizaldi zure babesean eta zuri kantari bizi izandako Euskalerrri zarrak abestu izan dizun poema dezu, nik orain andik eta emendik osatua, ilzorian zeuden puxketatxoekin gorputz bat eginda. Kantazar eta elezar oiei darien poesi-lurruna ta kristautasun sendoa bildu ta, kondaira lagun, itzez jantzi: nik besterik egin al dizut gero?». Txalo galantak artu izan ditu poema onek!

2) *Ama-semeak Arantzazuko kondairan* (Zarautz, 1951). 263 orr. XII kapitulutan. Edestian zear, Arantzazu'ko Ama zer izan dan guretzat kontatzen digu. Poema au ere? Berak erantzun: «Poema ta kondaira biak anaiak dituzu. Eta berriz, biak alkarren antzeko. Ua kantari ta au kontari, biak Arantzazuri buruz ari zaizkizu. Jakiña, bakoitza bere aldetik, norberen berezitasunakin».

3) *Ogei kanta Arantzazuko* (Arantzazu, 1952). 47 orrialde.

4) *Arraun ta Amets* (Zarautz, 1955). Kuliska Sorta, 7-8 zenbakiak. A. Sorrarain, J. Galarraga ta J.M. Garaialde'ren «Elezarrak» ostean dator, 83 orrialdetik aurrera 32 olerki goxo.

5) *Bizi nai* (Guatemala, 1955). «Euzko-Gogoa»-k urte artan poesi-batzaldi bat eratu zuen eta Aita Mitxelena'ren onek eraman zuen lenengo sari bakarra, N. Etxaniz'ek, S. Onaindia'k eta Aurraitz'ek dedu-aipua izanik. Poema luze gartsua.

6) *Unamuno ta Abendats* (Baiona, 1958). «Iñurritza» ezizenez. 176 orrialde. Bilbotar filosofuaren eta Euskal-Anima'ren jokerei antzemate batzuk. Sakon idatzitako lana; liburu mardula.

7) *Idazlan guztiak I* (Donostia, 1977). 466 orrialde. Karmelo Iturria'k eta J.A. Gandarias'ek gertatu dute argitaldi au. Bi aletan osatuko dira aren idazlan guztiak. Leenengo onetan auek datoz: Aitzin solasen ondoren, «Olerki umezurtzak», «1936 ezkerozkoak», «1943: Euskal samiñaren guruzbidea», «Arraun ta Amets», «Erri bat guruzbidea», «Confixus», «Unamuno ta Abendats». Aita Salbatore'n animak bizi ta urduri zapart dagian liburu atsegingarria.

8) *Jakin* aldizkaria (Oñati, 1970). 140 orr. Zenbaki berezia, lan oso ta ederra, A. Salvatore'n omenez argitara emana. Askoren artekoa.

9) *Idazlan guztiak II* (Donostia, 1984). Oraintxe jarri dute salgai.

IRITZIAK.- Ez naiz asiko emen idazle gotor oni buruzko iritzi ta goralpenak banaka aldatzen. Geiegi luzatuko nintzateke. «Idazlan guztiak» liburuan dituzue naibeste. Ala ere, bitxia zait-eta, bego emen A. Iturria'k aipatu liburuan (453 orr.) dioskuna: «Orduko Arantzazuko ikasle euskaltzaleok talde bat osatu genuen: BAI taldea, alegia. BAI izeneko errebistatxoa ateratzen genuen euskaraz, makinaz kopiatuta. Lehendik *Loramendi* izeneko beste bat aterea zuten urteetan Mitxelenak eta honen aurrekoek. Eta geroxeago, baita *Izarño* izeneko bat ere. Ez zen erraza orduan gauza horiei ekitea. BAI taldekoek Mitxelena genuen geure gidari eta hauspo emaille. Bera zen gure maisu eta nagusi euskara kontuan. Gu baino askoz gorago ikusten genuen bera, bai olerkigintzan, bai hitz lauz idaztean».

«Euzko-Gogoa»-n, «Gure Herria»-n eta «Egan»-en batez ere argitaratu zituen bere olerki-lanak. «Iñurritza» ta «Abendats» erabilli zizkigun.

Euskaltzaindikoa izan zan 1952'tik.

(Ikus S. Altube, *Euzko-Gogoa*, 1954, V, 102 orr.; A. fbiñagabeitia, *Euzko-Gogoa*, 1951, 9-10, 63 orr. eta *Gernika*, 1952, 18 zenb., 64 orr.; I. Lopez Mendizabal, *Bol. I.A. Estudios vascos*, 1952, III, 120 orr.; A. Irigarai, BAP, 1949, V, 397 orr.; A.M. Labaien, *Eusko Jakintza*, 1949, III, 89 orr.; N. Ormaetxea, *Euzko-Gogoa*, 1952, III, 1-2,23 orr.; S. Onaindia, MEOE, 1.044 orr.; Auñamendi, *Literatura*, III, 445 orr.; J. Bilbao, *Bibliografía* V, 408 orr.; San Martin, *Escritores euskericos*, 130 orr.; S. Onajndia, *Euzkal Elertia*, 189 orr.).

70.- PEDRO BERRONDO LASARTE (1919-...)

Oiartzun'en jaio zan, 1919-1-11'an. Umetatik liburu-zale, Erren-deri'ko Josu-Biotzaren Ikastetxean egin zituen leen-ikasteak. Apaiz-

karrerakoak, bernz, Saturraran'en eta Gasteiz'en, 1943'an apaiz sagartua izanik; arima-zaintza egin izan du 1943'tik 1949'ra, Azkoi-ti'n; 1949'tik 1965'ra, Ecuador'eko Goterki-Mixioetan; 1965'tik 1966'ra, Eibar'en; 1966'tik aurrera, Donostia'n.

EUSKAL IDAZLE.- Eliztar lana saiets utzi gabe, ainbat lan burutu du euskal alorrean, etxean naiz kanpoan urduri bizi izan baita geure izkuntzaren zoriari buruz. 1970'ko apirilletik beronek azaldu izan digu Ebanjelioa euskeraz Donostia'ko «El Diario Vasco»-n; baita 1971'tik eguneroko onek «Euskeraz» deritzan asteroko orria zuzendu ere.

Argitaratu dituen liburuak ere ba-dute garrantzirik. Ona batzuk:

1) *Pilar Cuadra'ren Perfil y pulso de Guipuzcoa*, euskeraz.

2) *Gaur arteraiñoko euskera beratasunak* (Gasteiz, 1972). Kardaberaz Bazkuna, II, 177 orr.

3) *Idazte eskola* (Gasteiz, 1973). 24 orrialdean.

4) *Don Kijote Mantxa'ko* (Zarautz, 1976). Itxaropena Argitaraldiak irarria. I Zatia. 644 orrialde. Bigarren Zatia, Zarautz, 1985, Itxaropena, 587 orrialde).

Liburuaren aurkezpena bizkaiko Aldundegiko aretoan osaputu zan, 1977-2-28'an. Itzulpena goretsiz eta txalo ugaria Berrondo'ri eskeifiiz. Izan ere, lan bikaiña duzu oiartzuar nekegaitzak osatu duena. Etzan edozein ausartuko olako Ianari oratzeko, itzultzaileak ala ere asi ta bukatu maisuki egin digunik ezin dezakegu uka.

(Ikus J. Bilbao, *Bibliografía*, IX, 16 orr.; Auñamendi, *Literalura*, V, 372 orr.).

71.- ANDONI ASTIGARRAGA ETA LARRANAGA (1920-...)

Erbestetik dabilkigun idazle au Soraluze'n jaioa dugu, 1920-4-14'an. Polikarpo Larrañaga ospetsuaren illoba. Eibar'en ikasi zuen eta Baiona'n, kazetari karrera egiñik. Argentina'n bizi da.

Euskeraz eta erderaz idatzi du. Aldizkari auetan agertzen dira bere lanak: «Euzko Deya», «Alderdi», «Nacion Vasca», Buenos Aires'ko «Laurak bat»-en, Mar de Plata'ko «Danak Bat»-en eta abar.

Eta lanak izenpetzean izen-ordeok erabili dizkigu: «Astilarra», «Soraluzetarra», «A. de Soraluze», «A. tar A.», «Kiroltzalea».

Bereak ditu liburu auek erderaz: *Riqueza y Economía del Pais Vasco*» (Buenos Aires, 1945). «Ekin» argitaldariaren liburu sortan, 18'gn. zenbakia. Eta: *Historia Documental de la guerra en Euzkadi* (Mexiko, 1958). Editorial Vasca'k. 315 orrialde apaingarriekin.

(Ikus J. San Martin, *Escritores euskericos*, 43 orr.; J. Bilbao, *Bibliografía*, I, 370 orr.; Auñamendi, *Literatura*, IV, 327 orr.).

72.- JESUS ATXA AGIRRE (1920-...)

Aretxabaleta'n jaioa, 1920-5-28'an. Gaztetan alde egin bear izan zigun erritik, eta Bogota'n (Kolonbia) osatu zizkigun bere ikasteak, Filosofia eta Letretan, eta aur-irakasgoan, maisu aterarik. Sorterriira itzuli ostean, euskal arloan ari izan da beti, eta gaur bere ortan daragoiona duzu. Ikastolak sortu ta indar ematen, Bizkaia'n batez ere, lan txalogarria egin zuen urte batzuk dirala, eta gaur-egun berdin, orobat egiten digu Iruña'n.

Euskaltzaindikoa da. Eta euskal idazle legez, lankide izan zan Donostia'ko «Zeruko Argia»-n eta Bilbo'ko «Anaitasuna»-n eta «Txistulari»-n.

(Ikus J. San Martin, *Escritores euskericos*, 15 orr.; Auñamendi, *Literatura*, IV, 337 orr.).

73.- FIDEL SARRIEGI UNANUE (1920-1969)

Azkoiti'n jaio zan Aita Fidel karmeldarra, 1920-3-23'an, sendi Jainko-zale ta jarraigarri baten galtzarrean.

Oso ikasle zetorren umetatik, «txintxua» beraz deitzen zioten bere erakusleak eta ikaskideak Kristau-Eskoletan. Karmeldar izan nairik, 1933-12-4'an Nafarroa'ko Billafranka'ra doa latin eta letrak ikasten. 1938-3-24'an Karmel-abitua artzen du Larrea'n; baiña asi-berri zala, bost illabetera gudaritzara dei egin zioten, «Tercio de Montejurra»-n zerbitzua egiñik. Larrea'ra itzulirik, 1940-9-12'an egin zuen profesia. Eta ondoren, goi-ikasketak osatu zituanean, me-zakotu zan Gasteiz'en, 1947-6-29'an.

Bertatik Zornotza'ko Ikastetxeko zuzendari izendatu zuten na-gusiak, 1949'tik 1960'ra ortan jarraiturik. 1960'tik aurrera, sei ur-tetan, Begoña'n karmeldar ikasleen Teologi-irakasle izan zan; urte onetan, berriz, Urberuaga'n (1966) ospatu zan Karmeldar Probin-tziko Batzar nagusian euskaldun karmeldar guztien Nagusi autatua izan zan, aurretik ere bederatzi urtez Probintzialaren aolkulari izan zalarik. Goxoeriz (diabetes) il zan Donostia'n, San Antonio Klinikian, 1969-10-31'an.

Apal, biotz-zintzo ta argia zan. Olan agertu zitzaigun bere egi-ñetan, eta olan daukagu bere idatzietan. Euskeraz idatzi zuen ber-tsoz eta itz-lauz, «Karmel»-en eta «01erti»-n batez ere. Eta idaz-leok, ba-dakigu, lakarrak lakar utsitu oi du bere barrena, eta leunak leun, luma-erpiñez izate-pusketak egotziz.

(Ikus S. Onaindia, MEOE, 1063 orr.; Auñamendi, *Literatura*, IV, 336 orr.).

74.- JON ETXAIDE ITARTE (1920-...)

Donostiarra 1920-3-27'an sortua. Iñazio Maria Euskal-tzaindi-buru ta euskaltzale jaukalaren semea. Marralari da Gipuz-

koa'ko Portu-Taldekoen bazkunean, eta sal-erosle batzuetako ordezkari. Donostia'n osatu zituen leenengo ikaskuntzak, eta batxiller karrera. Aurrera jarraitzeko estudioetan zebilelarik, bere berezko deia euskereari zegokiona zala-ta, euskeraz idazteari lotua bizi izan zitzaigu bere bizitza guztian.

San Bizente elizan ezkondu zan, 1956'gn. urtean.

EUSKAL IDAZLE.- Jakifia danaz, ekiñaren frutua da idazlari iza-tea; ez kaskarin batzuk uste dutenez edo-ta beren buruari ematen diotela, liburuxka bat naiz idaz-lerro errukarri batzuk, naiz-eta ne-kez, uts-erazi baldin ba'dituzte, upa-txotx begiz idazle dirala esan oi digute. Ez, emen bakoitzak egitez adierazi bear du noraiñoko gi-zasemea dan; Etxaide'k bezela, alegia.

Euskaltzain urgazle dugu.

Ona beronek emandako liburu-sail bikaiña:

1) *Alos-torrea* (Zarautz, 1950). 166 orr. Elezar berritua, Santoz Etxeberria'ren irudiekin. Bere ama Dolores Itarte ta Alberdi zanari eskeintzen dio bere leen-frutu au. «Zerutik nere ardura dezun ama on-ona —dio—: Gugandik aldendu ziñan eta ala ere beti alboan nabaitzen zaitut, eriotzak berak ezin urra bai-lezake ama baten mai-tasunik. Eta nik, zure erraietako zati onek, aztu ote zaitzaket nere zañetako odola zurea dudaño?» Poliki!

2) *Purra! Purra!* (Zarautz, 1953). 110 orr. Irri ta par egiñerazte-ko ipui sailla. Bere aitari eskeiña. «Gure euskera salbatzeko —dio— liburu onekintxe urrats sendo bat eman dutalakoan nago. Zuk euskal-mintzoaz ezetu ezpa'niñuzu, liburu onek eluke gaur argirik ikusiko. Beraz, liburu onetxek biotz-biotzez eskerrak eman nai dizki-tzu nere bitartez sortzea eman diozulako».

3) *Joanak joan* (Zarautz, 1955). 279 orr. Itxaropena'ren Kulis-ka Sortako 9-10 zenbakian dator Piarres Topet Etxahun Barkoxtar koblakariari buruz egindakoa, 1955'garren urtean Euskaltzaindiaren eleberri-sariketan leen-saria irabazi zuena. Santos Etxeberria'ren iru-diekin. Eskeintza: «Euskalerriko elezahar ta ixtoritan oñarri artu-rik eta euskal-arnas beroz igurtzirik ainbeste ipui ta eleberri mami-tu dizkigun Arturo Campion Irufia'ko seme argiaren oroiz eta

gorazarrez». Ez dakigu noiztik, ala ere Etxaide'k maite izan du Etxahun. Zuberotar koblakari onen bizitza ta neurtitzak liburu-gaitzat artu ta leenen saria jaso zuenetik gaur arteño, Etxahun erabili digu beti buruan eta idazkortzean. Aren koblak iñork ez bestean —Jean Haritschelhar'i ezer kandu gabe— azaltzen eta gipuzkeraz jarten saiatu da urteotan. Eleberrri ontan, ordea, aren bizi ezbear-tsua, nekez eta miñez ase, bizikiro jarten digu begi aurrean, noble la luze mardulean, euskera aberats, jator, bere-berean. «Zaarrak eta gazteak —idazten du L. Mitxelena'k-, angoak eta emengoak irakurri ta aztertuz, gaurko euskal-prosak dituen maisuen artean jarri du bere burua». Arrera ona egin zitzaion idazti oparotsu oni.

4) *Pernando Plaentxiatarra* (Zarautz, 1957). 116 orr. 67 kontakizun. Ipuioek bildu ta tajutzen auek lan egin zuten: J. San Martin Plaentxia-Eibarretan biltzen, Etxaide'tar Jon tajutzen eta Paulino Larrañaga dibujatzen.

5) *Amazei seme Euskalerriko* (Zarautz, 1958). Kuliska Sortako 19-20'garren zenbakian. 172 orr. Euskaltzaindiak 1956'gn. urtean sarituriko biografi saila. Eskeintza: «Ana-Mari, ene besoetako arreba kuttunari, maiteki». L. Mitxelena'k itzaurrean: «Duen izena eta entzutea eztu jendeak musutruk emana, merezi onez irabazia baik. Eztugu euskal-soroan Etxaide'ren antzeko langille trebe eta saiatu geiegirik izan... Ongi asi bazen, etzuen orrenbestez etsi. Eztio geroztik utzi izkera lantzeari, belarrietaraten zitzaizkion itz eta esera jatorrak jasotzeari, atertu gabe paper zaar eta berriak iraultzeari. Orrela eldu da gaur darabilen mintzaera ugari, zeatz, bere gisako, arin eta gerri-biguiñaren jabe izatera».

Liburu ontan Etxaide'k aztertzen ditun Euskalerriko amasei semeok, auetzek dituzu: Añibarro, Astarloa, Axular, Elizanburu, Etxahun, Joanes Etxeberri, Etxepare, Iparragirre, Iturriaga, Iztueta, Aita Larramendi, Leizarraga, Mendiburu, Mogel, Oihenart eta Zabalá. Lan ona benetan euskal idazle auetaz zerbait jakin nai duten guztientzat.

6) *Itxasoa laño dago* (Zarautz, 1959). 270 orr. Kuliska Sortan, 29-30 zenbakian. Pio Baroja'ren «Xanti Andia» itxas-gizonaren bizi-

tza ta kezkak, euskeraz. Eskeintza: «Pilartxo Errekalde, ene emazte maiteari, gure alkartasunaren oroigarri».

7) *Gorrotoa lege* (Zarautz, 1964). 384 orr. Oiñaz-Ganboatarren gudueta biratutako eleberria; 1962'an, Euskaltzaindiak D. Agirre zanaren omenez eraturiko nobela sariketan leen saria jaso zuena.

8) *Etxahun'en Bertsoak Gipuzkeraz* (Zarautz, 1969). Liburu mardula. Etxahun'en bertsoak, koblak, berak idatzi zituen legez eta Etxaide'k giputzez ipiñi ta ainbat zeaztasunez eta azalpen jakingariz ornituta. Aurretik, OLERTI poesi-aldizkarian (1961-1966) eman zizkigun zatika.

Eusko-kondairan zutikaturik, iru drama auek ere ondu dizkigu: 1) *Amaiur* (Euzko-Gogoa, 1951); 2) *Markesaren alaba* (Egan, 1958), eta 3) *Begia begi truk* (Egan, 1962).

«Egan»-en datoz baita itzulpenak: *Bidez-bide* (1952-1954), J. Artetxe'ren *Caminando*, eta *Egipto'ko Ozalantze* (1961) Ivar Lissiner'en «Ainsi vivaient nos ancêtres». Otaz gaiñ ba-dauzka beste lan asko. 1935'an asi zan «La Cruz» asterokoan idazten, eta geroztik idatzi du «Gernika», «Euzko-Gogoa», «Gure Herria», «Egan», «Jakin», «Karmel», «Olerti», «Euskera», «El Diario Vasco», «Zeruko Argia» eta abarren. «Aldapeko», «Urrain», «Zelai» ta erabilli ditu lanak firmatzean.

(Ikus A. Ibiñagabeitia, *Euzko-Gogoa*, 1954, 3-4 orr., eta 5-12, 143 orr.; L. Mitxelena, *Egan*, 1957, 3-4, 22 orr., eta 1958, 3-6, 237 orr., 1965, 1-5, 159 orr.; Gure Herria, 1951, 2, 126 orr., eta 1970, 1, 43 orr.; Zeleta, *Euzko-Gogoa*, 1958, 236 orr.; Garriga, *Bol-E.V.*, 1957, 37 orr.; J. San Martin, *Escritores euskericos*, 70 orr.; A. Labaien, *Teatro vasco*, II; Auñamendi, *Literatura*, IV, 327 orr.; J. Bilbao, *Bibliografía*, III, 243 orr.; S. Onaindia, *Euskal Elertia*, 228 orr.).

75.- EUJENIO AGIRRETXE AZPILLAGA (1920-...)

Aita Prantziskotarra. Urduri ta langille. Errexil'en jaio zan 1920-11-15'an, ango «Otegitxo» baserrian; gurasoak: Jose Mari ta Josefa Gregoria. Ikasketak Arantzazu'n eta abar osatu zituen, praille-profesa 1936-11-3'an egiñik eta 1943-12-28'an apaiz gertaturik.

Gizarte-ikasteak Gasteiz'en eta Erroma'n burutu zitun. Arrezkero izlari ta kezkatu ibillia dugu mundu osoan, baiña Euskalerrian batez ere. Eder zaio euskera ta zertan esanik ere ez euskal arloa; aspaldi danik, astean bi aldiz, irratitik itzegin digu, izkera samur, garbi, sakonean. Euskaltzaindikoa da.

Idazle legez, «Atarre» ta «Egiaundi» izen-ordeak erabilliz, «Euskera», «Arantzazu», «Anaitasuna», «Goiz-Argi» ta onako euskal aldizkarietan idatzi du. «Goiz-Argi»-ko editoriala berak osatzen zigun.

Orrez gaiñera, argitaratutako lantxoak ere ba-dauzka:

- 1) *Umetxoan Otoitzak* (Bilbo, 1950). 59 orr.
- 2) *Arantzazu'ko Amaren Bederatziurrena* (Oñati, 1955). 51 orr.
- 3) *Arantzazu'ra erromes* (Zarautz, 1956). 41 orr.
- 4) *Santutasunaren billa*. Aszetika gaiez osaturiko lana, oraindik argitaratu gabe.

(Ikus J. San Martin, *Escritores euskericos*, 19 orr.; Auñamendi, *Literatura*, IV, 337 orr.; J. Bilbao, *Bibliografía*, I, 62 orr.).

76.- MARTIN UGALDE (1921-...)

Andoain erri sonatuan jaio zan Martin Ugalde, 1921-11-11'an. «Euskaldun zintzoa, deitzen dio A. Ibifiagabeitia'k, aberri-izkera biotzez maite duen euskotar bikaña».

Oraindik gaztetxo zala, gure erriko gorabera itsak zirala-ta, erbestera bearra izan zuen Ego-Amerikan, au da, Karakas'en kokatuz. Antxe ikasi zigun, beste gai askoren artean, kazetaritza. Eta orretan jardun izan da bere bizitza guztian. Kazetari lez Txikago'ko Northwestern Ikastetxe Nagusian maillatu zan. Eta Karakas'en bizi zalarik, ango «El Farol» aldizkaria, «Creole Petroleum Corporation»-ek zeukana, berak zuzendu zuen.

Amalau-amabost urte dirala Euskalerriratu zan, eta andik ondoan, berton lan egiten digu kazetaritzan geienbat. Gaur Bilbo'ko «Deia»-n idazten du egunero bezela, gai askori ekiñez. Beti da interesgarri. Azken onetan Ondarribi'n bizi da.

IDAZLE.- Landareak lur ona bear du garatzeko; berdin kazetariak ere, eta Ugalde'k etzuen lur idorra aurkitu bere lanerako. Venezuela'ko bizitza ta oiturak gai ugaria ekarriko zioten artikulua errez ariñak osatzeko. Eta orrelaxe dagi, denbora gutxiren buruan kon-talari nabarmen gertatuz. Bere ipui ta kontakizunak ainbat sari jaso zituzten aberri-erakunderik erakundenetatik.

Erderaz eta euskeraz idatzi digu aspertu barik, Ameriketara eta emen. Bere lanak, beraz sail bitan bananduko ditugu, erderazkoak leenengo ta euskerazkoak gero.

1) *Imdgenes de la Semana Santa en Venezuela* (Karakas, 1956). Irudien berri emateka.

2) *Un real de sueño sobre el andamio* (Karakas, 1957). Ipuiak.

3) *La semilla vieja* (Karakas, 1958). Ipuiak.

4) *Cuando los peces mueren de sed* (Merida, 1963). Kontakizunak. 164 orr.

5) *Las manos grandes de la niebla* (Karakas, 1964).

6) *Unamuno y el vascuence* (Buenos Aires, 1966). «Ekin» argitaldaria. 219 orr. Eskeintza: Aita Manuel Larramendi'ri, andoaindar jesuitari, bere eriotzatiko bigarren eun-urtebetzean.

7) *Hablando con los vascos* (Barzelona, 1974). Ariel argitaletxea. 206 orr.

8) *Síntesis de la Historia del País Vasco* (Donostia, 1974). «Ediciones Vascas» argitaletxea. 242 orr.

9) *Tres relatos vascos* (Donostia, 1974). Txertoa. 103 orr.

10) *Hablando con Chillida, escultor vasco* (Donostia, Txertoa, 1975). 180 orr.

Euskeraz, berriz, beste auek ditu:

1) *Iltzailleak* (Karakas, 1961). 69 orr. J.A. Agirre lendakariari eskeifia. A. Ibiñagabeitia'k itzaurrean onela: «Badu pozbiderik gure euskera xaarrak. Ugalde'tar Martin etorri zaigu euskal alorrera. Ez gero, nolanaiko lanabasekin: atxur dirdaitso, sega zorrotz eta eskuare berri batekin baizik. Beti ere gure alorrean ari izan dala esan diteke, ain daude dizdizari eta erdoigabe berak dakazkin erremintak». Venezuela'n argitaratutako euskerazko leenengo liburua duzu, gaiñera.

2) *Ama gaxo dago* (Karakas, 1964). Antzerkia. 37 orr.

3) *Gurpegi'n aspaldi gertatua* (1965. Antzerkia.

4) *Umeentzako kontuak* (Zarautz, 1966).

5) *Itsasoa ur-bazter luzea da* (Bilbo, 1973). Dionisio Amundarain'ek euskeratua. Azala: «Karlos Bizkarrondo. «Mensajero» euskal liburuak. 137 orr. Nobela bat eta iru ipui dira. Eta azken-azalean au dio: «Martin Ugalde, kazetari eta nobelagilea datorkigu oraingo honetan, euskal literaturari arnasa berri eta bipila hatz-eginaz. Izan ere, jadanik gauza ezaguna da gure artean, autorea, gure herriko gorabeherek bortxaturik, Hego Ameriketan urte mordo batez bizitu beharrean gertatu zela. Hango egonaldia, zorionez, ez da alferrikakoa izan Euskal Herriarentzat. Bizitzez ezagutu du hango literaturaren sena, berri ta bizia. Esku artean duzun liburu hau, euskarari sena hori itsatsi nahiaren lekuko duzu, irakurle».

Liburu auetaz kanpo, ondu dizkigun artikuluak ez dira gutxi, eta jakingarriak geienik. Ona bat «Euskera»-n datorrena: «Literatura-motak mugatu nahian asmo batzuk». Beronek luzez landu duen ipuiñak eta kontuak, nobela luzea ta laburra darabizki darda gaiñean, (1974, 295 orr.). «Erritar» erabilli du lanak firmatzean.

(Ikus A.M. Labaien, *Teatro euskaro*, II alea, izen-zerrenda; J. San Martin, *Escritos euskéricos*, 161 orr.; M. Irujo, *Boletín del Instituto-Americano de Estudios Vascos*, 1967, XVIII, 133 orr.; E.L. Placer, *Boletín I.A.E.V.*, 1967, XVIII, 21 orr.; Auñamendi, *Literatura*, IV, 347 orr.; J. Bilbao, *Bibliografía*, VIII, 62 orr. eta X, 599 orr.).

77.- JESUS ARKOTXA MARTIJA (1921-...)

Mutriku'n jaio zan 1921-3-4'an. Kontugillea. Jose Antonio Arkotxa, aspaldi dala Ondarroa'n bizi dan euskal antzerkigille ugariaren anaia. Biak, amaren magalean euskeraz ederto ikasi ta bizitzan zear edertoago landuak.

Euskal idazle lez, «Zeruko Argia»-n idatzi du, eta «Modeon» (Motriku, Deba ta Ondarroa) deritzan erri arteko aldizkarian.

Oraindik argitaratu gabe dauzkan arren, ba-ditu euskal teatru lan bi: 1) *Itxasne*, Donosti'ko «Educacion y Descanso»-k sariztutakoa, eta 2) *Gaixo billa*.

(Ikus J. San Martin, *Apendice a Escritores euskericos*, Bilbao, 1969, 12 orr.; Auñamendi, *Literatura*, IV, 345 orr.).

78.- IÑAZIO BEGIRIZTAIN ALBIZU (1922-...)

Altzo'n jaio zan 1922-9-14'an. Tolosa'n ikasi zituen leen-ikasteak eta batxilerra.

Euskal idazle legez, «Zeruko Argia»-n agertu zitun bere lanak. Teatruan ere, edo teatrugintzan ari izan da. 1969'an, «Agora» sarian leenengoa berak irabazi zuen *Bizia bizi-truk* lanarekin.

(Ikus J. San Martin, *Apendice a Escritores euskericos*, (Bilbao, 1969), 16 orr.; Auñamendi, *Literatura*, IV, 357 orr.).

79.- JUAN SAN MARTIN ORTIZ ZARATE (1922-...)

Euskal kulturari buruz makiñatxo bat lan burutu duen langille porrokatu au Eibar'en jaio zan 1922-6-23'an. Urrengo egunean baitaitu zutelako ipiñi zioten Jon izena. Eibar'en bertan egiñak ditu bere ikasteak, bai gazte-eskolakoak eta bai bere gain eta kautakoak.

Naiz-ta gaur Ondarribi'n bizi, Eibar'n eman du gaiñera bere bizitzaldi guztia.

Barne-dei askok joa, taillar bateko maisutzaz gain, mendigoizale duzu, Auñamendi, Alpes, Gredos'ko eta abarreko mendi-orratzik goi ta arriskutsuenetara igona; leize-ikerla lez ainbat artzulo ta arpetan ibillia, Arlas inguruan batez ere. Au da, izadi ta bertoko eder-mota guztien zalea.

EUSKAL IDAZLE.- Apeta guztion artean, baifia, idazletza izan du beñena eta biziena. Ibiliz eta ikusiz ikasia luma-puntaz adieraztea eder zitzαιο beti, eta au aspaldidanik gero. Euskeraz eta erderaz idatzi digu; euskeraz «Euzko-Gogoa»-n, «Egan»-en, «Jakin»-en, «Karmel»-en, «Oleriti»-n, «Zeruko Argia»-n... Eta erderaz, edo bietara, «Eibar», «Euskera», Eibar'ko Klub Deportivo'ko Boletinean, BAP, «Munibe», Buenos Aires'ko «Euskalduna», Oviedo'ko «Speleo»-n, Tolosa'ko «Pyrenaica» eta besteetan.

Euskaltzain osoa 1957'tik. Eta urte mordoan bertoko idazkari oia, eta kargu onek ematen dion nekeak beterik, «Euskera»-n agertzen zaizkigu zenbaki guztietan konta-ezin ala txosten, izpar eta liburu berrien iritzi emate. Etniker saillean ere lankide dugu.

Ona idazle legez azaldu ditun libururik beñenak, euskeraz eta erderaz.

EUSKERAZ:

1) *Juan Antonio Mogel eta Urkitza, bere bizitza ta lanak* (Zarautz, 1959). 47 orr. «*Euskera*, (1960, V, 26 orr.). Gaia: Mogel'en bizitza, euskalari, euskal-dazole eta Mogel'ekiko bibliografia.

2) *Zirikadak* (Zarautz, 1960). 151 orr. Kuliska Sortan. Ipuin baregarriz ornidua.

3) *Eztenkadak* (Zarautz, 1965). Berdintsu, ipuin eta jazorikoak.

4) *Uhin berri* (1964-1969). (Donostia, 1969). Poesi berriaren bilduma. Bijoa emen nik sarritan esana eta San Martin'ek ere maiz errepikatua: argi aitortuta, poeta berriak, eguzki indartsu legez asi ta gero bertatik laño arre artean murgil gelditzen dirala. Esna, ba, poeta berriok!

5) *Euskeraren inguruan*. «Euskal Elerti 69» bilduman agerturiko saiaera. (Bilbo-Donostia, 1969).

6) *Hegatsez* (Zarautz, 1971). 371 orr. Itz-lauzko bilduma, Serafin Basauri'ren laguntzarekin. Kuliska Sorta, 71'gn. zenbakia. Txukun, atsegiñez eta iñor bazter uzteko asmorik gabe osaturiko bilduma.

7) *Euskal Artea* (Oñati, 1974). «Lur eta gizon, Euskal Herria» bilduman datorrena.

8) *Gogoz* (Donostia, 1978). Kondaira, erti, musika, literatura, izkuntza...

9) *Literaturaren inguruan* (Donostia, 1980). Saiaera. 247 orr. Euskd idazle ta euskal literaturari indarra eman dioten zenbait idazleri buruz eman dituen itzaldi ta idazkietan banaturiko ideiak datozki bilduma ontan.

10) *Bidez. Gure Herriko gauzak* (Donostia, 1981). 484 orr. Gipuzkoa'ko Aurrezki Kutxa Probintzialak argitaratua. Euskeraz eta erderaz. Sasaki-naski atsegiña, «Gogoz» bezela, gure erriko etnografi, izkuntza, edesti, literatura, omenaldi ta olakoz txukundua.

ERDERAZ:

1) *Estudio etnográfico del Valle Urraul Alto* (Donostia, 1966). L.P. Peña Santiago'ren laguntzarekin.

2) *Escritores euskericos* (Bilbo, 1968). 183 orrialde eta 158 argazki.

3) *Elgueta con Anguiozar y Ubera* (Donostia, 1975).

4) *Eibar* (Donostia, 1979). Añamendi'ren «Diccionario Enciclopédico del País Vasco»-n, X, 180-272 orr. dator.

Olerkari lez, poeta bikain —poema asko dauzka, «01erti»-n argitaratuak batez ere— agertu ez-ezik, uin berri edo azken orduko koplakariai makiña bat zirikada zorrotz ziztatua dugu, gurdi-tiratzailleak iñoizka lokatz-arteo sakonean ezin geiago-ta, gelditu izanarren.

Literatur-norgeiagoka askotan izan da tarteko. Liburu ez gutxiri jarri die itzaurrea. Itz-lauz, 1964'an, Baiona'ko Euskal Kulturaren Alde'k jarritako «Lauaxeta» kazetari saria merezi izan zuen; olerkitan, ordea, ainbat sari jaso dizkigu.

Itzultzaile bezela, iru liburuok bereak ditu:

1) *Zaldun bitxia* (Donostia, 1965). Michel Ghelderode'ren «Le cavalier bizarre» teatru-lana, euskeraz.

2) *Siñerako liburu* (Donostia, 1966). Salvador Espriu'ren «Libre de Sirena» poemak.

3) *Kantak eta poemak* («Olerti», 1966). Bertolt Brecht (1898-1956) doixtar olerkariaren poemak eta kantak.

«Auñamendi» ta «Otaslar» izen-ordeak erabili ditu.

(Ikus H.V.B., *El Bidasoa*, 1960, XVI, 755 zenbakia, 4 orr.; L.M., *Egan*, 1960, 1-2, 116 orr.; N. Kortazar, *Cien autores vascos*, 99 orr.; J. San Martín, *Escritores euskericos*, 155 orr.; M. Zarate, *Bizkaiko euskal idazleak*, 273 orr.; Auñamendi, *Literatura*, IV, 350 orr.; J. Bilbao, *Bibliografía*, VII, 385 orr.; S. Onaindia, *Euskal Elertia*, 219 orr.).

80.- PEDRO ZELAIA OLABARRIA (1922-...)

Gorantzea zor zaio gizon langileari. Edu ortakoa da, ostera, On Pedro Zelaia, egundo aspertzaka, lanari lotuaz bizia daramana.

Eibar'en jaio zan 1922-7-22'an, eta, elizgizon, 1952'tik bertan bizi ta lan dagiana. Goi-deiari erantzuki, 1939'an abiatu zan Seminaria. Urte bete egin zuen Bergara'n eta bederatzi Gasteiz'en, abade-karrera osatzeko. Gasteiz'en bertan apaiz egin zan, 1949-6-29'an. Gero Araba'ko Baroja ta Faido erritxoetatik laisterka pasa zan Laguardia'ra abiatzeko, eta emen bi urte erre zituen apaizgaiekin. Beste urte bete Gasteiz'en prefekto bezela. 1952'garrengo iraillean Eibar'era bialdu zuten apaiz, eta arrezkero guztian ementxe daukagu bere aunitz lanetan.

EuSKAL IDAZLE.- Gizonak badu indarrrik barne. Eta nai duenak asko egiten. On Pedrok, eliz-ardurak —itzaldi, aitortegi, sak-

ramentuak emate ta gaiñerakoak— albora utzi gaberikan, izan du eta gaur ba-du denbora euskal arloari itsatsi ta lan egiteko. Euskaltzale dugu, eta euskal idazle.

Gasteiz'en ikasle zala asi eta ekin zion bertso-gintzari. Onela idazten dit: «Seminarioan ikastaroak egiten ari nintzala, noizbeinka bertsoak moldatzen nitun. Batu aal izan ezkeror orduko bertsoak, xorta bat aiekin egingo litzateke». Bertsoak egiteko zaletasuna, ordea, aurretik zekarren. Onela aitortzen dit: «On Felix Markiegi apaizari geienbat zor diot nere euskeraz idazteko aukera emana. Berak, emeki-emeki, bultzatu nindun bide ortatik gauzatxo batzuk idazteko aukera emanez. Berari esker, 13 urte nituala, 1935'gn. urtean, ARGIA asterokoan Eibar'ko izparkari biurtu nintzan eta astero zertxobait idazten nun. Orduan sortu zitzaidan bertsoak egiteko zaletasuna».

Berak eman zion sorrera, 1953'an, EIBAR aldizkariari, eta garaiko eragozpenak gorabera, berak beti sartu izan du euskera. «EIBAR aldizkariak —idazten dit— oraindik arnasa du eta euskerari bere garrantzia ematen dio eta neu naiz arlo ontan geien idazten detana» (1983-5-17'ko kartan).

Berdin egin du, idatzi noski, GOI-ARGI, Eibar'ko Mariaren Alabak illero, aspalditik, atera izan duten aldizkaritxoan ere. Ba zeukan bertoneuskerak bere tokia, naiko zabala, eta aldizkari onek giro ontan 1968'gn. urterarte iraun zuen.

«Zeruko Argia», «Goiz-Argi», «EI Diario Vasco» ta olakoetan ere idatzi du, «Kepa», «P. de Arrate», «Arrajola» izen-ordeak maiz erabiliz.

(Ikus J. San Martin, *Escritos euskiricos*, 61 orr.; Auñamendi, *Literatura*, IV, 350 orr.).

81.- MANUEL JUARISTI AZPIAZU (1923-...)

Azkoiti'n jaio zan Juaristi 1923-2-2'an. Euskalduna ta Jainko-zalea, benetan, bere sendia. Goi-indarrak eraginda, leen-ikasteak jaiot-errian osatu ondotik, karmeldar sartu zan Zornotza'ko ikastetxean. Larrea'n egin zuen Nobiziadu urtea, 1941'an zin-itzak o-tsegiñik. Iruña'n, Gasteiz'en eta abar burutu zitun ikasketa nagusiak, 1949-6-29'an mezako egiñik Gasteiz'en.

1954'tik Markina'n bizi da, leenengo gazteen irakasle, gero bertako nagusi, «Zerutxo»-ren sortzaille ta ainbat alkarteren zuzendari. Azken urteotan Gogo-Jardunai emana dabil, karmeldar lekai-meen artean batez ere.

EUSKAL IDAZLE.- Euskera gozo errezaren jabe, aspaldiko urteetan ainbat idatzi zuen, bertsoz eta prosaz, Euskalerriko aldizkarietan, «Karmen'go Amaren Egutegia»-n, «Karmel»-en, «01erti»-n, «Zeruko Argia»-n, «Aranzazu»-n eta abar. Lanak izenpetzerakoan izen-ordeok erabili ditu: «Aita Migel Mari», «Azkoiti», «Dundunzar», «Aldako», «Izarraitz».

Nolako idazle? Irakur urrengo zatitxo au, eta zeuk esan. 1953'ko «Karmen'go Amaren Egutegia»-n (69 orr.) dator «Gernika'ko Arbola» eresiarene gizaldi-urrena zala-ta, «Iparragirre» lantxoa. «Iparragirre il zan —dio—. Bafia bere oroia oraindik bizi-bizi dago gure biotzetan. Euskaldun onetzaz asko idatzi izan da, ta ez, ziñez, dana bera goraltzeko. Guk bere akats eta utsegite guztiak ezagutzen ditugu, baña ukatu ezin baditugu ere biotz-biotzez barkatzen dizkiogu.

«Soñeko guztiak alde-ona ez ezik alde erantzia ere izaten dutela nok eztaki? Alde erantzi gabeko soñekorik eztago. Eta ala ere soñeko baten apaintasuna ikusi nai degunean, alde-erantzia oartu gabe alde onari bakarrik begiratu oi diogu. Gizonen izakerari buruz beste ainbeste egin genezake, alegia. Kuadro baten itzal-margoak zati argiak obeto nabarmentzearren ipintzen dira. Era berean, gizabizitzan ere, gizonaren akats eta orbanak, bere egite argitsuak bizitu ta goraltzeko Jaungoikoak nai izandako itzal margoak bezela begiratu bear ginituzke. Orrela, ba'daukagu Iparragirre'gan zer

ikasi. Aurreneko ta beste gauza guztien gañetik: Euskalerrizaletasuna, norbere Sorterriaganako maitasuna».

(Ikus S. Onaindia, MEOE, 1053 orr.; J. San Martin, *Escritores euskéricos*, 109 orr.; Auñamendi, *Literatura*, IV, 365 orr.).

82.- GURUTZ ANSOLA LARRAÑAGA (1924-...)

Azpeitiarra dugu idazle au, 1924-5-2'an jaiotakoa. Ekonomi-zientziak ikasi zituen, eta Eskugoa, ots, Deretxoa. Irakasle Donostia'n Baltzu-teknikako Goi-eskolan.

Idazle bezela, «Egan»-en idazten du 1956'tik 1961'ra, zinema ta antzerti-kritikari legez. 1970'tik aurrera «Zeruko Argia», «Jakin» eta «Egan»-en euskal ekonomiari buruz.

Poliki oso idazten du. Ona Federiko Fellini zinemalariaren bi lanez (*Il vitelloni* ta *Il Bidone*) idatzitako zatitxo au.

«Fellini'ren bi film oiek —dio—, gizonaren barne bizitzako problematan sartzen dira. Ta badirudi, geienik eragiten dion kezka one-lako au dala: askatasunaren ta legearen alkartasun zailla. Barrenbarre-netik sortzen zaizkigun nai biziak oitura ta agindu askoren aurka zirikatuz. Legezko bidea utzi ta naikundea arau bakartzat ezartzen duen gizona ordea, gizartean bizi arren, bakarrik dabil jende artean. Bakardadera bultzatzen du bere adur trixteak. Au da. bakardadea, gizon «okertuaren» drama, Fellini'k ain biziki irudi-bidez azaltzen diguna. «*Il vitelloni*»-n, erri kozkor eta uri nagusitik urritikakoan, gazte «irten» ta bizimin diranen egokera dakarkigu. «*Il Bidone*»-n, berriz, estafatzaillleen bizimodua. Film bietan bada sekuentzi bat ia berdiña: gabaz, gizataldetxoa, bakarrik, errixka bateko enparantzan, goibel eta motel, iñorako gogorik gabe, beren naikundeak eguna ta gauzaren lege beraren aurka baleude bezela. Leunkeririk gabe darabil gaia, bere ustez gauzak diran bezela adieraziz» (*Egan*, 1957, 3-4, 216 orr.).

1957'an, Gipuzkoa'ko Aldun-etxean itzaldi bat ematen du «Europaren Alkartzea»-z. Jakin-taldearen ardurapean ateratako *Europa* (Aranzazu, 1965) liburuan dator, *Europaren bidekurutzetan* tituluarekin, 67 orrialdean.

(Ikus Añamendi, *Literatura*, IV, 371 on.; J. San Martin, *Escritores euskerikos*, 28 orr.; J. Bilbao, *Bibliografía*, I, 178 orr. eta VIII, 462 orr.)

LABURPEN

Aztertzen ari garan sasoi onetan ere, ez ditugu gutxi euskal idazle, iztegi eta joskeraz, punterengoak. Idazleak sortu ta bizkor-azteko beren lanak nun argitaratu eukitea bear-bearrezkoa danik ezin duzu uka. Idazleari eder zaio bere sorpenak aldizkari, eguneroko naiz liburu baten, gazna zumitzez bezela, irarkiz dotore jantzita ikustea.

Diodan garaian aukera ba zan ere idatzi ta argitaratzeko, gaur, zoritxarrez, ez dugu olako erreztasunik ez idazten ikasteko, ez idatziak argitara emateko. Dena goitik beera zaindu ta antolatu nairik gabiltza. Esate baterako, gaur nekez argitaratuko dizute H gabeko idazlanik. H-rik jarten ez ba duzu zeure artikuluetan, ez dizute onartuko ez aldizkarietan, ez egunerokoetan; askoz ere gutxiago sariketaren baten. Ona nun sortu zaigun diktadura gordiña.

Oraintxe bertan euskal egunkari bakarra irentsi guraz omen dabilta. Errazoiak? Irakur egunotan Donostia'ko «Argia»-k «Egunkari bakarraren mitoa» deritzan lanaren asieran dakarrena. «Bai —dio—, mito izugarria sortu da —sortu dute, hobe esanda— euskarazko egunkariak bakarra izan behar duela horrekin. Arrazoinak bilatzen hasita, ez da erraza pisukorik topatzea, baina orain arte erabili diren bi arrazoin nagusiak hauek dira: ez dago merkaturik bat baino gehiagotarako, eta diru publikoak ezin dira egunkari batetan baino gehiagotan alperrik gastatu.

«Egia aitortzeko, euskal egunkarirako merkatu oso txikia dagoela esatea ongi dago eta arrazoinezkoa da gainera, baina linea ideologiko bateratsu eta «zabal» batek merkatu zabalagorik era-

karriko lukeela esatea gehiegitxo esatea da. Erderazko egunkarien esperientziak kontrakoa dio, bestela «Egin» eta «Deia»-z aparteko beste egunkari batek merkatu zabalik aurkitu beharko luke aber-tzale eta euskaltzaleen artean (zeren azken hauek izan beharko dute, imajinatzen dugu, egunkari posible baten irakurlegoa).

«Zabaltasunaren mitoa hautsi beharra dago. Hasteko merkatu-rik sortzen ez duelako eta bigarrena instituzio horietatik».

BIZKAIA

1920-1950

«Euskaldun ta euskotar guztiak ba-dakie, edo jakin bear leu-kie, Bizkaiko euskera bakarra «bizkaiera» dala, ta gizaldiz gizaldi beti izan dala. Orregatik, «bizkaieraren aurka dagoana, Bizkaia'ren aurka dago. Au argi dago!»

«Bizkaiko semeak «bizkaiereak» biurtzen gaitu bizkaitar... «Bizkaiereak» galtzen ba'da, Bizkaia be galtzen da. «Bizkaiereak» barik ez dago Bizkairik... Vizcaya izango litzake! Bizkaitarrok, ba, biotz-biotzez gure «bizkaiereak» maitatu bear dogu!»

«Maitatu bear dogu gozoa, ederra, aberatsa, jatorra ta, bear bada, ezagutzen diran izkuntzetatik antxiñakoena dalako, baiña ba-tez be «maitatu bear dogu» geurea dalako, bizkaitarren euskera bakar-bakarra dalako, gure arbasoak, eta gure gurasoak itzi daus-kuen ondoren bikaiñena, altxor andiena ta emaitz aberatsena! Bizkaitarrok, erabilli beti zeuen ezpanetan!»

«Arritzekoa da, zelan bizkaitarrak ez diranak artzen dabezan erabagiak bizkaierari buruz! Nok emon dautse eskubide ori? «Bizkaiereak» Bizkaiko erriarena da, bera da «bizkaieraren» jaubea! Orre-gaitik, bizkaitarrak bakarrik daukie eskubidea «bizkaierari buruz erabagiak artzeko!»

Bilbao'tar Jon E.

1.- EULOJIO ARTETXE (1904-...)

Arratzu'ko semea, an jaio zan ba 1904-3-4'an, Larrotzeta base-txean. Etzuen aukera aundirik izan ikasketa sakonetan ari izateko; euskera arloan, ala ere, muintegi bereziak dira gure baserrietako egoitz ixillak, euskal izkera gozoaren seaskak noski.

1931'rantza asi zan idazten, «orduko abertzaletasun berbizteak zirikatuta». «Ordurako bere —dio berak— neure baitan asia nintzan uste izaten, baserritar euskaldun utsak, ia-ta zergaitik joaten ete ziran zertxobait gaztelaniaz ekian bategana, euren karta edo idazkiren bat idatzi bear ebenean; nik euskeraz egiten neban olangoren bat egitean». Eta ari ta ari ikasten.

Lendabiziko lanak, erri ta inguruetakoz izparrak geienez, Zornotza'ko «Ekin»-en azaldu zizkigun. Gerra asikeran, 1936'an, Buenos Aires'era joan zan, eta Muxika, Zarate, Zabala ta beste aberkide batzuk sakatua, «Nacion Vasca» aldizkari aberkoian idazten asi zan, itz-lauz geienetan, baiña baita noizik bein itz neurtuz ere. Geroago an jarri zuten Euzkadi'ko Jaurlaritzaren ordezkaritza, eta baita «Euzko-Deya» aldizkaria argitaratu ere: an ere idazten zuen.

Itzaldiak antolatzen zituen. «Aldi areitan —dio-egun baltz eta minbera batzutan albiste mingarirak gertatu ziran eta eurotari-ko bat gure euskal idazle Aristimuño jatorraren eriotza ikaragarria baizen gogorra eta aztu eziñekoa. Orduan, Buenos Aires'ko aber-tzaleak bere gomutazko omenaldi bat gertu eben; egun artako euskal itzaldia idatzi eta irakurtera ni jarri ninduen gure alderdiko batzuk. Alan egin neban nik, al bestean».

Antzerkigille. 1939'garren urtea zan. Uri Buru Batzarreko idazkari zan Artetxe. Urrilla ba-zetorren eta il orren ogeta-bostean betetzen ziran guk askatasuna galtzearen eungarren urteko gomuta beltzak. Arratzuarrak idatzi ta antolaturiko foru-galtze inguruko lauki ta ikuskizun batzuk antzeztu ziran euskeraz ta erderaz uri artako antzoki zaar «Teatro Circo»-an, egillea txalo beroz goratua izanik.

Geroago, Euskalerrira itzulirik, «Karmel»-en, «01erti»-n eta «Agur»-en argitaratu izan ditu bere idazlanak. Ba-ditu ber-

tso-paperak, Meza-berri, ezkontza ta Gabon-jaiak dirala-ta. Azken urteotan Iruña'ko «Principe de Viana»-n atera dizkigu bere olerkiak.

(Ikus *Karmel*, 1970, 2, 84 orr.; *Agur*, 169 zenbakia, 6 orr.).

2.- ESTANISLAO GISASOLA ARTAMENDI (1905-...)

Mallabi'n sortua 1905-8-15'an. Gaztetan Legazpi'n bizi izan zan luzaro, baiña 1940'tik Eibar'en daukazu, sal-erosketari emana.

Gerra aurretik Donosti'ko «Argia» asterokoan eta «El Día» egunerokoan idatzi zuen; baita «Zeruko Argia»-n eta «Eibar»-en ere.

(Ikus J. San Martin, *Escritores euskericos*, 96 orr.; Auñamendi, *Literatura*, IV, 105, orr.).

3.- PARADA'tar IXIDOR (...-1932)

Bilbao'ko «Euzko-Gastedija»-k, gizaldi onen len-garaitik asita lan aintzagarria burutu zuen euskeraren alde, bere sail errikoi gutietan burutu ere. Parada jauna oso nabaria izan zan antzerki-arloan. 1932 gko. orrillean il zan, eta «Antzerti» tolosarrak beingoan idatzi zuen: «Parada jauna lan asko egiña Bilbo'ko *Euzko-Gazterija'n* euskel antzertiaren alde. Galera aundia izan du gure elertiak. Inoiz aztertuak izango dira Parada ta Biar idazleen erti lanak ta zer garrantzia gure pizkunderako izan duten garbi ikusiko da».

Gogorazi, beraz, antzerki auek:

1) *Abendaren Eresiak*. Algorta'n antzeztu zan lenengo, 1931'an.

2) *Ortzetik jaustia*. «Antzerti» aldizkariak au: «Parada'tar Ixidore idazle ezagunak, Biar ta Etxabe'rekin Bilboa'n antzerti euskotar ta aberkoiari eutsi dionak, antzerki berri bat idatzi du «Ortzetik jaustia», euskera-erdera erabilliaz. «Sabin-Etxia»-ko antzezlari taldeak lenengoz agertu zun Deun Joseba egunez Bilbao'ko *Campos*

Eliseos antzokian. «Euzkadi» egunkariak dionez, antzerki oni, ikusle-entzuleak arrera ona egin zioten, egille ta antzezleriak txalo ta zorion agur asko jasorik. Gureak, ez epelegiak, bijoazkie»

3) *Astidunak*. 1932-4-17'an, Mañari'n eta Durango'n, euskal jardunketa goitarrak egin ziran Bustintza'tar Ebaista zanaren goratzarrez. Jardunotatik bat Durango'ko «Tabira» antzokian ospatu zan; bi antzerki aurkeztu zituzten: Parada jaunak idatzi ta Kirikiño'k euskeraz ipiñitako «Astidunak», eta M. Sota Aburto'ren «Negarrez igaro zan atsua».

4) *Maite* eta *Dos amores* ere bereak ditu.

4.- JESUS URUÑUELA (...-...)

Antzerki garaia izan zan gerra aintzina. Euzkadi'ko zazpi errietan, esan dezakegu, nasaiki eman oi ziran antzez-lanak, Bilbao ta inguruetan batez ere. Naiz eguberriak, naiz aratozteak, naiz beste edozein erri-jai, antzezkizunik etzan paltako. Onek zirikatuta agertu ziran ainbat eta ainbat antzerki-idazle ta teatru-antzezleri. Aietako bat dugu J. Uruñuela. 1932'an, eguberri, Bilbao'ko «Campos Eliseos» aretoan emandako antzerkietatik bat J. Uruñuela'ren *Aizteak* izan zan, lan berria, eresi-antzerkia. Lan oni buruz Lauaxeta'k «Euzkadi»-n: «Uruñuela gazte argija oindiño batzuk eztabe ezagutzen. *Itxas-txori urdiña* lenago Bilbao'n ikusi gebanok, zer dan jaun au ba-ekigun. Orain aberriatzazko gai bat dakar. *Aizteak*, sei aizpak, Euzkadi'ren alabeak. Neuritzetan bere gaya zabaldu darua. Gaztelu eder baten jaubia dan gizonak sei aizteak menpian daukoz. Berak gura dauna egitia nai dau. Jaun orregaz jakitun gaizto bat bizi da. Onek aizteak beretzat gura dauz, aizteen maitasuna txastatu nai leuke. Baña gaztelu zarrera idazti bat eldu da. Nor dan iñork ez daki, baña bere abotik egizko itzak urteten dira. Eta guztion erdian abestalde bi dagoz. Grezitarrak euren antzokietan abestalde edo koru bat izaten zuten. Uruñuela jaunak, begi zoliz gure euzko-antzerkiera antziñako ayen era ekarri dau. Abestalde bi oyek itzdogie. Batzuk jauntxubaren aldetzaliak dira, besteak aiztaen la-

gunak. Bidaztiaren bidez aizteak erailteko asmuetan egon ziranak, menperatuak izango dira. Bidaztiak bere pitxizko jantziak kenduko dauzanean, biotz eder bat jantzi gañean daukon gudaria dala erakutsiko dau. Gudari onek gaizkatuten dauz aizteak. Antzerki onetan España ta France agertuten dira, ta Euzkadi'ren sei alabeak. Oindiño olako antzerki politik sarri-sarri eztoigu ikusi».

Berriz ere, 1933-3-19'an, *Oleskarija* ta *Ama Campos* Eliseos'en antzeztuak. Erderaz dagoz idatzita, euzko-gai ta legamiñez oretuak izan arren. Lauaxeta'k onan: «Olerkitsuegia dala edo. Erriak txalotu eban bere agorako egokia izan yakolako. Uruñuela jaunaren lanetan olerki larregi senti daruagu». Au *Oleskarija'n* burutz. *Eta Ama* sakonagua dogu, abertzaletasunari yagokon erakua. Gai eder baten jarraille gizasemeak erakusten dauskubez euren biotzeko min eta poztasunak. Neurtitzetan egiña dogu, me ta azalez. Orain arteko antzerkietan senti eztozun urduritasuna senti eragin dausku. Bear bada «dramatismo» larregi. Negarrez beti egoteko jaiuak ezkarata... Uruñuela jaunarengan antzerkigille on bat datza. Egin leiken lana aundia da. Antzerki-bidez euzko-biotzak piztu».

5.- JUAN GOROSTIAGA BILBAO (1905-...)

Gizaseme jakintsu ta ixilla. Azterketa saillean lan dagi, geien bat, euskal kezkari atxikia.

Deustu'n jaio zan 1905-3-30'an. Durango'n eta Komillas'en osotu zituen Filosofi ta Teoloji gaiak, «Doctor» edo Irakasle titulua ere jaritxirik. 1927'an jauparitu zan Gazteiz'en. Erroma'ko Bibli-Ikastetxean atera zuen Idazteunean eta Asiri-Jakintzan Lizen-tzi-Agiria. Gero, Kuba'n egin zuen Abadetegiko irakasle, baita Mexiko'n ere ango Unibertsidadean eta Kultur-Ikasguan. Gaur Algortan'n bizi da.

Euskalerrian izkuntzari emana dabil. Idatzi ditun euskal lanakaitik, 1932'an, Euskaltzaindiko urgazle izendatu zuten; geroago, ordea, 1951'an, Azkue ta Oleaga aialdeko zitula, euskaltzain oso

egin zuten, eta orrela jarraitzen du. Zamarripa zanaren utsunea bete zuten Bizkaia'n. Sarrerako itzaldiaren gaia: «Bizkai zaharreko izenak». «Gure Bizkaiak —dio—, tipia eta bazter hersia izanarren, oinkada baten izen bat emaiten derauku, begitaldea berriz Bizkaiko mendi-ibarretatik zeihar luzatzen ba duzue, hara-emen, txoriak bezala, gora ilkhi zaizkitzue izenok ez guti. Gure lurraldea izenez iosita dago eta guzien artean gure herriko oihala egiten dute ta edestia. Izen bakoitzak Bizkaiko edestiaren, bere biziaren izpi bat gordezten du» {*Euzko-Gogoa*, 1952, orrilla-garagarrilla, 5-6, 22 orr.).

EUSKAL LANA.- Urteak urte ainbat idazlan mardul eskeiñi dizkigu Gorostiaga'k euskal erlantzari jarioa dutenak, beti bizkaitar gauza zahar eta egiaren zur ibillia dugu-ta. Aldizkari auetan beintzat idatzi du: «Gernika», «BAP», «Elgar», «Euzko-Gogoa», «Munibe», «Euzko Enda», «Helmantica», «Euzko Deya» «Eusko Jakintza», «Zumarraga».

Ona, berriz, argitaratu ditun lanik garrantzitsuenak:

1) *Aisriologia* (Espasa-Calpe, *Suplemento*, 1935, 71 orr.).

2) *El euskera y el sumero* (*Euskera*, 1933, II, 285 orr.).

3) *Faunay Flora en la toponimia del País Vasco* (*Munibe*, 1953, V, 201 orr.).

4) *Vocabulario del Refranero vizcaino de 1596* (Salamanka, 1953). *Acta Salmanticensia* deritzanean dator, VI alea, l'go zenbakia.

5) *El latin de las inscripciones paganas y cristianas de Vizcaya* (Helmantica, 1953, IV, 341 orr.).

6) *Epicay lirica vizcaina antigua* (Bilbao, 1953). 98 orrialde. Provincial irarkolan.

7) *Historia de la anteiglesia de Guecho. El Guecho antiguo hasta el siglo XVIII*. (Bilbao, 1953). Provincial irarkolan. 88 orrialde.

8) *Toponimia de Vizcaya*. (Zumarraga, 1954, 3'garrena, 55 orr.).

9) *Antologia de poesia popular vasca* (Zarautz, 1955). I-txaropena. 125 orrialde.

Euskaltzale amorratua agertzen zaigu azken idazti ontan. Errikanta auen txorta osatzeko abestien iturrira jo du egilleak, eta txorta atsegiña oretu digu. Oetatik geienak Erdi-arokoak dituzu, baiña idazti edo kanta ziranetik anitz denbora joana izan arren, Ienbiziko zar-kutsu xotillean dirautela aitortu bear.

Berrogei ta bi dira guztiz, euskeraz ta erderaz. Danetik daude, aoxuriz autatuak: maite-kantak, seaskakoak, elezarrez borobilduak, illetak, eta abar. Bi eletan egonagatik, euskeraz irakurri ta esateko dira: bestelan, erderaz irakurrita adibidez, berez duten edertasun jatorrak askotxo galtzen du: zer bakoitzak bere opilla eder. Samurtasunez gaiñezka daude geienak: «Argizariak zelutik», «Txori-erresiñula» ta antzekoak bai biotz-zirrara ematen digutela! Beste batzuk misterioz, antziñate bateko euskal kutsu lilluragarria dario-tela daukazu :«Ozaze Yaurgainean», «Ahetze'ko anderia», «Bereterretxe'ren Khantoria», ta abar.

Bertsolarienak ere ba-dakarzki, alkarrekin izan oi dituzten jazar eta erasoekin; pelotarienak, kontrabandutan dabilzananak... Guztiok datoz kanta bakoitzaren azalpena ondoan dutela, zati bakoitza noiz eta nola gertatu zan esanaz.

Argitaratzeko dauzka: «Origenes de la Lengua vasca», «Diccionario etimologico vasco», «Los on'genes cristianos del Pais Vasco», eta abar.

(Ikus J. San Martin, *Escritores euskericos*, 94 orr.; Auñamendi, *Literalura*, IV, 103 orr.; J. Bilbao, *Bibliografía*, IV, 91 orr.).

6.- ANDIMA SABIN IBINAGABEITIA IDOIAGA (1906-1967)

L. Mitxelena'k dio: «Ibiñagabeitia idazleak ez luke oroitzapenik bear, gure oroimena ain urria ez balitz eta munduak azken-aldi onetan daraman lasterrak atzoko oiñatzak ain errazki urratuko ez balitu. Andima eta Zaitegi elkarren kide izan dira, euskaltzaletasunean ez ezik (bion izenak maiz agertu dira elkarren ondoan, euskal-idazlanen beheko aldean, gerra ondoreko urte illunetan), baita es-

kola bateko mutil izan direlako eta ain maitatzen ikasi zuten antziñako klasikoen kutsu bizia euskal-letretan txertatu naiean ibilli direlako. Naiz bata prosaz ari eta bestea, maiz aski beintzat, itzneurtuetan; naiz batak Grezia-aldera izan joera eta besteak, batez ere, Erroma'ra, berdintsu da. Andima'k, aspaldi ez duela, bere biziko lana eman zuen argitara: Virgilio osoa euskeraz» (*Egan*, 1967, 108 orr.).

Emen ere, bakoitzari berea ezarririk, iraitzean esan dezagun, gizaseme prestuak ere, naiz-ta meatz, loak artu oi ditula; ots: Andima'k etzuen Bergili osoa euskeraz eman, *Unai-kantak* (Bukolikak) eta *Alor-kantak* (Georgikak) baizik; *Enearena* (Eneida) neronek euskeraldua duzu.

BIZITZ-ZEAZTASUNAK.- Elantxobe'ko seme dugu Andima. Itxas-ertzean kaio-kabi bezelaxe zintzilik daukazun arrantzale errixka onek ainbat gizaseme argi ta guren eman dizkigu azken urteotan, itxastariak ez-eze euskal literaturan ere bai: Errenteria'tar Gorgoni, Galo Ibiñagabeitia —gure Andima'ren aita—, Arriandiaga, «Ogoñope» (Ruiz de Azua), ta abar. Galo, Kepa Enbeita ta orduko beste euskaltzale askorekin erriz erri ibilli zitzaigun izlari.

Elantxobe'n, ba, jaio zan Andima 1906-1-26'an, eta urrengo egunean bateatu zuen Juan Gorgonio Kalle bertako txauburuak. Gurasoak: aita, Galo Ibiñagabeitia Beobide, elantxobetarra, ta ama, Eufemia Idoiaga Aldamiz-Etxebarria, Ibarrangelu'koa. Aitaren aldeko aitita, Martin Bizente, Ibarrangelu'koa semez, eta Petra amama, Elantxobe'ko alabea; amaren aldekoak: Eustakio, Akorda'koa, ta Tomasa, Ereño'koa.

Aitaren arikoa zetorren Andima, bizkor, zur, argi ta erri maitale. Elantxobe'n bertan osotu zituen len-ikasketak. Batxillera Tude-la (Muskaria)n ikasi zuen, Aita jesuiten ikastetxean, ondoren, Jesus'en Lagundikoa izan nairik, Latin eta Edestia Loiola'n egin zituen; Filosofia, Metafisika, Matematikak eta Izadi-jakintza, Oña'n, eta Teologia, Eliz-Eskubidezkoa ta gaiñerakoak, Marneffe'n, Erkalak beartuta ara joan bearra izanik. Ondoren, maixu bezela, Kolonbia'ko Barranquilla'n irakatsi zuen urte batzuetan. Eliz-karrera

bukatua zuen arren, etzan meza ematera iritxi, barru-kezkaz estu xamar bai zebillen.

Geroztik laster Galdakano'ko «Explosivos» fabrikako ofizinetan daukagu, langille ta baikor; Chalbaud'etarrak begiko zuten. 1936'ko guda aurretik Lisboa'ra joana zan, galdakar fabrika onek ordezeko edo sukursal bi, an iriki zitulako; Andima zan bi etxeotako buru ta eragille. Gerra ostean fabrikakoak Madrid'era dei egin zioten; baiña bere ogibideak ordun artu zuen bidea etzitziaion eder, eta, Bilbo'raturik, beste egiteko batzuetan buru-belarri sartua bizi izan zan iru-lau urtean.

Egun illun aietan ere Aberri alde jokatu zuen zintxo. Baiña burkide ta jazartzailleen eraso bizia zala-ta, Paris'era jo zuen igeska bezela, an Jon Mirande ta beste euskaltzale batzuekin euskal arloan lan egiñik. Paris'en asten da, ain zuzen, Andima'ren benetako lana, euskal lana, biotzez maite zuen lana. Egia esan, aurretik ere ba-zituen euskerazko idaz-lanak, bizi-izti edo biolojiari buruzkoak berariz, baiña ementxe Iotu ta atxiki zan osotero euskal-zerari, ementxe idatzi zituen ainbat artikulu ta iritzi-emate goragarri (*Zeruko Argia*, 1967, abenduak 31). Zortzi-bederatzi urte igaro zituen bertan.

1954'an Paris utzi ta Guatemala'rako bidea artu zigun, Zaitegi'k bait zion dei egin «Euzko-Gogoa»-n lan egiteko. Itxas-ontzian zijoala itzuli zitun leendik ere asko ausnartuta zeuzkan *Unai-kantak*. Guatemala'n «Euzko Gogoa» indartzen dendatu zitzaigun, Zaitegi aldizkari buru ta bera, Andima, lankideen nagusia ziralarik. Biok burutu zuten lan eredugarria. Orixe ere andik egurastu zitzaigun aldikada artan, bere lan eder-eder bi, *Quito'n arrebarekin* eta *On eta Eder*, beste askoren artean, langille bikain aien aldizkarian argitara eman ez.

Andik urte bete ta erdira, 1956'ko urrillan, Zaitegi Euskalerrira itzuli zan. Andima, ordea, an geratu zan: Karakas'n zeuzkan illobak eta aiek maitekiro artu zuten, eta antxe bereen artean eman zituen arrezkeroko urteak, amaikaraiño guztiz. Ofiziña batean lan egiñez bizi izan zan, eroso xamar bizi ere. Aberri-miñak sakonki

joa, bai ordea. Osasunez etzebillen ondo, biotzak ez baitzion erantzuten, orduko lur-ikara gogor baten ondoren baitik bat. Gaitz or-tatik il zan 1967-11-2'an, 61 urte zituela.

Illeta gogoangarriak egin zitzaizkion ondoren, Karakas'en eta abar. Illen egunean il zan, azillaren 2'an, goizeko lauretan, lau bat orduko miñak jota gero, eta arratsaldean izan ziran aren omenezko elizkizunak. Gero, emen Euskalerrian, berak azken-nai bezela utzi zigunez, euskal idazle guztiok Lazkau'n elizkizun orokor bat ospatzea erabaki genduen, baita meza abestu eder bat ospatu ere, gure euskal Iangille zintzoaren gogo-atsedenerako Jainkoari biziro eskatuaz. Berdin egin zuten bere sendikoak eta bilbotar talde gartsu batek Deustu'ko pasiotarren elizan.

Ortaz gaiñera, Karakas'eko euskaltzaleak, Andima oso maite zutenak, sari bat taiutu zuten ura il eta laster: «Andima Ibiñaga-beitia Saria», milla dolarreko saria, angó «Euskera Lagunen Elkar-tea»k sortutakoa. Urtero banatzen dan saria noski.

Euskaltzaindikoa genduen.

EUSKAL LANAK.- Loiola'n ikasle zala asi zan idazten. Oña'tik ere bialtzen ditu lanak Bilbao'ko «Jesus'en Biotzaren Deya»-ra. 1930'an «Pio XI-garrena ta Eleiz-abestiak» deritzan lana, txit ederto egiña daukazu bertan. «Euzkadi»-n ere ba-ditu olako lanak gerra aurretik; eta ostean, euskerazko aldizkari geienetan idatzi zuen: Paris'ko «Euzko-Deya», «Alderdi», «Gernika», «Euzko-Gogoa», «Egan», «Karmel», «Olerti», «Zeruko Argia»... «Euzko-gaztedi», «Irrintzi», Karakas'ko «Anuario del Centro vasco»... Euskeraz ederki zekien. «Norbait», «Elentxu» «Ibiñaga» ta «Idoyaga» ere erabilli zituen lanak izenperatzean.

Liburu gisan azaldu zituenak:

1) *Abere-indarra* (La Fuerza bruta). Bi ekitalditako antzerkia, J. Benavente'k erderaz idatzi ta Zaitegi-Ibiñaga'k euskeraldua. «Euzko-Gogoa», 1950, I.

2) *Euskal idazti baten eunkiaren inguruan zenbait gogoeta*. G. Garriga'k erderaz egiña, Andima'k euskeraz. «Euzko-Gogoa», II,

3) *Landaraetaz atzapenak* (Botanika-asimasiak). «Euzko-Gogoa», II.

4) *Maite-bidea* (Euzko-Gogoa, 1952). Obidi'ren «Ars amandi» euskeraz. Irakur berak itzulpenari begira dioguna: «Oztoporik arkitu dudala aitortu bear dut, bainan gure euskerak garbi aski erakutsi dit edonolako idazlanak bere soinekoz yazteko gai dala. Eta auxe, batik bat, nabarmendu nai izan dut nere itzulpenean. Norbaitek lan garbiago bati ekin bear niola erasoko dit. Erasoleak berak egin beza. Errex esaten da: au egin bear zenuen, beste au obeto izango zan. Buru ederra asmo ederragoz gainezka duzutenok, zergatik ez zerate zeuok lanera yartzen? Ez neri esan beste zerbait egin bear nuenik, zeorrek egin ezazu».

5) *Euskal literaturaren Amaseigarren mendea* (Euzko-Gogoa, 1954) Londres'ko B. B. C. irratontzitik bi ekiñaditan emana.

6) *Euskal-Mitologiaren Ikaspiderako* (Euzko-Gogoa, 1954). Barandiaran'dar Joxe Mikel'ek erderaz egiña, Andima'k euskeraz. Lan eder-ederra.

7) *Euskera irudi-bidez* (Nuevo metodo de euskera basico). (Paris, 1953). 269 orrialde. Gaurko ikasbide berrien tankeran antolatua.

8) *Erdal-ikasbide erreza* (Aprenda el vasco en 60 horas. Zarautz, 1961). Erdeldunak euskeraz ikastekoa. Muiña: 1) Euskal-abedea; 2) atzizkiak; 3) aditzaren jokabide batzuk; 4) alkar-izketak, eta 5) iztegi egokia, bost milla itz inguru dakartzina.

9) *Idazti berriak*. (Euzko-Gogoa), 1954). Azaitzen ziran liburu-irritzi ematea. Oso ederki. Ertzak maixuki arturik, zur eta bipil ager-azten digu berak uste duena. Egundo ere ez du iñor zirika mintzerik. Bakoitzaren balioa argi jartzen saiatu zan, gerra oste-koen balioak batez ere, beti maitekor eta baikor. Makiña bat olako kritika egin zuen «Euzko-Deya»-n eta «Euzko-Gogoa»-n. Iñoiz esan dute kritikolari bigunegia zala, baiña gizon argia zanez, bazekian gizabidez eta xamur zaurian ikutzen ere.

10) Bergili'ren *Unai-kantak* (Euzko-Gogoa, 1954). Itzulpen bi-xtia, esan dugunez, itxas gainean osotua. Badu bere zera: askok

eman oi ditu olakoetan ogei naiz ogetabost egun, itxasoak ditun edertasunez asetu nairik, ezertxori ere ikutu gabe; Andima'k, ostera, euskera jazteari ekin zion.

11) Bergili'ren *Alor-kantak* (Bilbao, 1966). Eragille ona zan Andima. Nik ez nuen arpegiz —vis a vis— ezagutzen; eskutitzez, orde, ar-eman goxoa izan genduen amabi bat urtetan. Alai ta gartsu beti, euskal arloan lan egitera bultzatzen ninduen. Ark eskatuta egin nuen Kepa Enbeita'ren bertso bilduma, *Gure Urretxindorra*, ain zuzen. Bergili'ren idazlan osoak argitaratzeko asmoa artu nuenan, *Unai-kantak* ain ederki itzulita zeuzkan ezkerok, *Alor-kantak* ere biurtzeko eskatu nion. Orrela egin zidan. Eta bion artean, ark *Unai-kantak* eta *Alor-kantak* eta nik *Enearena* gertaturik, *Bergili'ren idazlanak osorik* tituluarekin liburu ederra aragitu genduen.

12) *Eman* (Karakas, 1967). Andima'k il aurretxoan asiberri zeukan aldizkaria, erderaz ta euskeraz. Bost zenbaki atera zituen. Bere asmoetatik bat auxe: «Euzkotar eta euskaldunek —diosku— Ameriketa auetan egin dituten lan eta egintza aundiak iñarrosi eta aize-tara eman, gure inguruetakook ikasi ta aietaz jabetu ditezen». Eta beste au: «Gure erri osoan jazo ditezken kultur-gertaera guztien oiartzun ozenena izan nai luke».

13) Argitara gabe oraindik anitz lan laga zizkigun, osoak eta erdizka amaituak, sailkatu ta eraz jarriarik argitara ekartzea merezi luketenak noski baiño noskiago. Ortan saiatua naiz, baiña ez dut oindio ezer iritxi: asmo onenakin jardunda ere, iñoiz kale egitea egoki zaigu.

IRITZIAK.- Zarautz'en atera zuen «Euskal-Ikasbidea» zaiata, L. Mitxelena'k idatzi zigun: «Berrogei ta bederatzi ikasgai ditu, elkarizketa utsr-utsak guztiak... Izketa-gaiak —oraingo gizartean maizenik erabil ditezkeanetakook— ederki aukeratuak daude eta itzak eta esaerak —euskaldun ikasiari dagozkionak— egokiak dira; gorago esan dut Andima'k autatuak eta asmatuak direla. Uts gutxi arki lekiokoe ikasbide oni alde orretatik» (*Egan*, 1961, 151 orr.).

K. Etxenagusiak: «Bizkaitar jakitun onek —jesuitarako ikaske-
tarik geienak egiña zan— euskereari eskeiñi eutsan bere bizi osoa,
urteokaz Ameriketako erbeste latzean. Idaz-lanik geienak gipuzke-
raz egin ditu, izkera landu, txukun, aberats eta, bear bada, o-
tzegian... Kritikalari zorrotza (zuzena ta biguna, batera) ta itzul-
tzaille aspertu-eziña... Zaitegi, «Orixe», Ametzaga, T. Etxebarria
ta beste asko ta asko: gure artetik urruti bizi bear izanarren, ez dabe
euskera alde batera itxi; urrutiago ta Iaztanago... Euron artekoa dogu
gure Andima txalogarria be!» (*Lorategia*, 282 orr.).

Ugalde'tar Martin'ek: «Euskalerrri osoak semea izan genduan,
bai biotzez eta bai izkuntzaz ere. Gure idazleetatik goienetakoa. An-
dima'k euskera osoa erabiltzen zuan, gure erri osoko euskera, eus-
kera aberatsa, jakinduna» (*Zeruko Argia*, 1967, azaroak 26, 11 orr.).

Juan San Martin'ek: «Euskera eta euskal literaturaren irakasle
egin izan du Paris'en eta Caracas'en. Paris'en, bere ikasleak izan
ziran J. Mirande eta D. Peillen, beste zenbaiten artean. Andima,
gizon jakituna eta apala genuen, ezagutzera eldu ziran guztiak mai-
tasuna eta ar-eman izan dugunok ere ez gutxi, ain zabala ta maita-
lea bai zen bere biotza» (*Euskera*, 1968, 282 orr.).

(Ikus G. Garriga, *BIAEV*, 1954, 242 orr.; L. Mitxelena, *Egan*, 1961, 151 orr.;
J. San Martin, *Euskera*, 1968, 281 orr., ta *Escritores euskericos*, 98 orr.; K. E-
txenagusia, *Euskal Idazleen Lorategia*, 282 orr.; A. M. Labaien, *Teatro euskaro*, II,
170 orr.; Auflamendi, *Literatura*, III, 467 orr.; Martin Ugalde, *Zeruko Argia*, 1967,
azaroak 26, II orr.; S. Onaindia, *Zeruko Argia*, 1967, abenduak 31, 12 orr.; Jon Bil-
bao, *Eusko Bibliografía*, IV, 317 orr.).

7.- GALLASTEGI ZENARRUZABEITIA KAULDI (1906-1984)

«Orra gizona —diosku Etxeberria'tar J. Anjel idazleak—: ba-
kar. Andi. Andia daiako. Batzuetan, ezinbestean bakar. Bakar dala-
ta, arritzeko andia. Andia, bakarrik. Bakarra, andia. Apaiztu za-
netik (1931) zenbat ekintza, zenbat lan, zenbat itz... zenbat ixil-aldi.
Dana Jainkoarren. Gizadiaren bitartez, Euskalerrriaren bitartez. Ba-
tzuetan erderaz; beste batzuetan euskeraz. Oiñazea baizen andia

dauan bere maitasunaren berri ba-dakie erdeldunak. Euskaldunak euskeraz gitxitxoago» *{Amets eta Egi* azken azalean).

Elorrio'n jaio zan On Klaudio 1906-11-8'an. Apaiz karrera Gazteiz'en asi zuen, Latin eta giza-edertiak bertan ikasirik. Filosofia ta Teologia ikaskizunak, ordea, Komillas'en osotu zituen. 1931'an apaiztu zan, eta gerra ondo guztian Bilbao'ko San Anton parroki-ko txauburutzta egin du, zerbaiten billa zetorkionari laguntzeko beti beso ta biotz-zabal. Izlari trebe.

Bere arima-zaintza utzi gabe, tarteka marteka izan du astia oraindik zerbait idazteko ere. Bere euskera gozo giarrean oretuta, liburu auek argitara dizkigu:

1) *Galburutan*. (Bilbao, 1968). Gari-solo batean galbururik ederrin billa dabillan baten antzera, K. Gallastegi ere, gizadian ibilli zaigu pentsamentu lerdin billa, ederrari buruz «bere biotz ederra ta sentibera» erakutsirik.

2) *Gabon-Abestiak*. (Bilbao, 1968). Arturo Intxausti'ren musika ta K. Gallastegi'ren letra.

3) *Sortaldean. Gabon-Abestiak*. (Bilbao, 1969). K. Gallastegi'ren letra ta Frantzisko Bengoa maixuaren musika.

4) *Amets eta Egi*. (Bilbao, 1973. I. Boan'ek irarrita. 162 orrialde. Iru zati ditu liburuak: 1) *Idaz-saioak*; 2) *Umeentzako Antzerkiak*, eta 3) *Olerkiak*. Liburu ontan, J. Anjel'ek dioanez, lengoz gaiñera, beste alderdi bat darakusku egilleak, ots, «beraren adimen-kezkak, lenengo atalean; eta alderdi sendo orren ondoan, gure umeak gogo-biotzen janaria izan dezaten, arduraz eta biozkadaz» egiñiko antzerkitxoak; azkenez bere olerki «errez eta sarkorrek».

Lenengo saillean, ain zuzen, izpar jakingarri asko damakizkigu, berak or-emen eder-sen aundiz jasoak; ez doa iftora biotz-zauskada billa, egunero ibilliz gertatzen zaiona orixe darama idazkortz-puntaz paperera. Eta eguneroko apunte ta oar auek oso atsegin izan oi zaizkigu.

Amar-amabi bat olerki datoz liburu ontan, ederki landuak. Nolakoak? Ona Lauaxeta bere lagunari eskeifli zizkion aspaldietatik auek:

«Urkiaga laguna, gogoratzen zairut,
ikastaroak zugaz nik egin baditut,
Josulaunen etxean Durangon alkarraz
iru bat urteetan bizi nintzan zugaz.

Mutil mardul argia bai burudun betik,
txiki txiki giñanok bai zugan lagunik.
Bekokia zabala, begiak argiak,
ikastetan aurrengo, gorengo jolasak».

Arin banandu ziran adiskide biok: batak Loiola'rako bidea artu zuen, besteak Gazteiz'erakoa. Ura olerkari, bestea ikasle, ikasleak olerkariari irakurten zion. Baiña beiñola izpar beltz-beltza eldu zitzaion K. Gallastegi'ri: Lauaxeta il zutela. Egi mingarria Euskale-
rri osoan zabaltzen. Eta elorrioarrak onan:

«Zure eriotzan Jata alde mendiak
gutziz triskau ebazan itxaso ekaitzak.
Negar zure amatxok, anai ta arrebak;
negar zure lagunak, euskal-zale danak.

Il zara, lagun maite, baiña bai bizi be,
zure eriotz deun-deunak zaitu zeru-jabe.
Zure olerki bikain goren-gorengoak,
biztu dau gure abenda, jaiki dauz biotzak».

Aipagarri dugu Gallastegi'ren beste alderdi bat ere: euskal liburuak argitaratzeko, San Anton'go Katekesi'aren bitartez, eman duen laguntza osoa.

(Ikus J. San Martin, *Apendice a Escritores euskéricos*, Bilbao, 1969, 20 orr.; Auñamendi, *Literatura*, IV, 124 oor.).

8.- JULEN URKIDI URRIZ (1906-...)

«Ikaskizun bakoa —diost Urkidi'k bere kartan—, eta Euzko-
ele maitasunak eraginda edo, zerbait euzkera ikasten asi nintzan.
Onetarako, aldi atan (gerra aurretik) *Josetxo* Etxeita'rena ta Kiri-
kiño'ren *Abarrak* idazki biak maite nebazan. Eskerrak irakurtze
oneri, itxasoko bake ddietan, ikasi neban dakidan Euzkera apurra».

GIZONA.- Bermeo'n jaioa dugu 1906-1-9'an, bertako arrantzale
sendian. Txikitán «Lamenais Anaien» ikastetxean ibilli zan aldi la-
burrean, irulau urte guztiz. Antxe artua bere ikastola jakintza guz-
tia. Lau anaietatik zarrena zan eta Julen'ek zazpi urte zitula, aítak
umezurtz utzi zituzten: lemazain ona ta ontzi-jabea zan, baiña bi-
riki gexoz urte askotan egon ondoren, atsekabez il zan, bere emaz-
te ta lau umetxoak ondamen utsean utzia. Bi urtetan edo, arrain-
ola baten lan egiñik, bederatzi bereak zitula itxasora joan zan
txalupa mutil. Amalau urterarte, beraz, bere gaztetako itxas-bizi-
ta arraunka ta aize-oial trañeruan izan zan.

Amalau urtegaz, «Arrinda Mendi» Sota y Aznar Lagundiko
zama ontzi aundian itxasoratu zan, amazpi urterarte. «Ontzi one-
tan —dio berak— ezagutu nebazan beste errietako euskaldun ba-
tzuk; eurok nik baño euzkera gozoagoa egiten eben, eta askotan
nintzan euroi adi ikasi gurean neurea baño euzkera obiagoa». Ama-
zazpi urtekin, berriz itxasoratu zan arrantza arazoetan, 1946 urte-
rarte. Eta urte ontatik aurrera, 1971'rarte, arrantzale Anaidiko lan-
dolan izan zuen bere arloa.

EUSKAL IDAZLE.- Idazleak liburuak dagizki; orbel antzera doaz
gero mundura, ta jakin ez noren eskuetan jausiko diran. Munda-
kar idazle argiaren *Josetxo* Urkidi'ren eskuetan erori zan. Nolako
mesedeá egin zion! «Liburu onen eusko itxastarren gaiak atsegin
yatazan —dio—; eusko semea eta erria bertan goraltzen diralako.
Aldi atan ez neban ezagutzen Txomin Agirrerren *Kresala*, ez Pio Ba-
roja'ren *Las Inquietudes de Shanti Andia*. *Josetxo* liburu au, zen-
bat bidar irakurten neutsien arrantza lagunai itxasoan, eta bai se-
nide ta auzokoai errian be!»

Idazle berri bat zegoen or ernemin. Primo de Rivera'ren aldian ixillik zegoen Euskalerrria; baiña gero askatasun apur bar agertzean, Euzkadi'k Kirikiño'ren dei sendoa gaztediari. Orrelaxe asi zitzaigun Urkidi, bildur ikaraz lenen, «Euzkel-Atabtera itxas-gaiak bialtzen. «Lasterrago —dio— erri izparrak idazteko asmoa artu neban. Eta gerotxoago, barriz, idazlan luzeagoak, aberri zapalduen eta erri go-sekillaren alde neure lumia zorrozuz».

Edu orretan, lengo garaian «Euzkadi»-n eta «Ekin»-en idatzi zuenez, «Zeruko Argia»-n, «Karmel»-en, «Agur»-en, «Goiz-Argi»-n, «Arantzazu»-n, «Principe de Viana»-n eta Uri-jai Egitarauan beintzat idatzi izan du.

Iñoiz olerki batzuk ere ondu dizkigu, Gotzon Garitaonandis-ten oroitzaz egin zuena, esate baterako.

Euskera errez, errikoia du.

9.- BALENDIN ENBEITA GOIRIA (1906-1986)

Areatza, Muxika'ko auzotegi lerdena, Gernika'tik laster, B. En-beita bertsolariaren sorterrria; ementxe, Usparitxa-Jauregi'n jaio zan 1906-5-20'an. Beronen aita, Enbeita'tar Kepa, neretzat euskal bertsolarietan onena, Euskalerrriko Urretxindorra. Balentin Berriotxoia Zorundun egunekoa zalako, ipiñi zioten izen ori.

Bertsolari fiña bere aitaren antzera. Lugintza lanetan bezin erri-me ortan jarduna, «bertso bigun sakonak naiz plaza agirian, naiz taberna zuloan, naiz eleizan biribildu ta otoz-otoan kantatzen». Amabi urtekin asi zan bere aitonakin, ots, Juan Antonio Enbeita'rekin Areatza'ko tabernan, aitarekin egiten lotsa zalako. Geroago, amazortzi urterekin pozik egiten zuen aitarekin ere. Ogei ta iru urte zituala, bertsolari sariketa bat jarri zuten Mungia'n, eta saio ostean berari eman zioten lenengo saria; urrengo urtean Getxo'n ere berdin, len-saria eskuratu zuen. Ogei ta sei urtekin mugaz bes-taldera eraman zuten, Basarri'rekin, an Donibane Garazi'n, Atarra-tze'n, Kanbo'n, ta Donibane Lohitzune'n bertsotan egiñik.

Olaxe artetu barik ibilli zan gero, Bizkai'ko ta Gipuzkoa'ko errietan batez ere. «1933'an —diosku berak—, Elizondo'ra atera nintzan nere aitagaz. Baita izan nintzan Bilbo'ko Arriaga kafean be. Ementxe egin genduan garai artako bertso-saiorik ederrena. Garai onetan, Espaiña'ko matxiñadara arte, erririk erri ibilli nintzan neure aita, Dima'ko Uriarte ta neure anai Sabin lagun izaten nituelarik. Matxiñada ori zala bide ixildu nintzan, 1958'garen urtean Bizkai'ko txapelketan barriro agertzeko. Kantatzeko erreztasuna bera galdu egin neban».

Bizkai'ko bertsolari-txapelketa nagusi bitan izan da garaille, 1958 ta 1959'an Bilbao'ko Arenalean ospatutakoetan; eurotan jaso zituen iru milla pezeta, kopa ta txapela. 1960'an Mugartegi'k irabazi zuen; 1961'an, Azpillaga'k, eta 1962'an Lopategi'k; arrezkero ez da Bizkaia'n txapelketarik egin.

Enbeitarrak antxiñatik dute bertsolari-garra; aitona, aita, osaba ta bere anai-arreba ta seme-alabak, sendi osoak bertsolari izan dira Areatza'n, Usparitxa'n batez ere. Eta eder zaigu beti, edo-ta izan bear litzakigu, dauzkagun doaiak ingurukoen artean ere banantzea. Balendin'ek, ori gogoan zeukala, 1959'an, Areatza'n bertan, zubi ondoko ardandegian bertsolarien eskola bat sortu zuen, bere sendikoakin eta an birako bertsolariakin osotua. «Arrezkero —dio berak— bertsolari onak, eta ugari, emon ditu eskola onek: Jon Lopategi, neure seme Abel eta Jon, Deunoro Sardui, Ireneo Ajuria, Pedro Ortuxar *Iturri*, J.M. Sardui, Basabe (Luno'koa au), eta abar. Pedro Mari Aldana'k jarten euskuzan bertsoarako gaiak; berau genduan gure taldeko sekretario be. Pedro Mari bera be bertsolari dogu: ba-ditu ainbat eta ainbat bertso eder berak egiñak, idatziak».

Abestu ezeze, idatzi ta argitaratu ere, asko egiña dugu B. Enbeitata. Gerra aurretik idatzi zigun «Euzkadi» eguneroketan, eta «Ekin»-en; eta gero «Arantzazu», «Zeruko Argia», «Karmen'go Amaren Egutegia», «Jesus'en Biotzaren Deya», «Arantzazu'ko Egutegia», «Anaitasuna», «Goiz-Argi», «Karmel», «Olerti» eta «Principe de Viana» aldizkarietan beintzat arloan jardunik ere, laster aldatu oi eskua golde-muturretik lumara: etzaigu iñoiz geldirik egon, ez bertsolari lez, ez idazle bezela.

Zer abestu du? Baserriko bizia, senar-emazteen maitasuna, neska-mutillak, gure erria bere auziak, gure izkuntza, gure fedea. Izadia ere maite du: udaberri, udagoien, negu, euri, su, zugatz, eguzki, illargi ta alakoak atertu gabe goستن ditu. Gauzak adierazteko ba-du grazia. Neurkerak, berriz, ez-berdiñak darabiltza, maizenik zortziko txikia ta nausia erabilli arren. Ederki moldatzen du aria, bulkoz ta esaeraz. Potorik ez dizu egingo, ezertara ere. Gauzak artista samur ta gozo bezela ikusten ditu, baita aitzen eman ere.

1953'an antzerki bat eratu zuen, *Jesus'en Bizitza*, inguruko errietan antzeztua. Antzerki osoa da bertsoz egiña ta abestua, molde berri baten esipean biribildua.

1974'an, ordea, Anoeta'n egingo zitzaion omenaldia zala-ta, «Auspoa» bertso-bildumak txorta eder bat osatu zion, *Nere Apurra*, 105 kantarekin. Tolosa, 1974. 269 orrialde.

(Ikus S. Onandia, MEOE, 1171 orr.; J. San Martin, *Escritos euskericos*, 78 orr.; Auñamendi, *Literatura*, IV, 112 orr.).

10.- BIZENTE BATIZ BILBAO (1907-...)

Erromantze-zalekeriak, diotenez, berez dakar urruntasun lera. Eta euskaldunok, asko beñik-bein, erromantikuak izan, eta urrutizaleak. Gogora zenbat gure odoleko diran Ameriketara eta mundu zabalean. Oietakoa dugu Aita Batiz karmeldarra ere. Bidagiñaren seme izanik, bera ere ipur-dantzari bihurtu zitzaigun umetatik, aibat bidar Atlantik itxasoa zori-billa zearkatuz.

BIZI-ORRIAK.- Gerrikaitz'en jaio zan 1907-12-23'an. Aita bidagintzatik bizi izan zitzaion, gaur emen eta biar an lan egiñik. Ortik, bada, umezarorik geiena Markiña'n eman zuen Aita Batiz'ek, lenengo ikastaroak bertan osoturik. Eusko-lur alderdi ori ez duzu bat ere txarra, naiz paketsu bizi izateko, naiz irudimenari egoak askatuz ortik-emetiko ta zori-zale bilakatzeo. Begira zenbat pelotari ta eliz-gizon ortikan! Ameslari uts ote?

Batiz'ek eliz-deia oartu zuen barnean. Eta karmeldar izan gurarik, Larrea'n jantzi zigun Karmen'go Amaren soiñekoa 1923-10-12'an, urrengo urtean profesia egiñik. Markiña'n ele-ederra, Gazteiz'en iru urtez Jakintza ta onen ingurukoak eta Begoña'n Teoloji urte bat ikasi ondoren, samur zebillela-ta, Ameriketara aldatu zan, eta an Kolonbia'ko Leiva'n, palta zitzaizkion Teoloji-urteak bukatu rik, 1931-7-9'an meza berria abestu zuen. Arrezkero, Kolonbia'n eta Panama'n ibilli zan mixio-lanetan.

1936'garren urteko gerra sortu aurretxoan Euskalerriratu zitzaigun, eta gudaldian emen ibilli zan, mendi ta erri, gudariai beren arima arazoetan laguntzen. Azkenez, Bilbao eskuitarren eskuetan jausi zanean. A. Batiz ere beste askorekin, atxillo artu zuten Begoña'ko Karmelo'n; eta giltzapean egon bear izan zigun — Karmelo, Nanklares, Dueñas eta Karmona'n— iru urte osotan. Alkarrekin gifian askatasun gabetze ortan eta, egia esan, Gerrikaiz tarra beti gertatu zan, larrialdirik gorrietan ere, baikor, adeitsu ta gizalegeko.

Espetxetik irten-ala, naiz-ta igaro-bidea lortzea errez ez izan, Ameriketarako zeaztasunak atondu zituen. Eta an zan berriz bere mixio lurean. Etxuen, orraitio, jaioterria aitzu; ezta euskera ere. Nainun egon, auen alde lan egin dezakegu, giza-izateari zor diogun berezko garrik barnean ba'dugu bederen. J. Zaitegi'k irasia zuen 1950'an, an Guatemala'n, bere «Euzko-Gogo». Ez da errez guztien gogoko litzaken aldizkari bat aurrera eramatea; baiña Zaitegi'rena, gerra ostean euskera utsezko lenengoa zalako edo, geienik ondo artua izan zan. Askok egin zuten lan arpidedunak aurkitu ta urte-sariak or-emen jasotzen ere: A. Batiz etzan zeregin ortan atzerena izan. Bein berak ezagun zuen lekaide bat zala-ta, idatzion A. Ibiñagabeitia'ri: «E.G. aldizkaria eskuetan duela maiz ikusi izan det, poz betez beraren orriak irakurtzen, arpidedun nere bidez egiña bait-da; baiño ordain ordua danean, asarre». Eta Andima'k erantzun: «Askotxori gertatzen zaie ori, Batiz, ez bakarrik Kolonbin dauden euskaldunei. Okerragoa oraindik. Jakin ordaindu bear dutela ta ordaindu *nai ez*, euskal aldizkariak aizez soilik bizi bailiran. Eta gero ez dizute ikusi gabe utziko ez kine-mintz be-

rri bat, ez ostiko-pelota, ez erdel izparringi... ori danori ederto ordainduta, besteak beste» (*Euzko-Gogoa*, 1953-4, 63 orr.).

1954'an, Kolonbia'ko *Tumaco* deritzan lurraldea, Pazifik itxasegalean, karmeldarrai eman zien Erroma'ko Elizpuruak mixioztat; Kolonbia'ko ego-sarkaldean dago berau, 18.000 kilometro lauki ditu ta 180.000 biztanle. Bertako gotzai Frantzisko Irizar Salazar (1909-3-15 - 1965-11-5), Ormaiztegi'ko karmeldarra izendatu zuten. Gotzai berriak, idazkari bezela, gure Aita Batiz aukeratu zuen. Origmatik, onela agurtzen zuen «Euzko-Gogoa»-k: «Zorionak gure Gotzai iaun eta idazkari berriari... «Euzko-Gogoa»-n idazten iarraitzeko tarteren bat izango al duzu. Tumaco inguruko bazter ederrek gai ugari emango dizute naiz itz-lauz naiz itz-neurtuz idazteko. Bazu ezpala ortarako, Batiz A. laztana) (E.G., 1954, 58, 125 orr.).

Azken urteotan onera zan berriz ere. Emen igaro zituen urte batzuk, Eibar'en eta Markina'n; ez geldi, lanean baizik. Eta aurten (1977), Erregen ostean, Panama'rako egazkiña artu zigun Madrid'en. Donosti'en daukagu gaur.

Euskeraz asko ta ederki idatzia da, itz lauz eta bertsoz, orremengb aldizkarietan, gerra aurrean eta ostean. *Gurutz-bide* polit bat ere ba-du, bertsotan egiña. «Xalokin» zan bere ezizena. Oraintsu bukatua du Karmeldar ordeneko santuen meza-liburua euskeraz.

(Ikus S. Onaindia, MEOE, 676 orr.; Auñamendi, *Diccionario*, III, 225 orr.; Jon Bilbao, *Eusko-Bibliografia*, I, 380 orr.).

11.- JOSE ABASOLO ATUTXA (1907-1965)

Karmeldarren artean Aita Balentin zana, Yurre'ko Garamendi auzoan jaio zan 1907-3-23'an; Frantzisko ta Kasildaren somea. Barru-deiak indartuta, Larrea'n osatu zituen bere len-ikasketak eta sar-berri urtea, 1926-7-10'an profesa egiñik.

Jakintza ta onen inguruko ikasgaiak Gazteiz'en burutu zituen. 1931'an alere, Errepublikara garaiko iskanbil eta aramatzak zirala-ta,

lenengo Teoloji-urtea Begoña'n egifiaz, Txile'ko Txillan'en bi urte ta Peru'ko Txokope'n osotu zuen laugarrena, 1933-10-22'n, Lima'ko komentuan meza berria abesturik.

Nagusiak, eliz-karrera amaitu zuneko, an itxas-egaleko Pakas-maio deritzan probintziako Lloc'era bialdu zuten, ango parroko eliztarren ardurea izan zezan. Lau urtetan gero, 1940-44, Aiakutxo'n Ian egin zigun; azken urte ortatik aurrera Ika'n eta Aiakutxo'n nagusi izan zan, ia beti, langille amorratu ta arima zale. 1965'an berretarrak ikustera Euskalerririk egin zuen itzuli labur bat; laster biurtu zan berriz ere bere komentura, Aiakutxo'ra, eta goxo-eriz gaizki samar egon arren, bazter aietako inditarrak Kristoren Itza zabalazten ekiolarik, onik ezik aurkitu zan bat-batean lendik zeukan gaixoa suminduta. Lima'ra ekarri zuten egazkiñez, baiña etzeukan osabiderik: urte artan bertan, jorraillaren lauan eman zuen azken arnasa Jaunaren bakean. Otoitza ta lana txortatzen zekian lekaidea genduan noski.

EUSKALTZALE.- Etzuen gutxi idatzi, Peru'ko elizaren eta eliz jardunak batez ere arroturik. Erbeste ezkurrez alikatu bearra izanagatik, bizitza guztian, amaren bular beroan ikasitako euskera etzizaion aiztu; nasai mintzatu oi zan ,eta Ameriketatik egiten zituen eskutitzak ere geienik euskeraz zetozen.

Euskal lanak idatzi ta argitaratu zizkigun. «Karmen'go Argia»-n lenengo, eta «Karmel»-en gero. 1934-3-1'an, Txokope'tik Lima'ra jauparitza artzeko egin zuen txangoa guztiz gozatsu edesten digu. Ona zatitxo bat.

«Chocope'tik Lima'ko ibillera iru eratara egin daiteke: itxasoz, Iiorrez ta aizez; guk lurrez egin genduan Kermeilda aba buru gendula, ta beribillez egun bien yoan ta yoan egin ezkeru, urrin dagoanik esan bearrik ez. Txoriak goiztarrak dozuz; gu egun areitan goiztarrago. Jaupa entzun, Gure Jauna artu ta ordularian laurak emondakoan, etxetik ataz giñan... Ibilli ta an urrintxuan zeren edo aren zaratea ta gauza zurizke batzuk; edurra zirudian; baña ez, itxasoa zan, geldi egoten eztakian itxasoko urak aterako bitsa. Igarri barrik itxasoan sartu giñan ta itxas ertze giñoyazen tximistea yoa-

ten dan bafio ariñago; baña bide eder au itxasoak laster kendu euskun; egun sentia urratu zanekoxe beste bide batzuk artu bear izan genduzan».

«Mendi garai bat igon eta jatsi gendun; begituaz bakarrik bildurra sartzen dau. Mendiaren tontorrean gurutze bat eta oñetan argizariak argitan. Emekotarrak gurutzeari itzal andia dautse. Mendi au igaro ezker bide eder batek eroan genduzan Lima'raño: Lima Peru'ko buru dozu ta polita ta ederra danik zetan esan bez. Ibilli dabillanak danetarikoa ikusi daroa; on eta on ezak, atsegin ta atsegin ezak. Gauza ezbaridineta dozu ba atsegin ta edertasuna» {*Karmen'go Argia*, 1934, 197 orr.).

(Ikus *Acla Ordinis Carmelitarum Discalceatorum*, Fasc. 11-12, 1966, 420 orr.).

12.- JUAN MAGUNA GOIKOETXEA (1907-1975)

Arratzu'n 1907-4-19'an jaiotako Begoña'n 1975-2-19'n il zan bere anai karmeldarren artean.

Len-ikasketak jaioterrian arturik, amairu urteko zalarik, Larrea'ko ikastetxean daukagu 1920'garren urtean. Eta adimenez argia zalako guztiz, emengoak iru urtetan burutu eta 1933-7-7'an karmeldar abitua jantzi zuen, urrengo urtean 8'an, lekaide profesia eginikan.

Markina'n ele-ederra ta Gasteiz'en Filosofia bukatu zituanean, Erroma'ra bialdu zuten nagusiak Teolojia ikasten. Emen egin zuen profesia nagusia, baita meza berria abestu ere.

Ikasketak amaia eman ondoren, zati baten oraindiño Erroma'n jarraitu zigun; baiña 1929-1933'ko kurtsoan Begoña'n Apologika irakasten die gazteai. Palestina'ko Karmel Mendira doa urrengo 1939'raño an irakatsirik. Munduko gerra bitartean, an ere girorik ez-eta, Erroma'n, Frantzia'n eta Portugal'en dabil irakasle lanean. 1951'an Probintzial ordeko izentatu dute Portugalen, kargu orretan jardunik 1963'raño. 1969'an Begoña'ra dator erdi gaixorik.

Bizitza ederra aita onena. Beti bizkor eta langille. Beronen bizitza itz gutxitan borobildu nai izan ezkeru, bi ixurki ikus genezake Aita Maguna'ren bizitzan. Lendabizi irakaskintzari oratu ta ekin zion Erroma'n, Begoña'n eta Karmel Mendian. Buru argikoa zan erakusteko, zorrotza pentsamentu ta gogaietan, eta erreztasun itzala zuen eurok azaldu ta adierazteko. Auek bait dira maisuak euki bear ditun doairik beiñenak.

Beste aldetik, Portugal'en batez ere, lan izugarria egin zigun urteetan aintziña baten loratsu zegoen karmeldar Ordenea jaso ta sustatzen; lanaren lanez, etxez ta lekaidez, ia leen bezin jori ta bizkor ipiñi zuen urte gutxitan.

Ba-zuen beste jit eta lera bat ere, gaztetan ernemin erakutsi zuena: euskal idazle gogoia. Erroma'n ikasle zala asi zitzaigun emen Zornotza'n azaltzen zan «Karmen'go Argia»-n idazten. 1931'ko jorrallean asita agertzen dira bere lanak; «aita Santua» lenengo lana, «Arratzu»-k izenpeturik. Aita Ipolitok —Larraoetxea-Legoaldi'k— eta biok ziran, bata irakasle ta bestea ikasle, karmeldar aldizkariaren orrialdeak idazlan ederrez apaintzen ebenak.

An ikusi ta ikasiak ziran Arratzu'k emoskuzan lanak. Gai sakonak, mamintsu ta errez emanak, «Erlejiñoa ta Laterria» eta ola-koak, berak orduan ikasten zituan gaiak noski. Illero-illero bilatzen zuen zerbait.

Aita Isidro deitzen genion karmeldar artean.

(Ikus *Boletín Oficial* de la Provincia de San Joaquin de Navarra, de Carmelitas Descalzos, 1975, urtarrilla-Bagilla, 93 orri.).

13.- TXOMIN AGIRRE OZERIN (1908-...)

Teresatxo Deunaren Luki Aba, karmeldar. Dima'n jaio zan, Arostegieta, Lamindano ta Indusi bitarteko auzoan, 1908-5-8'an. Bere jaioterrian osatu zituen lenengo ikasketak. Amar urtedun, karmeldar izan nairik, Larrea'ko ikastetxera jo zuen eta amabost urte-

dun, Latiña ta giza-letrak ikasi ostean, Karmen'go soiñekoa jantzi zigun 1923-7-7'an, urrengo urtean profesia egiñik.

Prailletzarako goi-ikasteak Markiña'n, Gazteiz'en eta Begoña'n ornitu zituen, 1931-6-29'n Begoña'n bertan apaiztasuna arturik. Urte artan Zornotza'ra eldu zan bertoko ikasleakin ekitera. Ontan zebillela sortu zan azken gerratea, ta ia urte betean, Gorbei aldean batez ere, gudarien jaupari izan zan. Ondoren iru urteko kerizpea, Begoña, Nanklares-Oka, Duefias eta Karmona'ko espetxeetan. Kerizpe ori astintzean, berriz ere lengo zeregiñera jo zuen; izan ere, karmeldar izateko asmoz zebiltzan mutikoakin izan ditu bere ekiñaldi aundienak. Aldi laburren baten bere ardurapean egonak dira Markina, Larrea ta Zornotza'ko lekaideak. Gaur Larrea'n daukagu, beti langille ta ibiltaun.

EUSKALTZALE.- Euskera maite du, ta edozeiñekin mintzatzeko eztu egundo lotsarik izan. Begoña'n ikasle zala asi zan idazten, an ixil-mixilka ateratzen zuten barne-aldizkari «Gau-Txori»-n. Gero, gudaurretik «Karmen'go Argia»-n idatzi zigun, bertsoz eta itz-Iauz. Geroago, «Karmel»-en ere, ainbat idazlan agertzen dira bereak, beti umoretsu ta esakun zorrotzez: sari euki izan du ar-emana gure baserritarrakin, eta oiengandik jasotako esakizun bizi ta itz zuurrez dotoretu oi ditu bere idazlanen tarreak.

Izen eta ezizen auek erabilli dizkigu lanak siñatzean: «Luki A.», «Txomin Agirre», «Landatxu», «Arostegieta», «Mañortu», «Atxiti» ta «Landoste».

Idatzik darakus ondoenik nor dan zorrotza. Ikus dezagun, bada, aitortu dugun bezela A. Luki olakoa dugun ala ez. Ona emen «Zeuok erantzun» eristen dion lana, erakusburutzat noski.

«Zenbakiak —dio— euren izkuntza edo esanaia dabela irakurle guztiak dakizue. Adibidez, auskeraz *amaika bidar*, erderaz *mil veces* eta lateraz *sexcenta habeo...* ta abar esatekoan, esan dogula edo zenbatu ezin beste gauz doguzala adierazten dogu. *Amairugarren* zenbakiak zoritxarra esan gura daula be baten baño geyagotan entzungo zendun. Antxiñakoak *omne trinum perfectum* esaten eben, iruzko edozer oso ona da; *iru arizko lokarria ezta errez puskatzen* irakurten da idaztietan.

Ainbeste zenbakien esanaia entzun izan ba'dogu be, *zortziak* zer esan gura dauan jakin gurean dabiz Larra'ko notiñik asko. Juan dan Garilla'n *zortzi* ta *zortzi* baño ez zan entzuten, gertaerak be olantxe zenbaki au ezpanetara ekarten euskuen-eta. Ara emen *zortzi* au zenbat jazokunetan agertzen dan: Lengo zenbakian irakurriko zendun legez, Garilla'ren *zortzian zortzi* gazte Karmengo soñe-koz janzten ziran; illa orren *amazortzian* beste *zortzi* gaztek zin-eskintzak egin ebezan. Garilla'ren 27'an izentau zan Karmel-ikasleen aldakuntzea egiteko; alantxe egin eben Markiña ta Iruña'ko lekaideak; baña or Gazteiz aldean tarranta apurtu zala-ta, 27'an joan bearrekoak ogei ta *zortzian*, Larra'n aurten lekaiki izandako *zortzi* gazte Markiña'ratu ziran. Oartu emen be, irakurle, zenbaki onen izan bearra. Jorrailla'n lekaidekuntza egifiik zan mutil bat eta Garilla'n egin *zortzigaz* bederatziraiño elduten ziran; orain be aurten lekaiki izandako *zortzi* bakarrik joatea gura eban Jaungoikoak; lekaikien artetik bat geixotu zan belaunean eten bat egiñik eta Garilla'n ogei ta *zortzian*, *zortzi* barri joan ziran.

Lar asmagillea nazala esango dau baten batek, baña gertaerak onelantxe deadar dagie.

Zenbaki onek zer esan nai dau? Doibatzak, eta lenago Ixrael-darrak, jai ospetsuenak *zortzi* egunean ospatuten dauz. 8 idatizitakoan ustin (utsa) bi bata bestearen gañean dagozala dirudi; usitiñak barriz betirauntasuna esan nai ei dau; beraz, 8'k betirauntasun bi adierazoko dauz. *Zortzi* eguneko jaiak, au da, biotz-poztasunak betirauntasun bietan, *emen* eta *donokian*, izango dozuezala zuok, zenbakiok eskuz-eskuz erabili dozuezanok, esan nai ete dau? *Zeuk erantzun*, irakurle» (*Karmen'go Argia*, 1933, irailla, 33'gn. zenb., 285 orr.).

14.- FRANTZISKO ATUTXA BIKARREGI (1908-1973)

Karmeldar askoren azitegi dugu Dima. Emen du bere sortetxea, Emaldi auzunean, olerkari errimea genduen Aita Atutxa ere, emen-

txe jaiio bait zan 1908-7-23'an. Karmeldar bizitzako goraberak Larrea'n, azken gerrararte, ortzi garbiko izan diztikor lez, beti eder, begiragarri euki izan dugun aspaldi bateko jauregi ospetsuan burutu zituen, lau urtetan beintzat, latin eta onen inguruko gramatika, matematika, kondaira, lutelesti ta abar ikasiaz.

Berton egin zuen baita asi-berrien urtea, 1926-7-10'an bere burua zifiz Jainkoari eskeiñirik. Ele-ederra, asketika ta mistika Markiña'n ikasi zitun ondoren, urte betean; Gazteiz'en, berriz, Filosofia ta ingurukoak iru urtez. Naikoa istillu izan zuten lekaretxeak Erkala zala-ta, karmeldar ikasleetatik askok beraz Ameriketara ta India'ra jo bear. Aita Atutxa Begoña'n zegoen ordun lenengo Teoloji urtea amaitzen: zaparrada aiek bultz eraginda itxasoz aruntz joan bear izan zuen, beste askorekin, eta 1931-8-25'rako Txile'n aurkitzen zan. Txillan'en jarraitu zituen bere ikasketak, 1933-12-23'an meza berria esanik. Arrezkeroz Txile'n egin zuen arima-zaintza, ta 1965'tik Peru'n.

Txukunko'ko Ikastetxean luzaro egon zan maixu. Dala Txile'n, dala Peru'n Kristoren Berri Ona zabalazten etzan aspertu. Naiz-ta izlari aundia ez izan, asko ikasia ta irakurria zanez, gozo-bizia zan aren izketa; itzak eta esanak alkar ondo lotzen zituen ezker, aren jarduna beti zan adigarri. Etzuen nai itz utsik, ez orbelik: zarata gabekoak, mami soil ziran aren izkirimiri ta esariak.

Urri zebillen osasunez, beti makal xamar. Txit sentikorra zan, urduri ta bizia; begiak su ta salda zeuzkan geienik, eta oiñak bizkor erbiaren pareko. Otzak geiago egin oi zion, eta Euskalerrira biur-tzen zanean, Txile'n eta Peru'n giro berora egiña zegoen-eta, gorriak ikusi bear izaten zituen. 1972'an Probintziko Batzar nagusira etorri zan, eta ondoren Larrea'n igaro zituen pare bat illabete, baiña otzaren otzez gelatik irtetake. Peru'ra itzulirik, an ere atxakiz josia; neke, oiñaze ta eraman-bearrak dantzari aurrean, zirkin eta ibiltzerik eza odolean; berna bata lendabizi ta bestea gero ebaki zizkioten, eta... azkenez, ardura aundiz zaintzen zuten anaiak ingurumari zituelarik, Lima'n il 1973-7-27'an. Lekaide ona, neke-miñen arragoan garbitua. Zeru-bizitzan barru zabalekoa, zuzena maite zue-na; beti egizale, arteza, Jainkoagan sustriaiak sakon egindakoa.

EUSKAL LANA.- Munduan zear ibillita ere, maite zuen bere lurra, bere izkuntza batez ere. Naikoa idatzi zigun. «Emaldiko», «Atutxa», «Urlo» ta «Eltzegor» erabili zituen bere lanak izenpetzean.

Setaz ta barne-deiz olerkari zan A. Atutxa, zoriak ortarako lagundu ezpaitzion ere. Markiña'n ele-eder ikasle zala, 1927'ranta, zirriborratu zituen bere lenengo lanak itz lauz ta olerkitan; urte ortako «Euskal Esnalea»-n agertzen dira, gerora ere lau urtez beintzat ortan jardunik; baiña gero Txille ta bazterretan, beste arlo batzuei oratu bearra izanik, etzuen astirik ez gogo andirik izan neurtitz gaietarako, naiz-ta, berak dioskunez, euskal arnasa jatorrak ortara sarri bultz-eragin.

Arildu zitun gutun, artikulu ta olerkiak arnas berdiñez usaigo-zotuak daude. «Euskal Esnalea»-n eta Zornotzako «Karmen'go Argia»-n idatzi zigun geien bat; auetan dauzkagu «Izaki onak», «Txorizua», «Euzkera», «Leyotik», «Agur», «Basetxea», «Katua», «Urkiola»ra», «Kaskailluak», «Udabarria», «Larramendi'ko sorgiñak», eta abar. Nik nere *Milla euskal Olerki eder* gibelzerakoan, olerki batzuk eskatu nizekion, eta aitatu auetaz kanpo, etzuen aipatzerik ere gura izan; «beste nire olerki edo zereko zer guztiak erre-kara bota zeinkez», ziraustan apaltasunez.

Baiña ez, geroztik ere erabili zigun bere Iuma zorrotza. Txile'n ateratzen zan «Euzkadi»-n idazle izan zan, 1945'antza «Urlo» ize-nordez lanak firmaturik.

«MUGARRA BEGIRARIA» POEMA.- Aren lanik ederrena auxe dugu, *Mugarra bigiraria*, euskal poema bipilla, Karakas'eko «Gudari» argital-etxeak 1969'an atera ziona. 94 orrialde. 2.005 bertso guztiz. Euskeraz ta erderaz.

Esbestean zear aberri miñez bizitakoak egiña duzu poema au, ta badu garrantzia ziurki. Muiñari ikutu nai ezkeru, sarrera bezela «Argitasunak» dakarzki 15 orrialdetan; «Azalekotzat» ondoren, amar ahapaldiko poema, baita azkenean ere beste bederatziko bat, lan osoaren ertz eta zertzeladak berezituaz. Bion tartean, berri-z, auek: «Ataria» (5 ahapaldi), «Erbestean» (20 ahapaldi), «Ireltxuaren

deixa» (24 ahapaldi), «Gernika'rena» (36), «Aretxarena» (43), «Mugarra begiraria» (41), «Txabola ta yatorria» (43), «Urrunetik urrunera» (24), «Gauberan» (28), «Aindiako otsa» (14), «Eguantza» (21); amaieran iztegi txiki bat.

Mañari gaiñeko aitz-tontor ospetsua duzu Mugarra; egoaldera dauzka Oba ta Artaun errikkak eta urruti Gorbea, Lekanda ta Ganezogorta; iparraldera begitu ezker, Oiz, Bizkargi, Kantauri itxaso; sortaldera, Eskubaratz, Untzillaitz, Aillutz eta Anboto; sartaldera, Kañabete, Aramotz, Lemoatx. Olerkaria Oba'koa duzu, Mugarra'k bere arnas epelez seaska kulunkatu ziona.

Aita Atutxa beiñola, erbestez gogaitua, bere lurraren ezta goxartu nairik alderrai zebilela, Mugarra oifera iritxi zan, arkaitz onen kutsuz obeto jabetzearren, bere magalpe samurrean lo ere egiñik.

Olerkariak, gau-etzangua gertatu bitartean, onela dabes:

«Gogoeta goibelez
barrua ernari
ta babes egiteko
aitzulo illetari,
nondik emon burua
gaubeko loari?
Negarra litzakean
niretzat apari.
Zeru errukiorrak
orduana antola,
lorrez nenbillan oni
kentzeko aizola,
orko atxarte baten
zegoan potxola
ta bertan abia lez
gordeta txabola.

Ortxe aurkitu neban
gozozko babesa
atsedenaz amaitu
negian igesa
niretzat izanarren
atxarte oieza.
Or egin bear neban
itxarrik amesa.
Zoragarrizko abi
baita be gaugiro,
maiteagorik ezin
leikena ediro;
goietan illargia
igitzen geldiro
ta bean arranotsa
nentzuan aldiro».

Gisa ortan kantatzen digu 43 ahapaldiz aitz-zulo aretan izan zuen ametsa.

Gaztetxo zala arkaitz arte oietan sarri ibilli zan. Eta poema au burutzean, Pazifiku itxaso urrutiaren ur-egaletan biziagatik ere, maiz nabaitu oi zuen barnean gaztetako gomuten azkurea.

Poema-egilleak ba-du asmamenaren indarra. Zorrotza da, ta itz bakoitzari bere esan-nai zeatza ezarten dio. Maixuki borobilduta daude bertso guztiak. Geienez zortziko nagusia darabillen arren, ba-ditu beste neurkera batzuk ere, politak oso. 1935'an esaten zidanez, euskera gogoz ikasten ari zan, eta sakonki ikasi ere egin zue-nik ezin dezakegu uka.

(Ikus J. Bilbao, *Bibliografía*, I, 380 orr.; S. Onaindia, MEOE, 676 orr.; Auñamendi, IV, 138 orr.; A. Onaindia, *Zer*, 1982, orrilla, 7 orr.).

15.- JOSE ANTONIO GOIRIA MUNIOZGUREN (1908-...)

Ekiñak eta iraupenak ezin-esan besteko balioa dutenik ukatzen ezta iñor ere ausartuko. Ur-tanta meeak arria zulatzen duen beze-la, gizonak ere bere etengabeko ekiñez gauza arrigarriak lortzen dituna, ba-dakigu; iraupenak ondozondo laguntzen ba'dio batez ere. Doai biokin jantzia dugu Aita Goiria karmeldarra, euskal arrobi-ko lanari loturik.

BIZITZ-ZEAZTASUNAK.- Galdakano'n, Boroa ta Erletxe bitarteko Kortederra ibar ixillean, jaioa dugu 1908-10-25'an. Aita Karmeldarrak Larrean zeukaten ikastolan osotu zituen len-eskolak, baita ondoren eleiz-deia barnean oarturik, praille izateko bearrezko zitzazkion ikasketak. Berton artu zuen 1924'an Karmeldar jantzia, urrengo urtean garagarrillaren zortzian lekaidekundera egiñik. Gero, Markiña'n igaro zuen urtebete izkuntzak eta Letrak ikasten; Gazteiz'en ikasi zuen iru urtean Jakintza ta Begoña'n bi urtez Urtziztia. 1931'an, Erkal-garaiko lazka, istillu ta biurrialdiak zirala bide, Ameriketara jo zuen beste askorekin, eta an Kolonia'ko Leiva'n irugarren Teoloji urtea ta Medellin'en laugarrena ikasi ondoren, berton mezakotu zan 1933-1-29'an.

Apaizgoa artu ta gero, Kolonbia'n egin zuen batez ere bere arima-zaintza. Irakastegian naiz aitortegian nekegaitza izan zanik ezin dezakegu uka; ezta egundo alperkerian arrausi egitekoa izan, mundua berritzu naiez Kristo'ren irakatsia zabalaztekoa baizik. Orrela aitu zizkigun ainbat urte. 1945'an Frontino'ko nagusi ta parroku izan zan. Azkenik —aberri-miñari ezin eutsita bear bada—, Panama'n sei illabete osoturik, Euskalerrira biurtu zan, eta arrezkero, emen dabil Begoña'n, Larrea'n eta Eibar'en, era ta modu askotara Berri Onaren azia ereiten, Euskalerritari obe-arnasa ezartzeko noski. 1959'garren urterantza asita, iru urtez Arrate'ko irratitik itz egin zigun astero ordu-erdi.

EUSKAL [DAZLE.- Gaur ere, euskera jatorrean mintzatzen dira Kortederra'n. Aita Goiria'k, euskaldun guraso zintzoai esker, poliki zekien amaren magal berotik; baiña gero ere egin zuen alegiñik, gure izkuntzak dituen barrunbe ta kosketaraiño iritxi nairik. Eta beingoan idazle itzuli zitzaigun: Markiña'n elertia-ta ikasten zegoe-larik asi zan idazten Donostia'ko «Euskal-Esnalea»-n; aldizkari onen sariketak zirala-ta, ipuiñak eta olerkiak bialtzen zitun aietara. Ameriketatik zebilela «Jaungoiko-Zale»-n, «Karmen'go Argia»-n, «Ekin»-en, «Euzkadi»-n eta «Euzkerea»-n beintzat idatzi zuen. Gerra ondoren, berriz, «Euzko-Gogoa»-n, «Euzko-Enda»-n, «Egan»-en, «Goiz-Argi»-n, «Anaitasuna»-n, «Karmengo Amaren Egutegia»-n, «Karmel»-en, «Olerti»-n, «Agur»-en eta abar.

Bost liburu ere argitara emanak ditu:

1) *Berrio-Otxoa'ren Bizitza* (Bilbao, 1952). 96 orrialde. Aita Domekarrak argitaratuta. A. Ibiftagabeitia'k, liburu onen kritika egi-tean, gure arteko santuak ez dutela euskerarik erabilli beren idazlanetan esan ondoren, au gaiñeratzen du: «Berriotxoak beintzat amari egin zizkion eskutitzak euskeraz idatzi zituen eta ortxe dauzkagu santu ortz-argi orren gutun zoragarriak. Bai benetan xamurrak! Besterik ez da ere gogoz maite bear genuke euskal idazleak Berrio Otxoa zorionduna. Beraz txdo beroenak merezi ditu Goiria Aitak egin digun liburutxoagatik» (*Euzko-Gogoa*, 1952, 7-8, 32 orr.).

2) *Karmen'go Eskapularioa* (Bilbao, 1953). Graficas Bilbao. 199 orrialde.

3) *Fatima'ko Ama Birjiña* (Bilbao, 1955). Graficas Bilbao, 260 orrialde.

4) *Goi-Bidez* (Bilbao, 1969). Graficas Bilbao irarkolan. 423 orrialde. Gogo jardunetarako lana da, lan arnasa aundikoa; sail orretan utsune galant bat betetzen diguna. Onela dio egilleak itzaurrean: «Euskera, zori onez, bidea egiñez doa, azkeneko urteotan batez be. Aurreko urteotan Erroma'n ospaturiko Eleiz-Batzar nagusiak gure izkuntzari indar andia emon dautsola ezin daikegu ukatu. Liturji-barriztea dala-ta, euskera oso-osoan sartu da eleizetan.

5) *Kristoren Eliza* (Bilbao, 1971). Graficas Bilbao irarkolan. 259 orrialde. «Aldaketa ta barrizte asko ta aundiak —dio egilleak— izan ditu munduak azkeneko urteotan. Asmaketa izugarriak ikusi ditu gizonak. Illargi ganean be jarri ditu bere oiñak. Munduko ertz batetik besteraño entzun-erazi leike gizonak bere abotsa. Asmaketok maitagarriago, pozgarriago, lilluragarriagoa egin leikie lurreko bizitza. Elizak be izan ditu aspaldion bere aldaketak eta barrizteak batez be Bigarren Batikano Batzarraren ondoren. Eta barrizteok malkalu ta indargetu bearrean, sendotu egin dabe Eliza. Gaurkotasuna emon dautsoe. Elizak arpegi barria dau gaur. Bizitza alai-joria. Xerarkiari buruz barrizte egokiak egin dira. Orobar laikoai buruz. Xerarkiaren eskuetan eta ardurapean egoan len Eliza, laikoa erdi-baztertuta. Laikoak ba-dau gaur bere arloa, bere eginkizun berezia Elizan. Diakonadutza barriztu egin da ta ainbat laiko egin dabez diakono Gotzaien eta apaizen lagunkide izan daitezen Kristoren erreinuaeren zabalkundearen».

Gaiok dira A. Goiria'k liburu onetan arrotzen dizkigunak. Oetzaz etziran eztabaida gutxi erabilli aitaturako Batzar nagusian; baiña Aita karmeldarrak eztu lipizta ta eztabaidarik gura: erriarentzat idazten du, ta Batzar arek gero atera zituen agiri ta dokumentuak begi aurrean ditula, mamiñez mamin, osatzen du bere liburua. «Laturpen eta zabalkunde lez egiña da —diosku— asko sakondu gabe, erriarentzat bait da geien bat».

Izkerari begira ere, berebat esan bear. Lau ta errez idazten du A. Goiria'k idazten duen guztia. Garbi, baiña edozeiñek ulertzeko moduan.

6) *Gernika'ko Arbola* (Bilbao, 1983, 36 orr.). Teatru-lana.

Beste lan batzuk gertuta dauzka, baiña argitara gabe:

1) *Sinismena ta Agerpena*. Eun bat orrialde aundi 50 bat atalekin. Arrate'ko irratitik edarazitako itzaldiak noski; 2) *Egi-izpiak*. Batzuk or-emen argia ikusi duten arren, geienak argitara gabe dau-denak; idazlan mordoa, danetarik; 3) *Jaungoikoa*. Jaungoikoari bu-ruzko 300 orri edo folio.

(Ikus *Euskera*. 1935, III, 676 orr.; *Euskai Esnalea*, 1926, 36 ta 234 orr.; *Euzko-Gogoa*, 1956, *Azilla-Gabonilla*, VII, 87 orr.; Auñamendi, *Literatura*, IV, 154 orr.; S. Onaindia, *MEOE*, 1954, 742 orr.; ta *Larrea eta Karmeldarrak*, 96 orr.; Jon Bil-bao, *Eusko Bibliographia*, IV, 68 orr.).

16.- JOSU ALTUNA ETA MENDIOLA (1909-1989)

«Amazortzi urte nituaneko —dio Altuna'k—, korapillatuta nen-guan abertzaletasunean. Orduan konturatu nintzan Euskerak euskotarrantzat dauan garrantziarekin; lotsatu egiten nintzan eus-keraz ez idazten, ez irakurten ez jakiteaz; eta, neure kautan, zin egin neban euzkeraz idatzi ta batez bere irakurten ikasteko: uste dot ler-tu egingo nintzala ori lortu ez ba neban. Lenen Lopez-Mendizabal'dar Ixaka'k argitaratutako iztegitxua erosi neban, eta ene anai Patxi'rekin ikasten nebanekin asi nintzan «Euzkadi» egun-karian idazten». Imanol Ertzeko ur-sorburuaren antzera, zio eze-rezak izan oi dira sarri idazle bat jalgi-azteko.

Zornotza'n, Boroa auzunean jaio zan Altuna, Parola-Bekoa basetxean, 1909-4-7'an. Bere aita Ander, Dima'ko Atutxa basetxekoa zan jaiotzez, eta ama, Larrabetzu'ko Mendigana edo Txispamendi'koa. Amabi anai-arreba izan ziran, Josu bederatzigarrena; aberetza aundia zuten etxean, artalde, basabei, zaldi, beor, auntz eta gaiñetiko, ta danentzat izaten zan zeragiña.

Zornotza'ko eskolan ibilli zan, baiña ez askorik: lau kilometru lez dagoz bere etxetik eta ibilte exkaxa noski, goiz ta arratsalde, orrela jardun bearra zerbait ikasteko. Irakasleak, euskal-zale izan arren, agintarien esana bete bear eta irakaskintza guztia gazteleraz zan, naiz-ta umetxoak tautik ere ez ulertu. Josu, ala ere, lotsatu egin oi zan ezer ez jakiteaz, eta alegifiak egiten zituen pixkat ikasteko.

Amalau urte zituela, bere guraso ta anai-arrebakin Galdakano'ko Gumuzio (Erletxetara) auzunera joan zan. Eta bertatik lasterrean asi zan ille-moztzaille, ta erderaz ikasten eta erabat Erletxetako auzo-ikastolako irakasleme batekin gaez eskola geiago artzen. Ez zuen ezjakin kutsurik nai.

Kirol-zale gaztetatik, amasei-amazazpi urteko asi zan mendirik mendi ibiltan ere, Euskalerrriak ditun edertasunez jabetu nairik. Mendi-zale amorratua izan da beti. 1924-5-18'an sortu zan Elgeta'n «Euzko Mendigoizale Bazkuna», eta talde orretakoa dugu Altuna. Beronek sortu zituen gero olako taldeak, Galdakano'n «Eguzki-indarra», Usansolo'n «Euzkadi-gaitik», eta abar. Ogei ta iru urtedun zala, erriko Uri Buru Batzarreko idazkari izentatu zuten. Erri-askatasunaren alde leial jokatu zuen nun-nai ta beti.

Guda-aldian, Euzkadi'ko Ertzaiña sortu zanean, bertan sartu ta amaituarte bertan jarraitu zuen. Mendietara ere egin zituen irtenaldi batzuk bere lagunekin, Urkiola aldeko mendietara ta abar. Guda ostean, espetxean egon bear izan zuen iru urtean, Bilbao'n, Gazteiz'en eta Miranda'n. Ondoren etxeraturik, lengo lanari oratu zion berriz ere, ille-mozteari; eta lengo kirol-zaletasunari.

EUSKAL IDAZLE.- «1933'gko orrillean —diosku Altuna'k—, atzerrizale ezkertar mordo andi bat Usansolo'ratu zan bertoko Batzokia ondatu ta abertzaleok zigortuteko asmuaz, baiña bertoko mendigoxaleok agiñak erakutsi geuntsezan, bertan, Batzoki ondoan dunbots (tiroteo) gogor bat sortuaz». Gazte bat eta emakume bat jausi ziran bertan, illik.

Alkar-arteko burruka ta goraberak zirala-ta, ainbat idazlan atera zituen Bilbao'ko «Euzkadi»-n geien bat; «Euzko-Deya»-n, Donosti'ko «Argia»-n eta «El Dia»-n erriko izparrak azaldu zizkigun ba-

tez ere. Guda baiño lentxoago ezkondu zan, maiatzean, eta ezkonbarri oratu zion gerra zorigaiztokoak. Bilbao'ko agerkarietan «Basakiña» —Gumuzio'ko Basakiña-Barrenako basetxea— erabili zuen; Donosti'tikoetan, ordea, «Atarjo». Gerra ostean «Zeruko Argia»-n, «Anaitasuna»-n, «Agur»-n eta «Pyrenaica»-n idatzi izan du, «Basa-jaun» izenordea ospetsu egiñik. Izenorde au mendigoizaleak ipinitakoa omen da, mendirik mendiko bakar-ibilteakaitik.

Ba-du idaztixxo bat ere, liburu gisan: *Menditar Artezari Laburra* (Bilbao, 1962). Euskeraz ta erderaz. Lenengo aleak beingoan saldu ziran eta oraintsu egiña da bigarren ekoizpena ere. Mendigoizaleentzat eta lurra egiaz ezagutu nai duten guztientzat, liburuxka oso bikaiña.

(Ikus J. San Martin, *Escritores euskericos, Apéndice*, 1969, 9 orr.; Auñamendi, *Literatura*, IV, 164 orr.).

17.- SEBASTIAN ATUTXA TA ATUTXA (1909-1964)

Lemona, aitz arteko errixka, kare-beltzez bikain dugun bezelaxe, euskal idazlez ere txitozko arrobi dugu.

Aita Sebastian (erriz Justo) karmeldarra ementxe jaio zan 1909-5-27'an. Bere gurasoak: Gregorio ta Mari Antonia, Elgorriaga auzotegikoak. Auek esku-goxoz azi ta ezi zutenez gero, goi-deia oartzuz bere barrenean, amabi urtekin, Gabon aurretxoan, sartu zan. Larrea'ko ikastetxean. Ni ere orduantxe 1921-12-4'an sartu nintzan; biok, beraz, arrezkero guztian alkarrekin ikasi ta ibilliak gara. Gabon ostetik urrango ikastarorarte, orduan kanpokoentzat eta barrukoentzat zegoen toki berezian ikasi genduen, Araba'ko seme argi Gregorio Anaia irakasle gendualarik.

Gero ere, alkarrekin osotu genduen eliz-karrera guztia: Larrea'ko aztetxean karmeldar jantzia artu, 1927-7-10'an profesa egin, Markina'n urte bete, Gazteiz'en iru ta Begoña'n lau urtez Jakintza ta Teologia-gaiak ikasi ta 1934-7-8'an mezakotu ondoren, A. Atutxa urrango urtean Larrea'ko ikastetxera bialdu zuten nagusiak, ume-

txoen maixu; ni, ostera, Zornotza'ko komentura, eliz arazoetan ari izateko. Gerra aldian or-emen ibilli giñan biok gudarien apaiz. Baita ondoren alkarrekin —eta beste 34 apaiz ta prailleekin— giltzapean egon ere —Nanklares-Oka'n, Dueñas'en eta Karmona'n— 1937'tik 1940'ra iru urtez; Karmona'tik etxeratzean, 1940-8-5'rantza, ni Hoz de Anero (Santander)'era bialdu ninduten nagusiak, eta A. Atutxa Soto-Iruz'era; ementxe bizi izan zan lemoatarra amaika urtetan, Villasevil eta Santiurde'ko txauburu urte askotan eta komentuko nagusi 1948-1951'ra bitartean izanik. Garai artan koroatua izan zan El Soto'ko Andre Maria, A. Atutxak ainbat lan egiñez,

1951'an Markiña'ko nagusi izendatu zuten, eta Euskalerrira etorri al izan zuen. Emen ere iru urtez pozik lan egin zuen, etxeko arazoak artez eramaten eta Jainkoaren itza aspertu gabe inguruko errietan zabalazten. Urrengo nagusi batzarrean, berriro izendatu zuten Altzo'ko lekaretzeko buru, eta ementxe bizitu zan, lanari emana, 1954'tik bere eriotzararte. Biotzetiko miñak gaizki zerabillen, eta 1964-10-22'an, egun batzuk igarotzera joanda Eibar'en aurkitzen zala, meza ematera zijoelarik, biotz-dardarak artu ta Eleizakoak arturik, azken arnasa eman zuen.

EUSKALTZALE.- Aita Atutxa berandu xamar euskal arlorra agertu zitzaigun arren, mutikotatik zan euskaltzale errime. Lenengo ikastaroetatik asi giñan euskeraz ikasten, emen Larrea'n orduan geuzkan —eguen-igandetan dotriña, kanta ta itzulpen laburrak— gaiak sakontzen noski, A. Ermenegildo Manzisidor, A. Roman Urtiaga, Anjelo Jauregi ta Gotzon Iturbe, irakasle jatorrak sustatuta batez ere. Auek izan ezpa'lira, guk nola jokatu? Onelako arnas-emailleak, ez ukatu!, nainoz ditugu txalogarri.

Ikasle aroan asi giftan euskeraz idazten; «Karmen'go Argia» sortu zanean, 1931'an, batez ere, gu Gazteiz'en Filosofi-urteetan genbiltzalarik. Prosaz eta bertsoz jarduna duzu A. Sebastian; ez zarata-tsu, ixillik baizik. Geroago, Altzo'n aurkitzen zala, «Karmel»-ek argitaratu zituen bere Ianak. Antxe itzuli zigun baita Lisieux'eko Teresatxo Deunaren *Novissima Verba* (Azken itzak); Aita Narkis Garate azkoitiarrarekin bizi izan zan Altzo'n eta biok zebiltzen alkarren leian gure egunotako Santa lilluragariaren idazlanak eus-

keraz jartzen: alkar lana egin zuten geienez. Garate'k prantsesetik zuzenean itzuli zuen *Histoire d'une Ame*, edo obeto, *Manuscripts autobiographiques*; eta A. Atutxa'k *Novissima Verba* batez ere. Biok dauzkagu oindio argitarara gabe.

Poliki zekizkin bai bizkaieraz eta bai gipuzkeraz. Eliz-izlari tre-be ere ba-genuen.

(Ikus N. Kortazar, *Cien autores vascos*, 55 orr.; ta *Bol. Am. del País*, 1964, 4^{na}, 474 orr.; *Acta Ordinis Carmelitarum Discalceatorum*, 1966, fasc. 11-12, 399 orr.; J. San Martin, *Escritores euskericos*, 44 orr.; Auñamendi, *Literatura*, III, 443 orr.; eta *Diccionario*, III alea, 225 orr.).

18.- SANTIAGO ONAINDIA BASETA (1909-...)

Lekeitio'tik bost kilometrora dagoen Amoroto erritxo lerdenean jaio nintzan, Atxuriarte baserrian, 1909-11-24'an. Nere aita markinañarra zan eta axpetarra ama, ta bost seme-alaba izan zituzten, ni irugarrena nintzala. Gaztetxo, 1921'an, aitak praille ekarri ninduen, aspaldiko urteetan bizi naizen Larrea'ko bazter zoragarri ontara. Leenengo ikasteak bertan egin ondoren, 1926'an artu nuen karmeldar jantzia, urrengo urtean 1927-7-10'an profesia eginik. Markina'n, Gasteiz'en eta Begoña'n osatu nuen eliz-karrera, 1934-7-8'an meza berria esanaz. 1935'ko iraillean Larrea'ra bialdu ninduten nagusiak.

Urrengo urtean, garillez, ni Karmen'go Amaren bederatziruena predikatzen Eibar'en nengoela, gudaren txinpart-otsak asi ziran zart egiten. Urte orretan, Gabon aurretxoan, Korta jaunak, gudarien kapillauen buru zanak, beste askori bezela niri ere dei egin zidan kapillautzarako: kanpanzar, Sagasta, Intxorta bitarteko guda-oiñera igorri nindun, «Kirikiño» gudari-taldeko arduradun. Igandetan meza esan, zaurituai lagundu, auxe izan zan batez ere nire arazoa. Geroago Ubera'ra ta Basalgo'ra aldatua izan zan gure taldea, eta an izan giñean 1937-4-25'ra arte; egun orretan, igandea bait zan, goizeko amarrak doi-doi, ni meza emateko nengoela, tiro-zaparrada izugarria goitik eta beetik... Gaeuz Eibar'era jatsi gifian, eta andik

Ermu ta Mallabi'tik zear Gernika'rantza. Ondoren, Bizkargi, Solube, Geldos, Artxanda, Somorrostro, Truzios, Gibaja, Guriezo, Laredo... or gure ibilteak.

Emen atzilotua, El Dueso'n 1937-8-26'tik 1938-11-12'ra arte. Gero, apaiz eta praille gudari kapellau ta beste batzuk mordoa egiñik, Oka'ko Nanklares'en, Venta de Baños'en eta Karmona'n, osatu genduen iru urteko kartzela egotaldia. 1940'ko garillean, loturak eten eta Hoz de Anero (Santander)'eko komentura bialdu ninduten nagusiak, gero Gasteiz'era eta Logrofto'ra. 1948-4-17'an Hoz de Anero'ko nagusi izendatua izan nintzan; 1951-4-14'an Larrakoa; 1954-5-8'an Eibar'ko nagusi-ordeko; 1957-8-7'an, Larrakoa berriro; eta arrezkero guztian emen bizi naiz, bertoko nagusi bederatziretan izanik eta eliz-arazo ta liburuetan buru-belarri sarturik.

EUSKAL IDAZLE.- Umetan ainbat gauza dauzkagu barruan erremenin, eta gazteen ezitzaileak batez ere zenbat on egin ditzaken lurra ler-nairik barne ditugun eta bizitza guztirako esan-nai ikaragarria duten zaletasun oiek azaleraturik. Olakoak izan nituen nik ikasle nintzala eta iñoiz ere ez ditut eskertu bear aiña ongille oiek. Nik euki nituen irakasleak egiatzko euskaltzaleak izan ziran.

Eta eurak erakutsi zidaten idazten. Larrako Ikastetxean ikasle nintzala bertoz eta prosaz ari nintzan, Donostia'ko «Euskal Esnalea»-ra ta, lantxoak bidali eta sariak ere eskuraturik: onek bait du bizi-azten idazlea. Gasteiz'en Filosofia ikasten negoela Cervantes'en «La Gitanilla» jarri nuen euskeraz, eta saria irabazi. Eta artikuluak idatzi ementxe ateratzen zan «Karmen'go Argia»-n, eta Toloosa'ko «Pyrenaica»-n (1929). Orrez gaifi, «Ekin», «Yakintza», «Eguna»-n eta «Euzkadi»-n ere ainbat lantxo idatzi nitun, gerra aurretik. Espetxean, izkuntzak ikasten eman nuen denbora; baita Silvio Pellico'ren «Nere Espetxeak» eta Jonathan Svift'en «Gulliver's Travels» euskerara itzuli ta euskal gramatika bat antolatu ere.

Ez, euskera maite duena ez dago iñoiz geldirik. Hoz de Anero'n aurkitzen nintzala, 1951'an Karmen'go Eskapularioaren zazpireungarren urtea zala-ta, jazokun aintzagarri au, bear bezela ospatzeko, zerbait egin nai izan nuen. Zer? «Karmen'go Amaren

Egutegia» sortu, artikulua, poesi, kantu ta beste, 130 orrialdeko liburu txanbeliña, gero ere bost urtetan beintzat atera zana. Ortik eratorria dugu ondoren «Karmel» aldizkaria, gaur ere naikoa bizkor dabillena.

Arrezkeroko nere ardurazko idaztiak iru sailletan banatuko ditut: 1) Jatorrak eta argitaratuak; 2) Itzulpenak, eta 3) Erderazkoak.

Jatorrak eta bildumak:

1) *Milla euskal Olerki eder* (Zarautz, 1954). Itxaropena'ren irarokolan, 1.199 orr. Liburu onek izan zituen aldekoak eta etsaiak. Aldezkoen artean A.M. Labaien'ek onela: «Kemena bear zan orelako asmoa aurrera eraman al izateko eta ezin uka Onaindia A.'k adorea gañezka izan dunik. Bertsoaldi ori guzia aztertu ta aukera egin, gero liburu bat osatzeko, lan gaitza zan. Idazti bikain, jori ta mardula... Liburu eder ortan orain-dañoeko euskal Olerki osoa arkitzen dugula esan diteke: antxiñako guda-kanta zaarretatik asi ta egun-dañoeko gazte berri-zaleen itz-neurtu «zazpiki»-etaraño. Bidez-bide erritar bertso, maite lelo, irri-kopla, jainkotiar kantika ta gure liriko ikasien olerki garaienak agertzen dizkigularik» {*Egan*, 1954, 2-4, 43 orr.).

Etsaien artean, berriz, A. Villasante ezik, euskal literaturak idatzi dituzten guztiak zenbatu ditzakegu. L. Mitxelena'k ezta aipatu ere egiten, naiz-ta nere izena bai oar baten maxiokari gisa; etzaio itxura danez eder jakintsuak eta erriak ain ondo artu zuten euskal literaturari buruzko, Orixe'ren «Euskal-literaturaren atze edo edes-ti laburra» (1927) eta P. Lafitte'ren «Euskaldunen Loretegia» (1931) kanpo, bildumarik zaarrena; ondorengo guztiak ortaz baliatu izan dira.

2) *Goi-zale* (Gasteiz, 1956). «Otoitzak», «Kristo'ren Antz-bidea» ta «Eraspenak». 544 orr.).

3) *Olerkiak*. Arrese-Beitia'renak (Bilbo, 1957). Bilbao irarkolan. 688 orr.

4) *Bertso berri ta Kanta zar*. I eta II (Bilbo, 1957). Bilbao irarkolan.

- 5) *Xabierto*. A. Onaindia'k bizkaieraz (Bilbao, 1959). 142 orr.
- 6) *Oleri*, aldizkaria (Bilbo, 1959-1970). Poesi-ingurraztiak. Urtean 4 ale. Ale bakoitzak 64 bat orrialde.
- 7) 70 *Meza-fitxa* (Lizarrar, 1960). Igande ta jaietako irakurgaiak eta Ebanjelioak.
- 8) *Eguneroko Meza* (Bilbo, 1963). Ellakuria irarkolan. 859 orr. J. Kerexeta'k eta biok egiña.
- 9) *Gure Bertsolariak* (Bilbo, 1964). 336 orr. J.A. Agirre «Saria» irabazi zuen 1965'an. Euskal bertsogintzari ta bertsolariai buruz egiñiko libururik bete osoena.
- 10) *Ondarrak* (Bilbo, 1964). 264 orr. Txomin Agirre'ren idaztalik ederrenakin osaturiko idaztia.
- 11) *Jolasketa* (Bilbo, 1965). Ellakuria irarkolan. 583 orr. Jolas, abesti, poesi, ipuin eta irakurgaiz ornidua. Maisu ta andereñoentzat arrobi bikaiña.
- 12) «*Orixe*» *Omenaldi* (Donosti, 1965). 323 orr. Neuk antolatu nuen, naiz-ta beste batzuk ere eskua sartu.
- 13) *Enbeita Oleskaria* (Zarautz, 1966). Kuliska Sortan dator, 59 zenbakian.
- 14) *Abarrak*: 1) Abarrak; 2) Bigarrenko Abarrak eta 3) Eta abar... (Bilbo, 1966). 335 orr.
- 15) *Larrea eta Karmeldarrak* (Bilbo, 1968). Bilbao irarkilan. Larrea'ko kondaira dakar, naikoa zeatz. 122 orr.
- 16) *Goiznabar* (Bilbo, 1970). Bilbao irarkolan. 242 orr. 1929'tik 1950'ra egiñiko olerki-lanak, 4 sailletan bananduta. Guztiz 149 olerki.
- 17) *Gure Urretxindorra: Enbeita'tar Kepa* (Buenos Aires, 1971). «Ekin» argitaldaria. 232 orr. Or-emen sakabanaturik zeuden aren olerki edo oles-kanta denak, esan dezakegu, bildu dira liburu ontan; azkenean 30 doiñu datoz ark geien erabilten zituenak.
- 18) *Euskal Literatura* (I). (Bilbo, 1972). 295 orr. XVI, XVII eta XVIII mendeak.

- 19) *Euskal Literatura (II)*. (Bilbo, 1973). XIX mendea, 375 orr.
- 20) *Euskal Literatura (III)*. (Bilbo, 1974). Bi menderen artean, 1896-1920. 411 orr.
- 21) *Euskal Literatura (IV)*. (Bilbo, 1975). 20'garren mendea. 445 orr.
- 22) *Euskal Literatura (V)*. (Bilbo, 1977). 1915-1940. 461 orr. VI'garrena laster agitaratzeko da, eta zazpigarrenarekin bukatuko dugu euskal literatura jakingarri au.
- 23) *Olerkiak: Lauaxeta'renak* (Bilbo, 1974).
- 24) *Eskutitzak* (Bilbo, 1974). 302 orr. Jasoriko idazkietatik nere ustez euskal literaturaz zer-ikusia zeukatenak gorde egiten nitun eta oiekin osatua duzu bilduma au.
- 25) *Azkatasunaren Yarrai* (Zornotza, 1978). Bilbao irarkolan. 422 orr. J.A. Agirre Iendakariaren «De Guernica a Nueva York pasando por Berh'n», Gerenabarrena'tar Andoni'k euskeratua.
- 26) *Euskal Eleria* (Zornotza, 1978). Graficas Bilbao. 230 orr. Eundaka argazki ta marrazkiz ornidutako liburu bikaiña.
- 27) *Lamiñak* (Zornotza, 1978). Graficas Bilbao. 215 orr. Bizkaiko erri askoren edestia ta lamin-ipuiñak. «Klasikua», Luis Aros-tegi'ren iritiz.
- 28) *Bigarrengo Abarrak* (Bilbo, 1980). Bilbo'ko «Kirikiño» li-burutegiaren laguntzaz eta adei onez egiñiko argitalpena. 206 orr.
- 29) *Olerti-1981* (Bilbo, 1981). Igarri irarkolan. 152 orr.
- 30) *Olerti-1982* (Bilbo, 1982). Igarri irarkolan. 171 orr.
- 31) *Santa Teresa* (Bilbo, 1981). Igarri irarkolan. 130 orr. M.T. Agirrekoikoa'ren marrazkiekin.
- 32) *Euskaldunak eta osasuna* (Bilbao, 1984). «Igarri» irarko-lan. 180 orr.
- 33) *Arana-Goiri'tar Sabin Olerkari* (Bilbao, 1982). «Igarri» irar-kolan. 16.
- 34) *Nere Baserria* (Poemak). Bilbao, 1985 «Igarri» irarkolan. 188 orri.

35) *25 Antzerki labur.* (Bilbao). «Igarri». 167 orri.

36) *Olerki guztiak* Lauaxeta. (Bilbao, 1985). «Igarri» irarkolan. 523 orri.

37) *Gernika.* 1987. (Bilbao) «Igarri» irarkolan. 158 orri.

ITZULPENAK:

1) *Iru poema.* R. Tagore'nak (Zarautz, 1963). Kuliska Sorta, 53 zerbakia. 76 orri.

2) *Onbidea* (Bilbo, 1963). Santa Teresa'ren «El Camino de Perfeccion» euskeraz. Ellakuria irarkolan. 279 orri. Aita Lino Akeso-lo'k eta biok itzulia. Geigarriak: 1) Biotz-oiuak; 2) Olerkiak, eta 3) Esanak.

3) *Bergili'ren Idazlanak osorik* (Bilbo, 1966). Bilbao irarkolan. 382 orri. Lateratik euskerara emanak, A. Ibiñagabeitia'k «Unai-Kantak», eta «Ahoz-Kantak», Aita Onaindia'k «Enearena». Marrazkiak: Elorriaga'tar Xabier'ek.

4) *Giza-bizia* (Bilbo, 1968). Bilbao irarkola. VI'gn. Paul Aita Santuarren ezkontzari buruzko «Humanæ vitæ» enziklikea euskeraz, beste zer batzuekin. 64 orri.

5) *Kolonbiar Olerki-txorta: Parnaso colombiano en euzkera* (Buenos Aires, 1968). Euzkal Argitaldaria. 257 orri. Frantzisko Abris-keta'k eskatuta, A. Akesolo'k, J. Beistegi'k, Iñaki Goikoetxea'k, Sabin Muniategi'k eta nik osatu genduen itzulpen au. Luzuriaga'k egin zizkion marrazkiak.

6) *Nirea, zurea, gurea* (Zornotza-Euba, 1979). Bilbao irarkolan. 117 orri. Erlejiño liburua, 4'garren maillako gazte-ikasleentzat.

7) *Intxorta mendiko burrukaldiak* (1936-1937): Los asaltos al monte Intxorta (Bilbao, 1980). «Bidaso» ingurraztiak. Pablo Bel-darrain Olalde, «Martiartu» guda-taldeko buruzagiak erderaz egi-ña. Erderaz eta euskeraz. 141 orri. «EI Noticiero Bilbaino» irarkolan.

8) *Intxixu ta Lezeko* (Bilbo, 1982). Desclee de Brouwer'ek eta «Geu» Argitaldaria irarria. 242 orri. Jon Arkotxa Goikoa'k eta Leslie Mackenzie'k idatzia, iduritu ta arpikotua. Ikur: «Antxiñako jen-

tillen ezpiritua Euskalurrera biurtu da». Liburu bitxia, bai itzez eta bai iduriz.

9) *Egoitzak eclo Barne Gaztelua* (Lizarra, 1981). 239 orr. Santa Teresa'ren «Las Moradas».

10) *Danzas de Guipuzcoa* (Bilbo, 1968). 299 orr. J.I. Iztueta'ren «Gipuzcoaco Dantza gogoangarriak» erderaz. J. Maria Retana'k bere «La Gran Enciclopedia Vasca»-n.

11) *Poema amaitu bakoa* (Bilbo, 1969). Luis Arostegi'ren «Poe-mas inacabados». 97 orr. 31 olerki.

12) *Jainko Antzerkia*. Dante'ren «Divina Commedia» euskeraz. (Bilbao, 1985). «Igarri» irarkolan. 366 orri.

13) *Odisea*. Homero'ren «Odisea». (Bilbao, 1985). «Igarri» irar-kolan. 336 orri.

14) *Faust*. Goethe'ren «Der Faust» euskeraz. (Bilbao, 1986). «Iga-rrri» irarkolan. 305 orri.

15) *Ipuñak*. Pio Baroja'ren «Cuentos» euskeraz. (Bilbao, 1987). «Igarri» irarkolan. 200 orri.

ERDERAZ:

1) *Sed de almas* (Donostia, 1959). 104 orr.

2) *Leyendas y tradiciones de Navidad* (Bilbo, 1979). 56 orr.

3) *La Navidad en el Museo de Bellas Artes de Bilbao* (Bilbo, 1980). Jabier Bengoetxea ta Jon Juaristi'rekin batera. 62 orr.

Gerra ondorengo aldizkaririk geienetan idatzi dut zerbait: «Euzko-Gogoa», «Karmel», «Egan», «Zeruko Argia», «Jakin», «Aranzazu», «El Bidasoa», «Agur», «Olerti», «Principe de Viana», «Deia», «Zer»... euskeraz. Eta erderaz, Logroño'ko Karmen parroikiko «Hoja Dominical», «La Obra Maxima». «El Mensajero del Escapulario del Carmen», «El Correo Español», Donostia'ko «El Pueblo Vasco», ta abar.

Bestalde, eliz-izlari legez ibillia naiz Bizkaiko errietako eliza ta ermita geienetan; baita ostantzeko jardun-aldi ta solasak berein to-kitan eman ere.

ARGITARATZEKO:

1) *Auzia*, Burgos'ko epaia; 2) *Begoña'ko Ama*, kantak eta edes-
tia; 3) *Kontu-kontari*, ipuiñak; 4) *Euskalduna bere zaarean*, Bizkai
Aurrezki Kutxak sarituriko lana; 5) *Iparragirre*, nobela; 6) R. Ta-
gore'ren *Lau poema*: 7) Horazio'ren *Odak*, eta abar.

(Ikus P. Lafitte, *Gure Herria*, 1955, XXV, 148 orr.; A. Ibiñagabeitia, *Euzko-Gogoa*, 1955, 1-2, 31 orr.; Bitañó, *El Bidasoa*, XI, 1955-7-16 eta 1955-8-20'an; B. Ataun, *Euzko-Gogoa*, 1956, VII, 16 orr.; J.M. Leizaola, *Euzko-Gogoa*, 1956, VII, 8 orr.; J. San Martín, *Egan*, 1965, 1-6, 161 orr.; Erdozainzi-Etxart, *Gure Herria*, 1965, 1 zenbakia, 61 orr.; M. Lekuona, *Egan*, 1963, 4-6, 234 orr.; N.A.G., *Egan*, 1967, 1-6, 131 orr. eta 1968, 1-6, 147 orr.; M. Zarate, *Bizkaiko euskal idazleak*, 1970, 245 orr.; Auñamendi, *Literatura*, IV, 159 orr.; J. San Martín, *Escritores euskericos*, 142 orr.; K. Etxenagusia, *Euskal idazleak bizkaieraz*, 281 orr.; Joan Mari Torrealdei, *Euskal idazleak gaur*, 375 orr.; J. Bilbao, *Bibliografía*, VI, 273 orr.; Enrique Zabala, *Euskal Alfabetatzeko Literatura*, 229 orr.; L. Villasante, *Literatura vasca* (Madrid, 1972), 298 orr.; S. Onaindia, *Euskal Elerlia*, 197 orr.; Zelia Lopez Sainz, *Quien es quin en Vizcaya*, (Bilbao, 1975, 282 orr.).

19.- IÑAZIO OMAETXEBARRIA MARTITEGI (1909-...)

Aita Prantziskotarra. Gernika'n jaio zan 1909-7-29'an. Ume eskolak eta nagusiak bertan egiñik, Arantzazu'n, Miinchen'en eta Gradbach'en burutu zituan eliz-karrerakoak. Langillea oso. Ordena barruan urteetan irakatsi izan du Teologia, sarri izanik Aita Nagusiaren aolkulari eta an-or-emen komentu-ikerle ordezkari.

Idazle bezela, luma beti erabilli izan du atz-artean. Eta «hobby» gisan gairik begikoena mixioeri buruzkoa izan dau nainoiz. «Misiones Franciscanas» eta «Cantabria Franciscana» zuzendu ditu, orrezaz gaiñera «Catolicismo», «España Misionera», «Misionalia Hispanica», «Aranzazu», «Archivo Ibero Americano», «Revista de Indias», BAP eta olakoetan ainbat artikuluru idatzirik; «Aranzazu»-n eta BAP-en batez ere euskal erriari dagozkion gaiak dantzatu dizkigu.

Erderaz aipagarri dira urrengo lanok: 1) *Sangra vizcaina en los pantanos de Florida* (Fr. Francisco de Beraskola, O.F.M.)

(1564-1597). Martir natural de Gordejuela (Vizcaya), Gasteiz, 1948, 214 orr.; 2) *Heraldo del Gran Rey en California* (Fr. Pablo Jose de Mugartegui en su marco social y misionero), Bilbao, 1959, 333 orr.; 3) *A la sombra Gengis-Khan* (Fr. Pascuel de Vitoria), Madrid, 1960; 4) *Una victima perfecta* (Teresalina de Zubiri).

Esan dugu, atsegin zitzaizkion euskal gauzak. Euskeraz ere berea du iru argitalpen beintzat izan ditun *Lagunarteko Meza* (Aranzazu, 1956, 32 orr.).

Euskal aditzaz lan ederra du, «Euskera. Un poco de gramatica y algo de morfologia del verbo vasco» deritzana (Zarautz, I-txaropena, 1959, 320 orr.). Iru zati dauzka liburuak: 1) *Un poco de morfologia*, eta sakon-sakon egindako zati onetan orain 25 urte Arantzazu'n irakasle legez osaturikoa dala dio; 2) *Aditzaren paradigmak* dakartzi, eta 3) *Krestomatia*, au da, autore zaarren idaz-atalak. Berea du esaera au: izkera Ieenago dala gramatika baifio, edo berdin dana: izkuntza ez dala gramatikarentzat, gramatika izkuntzarentzat baizik.

Liburu ontaz, irakur L. Mitxelena'ren iritzia: «Euskal literaturari doakion gauza dan ezkeru, esan bear da A. Omaetxebarria ez-tela ibilli euskal-aditza bere buruko amets lanbrotik sortzen, Jainkoak mundua ezerezetik sortu zuen bezala. Or azaltzen digun aditza ezta «Berea», euskal-aditza baizik. Eztago, beraz, eta nai ta nai ez ezin zegokean, azken urteotan —eta bat edo beste leendantik— gure Gipuzkoa onetan agertu diran berrikerien alde».

Euskaltzaindikoa. «Aritzondo» ez-izena erabili digu euskerazko lanak izenpetzean. Ba-ditu olerkiak ere.

(S. Onaindia, MEOE, 737 orr.; L. Mitxelena, BAP, 1959, 451 orr. eta *Egan*, 1959, 194 orr.; A. Urrestarazu, *Egan*, 1959, 288 orr.; San Martin, *Escritores euskéricos*, 141orr.; Añamendi, *Literatura*, IV, 165 orr.; Jon Bilbao, *Bibliografía*, VI, 273 orr.).

20.- MARTIN ARRIZUBIETA LARRINAGA (1909-1988)

Kantauri itxas-ertzeko erri aundi Mundaka'n jaio zan 1909-9-8'an. Bertan osotu zitun leen-ikasteak. Eta apaiz-karrera, Durango'n, Komillas'en eta Lovaina'n. Doktor titulua dauka Filosofian, eta Sozialista-Politika Zientzian Lizenziatura.

Gudatean Frantzia'ra jo zuen, iraultzaille agerturik. Doixtarra-kin estuasun larriak jasan bear izan zituen, Polonia'ko baitegi-zelaietan ere bost bat urte errerik. Beti zigorpean, Italia ta Prantzit'ik zear, azkenez ixilka Euskal-erriratu zan eta Gurrupide Bilbo'ko gotzain zanaren denboran Kordoba'ra arimazai joateko baimena lortuaz, an egin izan ditu ogetabost bat urte eliz-arazoai lotua. Gaur bere errian, Mundaka'n, daukagu Jakintza-gaia eta euskereari atxikia. Baiña, Kordoba aldatu ta an il zan ustekabean.

Aurtengo (1983) apirillaren 5'an egin zidan idazkian, au iragar-ten zidan: «Hainbat bider, behinola ere eskatu eustazun horrelako zer-edo-zer bat, baña nere ikerketetan murgilduta nenbillarik edo, erantzunik gabe gelditu izan zintzan. Azketsi! Gogo-asmo jakintsutan, egalari, nere Philosophiaren Doktoradunari nagokion jakinmiñez, bethi lez bizi naiz. Azken aldi hontan, bost urte diraut: «Gaurko larri-unea», funtsetik, errotik, sustraietatik... azaltzeko, argitzeko eta argiagotzeko».

Erderaz eta euskeraz idatzi du mundakar gizaseme langille onek.

Erderaz biok bereak ditu: 1) *Los cristianos ante el capitalismo en vía muerta*, eta 2) *Eicmann o la sombra de Cain* (1960).

Euskeraz, «Egan»-en eta «Zeruko Argia»-n idatzi digu batez ere, Olerkari da, olerki-moltzo bat dauka argitaratu gabe. Gabon-aldian bertsoz agertu oi ditu bere lanak eta adiskideak. «Agur» eta «Izaro», ezizenak erabilli ditu.

(Ikus J. San Martin, *Escritores euskericos*, 38 orr.; Auñamendi, *Literatura*, IV, 167 orr.; *Eusko Olerkiak*, 1933, 76 orr.)

21.- GERARDO GERENABARRENA AGIRREBENGOA
(1910-1982)

Zornotza'n jaio zan Aita Gerardo, karmeldarra, 1910-1-17'an. Bidegintzatik bizi zan bere aita Pablo, eta bein, Markiña'n zegoe-la, aita-semeak —amar urteduna zan semea— ango karmeldar ko-mentura joan ziran mixiño-sermoiak entzuten. Eta etxerakoan se-meak aitari: «Aita, neuk be praille juan bear dot».

Leenengo ikasketak egin ondoren, Larrea'n artu zuen praille-jan-zia 1926-8-12'an, urrango urtean profesa egiñik. Gasteiz'en eta Erro-ma'n osatu zituen eliz-karrerako ikaskizunak, eta 1934-7-15'an meza barria eman. Ondoren irakasle izan zan Begoña'n zati baten, bai-ña gerra zala-ta Frantzia'tik eta Italia'tik igeska lez, ibilli ostean, Ameriketara jo zuen: nik ba-dut oraindik italiar itxasontzian ara-ko bidean zijoala Kadiz'tik ezin zidan tarjeta bat.

Ipar-Amerika'n bizi izan zan leenengo, gero Mexiko'n eta azke-nez Guatemala'n, beti irakasle. Guatemala'ko eliz-barrutian, Solola-n, parroki-lanari ere gogotsu ekin zion, bai liburu artean eta bai arima-zaintzan. Ez zituen eliz, eritegi ta olako etxe gutxi ere eraiki.

Idazle zan, euskeraz eta erderaz. Ona bere liburuetatik batzuk:

1) *La cruz de Numajuyu*, agiriz ta dokumentuz ondo ornidua.

2) *Guatemala por Santa Teresa*.

3) *La Evangelizacion en tiempo y lugares por donde estuvieron Mons. Marroquin y Fr. Bartolome de las Casas*. Lan au zan bere lillura.

4) *Azkatasunaren Yarrai*: J.A. Agirre'ren «De Guernica a Nueva York pasando por Berlin», euskeratuta. (Ikus A. Onaindia). Ari-zona'n zegoelarik burutu zuen itzulpen au, eta itzultzailleak onela: «Ba'leiteke bateon batek nik bizkaieraz idazteari andiestea. Nungo-ta Arizona'ko bizkaieraz gero!»

Gasteiz'en ikasle zanetik zegoen euskerari emana geroztik ere iñoiz galdu etzuen. Itzulpen au jator egiña daukagu; aditza eder-

ki darabil, sintetikua batez ere. Irri-mirrika ari da sarri. Euskal esaldi jatorrez apaindua da bere izkuntza. Euskaltzalea zan oso.

Ainbat lan osatu ondoren, Guatemala'n bertan, Santa Teresa'ren komentuan azkan arnasa eman zuen arratsaldeko iru t'erdietan, 1982-11-15'an.

(Ikus *Boletín Oficial de la Provincia de S. Joaquín de Navarra de Carmelitas Descalzos*, 1982, lotazilla, 92 zenbakia, 93 orr.).

22.- LINO AKESOLO OLIBARES (1911-.....)

Euskerari emana du bizi guztia. Jose Lasa'k, «Diccionario de Retana de Autoridades de la Lengua Vasca»-ri egin zion itzaurrean, onela dio: «Hombre de vasta y tenaz memoria, experto conocedor de los dialectos vascos de aquende y allende el Bidasoa, y entre los vascologos vivientes, tal vez el que mas literatura vasca haya leído» (XLVI orr.). Edozer ez dugu, beraz, 50 urte euskal liburu artean erre dituan au.

Gizaseme bizkor askoren zeaska dugu Dima. Arrati araneko errixka lerdena. Oba'n, Axmutil azpian jaio zan Lino 1911-4-7'an. Antonio ta Praxedes, bere gurasoak. Umetan karmeldar izan nairik, 1921'an, ni Larrara orduko, egun batzuk lentxoago, emen zan bera ere, geroztik eliz-karrera osoa alkarrekin egifiik. Ementxe, Larran, gertu-ikastetxean lau urte t'erdi, gazteleraz, latin, geografi, edesti, matematika, euskera ta asi-masi enparauak ikasi genitunean, 1926-8-10'an bertan artu genduan karmeldar jantzia, urrengo urtean dagonillaren 14'an profesia egifiik. Markiña, Gasteiz eta Begoña'n eliz ikastaroak erdi-amaiturik, 1934-7-8'an apaiz sagaratuak izan giñan, Begoña'n bertan.

Irakaslaritzan ari izana dugu ondoren. Anai arteko gudan kapellau ibilli zan, gudarien kapellau noski, gero iru urte Begoña'n, Nanklares'en, Dueñas'en eta Karmona'n giltzape bizi izanik. 1938'an Nanklares'en alkar aurkitu genuan, ni El Dueso'tik eta ura Begoña'tik ara joanak, edo eramanak; ala ere etziran alperrekoak izan

gure giltzape-urteak, izkuntzak —frantses, ingeles eta aleman— ikasten geienbat emanak izan bait ziran.

Aita Akesolo'k, Hoz de Anero (Santander)-en egon zaneko urteak kendu ezker, beste geienak irakasten eman ditula esan genezake. Urteetan irakatsi zien Begoña'ko teologi-ikasleai gai batzuen artean Eliz-kondaira; ortarako ikaste bereziak egiña dugu. Liburu-zale amorratua danez, Madrid'en osatu zigun Bibliotekonomia (liburutegi bat nola eratu, iraun-erazi, idaztiak erosi, sailkatu eta abar ikasten dan artea). Begoña'n guztizko liburuen arduradun ez-ezik, «Karmel» euskal liburutegiaren zaindaritza ere berak dauka. Komentuetako nagusitza ere egin du, Donostia'n, Markiña'n... Aspal-dian Begoña'n bizi da, bere arazoetan buru-belarri murgildua.

EUSKALTZALE.- Berez esker ona dariona da gizakia. Otsegille bikain dugu onetan Santa Teresa. Zergatik au? Niri askok galdetu didate ea ikasle nintzala iñork, irakasleak-eta, zoztorrik, eragozpenik jarri zidaten euskerari buruzko auzietan. Nik ezetz erantzun diet beti, nik ez nuela ezeren poxelu ta debekurik izan euskera arloan, nere karrera bitartean, ezta gerroztik ere. Gure aurretiko ikasleak, Begoña'n batez ere, «Adarra» eta «Gautxori» barne-aldizkariak ateraten zituztelako, erbesteratze bildurra izan zezakeen ikasle gazteak, karrera bukatzean noski; India'n eta Ameriketara —Txile, Kolonbia, Peru, Panama, Guatemala— komentu ta mixio-leku asko geneuzkan eta lurralde aietara bialduko ote zituzten duda-muda bai, baiña beste ezeren izurik ez beintzat.

Guk ikastaro zear makiña bat lan osotu genuen euskal barrutian ere, Markiña, Gasteiz eta Begoña'n baitik bat. Larrea'n geundela, naiko goiztar, Donostia'ko «Euskal Esnalea»-k eratu oi zituan konkurtsoetara lanak bialtzen genitun eta sariak jaso; 1926'an, A. Gotzon Jauregi zan gure irakasle eta ark lagunduta zerbait bidali genuen aipatu aldizkarira eta sariak eskuratu genitun; Aita onek, ondoren, gu euskaltzaletu nairik, irabazi sarien truk, Legutiano, Aramaio ta inguruetatik txango atsegingarria egin ostean, Azkue zanaren «Morfologia Vasca» eman zigun oroigarri bezela.

Gasteiz'en filosofi ikasle giñalarik, aldizkari berberak 1930'an, urtero oi zuenez sariketak iragarritz, Cervantes'en «Novelas Ejemplares»-en itzulpenak eskatzen zituan. A. Lino'k aren «Agure kezkatia» euskeratu zuen eta saria irabazi. Lau izan gifian andik orretan sarituak: Aita Anbortsi, gure irakaslea, A. Lino, A. Gerenabarrena eta ni; iru sari beintzat etxeratu genituen. 1931'an, «Karmen'go Argia» sortu zanean, A. Doroteo beronen zuzendariak lanak eskatzen zizkigun; ainbat lantxo idatzi genuen bertan prosaz eta bertsoz. Teresa donearen «Onbidea» (Camino de Perfeccion) argitaratzen orduan asi giñan, «Igotz-Oba» izengoitiz (Ikus «Karmen'go Argia», 1934). Gerora ere maiz ari izan gera alkarrekin lanean.

Oni naiz ari laguntzeko beti prest dagoena duzu A. Akesolo. Liturgi-itzulpenetan, bizkaieraz batez ere, lan txalogarria burutu zuen. Azken urteotan berdin, eztu lan erreza izan Manu Sota'k utzitako «Diccionario Retana de Autoridades de la Lengua Vasca» aztertu, osatu ta ugaritzen.

Euskaltzaindikoa da; Eusko Jaurlaritzak euskera arlorako duen Batzordekoa eta Euskerazaintza'ren buru.

IDAZ-LANAK.- Ez bear lukean beste, baiña naiko ugaria dugu A. Akesolo idaz-alorrean. Euskeraz eta erderaz idatzi du, beste izkuntzetatik ainbat biurpen egiñez.

I. *Erdera*: 1) *La Iglesia y el pescador* (1953); 2) *El Maestro llama* (Fritz Tillmann'ena, 1956); 3) *Historia de la Iglesia de Cristo* (Schuck Neuss'ena, 1957); 4) *La Ciencia de la Cruz* (Edith Stein'ena, 1959); 5) *Elementos de la Moral Catolica* (Fritz Tillmann'ena, 1959); 6) *Criterios catolicos* (Erich Ptzyvvara'rena, 1962) eta abar, alemanetik gaztelerara biurtuta. Emen jarri genezake baita Beñat Etxepare'ren «Linguae Vasconum primitiae», euskeraz, gazteleraz eta prantsesez Edili'k (1968, 196 orr.) argitaratu zuena.

II. *Euskeraz*: 1) *Agure kezkatia* (Cervantes'en «El celoso extremeño»), argitaratu gabe; 2) Santa Teresa'ren *Onbidea* (A. Onaindia'rekin batean, Bilbao, 1963, 279 orr.); 3) *Salmuak* (Bilbao, 1964,

262 orr.), Iratzader eta Lertxundi'ren *Salmoak* (Baiona, 1963, 854 orr.), bizkaieraz ipiñita.

Or-emen agerturiko lan azkeak albora ezkeru, ez dira askorik bere kabuz idatziak. Auek, orraitio, aipagarri diranik ezin uka: 1) *Ipiña ta Ipiña'tarren barri* (Bilbao, 1958, Verdes-Atxirika'renean, 35 orr.); eta 2) *Euskal-esnale euskal-idazle* (Bilbao, 1962, OLERTI I eta II) Yose Pablo Ulibarri; 3) azken urteotako artikulua mordoxka «Euzko-Gogoa»-n: *Euskalherriaren adiskideak eta Euskal-hiztegia* (1954, V, 153 orr.); eta «Karmel»-en: a) *Enbeita, Urretxindorra*, 1978-4; b) *Azcue aita-semeak*, 1979-2; c) *Euzkadia*, (Eusebio Maria Azkue zanaren poema), 1979-3; d) *Aita Jose Domingo Ugartetxea Urkieta*, 1980-4; eta e) *Vivo sin vivir en mí* (Zuberoko euskeraz), 1982-1; eta gaiñerakoak.

Azken ordukoa du beste itzulpen au ere: *Jaungoikoak beretzat Gura nau* (Bilbo, 1983). Domingo Iturrate Zorionduna Irukiztarra, M. Fuentes Aitak erderaz egiña. 85 orr.

Erderaz ere, jatorki eta euskal gaietaz, parrastaka idatzia da. Ona olako batzuk gogorazi litezkenak, BAP-en argitaratuak ain zuzen: 1) *Erle gobernatzalleen gidaria* (Donostia, XX urtea, 4'gn. ingurraztia; 2) *Dos notas autobiográficas de Resurrección María Azkue, comentadas* (Donostia, XXI urtea, 1'go. ingurraztia).

Aldizkari oetan idatzi izan du: «Euskal Esnalea», «Karmen'go Argia», «Euzko-Gogoa», «Karmel», «Olerti», «Jakín», «Jesus'en Biotzaren Deia», BAP, «Agur», «Zer», tabar. «Zubero», «Axmutil», «Nonzebarri», «Basabil», «Amuxalde» izengoitiak erabilliaz.

Nolako idazle? M. Zarate'k onela: «Euskera zaarra ta erri-izkera ondo ezagutzen dauz, eta bizkaierazko idazlerik jatorrenetarikoa dogu berau» (*Bizkaiko Euskal Idazleak*, 248 orr.), eta K. Etxenagusia'k: «Erri-euskera aberatsa ta gure idazle zarrena gitxik ezagutzen dabe Bizkaian Aita Linok baizen ondo. Gipuzkera ere ainbat idatzi dau, baiña Obako fraide onen bizkaiereak berarizko gozotasuna ta berezkotasuna ditu ezaugarritzat. Iker-lanak, iztegia, kritika zorrotzak, itzulpenak t.a. eskeini deuskuz orain artean» (*Euskal Idazleak Bizkaieraz*, 252 orr.).

(Ikus S. Onaindia, MEOE, 773 orr.; M. Zarate, B.E. *Idazleak*, 248 orr.; J. Bilbao, *Bibliografía*, I, 70 orr.; Auiamendi, *Literatura*, IV, 186 orr.; San Martín, *Escritos euskericos*, 29 orr.; K. Etxenagusia, E. I. *Bizkaeraz*, 252 orr.; J.M. Torrealdai, *Euskal Idazleak, gaur*, 1977, 498 orr.; Celia Lopez Sainz, *Quien es quien en Vizcaya*, Bilbao, 1975, 35 orr.).

23.- JOSE BASTERRETXEA (1911-...)

Askoren artean, ona emen euskal idazle urduri bat. Luma ondoren darabilenak, gizaseme geraka ta urduriak izan omen dira, ia beti. Eta auen bizitz-zeaztasunak jakitea txit interesgarri izan oi zaigu. Esan onen sendogarrizat, ona nik azken-maiatzaren lenengoetan egin nion eskutitzari erantzunik, Basterretxea'k aitortzen didana, jakingarria noski.

«Madril'en jaio nintzan —diost— 1911ko abenduan 9garrean. Handik sei illabete Gernikara eroan ninduen. Gernikako agustinoetan estudiatu neban bachilleratoa. Gero Madrillen «licenciado en Ciencias Exactas» egin nintzan. Movimiento hasi zanean Madril'eko Euzko Ikasle Batza'ko lehendakaria nintzan ta Agirrek «Delegado del Gobierno de Euzkadi en Madrid». izendatu ninduan. 1937garren urtean Frantzitik eta itsasotik zehar Bilbora joan nintzan gudari izateko asmoz, baina ezin, asmia arrapatu neban ta. Itsasoz, gasolinazko ontzi txiki baten, Carrasco Formigueira ta bere alaba bie-kaz, itsasoko kapitan baten eta mariñel baten laguntzagaz, Donibane Loitzunera. Handik Parisera. Paris'en Avenue Marceau'ko lokaletan lan egin neban. Gero, nere lana beharrezkoa ezala ta Barzelonara joan nintzan. Han «miliciano sartu nintzan. Cataluña'ko frentea jausi zanean prisioneru arrapatu ninduten beste 150.000 «miliciano» kaz ta amabost egun pasata, danok libre itxi ginduzen».

Etzan lo egotekoa eta nun-nai idoro kultur-lanari ekingo. «Paris'eko unibersidadean asko ikasi neban —aitortzen du—, baina eneban atara titulurik. Gerra ostean egin neban lan, RADAR'en. Iruñian, Jose Agerre kartzelan sartu ebenean, bere familiak deituta, puestoa galdu ez eien, Inglesezko irakasle sartu nintzan Institutoan.

Gero PNN izan nintzan zazpi urte Leridan, eta gero oposizionak egin ta katedratico izan nintzan».

1957'garren urtean ezkondu zan eta seme bat eta alaba bat dauzka. Azken urteotan irakasle da Napparoa'ko Ikasgu Nagusian eta Iruña'ko Principe de Viana Institutoan. Euskaltzaindikoa.

EUSKAL IDAZLE.- Naiko idatzi du Madril-gernikar idazle onek. Beti zorrotz eta bitxi. Etzaio falta umore ona ere: idazle onak bear duena. «Egan»-en eta «Euskera»-n argitaratu ditu batez ere bere lanak. Ona bere libururik beiñenak:

1) *Kurloiak* (Herri txoriak). Mutiko kaletarrak Bizkaian. (Zarautz, 1962, 220 orr.). «Oskillaso» darabil izen-ordetzat. Eta oskillasok berak egifiiko irudi asko ta politez jantzita dago liburua.

Bego emen euskeraren batasunaz dioana, itzaurrean batez ere. «Orai direla-idazten du-hogei ta hamar bat urthe hasi gifiean euskaldunok batasunaren bilha, eta egin dugun aurrerapenaz konturatzten geranean arras laburra iduritzen zaigu denbora hori. Lapiko batzuekin azalduko.dizut hau, irakurle. Hasieran zazpi lapiko geunzkan: Lapiko baxhar bat behar genuala ta bat hautatu eta beste lapikoetatik hartutako tanta batzu bota genizkion. Hunela sortu zan lehenbiziko batasun-euskalgia. Gero Peruk, Pernandok eta Manexek dastatu behar zuten eltze huntan gordetan zana. Huna zer erran zuten: Peruk: «Etzat gustetan lapiko hau» erran zuan, «neuria gustetan yat askozaz gehiago, baña tira, beharrezkoa dogu batasuna, eta iruntsi egin beharko dogu». Pernandok: «Gusto bikaiña du. Ba al dago munduan eltze hoberik?» esan zuan. Manexek berriz: «Eztut iresten ahal» erran zuan, «etzait laket».

«Anitz liburu egin ziran lapiko baxharrarekin. Ikus dezagun orai nola egin ziran, zelako abegia egin zioten irakurleek, eta zer gertatu zan gero. Buruhauste asko eman zizkioten Peruri liburu hauiek eta bizkaiera hutsezko liburuak orai ere, bethe bezela, idatzi ta irakurtearren, saiatu egin zan gipuzkera osotuaz idazten eta irakurten. Manexek etzituan ulertzen liburu hauek. baña Pernandorentzat errezak eta pozgarriak ziran. Etzan gelditu Manex lan gabe eta opor egiten. Huna zer egin zuan gero batasunaren alde. Lapiko han-

di bat hartu, Lapurdi eta Benafarroako eltzeak osorik hustu lapiko handi huntan, eta Zuberoko lapikoaren erdia bere, barnera bota zion. Eragin ondo, eta bigarren batasun-euskalgia jaio zan hunela: napa-lapurdiera. Artean galtzapen handi bat izan du euskarak. Zazpigarren lapikoa hautsi egin da, eta galdu barruan zuan guztia! Lehenbiziko zazpi lapikoen ordeztu, lau soilik dauzkagu orai. Manexek egin zuana arras egoki iruditu zitzaioela ta hartu lapiko handi handi bat — Manexena baño bi bider handiagoa— eta han sartu du lapiko haien barruko guztia liburutto hunen egileak. Eragin ondo eta hemen ematen dizu dasta dezazun».

2) *El vasco de hoy*. Metodoa erderaz.

3) *Ipuñak*, argitaratuta: 1) «Mikel eta erdeldunak»; 2) «Nylo-nzeko euritakoa»; 3) «Zerura joan eta atzera etorri»; 4) «Hizkuntzalari handi bat»; 5) «Jostailuak, umeak eta gurasoak»; 6) «Upel bete amontillado» E. Allan Poe'na (ingelesez euskeratuta). Guztiok «Egan»-en datoz.

4) *Akatsbako gizonaren heriotza* {Egan, 1967}.

5) *Estudios de entonacion vasca segun el habla de Guernica* («Fontes»-en).

6) *Mark Twain'en Erregaia ta eskekoa*, bizkaieraz eta gipuzke-raz, ingelesez itzulia.

7) Charles Dickens'en *David Copperfield*, bizkaieraz, itzulia.

8) Euskerazko bi nobela, argitaratu barik.

9) *El libro Negro del Euskara*. (Bilbo, 1984). 360 orrialde. Bere libururik garrantzitsuena.

Zer asmo darabilen liburuak idaztean: «Euskera txarraren kontrako ahaleginak egitea eta bizkaierera literaturan sartzea».

(Ikus L. Mitxelena, *Egan*, 1962, 4-6, 304 orr.; L.A. *Bol. Am. Pais*, 1963, 109 orr.; L. Villasante, *Aranzazu*, 1963, 62 orr.; J. San Martin, *Escritores euskéricos*, 54 orr.; K. Etxenagusia, *Euskal Idazleak bizkaieraz*, 227 orr.).

24.- PEDRO ELORRIETA ZENIKAONAINDIA (1910-1984)

Karmeldarra. Ordenan Ume Jesus'en Teresio Aita.

Mendata'n jaio zan 1910-1-8'an. Manuel eta Segunda, bere gu-rasoak, fedean eta euskalduntasunean azi zuten, eta goi-deiari eran-tzunik, karmeldar sartu zan Larrea'n, leen-ikasteak, jantzi-artzea eta profesia bertan egiñik, 1925-7-9'an eta 1926-7-10'an kirian kirian.

Markiña'n eta Gasteiz'en erretorika ta filosofia ikasi ondoren, Errepublikara garaiko arrisku ta zantzuak zirala-ta, Peru'ra aldatu bearra izan zuen bere ikaslagunakin. An Lima'n artu zigun apaiz-tasuna, 1933-10-22'an, geroztik, berrogei urtez beintzat, bertan lan egiñaz Kristoren fedearen ereille. Kalahorra'n il zan 1984'an.

EUSKALTZALE.- Aita Teresio ikasle zala asi zan lantxoak buru-zen eta gerora, urrun, an Pazifiko alboan bizi arren, gure aldizka-rietara bialdu izan ditu ango albista ta berriak. Prosaz eta bertsoz bialdu ere.

Eta euskal erriratu zanetik, bere eguneroko bearrak saiets utzi gabe, euskal alorreko lanari ekin dio. Eredu legez, egunokaz (1983, irailak 2) emendik igarotean, an Errioxa bealdean egindako euskal-Ian bat ekarri dit, 96 foliokoa, «Mendatako Profeta» noski. Onan dio: «Entzute aundiko Igarle edo Profeta bat agertu zan Bizkaian joan dan emeretzigarren gizardian. Bere arrigarritzko iragarpenakaz Gernikalde guztia, aldi batean, artega ta ikaraturik euki eban. Ain-bat iragarpen egiñaz, «Mendatako Profeta» ez-izenaz ezagutu eban erriak betiko».

Igarle onen biritza ta mirariak dira idatzi onetan datozenak.

(Ikus *Karmen'go Argia*, 1933; S. Onaindia, MEOE, 752 orr.; Auñamendi, *Lile-ralura*, IV, 186 orr.).

25.- EUSEBIO ERKIAGA ALASTRA (1912-...)

E. Erkiaga'k, 1959'an, «Txomin Agirre» nobela-saria jaso zue-
nean, abenduaren 3'an egin-egiñean, jaia egin zioten Bilbo'n saria
emateko alegia. Eta garai artan A. Fernando Mendizabal pran-
tziskotarrak bere itzaldian onela: «Eusebio Erkiagak euskerazko go-
goa dauka, euskerazko bizitza, euskerazko anima. Euskalduna dugu
ezur eta mami. Eta orren lur gozotan azitzen zan landareak, mar-
dula eman bear naitaez frutua» (*Euskera*, 1960, 422 orr.).

Lekeitio'n jaio zan Erkiaga, 1912-9-4'an. «Txikitan —dio berak—
eskola aurreko urteetan, lekaiame izaniko emakume baten etxean,
etxetik urre-urre, ikasi nituen letrak, eta itzak gaztelaniaz irakur-
tzen, baiña an euskeraz berba egiten zuten, bai irakaslemeak, bai
umetxuak. «Luisa monjia» zeritzon emakume ari erriak».

Arik lasterrean, erriko estadu-eskola zan eta amalau urterarte
antxe jarraitu zigan, batean maisu alperra eta geroago gizon zaa-
rregia gertaturik. Amar-amabi urte bitartean elizako tiple nagusia
ere izan zitzaigun, eta musika-taldean klarinete jotzaille. Eta
ezpatadantzari txiki, 1923 iraillerarte. Ordun, errian bertan, Mer-
tzedetako fraileen ikastegira zan, zekiana zerbait mardoagotu gu-
ran. Orraitio, merkatalgo gaiak ikasten asi zan, «libre» maillan, eta
Bilbo'n urtero azterketak egin. Azken ikastaroa uri aundi orretan
burutu ta «perito merkantil» (salerosle maisu) titulu-jabe lotu zi-
tzaigun,

Ekonomi-kinka larria; ba-zan lanik-eza bazterretan. 1936'gn.
Bizkai Bankuan sartzea lortu zuen. Eta ortxe iruntsi izan ditu la-
nari lotua 42 urte. Gerra aldiaren bere zeregiña arbuia gabe euskal
lanari ere ekin zion: 1937'gko. Urte berri egunetik «Eguna» zeri-
tzan euskal egunerokoa atera zuen Eusko Jaurlaritzak eta izparrin-
gi ori aurrera bultzatu zutenak, auek izan ziran: Abeletxe, A. Zubi-
karai, Luzear, Luki Artetxe, E. Erkiaga eta Joxe Mari
Arizmendiarrrieta. Urte orretako bagillaren 16'raiñoko bizia izan
zuen egunkari arek. Lan bikaiña osatu zuten zuzendari, idazle ta
gaiñerakoak: izparkari auxe zan, ain zuzen, guk guda-oifiean geien
irakurtzen genuena.

1943'an ezkondu zan Erkiaga, Begoñ'n, Jose Mari Arizmendi-
rrieta apaizaren aurrean, bilbotar Mertxe Telleriaz. Lau seme-alaben
guraso dira, iru neskatilla ta mutil bat. Orain gure Erkiaga, aitita
bilakatua, etxeko abaro gozoa txastatzen daukagu. Baiña ez lane-
tik aldendua. Beti izan da langille aspergaitz. 1951'an EK. Kruwig'ek
sortu «Urkixo'tar Jul Elkargoa»-ren Filologi Sailleko zadorlari izan
zan; 1952-60 bitartean, euskal irakasle akademi batzuetan, eta az-
ken auetan Euskaltzaindian bertan. Bestalde, Bizkai Bankuko mu-
tiko bankariei amazapi urtez zenbait ikasgai edo asignatura iraka-
tsi die Erkiaga'k, 1958-1975 bitartean. Banku onetan bertan,
urteetan atera ta zuzendu zuen berak, Kalifornia ta Nevada'ko eus-
kal artzainai Bizkai Bankuak bialtzen zien izpar-orri mardula.

EUSKAL IDAZLE.- 1952'an Euskaltzaindiak bere magalean artu
zuen urgazle bezela eta 1963'an euskaltzain oso bezela. Ez merezi
gabe, ainbat euskal lan egiñak bait zituen ordurako. Gaztetatik saia-
tu zan zekien bizkaiera sakontzen eta gipuzkera ta nappar-lapurdiera
ere ikasten. Eta gero, «Euskalerri guztian barraiatuko ziran Erkia-
ga'ren euskal gogo-deiak. Ifun txapelketarik bazan, antxe genduan
Erkiaga euskal-txapela eramaten edo lenengoekin burrukan», dio
A. Mendizabal'ek.

Ezta lurrin merkea, ezta pelagu ere, egi utsa baizik. Ikus bere
idazti-zerrenda oparoa:

1) *Lora gorriak*, lirika lana; 1936'an, Eusebio Maria Azkue'ren
omenez Lekeitio'n egin zan VH'garren Eusko Olerti jaian deduzko
aipamena euki zuena.

2) *Nekazariarena*; olerkia; 1950'an, bigarren saria jaso zuen Do-
nostia'ko «Educacion y Descanso»-k atunduriko literatura sariketan.

3) *Siñisgogorra*, teatru lana; 1952'an aurren saria jaso zuen Do-
nostia'ko antzerki-sariketan. Konkurtso onetan bertan irabazi zi-
gun gaiñera bigarren sari bat «Azkue'ren heriotza» zeritzaion poe-
siaren bidez.

4) *Aspaldiko Maigret*; 1955, G. Simenon'en nobela, euskeraz,
Euskaltzaindikak eraturiko eleberri-batzaldian irugarren saria era-
man zuena.

5) 1956'an, Sara'ko olerki-sariketan, «Axular Handiari Ohore» izeneko kantuarekin leen-saria eskuratu zuen.

6) 1957'an, Bilbo'ko *Abao'rako Usoa ta Alos* opera-izkiagatik aipamena izan zuen.

7) *Kanpaien atsekabez*, 1959, Bedoña'ko sariketan leen-saria eraman zuen antzerkia, sarritan antzeztua (*Euskera*, 1960).

8) *Arranegi* (Zarautz, *Kuliska Sorta*, 1958, 17-20 zenbakian, 197 orr.). Lekeitio da eleberri onen gertaleku. Onan egilleak: «Ene jaioterri kutuna, ñoiz neurtitez goretsi izan arren, noizbait itz lauz ere, ederresteko zorra neban gogotan artua. Ipuin edo eleberri onen gertaleku, Lekeitio ta bere mugak dira; toki-izenak bai egiazkoak dira, baiñan jazokunak eta lagunak asmaurikoak. Ildako batzuen izenak aitutzen dira, batzuk goragarriak diralako oso, ta besteak, gomutan izan ditugulako».

9) *Araibar Zaiduna* (Zarautz, 1962, *Kuliska Sorta*, 50 zenbakia, 171 orr.). 1958'ko Txomin Agirre Nobela Saria irabazi zuena. L. Mitxelena'k onela: «*Arranegi'n* artu zituen muga estu xamarrek zeero zabaldu ditu, erri koxkorretik iri andira joan denean. Ederki ta juturikako gizakiak ugaritu ditu, batera ta bestera itxuraldatuaz, eta lasai, arnas-estuka indarketa ibilli gabe, mugiarazten ditu aukeratu duen antzeztoki zabalean. Eta mintzatzen diranean, nolako mintzo malgu-aberatsez mintzatzen zaizkigun! Teatorra jo zuenean bazekien nora zijoan Erkiaga'k».

10) *Batetik bestera. Galdu gordeko ibillerak* (Zarautz, 1962, *Kuliska Sorta*, 51 zenbakia, 204 orr.). 1961'ko Tx. Agirre Nobela-Saria irabazi zuena. Errenderiar kritikalarri zorrotzak, etzaigula nolanai asi, aizearekin burrukan ari dena bezala, ongi jakiñaren gainean baizik, aitortu ondoren, onela didaz, Erkiaga'ren izkeraz eta jarduntankeraz: «Esanak daude sarritan esan bear direnak oro. Nork ez-tizkio aitortuko agerian daramazkien doai nabarmenak? Iztun ederra da beti, joria eta aberatsa, eta beste guztiaz gainetik jatorra. Jatortasun ori, noski, ain egoki darabillen jatorrizko Bizkai'ko euskalkiari zor dio, izkuntza zabalago ta osoago baten oiñarri sendoa baizik ezpada ere» (*Egan*, 1962, 4-6, 303 orr.).

Ernea da noski gaiak aukeratzen eta izkuntzari guna ateratzen.

Lanak firmatzerakoan sarri erabili du «Endaitz» izenordea.

OLERKARI.- Eleberria ezezik neurtitza ere eztu gutxi erabili lekeitiar idazle bizkorrak. Nik maiz xamar adierazi dut Donosti gero Lekeitio dugula gure errietan edertasunez beteena, dala neguan dala udan. Eta emen ernea dugu Erkiaga, eta dudarik gabe, asko esan nai du artista batentzat inguruko giroak. Sarri norbere barrua bezin eder arrobi da tokia. Bakoitzak du gero ederra jasoteko modu berezia, onek onela, arek arela; baita badira, eta ez gutxi, eder-arrobi aurrean lo daudenak. Olerkia dugu ederra adierazteko biderik egokiena, eta Erkiaga gazterik asi zitzaigun olerkitxoak ederrez blei eginda eskeintzen.

Ez digu poesi-libururik eman. Ez dakit zergatik. Baiña olerki-batzaldietan sari asko eskuratu dizkigu. Eta or daude, orrez gaiñera, aren sorketa bikaiñak «Gernika», «Egan», «Anaitasuna», «Euzko-Gogoa», «Olerti», «Jakintza», «Eusko Olerkiak», «Euzkerea», «Ekin», «Agur», «Euzkadi», «Eguna»... aldizkarietan. Merezi lukete bildu ta txorta egifiez argitaratzea. Berau da gaur Bizkaia'n dugun olerkaririk onena.

Goza itzazu «Bethi gose» deritzan olerkiaren aapaldiok:

Goizero izar hori agertzen denean
soina dut katigu, geldi, lo artean;
Iguzkik galdurra orduan harroen,
ta ni, sogiteke, arazoen barnen...

Zerumin bizi bat. Iaungoiko gosea,
gizonak barnean dadukan lezea;
alperrik bilhatu laket eta atsegin,
lehia min horren asetzea, ezin...

Begiok idortuz, esker-nigarretan
zeruko zituak niretzat aletan;
egunez ni sorgor bizitz zidorretan,
ta Zu, Iaun, gauean bihotz-laphurretan.

Beste iru aapaldi ditu apain-apain biribilduak (*Gernika*, 1951, 17 zenbakian). Iritziak azaltzean bakoitzak du bere gustua, ederra ikusi, jaso ta sortzekoa. Eta sarri gertatu oi dana, zera duzu: oni atsegin zaiona ari atsegin ez izatea. Erkiaga'ren poesi-lanak, alan ere, edonori atsegifia dakarzkienak dituzu.

Zer asko dauzka argitaratzeko prest eta gertu, eta oien artean aspaldi osatu zuen Platon'en «Parmenides», lapurdieraz.

(Ikus S. Onaindia, MEOE, 707 orr.; L. Mitxelena, *Egan*, 1958, 102 orr. eta 1962, 87 orr.; Apat-Etxeparne, *Egan*, 1959, 184 orr.; F. Mendizabal, *Euskera*, 1980, V, 42 orr.; M. Zarate, *Bizkaiko Euskal Idazleak*, 1970, 258 orr.; San Martin, *Escritores Euskericos*, 80 orr.; Auñamendi, *Literatura*, IV, 212 orr.; J. Bilbao, *Bibliografía*, III, 161 orr.; A. Onaindia, *Euskal Elertia*, 213 orr.; Enrike Zabala, *Euskal Literatura*, 217 orr.; K. Etxenagusia, *Euskal Idazleak Bizkaian*, 1980, 204 orr.; J.M. Torrealdai, *Euskal Idazleak, gaur*, 450 orr.).

26.- BALENDIN AURRE-APRAIZ (1912-...)

Jakintsuak geienik barrurantz so dagite. Orobat olerkariak ere. Balendin, at aldetik ere ikuspegi pertxentaz esitua bizi dan arren, zentzunak —begiak eta belarriak beintzat— nun asebeste baranoan duela, barne-zale dugu, bai bizimoldez eta bai olerki-egiñetan. Aian-giz'en, leku atsegiñean, jaio zan 1912-11-3'an, elizaldearen beekaldean, Mendieta-Agerre etxaguntzan, eta bizi ere jaiotako etxean bertan bizi da.

Etzuen erarik izan bigarren maillako ikasketarik egiteko. Baiña etxean eta eskolan aziera ona, buru argikoa berez, irakurteko grifia ta ikasiakin izan dituan adiskidetasunezko ar-emaneri esker, ikasi-ekin ere, ezertariko ingera barik, ibilli al izateko bestean gogo landua dugu. Ba dira, bai, olerkari ta asko eskolatuak izan arren, idazle oni bere olerki ta idazlanen iritzia eskatu izan dienak. Bein, esaterako, Guatemala'ko Unibertsitatean, Zaitegi irakasle zala, ango dekanoa zoraturik omen zegoen F. Gartzia Lorka'ren olerkereaz, eta arrasatetarrak esan ei zion: «Auxe bai fio ere bikaiñagoa dauka-gu, ba, guk». Beingoan olerkari onen poesi bat eman zion itzulirik eta, irakurri zuenean, arri ta zur gelditu omen zan.

Izakeraz biozpera da Aurre-Apr aiz, bakar-zale ta kadentsu, goiz illunkoi bat iduri. Orrela bait dira egiazko poetak. Baiña ba-daki gotargi, alai izaten ere adiskideekin alkartzen danean.

Gazte samur, gerratean esku artu zigun, baita bereak eta bost ikusi ere. Artxanda aldean zauri-zauritu egin zuten, eta arik iru egu-nera atzilotua izan zan; eritegirik eritegi, atzilo-zelai ta baitegi, lau illabetean jaikitzeke ta urtebetean errenka, makuluekin leenengo ta makilleaz gero. Beronek dioskunez, toki illun bezin Ioi aietan ja-san izan ziiituen oiñaze, ezbear eta mingostasunak bizitzaldi guzti-rako goibeltasunezko zauria ezarri zion bere barru minberari. Ere-si illuna darie, beraz, onen neurtitzik geienai.

Ez du nai alere gOgo illunik, ez bere burua ez inguruan iñor. Eder zaio musikea, gartzetan elizan eta gero espetxean ikasia. Abots zolia zuen txikitan, orain goitia. Larrako Olerti-Egunak onek eta Bordari zanak girotu oi zituzten itzez eta kantuz. Berdin txistua, txilibitua ta pilarmonikea jotzen ditu asti-aldietan, berak diñoanez «gogo nasaitu ta girotzeko baserriko bakartadean». Umetatik eliz-koi, orrela dirau gaur ere, erriko abadeai eliz-arazo askotan lagun-durik. Anai-arreben artean amargarrena eta gazteena dala, etxeko lanez bizi da, izadiaren eder-usaia xurgatuz eta lurrari berea eman eragiñez. Auñamendi'k il zala dionarren, bizi-bizi dabil oraindik bere etxaguntzan.

EUSKAL IDAZLE.- Bearrezkoena duzu, idazle on izateko, izkun-tza sustraiz jakitea. Edozein izkuntza, euskera naiz arrotza. Aian-giztarrak amaren altzotik zekigun euskeraz etxean eta errian ika-sia; beronen idatziak, beraz, joskera zuzenean, itz-esaera jatorrez eta ele-ezkutuz aberats daude; aditza ta abar, orrezaz gain, grama-tikaz sakonagotu zizkigun; arrezkero ere txikitatik zeuzkan akatsak moztazi ta txukun idazten alegiftak errea dugu. Gipuzkeraz ondo daki, beste izkelgiak ere irakurri ta ulertuz. Idazkeran garbi-zale da, baiña garbikeri-zalez, ezta ez dugu mordoillokeriz dabilkiguna.

Aspaldi asi zan idazten «Jaungoiko-Zale» bazkunak Zornotza'n ateraten zuen «Ekin» asterokoan lenengo, «Mendi-bide» izenordeaz; gero «Euzko-Gogoa»-n eman zituen bere oler-lanak, «Aurraitz» eta

«Agerre-ko Balendin» izengoitiz. Geroztik, asko dira beronen olerkiak batez ere agertu dituzten aldizkariak: «Egan», «Karmel», «Olerti», «Aranzazu», Venezuela'ko «Irrintzi», «Jakín», «Agur», «Zer»... Gaiak berriz ugari ta zer askori buruzkoak ditu: Aberria, erriketa, iritzi, ipui, gertakizun, eztabaida, elizti-gai, olerki ta abar. Itzulpenak ere ba-ditu: R. Tagore'ren *Txitra*, antzerki lirikua (*Egan*, 1962, 149 orr.) eta *Txori galduak* (*Egan*, 1969, 39 orr.). Eleberri ta beste, gaur ere Ian asko dabilzki esku artean. F. Gartzia Lorka'ren *La casada infiel* olerkia-ta, euskeratuta dauzka.

Euskeraren etorkizunaz oso kezkatan bizi da Aurre-Apr aiz. Batasunari buruz naikoa idatzi du; Ian batzuk argitaratu ditu, beste asko ez dizkiote argitara eman nai izan. Ona urte batzuk dirala idatzi zuen au. «Norberena itxi bearrak —dio— min damosku guztiori emon be, eta gura ete dogu gero, bene-benetan, iñok batasunik? Norberaren euskalkia guztiz itxi bearra ete dago, ba, zorioneko batasun ori jadesteko? Nire uste kaskarrean, ez. Asko idatzi izan da bai bizkaieraz, bai kipuzkeraz eta bai lapurteraz; eta bata ez bestea ezin geinkez zapuztuta jaurti, ez bertanbera itxi leentxuago-gerotxuago bearra izango dogun arlo esker ga onetan, batasun-arloan, ezegaitik bere. Ta lapurtar jatorra naiz kipuzkera osotua artu, enpaiduak tamalgarriri gaitzetsi ta zeataz baztertzea ezin daikegu eze gaitik bere laketu ez onartu. Bizkaiera barik ezin izan daiteke, ba, egiazko euskel-batasunik» (*Egan*, 1964, 1-6, 48 orr.).

OLERKARI.- Gure baserriak —oar al zera?— naiz itxas-ertz naiz lior-barru, eder-jarioka daude. Aiangiz eta birak ez dira orretan kaxkarrenak. Or eder-iturri bi, barne ta kanpo, olerkaria azkar-azten. Barne aldetik adimenaren eta naimenaren jabe da, eta kanpo aldetik Jainkoak ereindako izadi-edertasun orrek ez dio gutxi laguntzen norbere izatezkoari eragiteko.

Aurre-Apr aiz jaiotzeaz dugu oler-gale. Beronek aitortu oi due-nez, txikitatik somatu izan du ederraren biotz-eragiña, sentikizun eta bizikizun olerkoia. Eta Lauaxeta'ren «Arrats-beran» irakurri izan zuenean, «oneixek, neurtitx oneixek daukie nitzat oraiñarte irakurri izan ditudanak ez daukien gogo-zirkingarria» esan omen zuen,

ditugu. Askok galdera au egin didate: «Nolako idazlea naiz ni, zure ustez?» Eta ez da errez erantzuna ematen. Idazle guztiok ditugu zer onak eta ez ain onak; eta gaiñera, geure adiskide baldin bada — politikan eiki—, naiz-ta porru-ostoa izan, idazle txaiogarrria duzu; ez baldin bada, kontuz jokatu, olakoa, Lizardi'k naiz Orixe'k baiño ere obeki idatzi arren, etzaizu idazle ona izango. Au ez da giza-bidea, baiña olantxe gerta oi da. Eta iñoiz iritzia eman bear ba dugu, leenengoa izar-gaiñez ipiñiko dugu, ta bigarrena inpernuko ateetara bialdu. Ez ete da egia? Nik, alan eta guzti ere, ondorioz, Aian-giz'ko olerkaria euskal Parnaso'ko onenetarikoen artean lerrotua dagoela diot.

Olerki-batzaldietan saririk eskuratu ote du? «Euzko-Gogo»-k batzaldi bat eratu zuen 1954'an, eta olerki-saillean len-saria S. Mitxelena'k jaso zuen bere «Bizi nai» lan ederraz; dedu-aipua, osterara, N. Etxaniz'ek, B. Aurre-Apr aiz'ek eta nik izan genuen (*Euzko-Gogoa*, 1955, orrilla-lotazilla, 66-3\$83 orr.). Beste bein Irun-sariketara aurkeztu zan Balendin, baiña etzioten saririk eman. Eztu ortarako griña larregi izan, egundo ere. «Beste iñungo olerki-sariketara —idazten dit— enaz aurkeztu Larrea orretara izan ezik; eta or, zeuk dakizu, sarri izan dodana lenengo saria. Bein len-saria ta, baita, aipamena be, biak izan nituan. Baiña nik neuk sari irabazteari ez dausat gogora aundirik egiten. Orrelango geienetan marrazkokeria ez ete da ibiltzen gero? Oraingo sariketetan bearrezten dituezan olerkiak luzeegiak dira eta orbela ugari izaten dabe. Orreik ez dira etorriaren seme; ez eta olerki be, prosa erkifia baiño».

Ipuin batzaldietara aurkeztu izan da, eta sariak jaso: 1982'an, adibidez, berak eskuratu zuen len-saria, eta aurtan (1983) irugarrena, ZER aldizkariaren sariketan. Bi liburu dauzka irarkolarako prest, ots, «Gorago zelaietan» eta «Erri-mifia».

(Ikus S. Onaindia, MEOE, 766 orr.; San Martin, *Escritores euskericos*, 45 orr.; Auñamendi, *Literatura*, IV, 208 orr.; N. Kortazar, *Cien autores vascos*, 25'gn. oarra, 39 orr.; M. Zarate, *Bizkaiko euskal idazleak*, 253 orr.; K. Etxenagusia, *Euskal Idazleak bizkaieraz*, 278 orr.; S. Onaindia, *Euskal Elertia*, 215 orr., eta ZER, 67'gn. zenbakian, 2 orr.; J. Bilbao, *Bibliografía*, I, 383 orr.; Ibon Sarasola, *Euskal Literaturaren Historia*, 1970, 128 orr.).

eta ler-egin zion barruan zuen olermanak. Ortik, ba, berak beretara ikasi zigun, ez euskera landu ta dotoretzen bakarrik, baita olerlanak atsegiñez jazten ere.

Gerra bitartean, makala bizkar-gain mendiz zebilelarik ere, «Euzkadi» egunerokora bialdu oi zituen olerki-lanak toki ta izki bereziz argitaltzen zizkioten, eta au, jakiña, poz-iturri zitzaion ez urria. Geroztik, baitegian asita, samur adierazi izan du, olerkitan noski, bere izakera ta barru-minberaren egon eziña; lirikoi dugu izan ere. Besteak beste, bi edo iru liburu osatzeko lain poesi ba-ditu artara emanen eta argitaratzeko dauzkanen artean. Xede orrekin Venezuela'runtz egin zuen osterata bat, naiz-ta arras damaturik eta uste zuen diru-moltzo gabe etxeratu, ezkur batzuk irabaziko zitulakoan, baiña erri-miñak sei urtez ederto astintzea besterik etzuen iritxi. Au ekarri zigun andik: leen abertzale ta euskaltzale zana, ortan gaillurragotua biurtu zan.

Eta orain? «Orain —idazten dit— etxean nago. Nere lana: abelgorrientzat jatekoak egin, eurok atondu ta bitarteetan orduan lanen bat edo beste egiten ekin. Pozik bizi naz, Jainkoari eskerrak, Izadiaren erdian, erdi-erdian, neure amesen artean, Egille Gurena goretsiz. Asti aundirik ez dot izaten, baiña izaten dodazan lan-arte guztiak idazteko, irakurteko edo musikearentzat. Erderaz baiño euskera geiago irakurten dot. Askorik ez, baiña irakurri dagidana irakasgarria izan daitela. Lelokeriak irakurtea etxat ba gogoko. Orixe'ren *Jainkoaren billa* irakurten diardut oraingoan».

Langintzari lotua, nola osatzen ote ditu olerkiak? Aren erantzuna: «Batzuetan, etorri-aldian, berez-berez, eta gero atondu. Beste batzuetan etorri-aldian asi eta gero ekin. Baita olerkia egiteko jesarri ta ekarri-az egin be. Baiña olan egindakoak gogortuagoak izan daroaz, etorriaren bizitasunaz egiñak baiño. Sarritan barriz, astia izanda be, ezin ezer idatzi izaten da; eta astirik ez dala, gauzarik egokienak idatzi bere bai. Olerkaria zaranez, nik baizen ondo dakizuz olango gora-berak».

Idazleok, euskal idazleok batez ere, ez-mezean gabiltza sarri. Ez dakigu nolako idazleak geran, eta irrirts orretan urteak eman oi

27.- GOTZON AZPEITIA AMEZTI (1912-...)

Bermeotar bizkorra. Itxas-ertzeko erri langille ontan munduratu zan 1912-8-2'an, urrengo egunean ugutza arturik Santa Eufemia elizan. Bere gurasoak: Emilio Azpeitia ta Juana Amezti, bi bermeotar; aitaren aldekoak, Gipuzkoa'ko Getarikoak ziran jatorriz.

Txikitan elizako dotriñan ikasi zituan gauzarik asko: irakurten, idazten, ikasgaiak buruz esaten... Ondoren, amaika urtera arte erriko eskolan ibilli zan. Laster arrain-olan asi zan lanean, bokartai burua kentzen. «Goizean asten nintzan —dio— lanean, zortziretan, eguerdiko amabiak arte eta arratsaldean, ordu bietan asi ta seirak arte; emen ari nintzan denporetan ez nintzan Laterri eskoletara joaten, ez neukan astirik eta; baiña arrain-sasoiko lana amaitzerakoan barriro asten nintzan eskolara». Amairu urte beteaz itxasoratu zan, «Lo-nion» zeritzan gasoliñezko ontzi batean. Sardiñak, txitxarroak eta bokartak arrapatzen zituen.

Gerra aurretik eta ondoren, itxasotik bizi izan da gure euskal idazleak, eguneroko arrai-lana ta euskeraz idaztea —beste zenbaiten antzera— ederki irabiatu. «San Nikolas», «Izar Argia», «San Antonio», «Isla de la Cruz», «Hnos. Azpeitia» eta onakoetan ibilli zan, gaur txo ta biar jabe, 1969'rarte beintzat lanari lotua.

Urkiola'n ezkondu zan 1944-7-15'an Katalina Bengoa Madariaga'rekin. Lau seme-alaba izan dituzte, bi seme ta bi alaba; gaur, aziak, bakoitzak du bere ogibidea.

Arrantzu bizia egiñik ere, izan du oraindiño astia euskal idazteari ekiteko. Or dituzu bere lanak, itz-laur eta neurtuz, «Karmel», «Olerti» eta «Zer»-en ez gutxi. Gotzon'en lanak apalak bezin mami-tsua dira, euskera errez, ariñean emanak.

28.- ANASTASIO ARRINDA ALBISU (1912-...)

Lekeitio'n jaio zan Arrinda Arranegi kalean, 1 zenbakian. Aita lekeitiarra zuen eta ama Lazkau'koa, errementari baten alaba. Aur-

tzaro guztia Barakaldo'n eman zuen, alere, gurasoak an bizi zirala-ko. Bederatzi urte egiteko zegoela, Lazkau'ra aldatu ziran sendiko guztiak. Zergatik «Anes»? Beronek onan: «Anastasio guztiak Lekeitio'n «Anes» dira eta nere gurasoak izen ori jarri nai izan zidaten, euskaldun izen zalakoan, baiña ez zioten baimenik eman; alaz ere, ni bizi guztian etxean, lagun-arteana eta Lazkano'n beti izen orrekin ezagutu naute».

Beude emen zeaztasunok ere: Udaro joan oi zan Lekeitio'ra, eta amaika urtekin latiniak egin zituen bertan Eguzkitza'tar Joan irakasle zuelarik. Gero, Saturraran'en, Gasteiz'en, Seminario Zaarrean osotu zuen leenengo kurtsoa, 1929-30. Urrengo ikastaroak Seminario barrian, sei ikastaro: 1930-36. M. Lekuona, J.M. Barandiaran, A.E. Mañarikua ta abar izan zituen irakasle. Gerra sortzean, 24 urtekin, ikasketak amaitzeko urte bete palta zitzaion. Iruña'n, Donostia'n soldaduzka egitera joan bear izan zuen, bitartean diakonotza arturik Gabon ostetxoan. 1937-10-24'an apaiztu zan, eta 31'an meza berria Loiola'n. Ondoren lau illabetez berriz ere soldadu Donostia'n, iru urte mando militarren mende.

Etxera biurtu ta Iaister Araba'ko Elvillar erritxora bialdu zuten txauburu. 1940'an Zumarraga'n daukagu parrokoiko laguntzaille; amar urtetan, lanari ekin zion eten barik, neska-mutikoak, Luistarrak, Ekintza Katolikua eta Dotriñea bere kontura zituala, 1941'an, Gabonetako dantza ta kantuak Poxpolifiekinekin egiteko asmoz zebillen, baiña guardi-zibillak esan zioten: «Sermoiak euskeraz, besterik ezer ez».

Deba'ko parroku izentatu zuten 1950'an. Emen ere bertatik asi zitzaigun lanean: euskerazko erakusketak, gau-eskolak geroago, eta Itziar'ko Amaren Ikastola azkenez. Iru urtean, Euskal-Jaiak... Beingoan artegatu zitzaizkion polizikuak, eta 1964'an Donostia'tik aibitea, Deba'ko OARGUI'k ez zuela ezertxo ere antolatzeko baimenik. Lan egin nai eta trabak nunnaitik.

EUSKAL IDAZLE.- Gasteiz'ko Mintegian ikasle zalarik, liburu txiki bat irakurriz eta ausnartuz biziagotu zitzaion amaren magaletik zekarren euskal-zaletasuna. Gerra aurretik «El Día»-n atera

zitun lantxo batzuk, «Leizadi» izen-ordearekin. Seminario'ko «Kardaberaz» aldizkarian ere eman zitun beste batzuk; garai artan antzerki bat ere osatu zigun, iru ataletan: «Semeno». Emendik atera zuen gero «Semeno de Lazkano» (anai arteko gorroto) zeritzan eleberria. Gerora, «Zeruko Argia»-n eta Donostia'ko «Diario Vasco»-n azaldu dizkigu bere lanik geienak, «01erti»-n, «Goiz-Argi»-n, «Principe de Viana»-n, «Agur»-en eta «Zer»-en ere idatzi duen arren.

Auek dituzu orain arte argitara eman ditun liburuak:

I. *Erderaz*: 1) *Catequesis Infantil* (Zarautz, 1965, Itxaropena).

2) *Religion prehistorica de los vascos* (Zarautz, 1965, Auñamendi Argitaldaria, Azkue bilduma, 10, 289 orr.). Erroma'n Irakasle (Doktor) egin zaneko tesisa.

II. *Euskeraz*: 1) *Oto ta pototo*, «Irripar egizu» (Zarautz, 1969, Itxaropena, 134 orr.). Ipui-sail polita.

2) *Juantxo-Txiki* (Zarautz, 1969, Itxaropena).

3) *Euskal-Erri Zaarra* (R.M. Barcelona Argitaldaria, 1969). Margo zabal-etxea. «Religión prehistórico»-ren leenengo zatia duzu, euskeraz.

4) *Semeno de Lazkano. Anai-arteko gorroto, XIV'gn. mendean* (Zarautz, 1970). 130 orr. Kezka batek darabil Arrinda. Onela diosku: «SEMENO-ren historio au euskaldunon historia da. Ordukoa bezela gaurkoa ere. Egundokoa. Euskaldunok alkarren arteko burrukarako egiñak ote...? Lana argitaratzeko aurretik, kezka batzuek ditut buruan. Ze jantziekin atera kalera...? Zer ortografi erabilli? Batzuek ezkerretik dijoaz, besteak eskubitik. Aiek gazteak dirala, zenbait zahar eurakin dituztela; auek zarrak dirala zenbait gazte-riakin... Batak besteari txistu. —Bioloji aldetik gurea da garaipena... —batek. —Bioloji aldetik zuek ere zartuko zerate —Besteak. —Batasunaren kontrakoak zerate, ez bai duzute hatxerik artu nai... —Hatxeren aurretik batasuna eginda zegoen... Batasun onek alienazio baten itxura artzen ari zaizu. —Euskaltzaindiaren ahurka zabiltzate... —Euskaltzaindiak bere legeak orain 50 urte emanak zituen ta orduko lege oiek diraute gaurdño. Zergatik puskatu dituzute...?»

(Itz-aurrea, 7 orr.).

5) *EuskalERRI Zaarreko Jainko Txikiak* (Gasteiz, Eset, 1973). «Kardaberaz» liburuxkak-3. 19 orrialde. Auek dira: 1) Galtxa-gorri; 2) Santimamiñe; 3) Akelarreak; 4) Mari, Anboto'ko Sorgiña; 5) Mari'ren Morroiak.

6) *Euskal-ERRIA eta Eriotza* (Gasteiz, Eset, 1974). «Kardaberaz» bilduma, 10. «Religion prehistorico»-ren bigarren zatia, geitua.

7) *Euskal-ERRIA eta Arrantza* (Donostia, 1976). Aurrezki Kutxa Munizipaleko «Ediciones y Publicaciones»-ek. Zergatik liburua? Egilleak du erantzuna: «Nere aita itxas-gizona zan eta 1927'an, bakaillau-arrantza berritu zanean (200urte orrelako arrantzarik egin gabe, Utrech'eko Itunetik onera), nere aita izan zan bakaillutan asitako Ienengo kapitana. Amabost urte nitun nik orduan. Berrogeita amasei joan-etorri egin zitun Terranoba'ko inguruetara. Bakaillau-arrantza berritze orretan lekuko eta testigu bat neu naiz» (1983-2-10'ko idazkian).

Argitaratzeko dauzkanak:

1) *Ator, Katamixar...* Ipuiak eta olerki apurfio batzuk.

2) *Argi-miña*. 1965-75'ra bitartean ateratako edo atera gabeko lanak, amar urte oietako giroa berekin dutenak.

3) *La Religion prehistorica de los Vascos'en* bigarren agertzea gertatzen arida, zenbait gauza geiagokin. EuskalERRIA eta Kristautasuna gai begikoak ditu.

Arrinda'k, azkenik, eztu prosaz bakarrik idatzi; ba-dauzka lan txanbeliñak neurtitzez egiñak ere, arin, errez eta mamitsuak noski.

Lekeitiar onek barne daraman kezka bigarrenez aipatuz, esan dezagun au ere: ba-ditula nunbait jakintza-tituluak. 1958'tik 1960'ra, Erroma'n, «Universitas Lateranensis» deritzan Ikasgu Nagusian, bi ikastarotan, Pastoral Ekintzako Teolojian Lizenzia eta Doktoretzarako kursilloak osatu zitun. Tesis egiteko, EuskalERRI Zaarreko Uzurtza artu zuen gai. Ona zergatik. «Une aretan —diosku berak— 32 apaiz gipuzkoar genbiltzan Donostia'tik at, ikastaro nagusiak egiten. Nere burua aientzako eredu agertu nai izan nuen.

Ai beste lagunek gure Euskalerrria tesis-gai artu izan ba'lute...! Al-perrik izan zan. Batek ere ez zuen nere biderik artu. Euskal-giro gabeko Seminariotik zetozen. Gu, berriz, beste giro batean egiñak izan gifian Gasteiz'en» *{Idem}*.

Idazle azkarra dugu Arrinda, euskal lurreko giro-barne lanari ekin diona. «Anes Lazkau'ko» eta «Arrankasi» sarri erabilli dizki-gu izen-ordez.

(Ikus Auñamendi, *Literatura*, IV, 203 orr.; S. Onaindia, *Euskal Eleria*, 200 orr.).

29.- SABIN MUNIATEGI ASTOREKA (1912-...)

Noizbait idatzi nuen nik: «Bizkaia'k ba-ditu bere olerkariak, onak, erdimerdikoak eta kaxkarrak. On orrean arteko da Muniategi». Bego baita, aurrera baiño leen, olerkari onek bere «Goiz-aize» (1935) liburua argitaratzean, Lauaxeta'k beronetaz diñoana: «Muniategi'tar Sabin olerkari gazte-gaztiarena dozu. Bizkai'ko itxaso arraren urdafia dauko begi-barnean. Eder eta On'ek eurentzat aute-tsi eben. Buru ameskorra eukan eta aruntz-onuntz ibilli izan da bere euzko txapela buruan ebalá. Ondo ikasi eban: «Atzerrian lurra garratz, oña ipiñi egik baratz».

Gernika'tik Lekeitio'rako bidean, Ereifiozar-pean, daukagun Artia'n jaio zan Muniategi 1912-12-11'an, Agirreta auzuneko Portu-Pantxikone izenez ezagutzen dan bizitza biko basetxean. Beronek dio: «Urdibai ibaiaren gazi-gezazko bustitasun lurrunez eta Atxarre'ko mendi artadien beltzadura eta gaztañadi oparotsu ta basoko egurteriaren itzal eta ezetasunean, Argatxe ta Ozollo bitarteko ibarrean aurkitzen da auzune au».

Bertoko eskolan egin zituen lenengo ikasteak, 1919-1925. Gernika'n gero, agustindarren ikastetxean. 1929'an, oraindik 17 urte etzituala Filipinas ugarteratu ta Bais izeneko bisaltar errian azukre-kañaberaz eta kokotegi ederrez inguraturiko «Nasak» landetxean lan egin zuen, ango langilleen artean bisal izkelgia ere ikasirik. Or malariáz gaixotuta, osatu zanean, Ilo-Ilo'n eta Manapla'ko lande-

txe baten babestu zan; landetxe onen izena Nerbion zan, lenengo ugazabak, au da, Mendieta'k, Begoña aldeko bizkaitar batek ezarritakoa. Egoitz mana onetan ondu zituan Muniategi'k bere leenengo olerkiak, ementxe parnasoratu zan aldamenean zeuzkan gara zurixka ta gorrikkako kañaberadi ta kokotegien ikuspegiz bere go-goari egazean uzten zion bitartean.

1934'an Sabin Filipinas'i agur eginda Euzkadi'ratu zitzaigun. «Euzkadi» izparringiko «Euzkel Atala»-ri esker, ezagutu al izan zituan euskaldun zintzo askoren lanak: Erletxue, Lauaxeta, Lizardi eta besteenak. Lauaxeta'k irabazi zion biotza batez ere, eta Bilbo'n alkar ezagutakoan, Muniategi ta Lauaxeta'ren arteko adiskidetasuna sortu zitzaigun, olerkari birena noski. Gudatean Elorrio aldean ibilli zan Sabin, eta gero, garaituak izan giñanean, zurrunbillo ikaragarrian murgildua geratu, galtzailleen taldean millaka asko gudari minberaturen artean, ainbat urteko kalbarioan: zigor-batzakuntzazko zelai, zigor-gudaloste, espetxe ta abar, egun eta urte lazgarriak nunbait. Gero Donostia'ko «Cementos Rezola»-n lan egin izan du urtemordoan, eta gaur zaar-saridun Errenderi'n daukagu bere emazte ta seme-alabakin, olerkintzari emana.

OLERKARI.- Ez dakigu sarri zer daramagun barruan. Eta irakurte batek, ikutu goxo batek esnatu oi du geuron izate-muiñean lo bezela zetzan gogo, ixurki edo aier bereziaren erne-miña. Filipinas ugartean piztu zitzaizkion Sabin'i, irakurriz alegia, aberri-miña eta euskaltzaletasuna. Antxe, Manila'ko «La Opinion» egunkarian azaldu zuten Rizal aundiaren «Maria Clara», «Muniategi'k euskeraz jarria.

Ariz-ariz iritxi oi zaigu egunero argi-urratzea; olaxe olerkariaren ospea ere. Muniategi'k beiñola «Biotzaren Deya» zeritzon poesi bat argitaratu zuen «Euzkadi»-n eta Lauaxeta'k oar au ipiñi zion bealdean: «Olerkari barri onek ez dakigu zer daukan, baña euzke-reak eztau gaur-arte entzun olako gauzarik». Ba-zijoan abarrotsa aziagotuz, argi-izpiak edatuz.

Muniategi'k eztu askorik idatzi prosaz; itz neurtutan badu os-tera etorria eta ekarria. Or lekuko liburuak eta aldizkariak. Ona:

1) *Goiz-Aize* (Bilbo, 1935, Henao kaleko «Zurak» irarkolan, 80 orr.). Ogetamabi olerki guztiz, laburrak geienak, eta rimadunak, banaka batzuk izan ezik. Poesi-lanean ari geranean, geienetan beintzat inguruko zerbaitek dardarazi oi digu biotza naiz adimena, au edo bestea entzuteaz sarri. Baita atzerrian samīnetan aurkitzeak ere. Liburu au olakoz apaindurik dago. Etxerantz datorrela Kolonbo-ko belak dardarazi diote biotza, bela beltz loiak, baiña ez il aietari-korik, ez ikutu, abere goitarrak dira-ta. Olerkariak:

Oi, ene! neure euzko-begi, begi urdiñak!
Zeylon ugartian, Kolonbo'ko urijan
zenbat bela ikus dozubez egazean
aragi ustelez beterik erpiñak?

2) *Bidean gora* (Bilbo, 1970, graficas Bilbao; 184 orr.). Olerkiak. «Euzko Elertiak asko itxaron daike mutil onengandik» esan zuen Lauaxeta'k lenengo poesi liburua atera zuenean. Orrela izan da izan ere, artiar eder-zalea etzaigu aspertu olertigintzan, azken ogei urteotan baitik bat.

Bigarren poesi-liburu au 98 olerkiz ornidua duzu, txukun oso-tuak eta txukun irarriak. Nik itzaurrean: «Olerkaria, urtez urte, esperientziz eta biotz-zirraraz azi, ugaritu ta edertu egin zaigula ezereen lotsa gabe aitortu dezakegu. Izadi-aro berri bakoitzak bere lillura berezia du, urterik urtera izan ere. Jantzi berriak, lenak ez zuen zerbait badu. Giza-adimenak, giza-biotzak berdintsu. Eder'i begira beti bere udaberi udazkenak ditu. Zein obe? Epaleari zoliaren sardaiak ere ez du emen errez ebatzi aal izango».

Muniategi gazte ta adiñeko langille gertatu da nun-nai ta noiz-nai. Baita nun-nai ta beti olerkari ere. Eta esku arteko gaiak izan dira geienetan landu ditunak. Ez ote dugu, beraz, sozial poeta? Gure lurra, gure gauzak, gure istilluak eta goraberak ditu, aspertu gabe, kantagai. Euskalerria obetu nairik dabilzananen arteko izan nai du Muniategi'k. «Bideatu nadin» asten dan poeman zuzentasunaren alde ari da:

«Atera nadin gogoz, zintzotasunez,
azkatasunaren bide nekegarritz...
gizarte, aberri, zuzentasun alde,
iñoizko bidegiterik alkartuenez».

Kantari jaiio, Jainkoa abesten du Muniategi'k; izadia abesten du, udaberri ta udagoien, zugaitzak, mendiak, erreka-zotoak, arkaitzak, aize ta itxaso, artzai ta nekazari... Gazteen ibillaldiak kantatzen ditu, amets lilluraz sustartuak, ikusterik baikorrenez lorez lore dabil-tzanak...

Azken denborotan eztu iñork idatzi bertsoz artiarrek aiña. Ugari ta jori da berau, ugaritasunak iñoizka ber-esana ta oker batzuk be-rarekin dakarzkina arren.

Bada itzultzaile ere, trebe ta bipilla; Alberti, Fernandez, Ma-txado anaiak, Altolagirre, Gartzia Lorka, Ibarburu ta olakoen olerki-lanak, ainbat europar eta amerikar poeten lanak, euskeraz ipiñi dizkigu.

Sari galantak ere, bidezko zanez, eskuratu izan ditu olerki-ba-tzaldietan. «Olerti» saria 1963'an asita iru edo lau aldiz berak era-man zuen. Eta igaz (1982) Ondarru'ko Euskal Lora-Jokuetan poesi-arloan beintzat berak jaso zuen leen saria, 150.000 pezetakoa.

Gerra aurretik, eta gudatean, «Euzkadi»-n, «Euzkerea»-n, «Egu-na»-n eta «Tierra Vasca»-n idatzi zuen; gero, «Zeruko Argia»-n, «Olerti»-n, «Karmel»-en, «Goiz-Argi»-n, «Agur»-n, «Zer»-en eta iñoiz «Deia»-n idatzi izan du.

Labur: egiazko euskal idazle ta olerkari dugu Muniategi. Eus-kerajator, giar eta asmotsua darabil. Gaiez oparo du adimena, era-gin bizia naimenean eta jantzi ñabarrez apaintzen daki izkuntza.

(Ikus S. Onaindia, MEOE, 748 eta *Euskal Literatura*, 115 orr., eta *Zer*, 1980, 29'garren zenbakian, 8 orr., eta 37'gn. zenbakian, 8 orr.; San Martin, *Escritores eus-kericos*, 1968, 135 orr.; Auñamendi, *Literatura*, IV, 221 orr.; J. Bilbao, *Bibliografía*, V, 523 orr.).

30.- PAULIN SOLOZABAL ETA SOLOZABAL (1912-...)

Markiña'tik ur-ur dagoen Etxebarrian'n jaio zan 1912-5-4'an. Errazoi askogatik urri-xamar ibilli zan leenengo eskola-gaietan. Eta berau sarri oartu izan da utsune onetaz; orren irrikaz edo, gerora ez du iñoiz amor eman liburuekin indar-neurtzen.

Elizgizon izateko, 1925'an, sortetxeko baso, zelai, sagasti ta etxekoak utzirik, Durango'ko jesuiten ikastetxean asi zan latinmai-Uako ikasgaiz jabetzen. «Mundu bi oso ezbarðiñak —diosta berak—; ona gurasoen etxea, baiña Durango'ko ikastetxea ta giroa, apaiñak» (1983-2-26'gneko idazkian).

Emen ikastaro bi osatu ondoren, Arrati'ko Kaztelu-Elexabeitia'ra aldatu zan, ikas-bizitza latzagoa asirik. Benetan ikasi ta aurrera jo bear. «Baserritar buruak —idazten du berak— zurtu edo apurtu egiteko giro aukerakoa egoan tokia izan zan». An ez zan bear epelkeririk. Au omen zan orduko slogana: «Al ba'dok egin, eta bestelan, maletea artu ta Arratia'ko tranbira». 1929'an Gasteiz'ko Apaizgaitegian daukagu; etxe aundia, otza; gazte asko ta ikasteko gogo bizia; apaiz urte zeregiñez nekeza. Danak ez, baiña geure errian abadetza egin bear ko zala-ta, «geure bidez eta alegiñez geure izkuntza lantzen asi giñan, ikasle arteko aldizkari apal baten bitartez... Antxe erneak dira nire lenengo euskal-itx idatziak be».

Solozabal ikasle zala sortu zan gure arteko giza-guda, eta guda-zelai ta mendietan ibilli bearra jausi zitzaion. Onela berak: «Guda-aldi artan, «Eguna» euskaldun aldizkaria agertu eben euzkotar jatorrak. Orri oneetan idazteko erea izan neban; eta mendian, pozez irakurten genduan euskaldunen barriak eta idatzi mamintsuak». Beronen leenengo bertsoak, ordea, Naparroa'n, Lizarra'ko gudal-txean, guda barruan sortu zituan lenengo zortziko pareak; baiña, ixil eta bakarrik. Guda amaikera, 1939-7-2'an, Bergara'n abadetu zan, meza barria Etxebarria'n bere jaioterrian il beraren 9'an emanik.

Abadetza egiten Araba'ko Basabe, Azebedo, Mioma ta Pinedo errixoetan egon zan iru urtez. 1942'an Mungiratu zan, Pedro Men-

txaka ta Jose Zameza apaiz jakintsuen sorterrira. Eta gaur ere, Laukariz'ko txauburu dala, ementxe jarraitzen digu.

EUSKAL IDAZLE.- Berezkoa ez da errez itotzen. Paulin Markiñaldekoa izanez amaren altzotik zan euskera gozo jatorraren jabe. Urte batzuk ixilik, giro gabe, irazi ondoren, Mungia'ra aldatu zutenean, izan zuen eretia euskera landu ta idazteko ere. Etsaia, orraitio, zur ibiltzen. «Ona (Mungira) eldu orduko —dio—, politikutzat artu ninduen, eta bereala asi zan jazarpena. Aldi artako parrokoak iru ilabetegarrenean, aditzen emon eustan. «Darabiltzun erako euskera bikaiñik ez egizu erabilli... jazarpendua izango zara-ta. Ordurako, baiña, metxa su arturik egoan eta nire bizia olan erre bear zan euskera izkuntzaren barne-muiñetan: teillatu azpiko gauzen artean bitxi ederragorik ez bait dut aurkitu».

Kezkak joa dabilkigu Paulin, eta kezka orren apur bat bederen bere idatzietan laga digu. Idaztera zerk bultzatu ote zion galdetuz gero, berak onan: «Gure erriaren izaerak; emen sortu ninduen Egilleak; euskaldun eratu zan nire erria, ta oneri zor neutson oso-osorik neure bizia, arnasa, lan eta maitasun guztia; auxe nire gogoaren iturria». Eta idatzi egin du, bertsoz eta itz lauz, idatzi «Eguna»-n, «Karmel»-en, «01erti»-n, «Jesus'en Biotzaren Deia»-n, «Agur»-en, «Aurrera»-n, «Zer»-en.

Sei bat olerki-liburu argitaratuak dauzka. Ona:

1) *Uskeriak* (Bilbo, 1961, Graficas Bilbao, 168 orr.). Lau sailletan bananduta: 1) *Begien dardar*, 34 olerki, 2) *Barrua miñez*, 41 olerki; 3) *Jainko-kezkaz*, 51 olerki; eta 5) *Inguru-mingura*, 20 olerki. A. Onaindia'ren itzaurrea.

2) *Urre-bitsa* (Bilbo, 1962, Graficas Bilbao).

3) *Gizonetan* (Bilbao, Graficas BiJbao, 116 orr.). A. Onaindia'ren itzaurrea. Au dio bertan: «Paulin kezkatu, usakatx eta zain-bizi yatorku. Gaurko gizarte-arazoetan sarturik, gizon billa ibillia dogu. Gizona, ordea, jausia ta porrot egifia ikusten dau, duintasun barik; ezta goi-zale, lur-zale baiño; biotza maitasun-abi barik, gorroto-abi dau. Eta olerkariak ezin dau ori ikusi».

4) *Gizadian* (Bilbo, 1972, Graficas Bilbao, 155 orr.). A. Onaindia'ren itzaurrea. 71'gn. orrialderaifto itz lauz dago, eta gaiñerakoa bertsoan, guztira 79 olerkitxo. «Bakotxak dautzu bere arima — dirakurgu sarreran—; bakotxak dautzu gauzak somatu, ikusi ta azaltzeko era berezia. Onek daukanik, beraz, ez eskatu ari: are-pikor bi dira oso ezberdiñak. Arira datozela, Solozabal'en poesia «bera ta bere ingurua» dozu; bere arimatik urtena, bere barneak eta inguruak, giroak sortarazia. Zer nai dozu geiago? Danok garala pizkat bertsolari, esan daroagu. Ez dautzut ukatuko; baiña guztiok ditugun barne-muiñeko zauskadak, sentidurak be, olerkiz adierazten jakin bear da. Egiaz beintzat, olakoari deritxogu olerkari».

5) *Deika* (Bilbo, 1974, Graficas Bilbao, 215 orr.). 204 olerki. A. Onaindia'k itzaurrea. Irakur: «Itandu poeta bati zelan biribildu dauan olerki-lan ain bikaifia; ez dautzu agertuko, ezin dau-ta. Olerkaria, momentu ortan beiñik-bein, bere mundu berezian ari da lanean, eta gure oizko mundura aldatzean, ez daki ango barririk emoten. Bere lanari ekion bitartean etzan inguruko ezertaz konturatu. Alan be, or dozu egilleak gogaiz ta biotz zauskadaz gaiñezka itxi dautzun lan ederra. Erabat onakoxe sorpenak dozuz Paulin'en bertso-lanak be, ixillean, berak zelan ez dakiala bizitza emon eta apainki jantziak».

6) *Erri arnasa* (Bilbao, 1977, Graficas Bilbao. A. Onaindia'k itzaurrea.

Lan ixil, jarraiko ta txalogarri onek merezi dau ordaiña. Eta liburu-arloan ez-ezik, olerki-sariketetan ere izan ditu bere omenaldiak, bai itzezkoak eta bai sarizkoak. «Olerti» Saria ta beste batzuk jaso izan ditu. «Egieder» erabilli du sarri bere idazlanak izenpe-terakoan.

Udabarriz lore-pitxiak txairo. Orrela ditugu Solozabal'en kanta-gaiak ere, lau, arrunt eta errezak. Artezi ta lanketa geiegi bakoak, arin-errezak. Jainkoak berak ere, gauza pitin, ttattar eta deus-ezetan erein zigun ederra oparo.

(Ikus J. San Martin, *Escritores euskéricos*, 158 orr.; Auñamendi, *Literatura*, IV, 203 orr.; Mikel Zarate, *Bizkaiko Euskal Idazleak*, 1970, 252 orr.; S. Onaindia, *Euskai Elertia*, 215 orr.).

31.- ANTONIO ARMENTIA AGIRREZABAL (1913-...)

Abando (Bilbo)'n jaio zan 1913-11-13'an. Lau urte zeuzkala bere sendia Gasteiz'era aldatu zan eta bertan eraman du bere bizitza gutia. Bere aita Leza'koa zan eta Gasteiz'koa bere ama. Auek ez zekiten ezer ere euskeraz eta gure Andoni erdelduna zan ogeitamasei urterarte, orduantxe asi bait zan euskeraz ikasten.

Berak egindako ikasketak mutiko garaikoak dira; amalau urte zituanenean, bada, eskola utzi ta burnigintzan ari izan zan, irurogeitabost urte bete arte lanbide orri ekifiik. Gizaseme pentsalari izanez, gaztetatik barne zerabilen asmo bat opildu naian 36 urteko zala bere burua euskalduntzen asi zan, gure mintzaira, euskera ikasten saiaturaz. Andoni Urrestarazu jauna artu zuen irakasle.

Bakoitzak ditu bere maiña ta igespideak izkuntzak ikasteko ere. Ona zer egin oi zuen Andoni'k, Norbert Tauer'ek eta beste batzuk egin izan duten antzera, «euskeraz itz-egin baiño leen —idazten dit—, idatzi oi nituen eskutitzak, gutunak edo idazkiak bialtzen nizkien emengo ta erbesteko adiskide, euskaltzale ta abertzale askori».

Orrela, irakurriz eta idatziz, euskal idazle jatorra egin zan, euskaldun berriai ikasbide ederra emanaz: baietz, iraupenez eta setaz, bide ertzeko sasi-oztopoak, ots, euskal gramatikak ditun gaiztasunak gaintuz, idazle bikain izatera iritxi litekela. Oraingo ontan, aspaldi artan bezela, bere ikasleai euskera irakasten ari dan arren, garai batean asko eta ondo idatzi zigun or-emengo aldizkarietan.

Onako aldizkarietan datoz Agirrezabd'en lanak, itz lauz eta itz neurtuz: «Pensamiento Alaves» egunkarian; Baiona'ko «Herria»-n, «Euzko-Gogoa»-n; Donostia'ko «Zeruko Argia» asterokoan; «Goiz-Argi»-n; «Estibaliz»-en; Bilbo'ko «Txistulari» eta «Redencion» aldizkarietan; «Euzkadi» astekarian; Tolosa'ko «Pyrenaica»-n eta beste boletiñetan. Bertso ta abesti asko osatu dizkigu, geienak argitaratu gabe dauzkan arren.

Gizon ezkondua ta oso langillea.

(Ikus J. San Martin, Apendice a «Escritores euskericos», Bilbao, 1969, 13 orr.; Auñamendi, *Literatura*, IV, 234 orr.; Isidor Baztarrika, *Jakin*, 1981, 17-18, 124 orr.).

32.- JOSE MARIA ETXABURU ETXABURU (1913-...)

Ondarroa'ko semea dugu euskal letretan ezaguna dan Etxaburu, ementxe bait zan jaio 1913-9-23'an. Beronen ikasteak erriko eskolan osotuak dira geienbat, eta gero irakuriz eta idatziz obetu ta oparotuak. Langille ogibidez, bere erriko kontserba-fabrika baten aibat urte egiña. Azken urteotan, berriz, bere seme bati tokiz aldatzea egoki zitziola sendagilleak agindu ziotelako, Ondarribi'ra aldatu ta an jarri zan bizi izaten, gaur ere bertan jarraiturik.

EUSKAL IDAZLE.- Ogei bat urteko zala asi zan idazten, Donostia'ko «Argia»-n eta Zornotza'ko «Ekin»-en lendabizi ta Bilbo-ko «Euzkadi»-n, «Euzko»-n eta «El Dia»-n gero. Gudateak ez zigun kikildu ta arrezkerokoak dira «Zeruko Argia», «Anaitasuna», «Karmel», «Goiz-Argi», «Jakín», «El Diario Vasco», «Euzko Deya», «Agur» aldizkarietan agertu ditun idazlanak. Onela berak: «Oraindik ogei urte ez neukazala asi nintzan euskeraz idazten, «Iturriondo» izen-ordeaz «Ekin»-era erriko barriak bialduaz. Gero, ize-norde au beste bateri ikusi neutsan eta «Kamiñazpi»-gaz izenpetuten asi nintzan». Gerra ostean egotalditxo bat Frantzia'n eta ondoren langille-batailloetan Extremadura'n lendabizi ta Pasai'n gero zegoelarik, asi zitzaigun idazten, eta arrezkero guztian ez du egundo eskutik idazkortza utzi.

Euskera goxo erreza du eta literaturazko batzaldi askotan jaso izan ditu sariak. Irun'go lendabiziko literatura sariketan berak eskuratu zuen leen-saria, «Errijaiak eta San Martzial'ko Alardea» zeritzan idazlanaz. 1969'garren urtean, Irun-go batzaldian, aipamena izan zuen Anjel Irigarai'rekin batera. Au zan orduko lana: «Bidasoa'ko kondaira atal batzuk aztertzen». Sariketa auetan, naitaez, «Bidasoa» gaia erabilli bear zan.

Irun-sariketok, 1973'an, sailletan zatitzen asi ziran, au da, maila aundiagoak egiten. Orreitatik bat ipui-sailla zan. Kamiñazpi'k etzuen urte ortan saririk iritxi, baiña an agerturiko ipui batzukaz liburuxka bat osatu zuten eta Kamiñazpi'ren «Jontxu-ren azkenengo Itxasoratzea» bertan sartu zuten. Gernika'ren 600'garren urtea zala-

tar, antolatu zan ipui-sariketak ondoren au izan zuen: 1'go Sabino Alonso Ariño, ipuia «Txomin'en nekaldiak»; 2'garren, Jose Maria Etxaburu, ipuia «Maitusunaren arantzak»; 3'garren, Manuel Ziar-solo, ipuia «Aretxa»; 4'garren, Jose Antonio Arkotxa, ipuia «Miel-gas». Errenderi'ko «Ereintza» bazkunak eraturiko sariketan, iru-garren geratu zan.

Euskaltzaindikoa da. Euskal ondakin jakingarriak bildu ta jasoten lan sendoa egiña: «Ondarrutarren izkera berezia», Euskaltzaindirako; bertso berriak A. Zabala'rentzako... «Pan-Pin» auraldizkariaren bizkaierazko zatia, berak gertatzen zuen.

Esan bezela, errez ta sakon ari da beti. Irakur; lotsarik ez bel-durrik ez diogun bati, oker dagoela adierazi nai diogunean, onela guk esaten: «Ez naiz Mutriku'ra joan, Donosti'ra baiño. Ostera, lotsarekin itz egin nai dautsagun bateri onela erantzungo geuntsake: «Ez naiz Mutriku'ra joan, Donosti'ra baiño. Ostera, lotsarekin itz egin nai dautsagun bateri onela erantzungo geuntsake: «Ez naiz Mutriku'ra joan, Donostia'n izan naiz». Biar bada ez dira oraziño guz-tiak bereizte orregaz konpondu leizkenak, baña milla modu egiten dira asmuak azalduteko. Nik, beste askok lez, ez dot jakin orain-tsu arte, «ez... baña... «orregazko esakerarik, baña onelako gogaiak azalduteko sekula ez dot euki eragozpenik».

Onelaxe zuur eta sakon jakotzen daki Etxaburu-k.

Nork argitaratu zai dauko liburu mardul bat, bere idazlanik ebe-renakin osatua.

(Ikus Juan San Martin, *Escritores euskericos*, 69 orr.; Auñamendi, *Literatura*, IV, 229 orr.; N. Kortazar, *Cien Aulores Vascos*, 73 orr.; S. Onaindia, *Euskal Elertia*, 200 orr.).

33.- IÑAKI ZUBIRI (1913-...)

Bilbotarra dugu Zubiri, naiz-ta jatorriz napartar. Euskaldun be-rria, azken orduan euskal-jit, zaletasun eta lerak maiteki ukitua.

Gaur, Bilbo'n euskera indar-azi naiez lanean diarduan «Euskera-zaleak» alkartearen buru dena.

Ez bitez izutu euskera ikasi guraz dabiltzanak; ortan asia zan Zubiri urte batzuk dirala, eta gaur-egun ederki mintzatzen zaizu edozein batzarretan, eta dotore asko idazten dizu azken amar urteotan argitara dizkigun liburuetan. Gizonak badu adorea barnean, eta adore orren leiaz pizkaka pizkaka, ia konturatzeko, lan bikaiñak dakizki osatzen.

EUSKAL IDAZLE.- «Agur» asterokoan asi zan, nik dakidanez, idazten, gerora ere ainbat idazlan osaturik «Zer» illerokoan. Orrezaz gain, iru Iiburu argitaratu dizkigu:

1) *Oroitzak* (Zarautz, Itxaropena, 1975, 282 orr.). Agiñalde'ko Txepetxa'ren oroitzak dira ipui antzera egindako lan ugari, errez, bitxiak, atsegiñez irakurten diranak, Gipuzkeraz dago. «Niketx — dio— bizkaireaz idatziko nukean, alabaiñan elertirako euskera zabal batean idazteak aspalditik kezkatzen ninduenez, nere izkelgia oraingo ontan alde batera utzi, ta euskaldun geienak uler lezaketen euskera bat erabiltzea erabaki nuen. Onek ez du esan nai, gure euskalkiak utzi bear ditugunik, ez urbiltzekorik ere...! Euskalkirik gabe euskera bizirik ez da izango; gure izkuntzaren iraupena euskalkietan datza, sendi baten iraupena semeengan datzan bezela. Gure euskalkiak ilgo ba'lira, euskera bizia, betiko suntsia litzake, latera il baten antzera biurturik. Indar dezagun beraz barruti bakoitzean erabiltzen dan euskera, goi-maillako elerti osotu baterantz zuurki eta zentzunez urbiltzen garan bitartean» (7 orr.).

2) *Galdu txakurra* (Bilbao). Eleberria, ipui luzea dala, esan oi da; «Galdu» berbadun txakurra duzu, aintziñako alegietan autuan eta alkar-izketan agertzen ziran abere ta piztien entzera; gauza asko esaten ditu, adimen argiko agerturik. Urruti joan gabe ba-dira olako eleberriak, Tormes'ko «Itsu-mutilla», Cervantes'en «Rinconete y Cortadillo» eta, urbillago, Azkue zanaren «Txiristadak», esan genezake.

Nobela auzian aitua dan Olazar'tar Martin'ek onela dio: «GALDU'k ba-dauko bere trebe-bidea (teknika). Alde batetik antxiñako

alegi edo fabulena. Sortaldean asi eta gaur arte piztian, abereai berba egitea eskatzen dautsen trebebidea... Beste aldetik, «pikaro»-ren trebebidea, apur bat egokitua baiña zeatza. GALDU euskal elertian «pikaro»-tankerako lenengo eleberria da... GALDU eleberria, «pikaro»-tankerakoa, irakurgai erreza ta ederra da».

3) *Bidetik amesetan* (Bilbo, 1982). «Bidari» izengoitiz izenpetua. Olerki liburua, 41 poesi, 95 orrialde. Gai mordo darabil, atsegiñak danak. Rimaz eta neurriz obeto ezin, eztu utsik. Pentsamentu eskertsuak eta jantzia ere txairoa.

Ortik kanpora, 1982'ko Olerti Egunean beronek etxeratu zuen lirika sailleko leen-saria. «Neskato itsua», bere lana. Neskato bat iruditzen du oJerkariak; bakarrik dago, arratsaldeko argi geldian. Ikuspegi zoragarria du aurrez-aurrez, baiña ez du ezer ikusten; begiak zabalik dauzka, baiña ez dute zabddiko edertasuna ikuskatzeko indarrrik; agor daude, idor, ildako lizarra iduri. Utsari begira dago gaixoa. Olerkaria urreratu zaio, eta aren zoriaz biotz-ikutua, onela kantatzen dio:

«Baserriko bitxi kutuna
jaiotzetik laztan itsua,
aizeari itaundu egiozu
ikusten ez dozun mundua».

Edu onetan, goxo ta legun, beste estrofa ere. Epai-maikoak esan zutenez, Lizardi ta Lauaxeta gogorazten omen.

(Ikus M. Olazar, *Zer*, 1980, 30'garren zenbakia, epailla, 3 orr.; Muniategi'tar Sabin, *Zer*, 1982, garilla, 11 orr.; S. Onaindia, *Zer*, 1983, 61'garren zenbakia, urtarilla, 8-9 orr.).

34.- ANDONI AMUTXATEGI (1913-...)

Nun eta noiz jaio zan? Elantxobe'n, 1913-7-24'an, Gorgonio M. Renteria, Imanol Arriandiaga, Andima Ibiñagabeitia, Jose In-

txusagarri ta gaiñerako angotar euskal idazle azkarren antzera. Leen-
letrak errian ikasirik, abadetartzako ikastaroak, leenengo lau urteak,
Arratia'ko Arteaga'n edo Castillo-Elexabeitia'ko seminario txikian,
eta beste zortzirak Gasteiz'en, leenengo biak Seminario zarrean eta
beste seirak barrian. Apaizgaitegi barri au zabalkeran an zan An-
doni eta errege, Aitasantuaren ordezeko ta beste ainbat gizaseme
ospatsuz egiñiko egun ain gomutagarrian geratu zitzaionetik auxe
du batez ere aitzu-eziña, ots, Pio XI'naren Nuntzio-Ordezkari zan
Tedeschini jaunak esandako itzok: «Euskera ez da galdu bear, Es-
paña'ren eta munduaren goraltzarako».

Gudateak nun aurkitu zuen? Ona berak: «Elantxobe'n bertan;
nire ikaskideak abade ziran, lau izan ezik. Gudaritza zaia-ta atzeratu
giñan bostok, Frantzia'ko «Aketxe» edo Dax'en egin giñan abade.
Euzkadi'ko Jaurlaritzaren baimenagaz eta erbesteratuta egoan Gas-
teiz'ko Gotzain Mujika Urrestarazu'tar Mateo egurgarriaren eska-
bidez eta eskubidez eldu giñan bertara. Andik illa betera, atzera
biurtu giñan Bizkaira, Eusko-Gudarosteko kapillautasuna eusko gu-
dareikin betetera. Pazko-Berbizkunde osteko eguenean eldu nintzan,
Bergara aurrean dagon «Basalgo» deritxon mendira, ta antxe eza-
gutu neban lenengoz Santi gure laguna. «Kirikiño» batalloian al-
karregaz eta Santoña'ko espetxe nagusian be alkarregaz» (1983-8-26)

Zigor-zelaietan egon zan ondoren, urte batzuetan. Gero, Lau-
zirika jaunak Araba'ko Antoñana erritxora bialdu zuen, an ingu-
ruetako eliz-gizonen buru, iru urte bertan egiñik; andik Bilbo'ra sei
urte bertan igarorik, eta Sukarrieta'n amazortzi urte gaur Begoña'n
bizi da.

Txistulari, bertsolari ta euskal idazle dugu apaiz-izatez kanpo.
Gasteiz'sen ikasle zala asi zan idazten; an, Gasteiz'ko Apaiz-Ikaste-
txean, bere urteko ikaskidean artean «Mens nostra» zeritzan
aldizkaritxo bat eteratzen zuten, eta bertantxe idazten zuen Ando-
ni'k ere euskera utsean. Ordutixkoa du idaz-griña. Bere izen-
abizenekin gitxitan idatzi du, geienez «Lertibe» ez-izena erabilliaz.

«Txistulari», «Karmel», «Agur» eta «Zer»-en datoz bere arti-
kuluak, bertsoz eta prosaz. Beti euskera ederrean, gatz-ozpiñez zan-
patuan. Ona «Demokrazia» deritzan olerkitxo au:

«Demokrazia kortxo bat dogu
brinko ta brinko ur gainean;
agintariak beian nai dabe,
erriak nai dau azalean.

Kontuz ibilli agintariok
beti beruntza bultzakeran,
kontuz ibilli azaldukeran
jo ez zaitezen musturrean».

35.- MARTIN GARTZIA ALKORTA, «GORRI» (1913-...)

Ondarroa'n, Erribera kalean jaio zan 1913-7-16'an. Bere gura-soak: Martin Gartzia Alvarez eta Maria Frantziska Alkorta Barinaga-Errementeria. Ogibidez pelotari. 1934'an, 21 urtekin, Barzelona'runtz irten zuen pelotan (zesta puntan) jokatzeko asmoz, baiña andik laister Sevilla'ra bialdu zuten eta an, «Fronton Betis»kn asi zan jokatzan. Urrengo urtean Bilboraturik, «Euskalduna» pelota-lekuan egin zituen bere joko-aldiak.

Gudatean Gordexola gudataldean egin zuen guda guztia. Bilbao jausi zanean, Menperatzailleak lenengoz Iruña'ra eraman zuten, gero San Pedro de Cardena'ra; Brunete'n ere egon zan lurrak aztertzen. An Taldeburu bategaz eztabaida izan zuelako, Nabalkarnero'ko espetxean sartu zuten atzillo. «Lenengo iru egunak —dio berak—, bakartade uts baten giltzapetuta egon nintzan... Geroztik, uste dot, irabazten urten nebala; negu gogor guztia, ba, espetxe barruan emon neban epeltasun ederrean».

Ondoren Automovilismo-taldean, Hueska ondoko Ayerbe erri-txoan, Barbastro'n eta Aran-ibarrean ibilli zan guda-zalapartetaik naiko urruti. Azkenez erriratu zan eta ondarrutarrak estu samar zekusalako, pelotaritzarako irten zuen berriz ere. Barzelona'n jokatzen zuen geienbat, Iruña'n ere bere egotaldiak egifiik. Emen maite-mindu zan Billalba'ko alaba Ilzarbe ta Zenoz'tar Mertxe'gaz; bero-negaz ezkondu ondoren, Venezuela'ra aldatu ziran, eta pelotarai-

tza utzi ta beste lanbide batez eguneroko ogia irabaziz eta seme-alaba biren aita izanik, 26 urte erre zituan. Gaur bere erriko giro gozoan bizi da, beretarrakin.

EUSKAL IDAZLE.- Zerk euskel-zaletu zuen «Gorri»? Berak onan: «18 urtekin lenengo aldiz Bilbao'ratu nintzanean, nire lengusuak mindu ninduan neure euskaldun arrokerian, eztabaida bat zala-ta». «Euzkadi» egunerokoa irakurri ta bere euskera obetzen asi zan. «Gure garaian —darrai— ez egoan gaurko erreztasunik ikaskuntzarako; baiña gaur ez dagoana geunkan garai artan, burubide geiago abertzaletasunean eta euskal nortasunean». Eta gaurko nabarmenkeria ikusirik, eta gaurko idazle asko beste bera ere ba-dala ikusirik, or dabil bera ere idatzi ta idatzi. Gizaseme urduria, ez dau nai iñolaz ere euskera, gure izkuntza iltzen ikusterik, eta al duentxoa egin gura.

Igarri bako idazle bezela asi zan, eta ainbat idatzi du Bilbao'ko «Zer» aldizkarian baitik bat. Berton agertzen dizkigu gaiñera gurtza-grama politikak. Berak: «Asko ez badira be, mordoxka euzkel jatorrez egindako gurutz-izkiak daukadaz».

Onek ere, bere apurrean, jantzi egiten du gure literatura.

36.- AGUSTIN ZUBIKARAI BEDIAUNETA (1914-...)

Ondarroa'n jaio zan 1914-11-1'an. Ikastaroak: Ondarroa, Saturran eta Donostia'n. Zornotza'ko «Jaungoiko-Zale» aldizkaria, 1932'an, «Ekin»-en aldatzerakoan, an sartu zan lanean. Gudatean, «Euzkadi»-n eta 1937'ko Urteberri egunean «Eguna» sortu zanean, ango izparkari buru.

Bilbo galdu ondoren, «Aralar» batalloian ibilli zan Santander eta Asturias'en. Laredo'ko makurpenean baituta geratu ta Castro, Aranda de Duero ta Miranda'ko baituen zelaietan egon ondoren, Guadalajara'n ibilli zan «64 Langille Batalloian». Andik Donostia'ko espetxera eta gero 1939-1-4'an, beste zortzi izparkariekin batean, kanjeatua izan zan eta mugaz beste aldera bialdua. Tarbes eta

Lannemezan'en lanean jardunda gero alemanak an sartzean, etxerako baimena eskatu zuen, baiña bidean zetorrela Kataluña'ko Figueras'ko «fuertean» sartu zuten eta andik Gibraltar aurrera bialdu, barriro lanera.

1941'an etxeratu ta urrengo urtean ezkondu zan, Ea'ko Maria Erkiaga'gaz. Ezkontza onetatik sei seme-alaba euki zituen. 1941'tik 1980'rarte arrain fabrika bateko kontularitzan euki zuen ogibidea, Motriku'n. 1940'an Ondarroa'ko Kultur Etxeko zuzendari aukeratu zuten. Euskal kutsua sartu nai izan dio bere ardura orreri, euskal liburuak, itzaldiak eta jobideak ugarituz. Euskaltzaindiko urgazlea. Eta Euskerazaintzakoa.

Beti jokatu du euskerari emana. Gerra orduko eta ondoren, aibat aldizkaritan izan da lankide, «Boga-Boga» ondarrutar aldizkarian batez ere. Gaur Bilbo'ko «Deia»-an ari da atertu barik. Guda aurretik «Arteta», «Gurutx», «Likona», «Kutuntxu de Artibai» eta abarrez ezkututzen zuen idatzietan bere izena; gerora «Itxasertz», «Zutarra», «Ondarzuhi», «Obaiondo» ta beste batzuk erabili ditu.

EUSKAL IDAZLE.- Idazle ugaria, errrikoi ta lau darabil luma; esaera zarrak guzurrik ez, egia dalako-edo, oparo sartu oi ditu bere idazlanetan euskal supitu, esakun eta atsoitzak. Kontuak, teatrua, eleberria, olerkia, kondaira ta abar landu dizkigu. Emen, bera, bost sailletan banatuko ditugu Zubikarai'ren lanak:

I. *Kondaira*. 1) *Motriko* (1968). Gipuzkoa'ko Aurrezki Kutxaren saria. Erdera; 2) *Ondarroa* (1972). Euskeraz eta erderaz. Junta de Cultura de Vizcaya'k saritua; 3) *Luma izkillutzat*. Gure gerrateko oroitzak; 4) *Ondarroa'ko Abizenak*. 1550'tik 1900 bitartekoak. Euren jatorria; 5) *Azkue'ri jarraitzen*. Bere iztegiari, Ondarroa'ko begiz eta itxas-itzen bidez jarraitzen.

II. *Antzerkia*. 1) *Aberriagaz bixi* (1934). «Euzkadi» egunkarian; 2) *Illobearen indarra* (1935). «Euzkadi» egunkarian; 3) *Itxas lapurrak* (1936). «Euzkadi» egunkarian; 4) *Umetako kezak*; 5) *Itxasertzeko Itsu-mutilla*; 6) *Itxasora* (1945). Biarritz'en saritua; 7) *Aingira kumak*. «Egan»-en argitaratua; 8) *Seaska inguruan*. «Egan»-en dator. 1956'an Donostia'n saritua; 9) *Jaunaren Bidetan* (1959).

«Egan»-en dator. Altuna'tar Jose Marri'ren muskeaz; 10) *Kresaletan*, Gregorio Solabarrieta'ren muskeaz; 11) *Mariñelak*, Altuna'tar Jose Mari'ren muskeaz; 12) *Loiola'ko Semea*; 13) *M naz kapitan piloto*; 14) *Iru alaba*. 1963 urteko Toribio Alzaga Saria irabazia, eta «Euskera»-n argitaratua; 15) *Gizon on eta andre erre*. 1967'ko Toribio Alzaga Saria; 16) *Bizi garratza*. 1967'ko Gipuzkoa sarietan aipamena; 17) *Larrunpean*. 1968'ko Gipuzkoa Saria. «Egan»-en dator; 18) *Errekonduan*. 1969'ko Gipuzkoa Saria; 19) *Mendu zaarrak*. 1969'ko T Alzagaf Saria; 20) *H. Opokoa H.*; 21) *Kirritirrika*; 22) *Gernika-Aritz aurrean*; 23) *Zurrukutun*; 24) *Baserriaragur*; 25) *Saliña-saliña*; 26) *Zimur zimelak* eta beste batzuk. Baita Kirikiño'ren «Atxuriko Milagrua» eta Urruzuno'ren ipuiñetatik «Urruzuno'ren umorez» antzerkirako moldatuak.

III. *Olertia*. 1) *Urbasatik kantuz*. 1967'an Sangotza'ko Lore Jokoetan bigarren saria; 2) *Naparroako bideetan*. 1968'an Sangotza'ko Lore Jokoetan leen-saria; 3) 1977'an, «Lauaxeta» sarietan aipamenak; 4) beste batzuk, «01erti»-n agertuak eta agertzeke.

IV. *Eleberri*. 1) *Pinuetako madalenak*. 1965'ko Gipuzkoa Saria; 2) *Laiñoak Mundaka'n*. 1979'an, *Etxeita Saria, Mundaka'n*; 3) *Mundaka*, 1979'an, Etxeita sarietan aipana; 4) *Anton Guzurretxe*, (Bilbo, 1979). «Txonin Agirre» saria; 5) *Ira usaiña* (1980). «Etxeita» saria; 6) *Zaldupeko Txikiena*; 7) *Indar barriak*; 8) *Baledenporak* (1978). Euskeraz jarriak: 1) *Mixioiari Agurgarriak*. Biktor San Migel'en «Kerala Adios»; 2) *Gaztelugatxa*. Delmas'en «San Juan de Gaztelugacoe».

V. *Kontakizunak eta Ipuñak*: 1) *Esan eta esango*. 1978'ko «Azkue» saria. 2) *Gure ibillerak*. 1974'ko «Karmel» saria; 3) Donosti, Bilbo, Larrea, Bermeo, Ondarroa, Euba eta abarretan saritutako ipuiñak. Lanok dirala-ta, berak onan: «Militarrak galoiak artzeko lez, batzuk aztuta ta besteak puztuta. Geroak urtuko dau bitsa.

VI. *Azken liburuak*: 1) Bizitzako urratsak (1981); 2) *Gure inguruak* (1982). 125 euskal errietako jakingarri ta ikuspegiak. Leendik artikulu bezeia aldizkarietan argitara emandako lanakin osaturiko liburu mardula.

Bego emen, azkenez, «Euskal Idazleak bizkaieraz» datorrena: «Beargin itzela gure ondarrutar au, gaztetarik asi eta gaur arteinoko guztian euskal literaturaren alorrik geientsuenak landu ditua-na, Ondarruko kresal-usaineko izkera bizi, errikoi, labur eta koipe-tsuz. Gure idazlerik ugarienarikoa, bizkaieraren barrutian gorengo maillakoen artekoa» (244 orr.).

(Ikus J. San Martin, *Escritores euskericos*, 173 orr.; M. Zarate, *Bizkaiko Euskal Idazleak*, 262 orr.; J. Bilbao, *Bibliografía*, VIII, 360 orr.; Auñamendi, *Literatura*, [V, 240 orr.]; S. Onaindia, *Euskal Elertia*, 225 orr.; K. Etxenagusia, *Euskal Idazleak bizkaieraz*, 244 orr.).

37.- IMANOL BERRIATUA (1914-1981)

Elantxobe, gizaseme argi ez gutxiren itxas-ertzeko erritxoan jaioa dugu Berriatua, 1914-12-24'an. Aita prantziskotarra genuen. Gernika-ra zan aurtzaroan bere etxekoekin eta emen Santa Klara'ko lekaime-komentuko meza-laguntzaille izan zan luzaroan, bertotik asiaz Foru'ra joan eta eliz-karrerarako bearrezko diran latin eta inguruko ikasgaiak egiten; ondoren, Arantzazu, Zarautz, Aguilera (Burgos) eta Napparroa'ko Erriberri (Olite)-n osotu zituan bestea.

Donostia'n, Loiola'ko gualtegian zegoen 1936'an soldaduzka beteten; urrengo urtean nagusiak Kuba'ra bialdu zuten eta 1938'an Abana'n apaiztu ta meza berria eman zigun, amairu urtez arima-zaintza egiñik ugarte artan. Euskalerrira itzuli zan 1950'an eta geroztik Bizkaia'n biziko da Foru, Bermeo ta Bilbo'ko komentuetan. Azkenez, israeldarrak beren erria ebetar izkuntzaz eskola-tzeko darabilzkiten ikas-erak ezagutu nairik Jerusalem'en aurkitzen zalarik, buruko odol-kolpez il zan bertan, 1981-9-15'an.

EUSKAL-ZALE.- Ez du gutxi esan nai lur girotuak. Elantxobe, itxasaldeko errixkarik geienak legez, euskal giro onekoa gertatu da, eta orrelaxe diruanik gaur ere ezin dezakegu uka. Aita Imanol'i. beraz, goiz-goizetik sortu ta piztu zitzaion euskal kezka. Gaztetxo zala eratzun legetik igaroa genuen, diotenez, eta onek berez bezela

dakar euskaltzaletasuna: olako min-iraiña artua naitaez euskal kez-
kak joa izango.

Aita Villasante'k dioskunez, ba omen zan Arantzazu'n Teologi ikasleen artean barne-aldizkari bat, «Ensayo» deitua. Berton olerki-
txoak-eta idazten asi zan Imanol. Kuba'n izan zan irakasle ta na-
gusi; izkuntz-irakasle zan, euskera, grekoa eta frantsesa erakutsirik.
Orduantxe jarri zan euskal idazle askorekin artu-emanean, bere le-
kaidekideai bere «Euskal-aditza» gipuzkeraz eta bizkaieraz aton-
tzen lagundurik.

Foru'n zegoela, ots, 1953'an, sortu zuen «Anaitasuna», berak
urteetan zuzenduriko aldizkaria. «Hasieran eliz-orri umil bat zan.
Jakiña danez, Berriatuaren bizitzea —dio A. Villasante'k— urte
luzeetan aldizkari honi lotua egongo da. Aldizkaria euskera batua-
ren bidetik sartu zanean, Imanol, idazle baiño gehiago, lanen zuzen-
tzaille izaten zen, hots, lan guztiak gramatika aldetik eta batasun
aldetik zuzentzen zituen. Hitz zerrendak ere jartzen zituen zenbaki
bakoitzean, hitz berri edo guti ezagunen esanahiaz». Lan auenga-
tik, 1961'an, Euskaltzaindiko izentatu zuten.

Bermeo'n aurkitzen zala bere egiteko berezi baten ere esku ar-
tuko zuen: arrantzaleen kapillau bezela ainbat ostera burutu zitun
itxasoz Afrika aldera. Artikulu asko idatzi zizkigun «Anaitasunean»
oster a oietaz. Bilbo'ra aldaturik, «Anaitasunari» indar ematen e-
tzuen lan urria egin. Euskaltzaindiak, aren lana zelanbait eskertu
nairik, Aditz Batzordean eta Oiñarrizko euskal lanetan sartu zuen,
biotan lan aundia osaturik.

Ebraitar izkuntzaren zaletasunak zerabilen kezka aspalditik;
izkuntza onen berpiztea euskerarentzat «etsenplo hona izan zite-
keela uste zuen; horregatik egotaldi batzuk egingo ditu Israel-en».
Aien izkuntza ikas-atxakiz Kanada'n, Irlanda'n eta Alemania'n ere
egona zan frantsesa, inglesa ta alemana ikasten.

IDAZ-LANAK.- Anaitasunean, Euskeran eta abar azalduetako la-
nez gaiñ, Kuba'tik biurtu-barri zala, 1) «Lagunarteko Meza» (Za-
rutz, 1950; bigarrenez, Bermeo, Gaubeka, 1957, 32 orr.), argitara-
tu zigun. Ondo artua izan zan. «Idaztiño txiki au —dio A.

Ibiñagabeitia'k— egoki-egokia da meza bear bezela entzuteko, ots, entzuleak opari bikain ontan opatzaillearekin bat eginda, meza gurenaren zatiak oro atzarri ta zurt jarraitzeko... Euskera errikoi, ezti, argi ta garbienean antolatu ditu otoitz eta irakurgaiak. Abesti egoki ta politez jantzi ditu zenbait zati, kristauak ao soilez ez-ezen, kantuz ere Jauna goraldtu dezaten».

2) *Kristiñau Katezismoa* (Zarautz, 1956, 67 orrialde). A. Villasantek itzaurrea.

3) *Hitz egin!* (Bilbo, 1978, Garzinuño irarkolan). Euskaltzaindiaren Oinarrizko euskarazko Metodoa. Irakaslearen liburua. L. Maila. Zati bi dauzka: 1) *Ikasgaiak*, guztiz 60 ikasgai; 2) *Ikas eta kanta*, 40 orrialde. L.G. Alexander'en New Concept English, iru aletan, euskeraz jarrita. A. Imanol zan Batzorde onen buru.

4) *Itsasoa ta ni* (Bilbo, 1981). Aurretik idatzitako arrantzale-txangoz ornidutakoa.

Jakingarri duzu A. Imanol'en aitormen au, *Euskera'n* (1963-64, 386 orr.). egifia. «Azkenengo sei urteotan era ederra euki dot Bermeoko arraintzaleen eskuera ikasteko. Sei negutan joan naiz eurokaz Oestafrikara atunetan. Luzaro bizi izan naiz euron artean, eta alegin aundia egin dot euron eskuera ikasteko. Eskuera bizia; laboratorioan barik, Bermeoko portuan jaio ta azi dana; Bermeoko ontzietan eten barik entzun dana, eta guganaiño berez trasformatuta eldu dana. Bermeoko arraintzaleak (arrantzaleak, ez arrantzaleak), itxasoan lan egiten dabenak, bi milla ta berreun dira. Euretariko geienak, Bermeon jaioak. Nire ustez, ez dira eunera eltzen kanpotik etorri direan erdaldunak. Bermeotar arraintzaleak beti egiten dabe eskuera (eskuera, ez euskeraz)».

Mikel Zarate'k: «Erri biziagandik ur-ur dabil aita Berriatua. Eta erriko berba bizi-biziak (Naiz «garbiak», naiz erderatikoak) nasaitasun osoagaz erabilten ditu (*Bizkaiko Euskal Idazleak*, 266 orr.).

(Ikus Andima Ibiñagabeitia, *Euzko-Gogoa*, 1955, 5-12, 141 orr.; M. Lekuona, *Egan*, 1956, 151 orr.; J. Artetxe, *La Voz de España*, 1968; K. Etxenagusia, *Euskal Idazleen Lorategia*, (multikop.), Derio, 1965, 85 orr.; M. Zarate, *Bizkaioko Euskal Idazleak*, 1970, 266 orr.; San Martin, *Escritores euskéricos*, 56 orr.; J. Bilbao, *Bibliografía*, I, 572 orr.; Auñamendi, *Literatura*, IV, 248 orr.; S. Onaindia, *Euskal Elerria*, 1978, 200 orr.; Celia Lopez Sainz, *Quién es quién en Vizcaya*, 1975, 83 orr.; A. Villasante, *Euskera*, 1981, 2, 1019 orr.; K. Etxenagusia, *Euskal Idazleak bizkaieraz*, 1980, 221 orr.).

38.- ANTON LANDAJUELA (1914-1982)

Azken orduko langillea ote? Euskal arloan, bai. Iñaki Zubiri'k aren il-izparra ematean, onela: «Il yaku Anton gure lagun eta euskal-tzale zintzoa, zintzorik ba'da. Gizaki bakoxtak, adiñekoa izanik batez be, bizitzan zear eraturtako barru-izaera bat lortzen dau, amesak eta elburuak sendo suztraituta dagozala». Ametsez betea, euskal alorrean langille jator nekegaitza genuela, eraman zigun Jaunak.

Anton Landajuela eta Barrenetxea Arratia'ko Igorre'n munduratu zan 1914-12-4'an, bere gazte-urteak sendi euskaldun baten magalean emanik. 1936'ko burrukan, erbestean zegoen soldadutza egiten. Euskalerrira bialdu zuten, baiña Anton'ek ezin beretarren aurka burrukatu, 1936'ko 8-19'an Endarlatza ta Iranzu arteko Arlaiz mendian zegoela, gauari maxiatuz, otadi ta trokarruetan zear iges eginiñik, anaiakin alkartu zan. Eta gudari sartu zitzaigun bereala «Ibizaibal» taldean. Laister erakutsi zuen gudari trebe zana, eta «Rebellion de la Sal» batailloia eratu zanean, teniente izentatu zuten onetan; bereakin zintzo jokatu ondoren toki askotan, etsaia eutsi ta eutsi, Bilbo gaiñeko Artxanda'n aurkitu zan.

Zauritua izan zan Artxanda'ko jokaldian eta Santander'ko Zizero erritxoko eritegira eramana. Andik Santoña'ra eta EI Dueso presondegira. Eriotz-epaia eman zioten. Onan zegoela, Azkue beste amabostekin 1937-10-15'an su-izkilloz garbitu zuten. Eriotz-zigorra gafi zuten besteak ere arrisku izugarrian aurkitzen ziran, dudarik gabe. Urte orretan bertan, eriotzaz zamaturiko beste mordo batekin batera, gure Anton ere Bilbo'ko Larrinaga espetxera

aldatu zuten: batzuk urkatuak ziran emen, eta beste batzuk Derio'ra eramanean, tiroka ilteko. Olan, kinka larrian, illabeteak igaro ondoren, 1938-7-25'an Burgos'era aldatua izan zan. Eta azkenez bost urteko espetxealdia atzendutakoan, etxera itzuli zan. Jarraian, Bilbo'ko portuan zamalari sarturik, ementxe eman zituen bere bizitzako egunak.

Zintzoa zan abertzale gisa, eta egiazko euskaldun. Nik naiko ondo ezagutu nuen, leenengo El Dueso'n eta gero «Euskeratzaleak»-en aretoan. Bein Verdes-enean nengoala, an zan bera ere, liburu-zale nunbait, nik atera-berri nuen «Bergili'ren Idazlanak osorik» eskuetan zuela. Orduan kontaratu nintzan euskal idazle fiñaz nengoela izketan. «Agur» asterokoan idatzi zigun leendabizi eta «Zer»-en azken urteotan.

«Ondo be ondo bete dau Anton Landajuela'k —idazten du M. Olazar'ek— bere egitekoa, antxiñatik oitura izan dan lez, ezpatea bear danean ezpatea eta idazkortza bear danean idazkortza, baiña beti erriaren alde... Gure Landajuela'k ez dau egin garautegia. Eta ez beti dizdiz aundiko laneta! Kaiaz zamatzaille! ZER aldizkarian lanak bialtzeko zuzenbideen ezartzaille! Lan apalak; eta bitartean asti-aldiak artu eta idazle. Gure Landajuela'k ez dua egin garautegia, baiña bai bere aleak zintzo ekarri garautegi ori osotzeko».

(Ikus M. Olazar, *Zer*, 1982, gabonilla, 60'garren zenbakia, 1 orr.; Arregi'tar Josu, *Zer*, 1982, gabonilla, 3 orr.; Zubiri'tar Iñaki, *Zer*, gabonilla, 5 orr.).

39.- SABIN ALONSO ARIÑO (1915-...)

Lanbidez, erlojulari. Elorrio'k ere ekarri oi ditu bere euskal uz-tak. Oietako bat duzu Sabin Alonso Ariña, besteren artean. In-txorta, Udalatz eta Anboto begirari dauzkan erri jator, edestitsu ta guren onetan jaioa duzu, 1915-10-6'an.

Bertoko «Argiñeta» aldizkarian eman dizkigu bere lanik geienak, eta Bilbo'ko «Anaitasunean» eta Donostia'ko «Zeruko Argian».

Badu liburu bat ere gertu irarkolarako, «Txomin'en nekaldiak» deritzana. Ipui eta antzeko lanez osatua, ziur asko. Izen ori daraman ipui batekin leenengo saria jaso zuen, Gernika'ren 600'gn. urtea zala-ta, antolatu zuten sariketan.

Ala-berean badauka teatru-lan bat ere, iru ekitalditan, oraindik argitaratu gabe, «Errugabea» deritzana.

(Ikus San Martin, *Escritores euskericos*, 1968, 21 orr.; Auñamendi, *Literatura*, IV, 1974, 285 orr.).

40.- MAORTUA ETA GARITAZELAIA'TAR MIREN (1916-1971)

Zaldibar'en jaio zan, 1916-5-29'an. Gurasoak: Benito eta Jone. Bizitza osoan legez gaitzak zigor-zartaka erabillia ba'zan ere, beti alai ta langille agertu zaigun neska. Ezkongea bait zan. Irakasten, umetxoai irakasten eta euskal lanak aitzen eman zituen bere urteak.

Naiko gazte asi zan, 1929'rantza noski, euskal lanak biribiltzen, garai artako aldizkarietara lantxoak bialduz. Gerra ostean «Karmel»-en eta «Agur»-en idatzi zuen geienik. Etzan asko ikasia, baiña asmotsua bai gauzak eder-kutsuz jatzeko. «Aberri-lore» eta «Aldakaitz» erabilli zitun lanak izenperatzean.

Eziña zitzaion, alere, barru zekarren asmo-moltzo orretatik zer aundirik egitea. Gaixotia zan; amar urte doi-doi zeuzkala elgorriak utzitako gaixo-ondorenak, bizitza guztian zapatu zuen; baiña, ori alde bat, eramanpen aundikoa zan-eta, egunero bezela eskerrak eman oi zizkion Goiko Jaunari.

Gerra ostean, neska-mutiko geiegi aurkitzen zirala bertako irakasleentzako ikusirik, Uddari baimena eskatzen ausartu zan bere aalmenean ziran «umetxoai —dio aren loba Maortua'tar Laurentzi'k, 1983-2-22'an egin zidan idazkian— asierako ikaskuntzak emoteko, eta bai Udalaren aldetik eta bai irakasle-irakaslemeen aldetik, guztiz onartua izan zan. Baimen ori eskuetan eukola, etxe-barruan aukeratu eban lo-gelarik zabalena eta aulki eta mai batzuk lortu ondoren, bertan jarraitu eban luzaroan aipatu dodan

asierako irakaskintza emoten. Ori bide, baliatu zan umetxo orreri Goiko Jaunarenganako maitasun sar-eraziten».

Zaldibar'en bertan il zan 1971-12-25'an, Kristoren Jaio-tz-egunean.

(Ikus Juan San Martin, *Escritos euskericos*, 128 orr.; Añamendi, *Literatura*, IV, 292 orr.).

41.- ANJEL BIDAGUREN ARRIEN (1916-...)

«Neure bizitzan ezer gitxi egin dot euskeraren alde», aitortzen dit azken orduko idazle txiari onek. Eta zenbat onen antzeko dau-den Euskalerrian; ederki euskeraz dakitenak, idazteko erreztasun aundia dutenak, eta ezer gutxi dagitenak. Txalogarri al dugu joka-bide au? Aldizkari bat edo beste artu, iru edo lau liburu erosi ta kitu! Bego lotsa gorritan olakoa!

Bidaguren'ek, egia, ez du inoiz ere bere burua idazle lez ikusi. Zartzaroon, orraitio, erakutsi digu ba-zuela egurrik, eta ezpalak nundik atera. Baiña beste askoren antzera porrot egiñik gelditu zan gazte zalarik. Ona bere itzak: «Amabost-amasei urte neukazanean ba-zan Gaztelu-Elexabeitia'ko abadegaitegian irakasle bat: D. Jose Garcia (gb) lekeitiarra, ta beronek irakatsi euskun euskereak balio ebala idiak atzetik akulatzeke bakarrik baiño beste zerbait goragoko gauzak erabilteko be. Lau urte egin nituan bertan eta, gero, beste iru Gasteizkoan. Emen Kardaberaztarrakin ibilli nintzan, D. Manuel Lekuona buru zala. Gero guda zitalak irunsi ginduzan eta orduantxe eten zan nire eta euskeraren arteko maite-miña» (1983-8-23). Porrotaldiak sarri amildu oi du gizona ondalezaren barenera.

Arrezkero, emazte, seme-alaba ta eguneroko lanak ingurutu zuten. Hispano Americano banketxean sartu zan bertan, Gernika'n, eta ementxe iraun izan du azken urteotan apoderado bezela, zaar-saria artu arte. Gernikarra dugu Bidaguren, Lumo'ko elizaldean jaiobait zan 1916-11-25'an.

Euskal arloan lan egiteko eztu asti aundirik izan, baiña alegi-
ñak egin ditu umetako griñari ta ikasiari bide emateko. Aspaldiko
urteotan beti igorri izan du zerbait Larrea'ko Oleriti-Egunerako. Eta
«Oleriti» aldizkarian ainbat olerki txanbelin datoz bereak, poliki po-
liki landuak. Naiz-eta itzulpena izan, irakur adibidez OLERTI'n
(1982, 77 orr.) datorren «Argi eta illunaren seme» deritzana. Eus-
kera ezin obean biribildua.

ZER'en ere idatzi ditu ipuiak eta abar.

Eta bere zaartzaroan ere lanari ekiteko asmoa du. «Ezer geiago
egiteko —idazten dit— edur pilloa dot bizkarrean. Edozelan be, nire
baratz agor onetan garatzen bada landararen bat bialduko deutsut». Idazle onak, zaartzarora elduगतिक, ez du egundo nazkarik eraku-
tsi bear. Azken urtetan ainbat lan agertu ditu Bidaguren'ek «Oler-
ti»In eta «Zer»-en.

42.- JOSU ARREGI (1916-...)

Arregi lenen eta bein Bilbo'n jaio zan 1916-garaillaren 25'an.
Bere aita, gaztaroan, Urbia'ko artzain; ama, Zaldibar'ko «Gaza-
ga» auzokoa, ta Balendin Berriotxoa Zorundunaren senitartekoa.

Amasei urtedun zala Belgika'ko Tournai'ra Josulagunenegana
joan zan, aurretik Durango'n iru urte eginda. An iru urte eta Mar-
neffe'n beste iru urte batxillera Filosofi-jakintzak ikasten, baita eus-
kera ere Aita Estefania'rekin; an ziran aita Patxi Agirreolea eta Gaz-
telumendi, eta lagunen artean Gaizka Barandiaran eta besteak. Gero
Guatemala'ra, an aita Laskibar, Egibar, Estefania (antxe il zan), J.
Zaitegi ta beste batzuekin bizi izanik. Ondoren, Oña'n Teologi-
ikasteak asi orduko, etxeratu zan.

Bilbo'n, 1948'an, beste lagun batekin «Larregi» akademia sor-
tu zuen, 34 urte izkuntzak-lateraz, prantsesez, inglesaz eta euske-
raz irakastaldiak emanik.

EUSKAL IDAZLE.- Belgika'n ikasle zala euskera landu zuen, i-
tzaldiakin eta bertso-lanakin, Guatemala'n ere berdin egiñaz.

Bilbo'n, ordea, «Agur»'en eta «Zer»'en azaldu izan ditu lanik geienak. «Agur» aldizkarian ia zenbaki guztietan idatzi zuen zer-bait. «Euskerazaleak» antzerki bi argitaratu zitzioten. Itzulpen asko osatu ditu onentzako eta arentzako.

Bere ardurapean euskal idazle egin diranak, ez dituzu gutxi; euskerazko klase ugari eman ditu, ba, «Corte Ingles»-en, «Begofiazpi»-n, «Magefesa»-n, «Popular Banketxean», «Guinea y Simon»-enean, eta azkenez «Euzkadi» aldizkarian.

Udako ikastaroetan ere lan errimea egin digu.

43.- FEDERIKO KARL KRUTVVIG (1921-...)

Etorburuz doixtar dalarik ere, Getxo'n, itxas-ertzeko erri lerdenean sortu zan 1921-2-15'an. Sal-erosketan maisu. Aur-arotik liburuak eta ikastea alai ta poz-atsegin zitzaizkiola, Eskugoa eta Ekonomia ikasi zituen. Baita Sortaldeko izkuntzak ere Sorbona'n eta Bonn'en. Laket zaizkio batez ere Filosofia, Fisika eta Linguistika.

Euskaltzale. Eta Euskaltzain osoa, Azkue zanaren garaitik. Nairo idatzi du bertsoz eta itz-lauz, erderaz eta euskeraz. «Gernika», «Euzko-Gogoa», «Egan», «Tierra Vasca», «Deia» ta olakoetan datoz bere idazlanak.

Ona beronen lan-zerrenda bat:

1) *Olerkiak*: «Euzko-Gogoa»-n eta «Gernika»-n dauzkazu onen olerkirik geienak, eta auen artean ainbat soneto: «Euzko-Gogoa»-n: *Arrizko rhapsodia* (1952), *Gerkerriko izpirituoi* (1952), *Symphonia* (1952). «Gernika»-n bestelako poesiak: *Deo ignoto* (1951), *Haltzen errege* (Goethe'ren balada bat itzulita, 1951), Hoerderlin'en poema baten itzulpena, (1951), *Zer naiz*, (1951). Eta *Egan'en: Bihotza* (1949), *\$Zergatik* (1949), eta abar.

2) *Idazlanak edo artikulua*k: Azkue jaunaren *In memoriam* («Euzko-Gogoa», 1952), *Bulharraren labyrinthua* («Euzko-Gogoa», 1952), *Gernikako Arbolaren frukuak* («Gernika», 1951), *Huma-*

nismu, Gizabidea («Gernika», 1951), *Seminarii jaunari ondo-etorria* («Euzko-Gogoa», 1952), *Lafon jaunari ondo-etorria* («Euzko-Gogoa», 1952), *Sobre la reorganizacion de la lengua vasca* («Gernika», 1950).

3) *Vasconia* (Buenos Aires, 1962).

4) *La Cuestion vasca* (1966).

5) *Liberalkeriari aitzi* (1968). Itzulpena.

6) *Praktikaz* (1968). Mao-Tse-tung'ena, euskeraz.

7) *Liburuzka gorria* (1969). Mao-Tse-tung'ena au ere.

Izen-ordeok erabilli ditu: «Honeto de Garralde», «L. Fernandez», «G. de Zuñiga», «Fernando Sarrailh de Ihartua».

Azken urteotan, bizitza zear osatu ditun lanetatik zenbait liburu irtetzeko dira irakoletatik, naaskaldi gisa egiñak denak. Gizona bere zizelkatua gelditzen dala, esan oi dugu. Krutwig ere ortxe daukagu arras diztiratsu.

Aspaldi ezer ondu ez digularik ere, gai da olerkirako. Badu jasa, erreztasuna. Nik nere «Milla euskal Olerki eder» libururako *Bihotza* aukeratu nuen. Baditu aren antzekoak, illun xamar eta dudamudaz jantziak.

«Zeru izartsuar so ein ondoren,
Goizeko izarra nik dakhustanean,
Jaiotzen zait galde haur bihotzean:
Zer zara zu, ene gogoa, hemen?,

Zergatik jaiotzen ta zergatik bizi?
Bilhatzen dut eta ezin atzeman.
Ai nenki nork erran ahal derauten
Nok diezaketan haur niri iharditsi.

Gogo ori, zergatik egin zara?
Haur nehoiz bururatu eztuzua?
Nora-nai joan, gora naiz behera,

Bethi ikhusiko dugu begi itsuez
Gezurra bai-ta gure Asturea
Kokos bai-takhusagu estalduez».

(Ikus *Euzko-Gogoia*, 1950, 7-8 eta 11-12 zenbakietan; S. Onaindia, MEOE, 1155 orr.; J. Bilbao, *Bibliografía*, IV, 529 orr.; Aufiamendi, *Literatura*, IV, 341 orr.; J. San Martín, *Escritores euskericos*, 109 orr.; S. Onaindia, *Euskal Elertia*, 219 orr.; Zelia L. Sainz, *Quien es quien en Vizcaya*, 210 orr.; J.M. Torrealdai, *Euskal Idazleak, gaur*, 452 orr.).

44.- LON ARTEAGA BILBAO (1917-1980)

Aita karmeldarra. Mañari'n jaio zan 1917-5-16'an. Bere gura-soak Pedro ta Erramona, bertakoak, baserri-lanetik bizi ziranak. Karmel ordenako leen-ikasteak osatu zituanean, lekaide-jantzia artu zuen 1932-7-15'an, urrengo urtean garagarillaren 18'an profeda egiñik. Markiña'n, Gasteiz'en eta India'ko Alwaye karmeldarren ikastetxe nagusian amaitu zituen goragoko ikasketak; antxe, Alvayen bertan artu zuen apaiztasuna 1940-12-19'an, eta Ikastetxe orretan irakasle izentatua, Filosofia erakutsi zuen 12 urtetan, ango izkuntzak eta oiturak eta ingeles-elea sakon-sakon ikasiaz.

Amabi urte ikasle ta irakasle igaro ostean, 1948'an Euskalerriratu zan, eta 1954'arte Zornotza'ko Ikastetxean, Gasteiz'en eta Larrea'n bizi izan zan, azkenengo urte onetan batez bere, ni neure «Milla euskal Olerki eder» moldatzen nenbillelarik, naiko laguntza eskeiñi zidan, poesi-kopiatzen bereziki. Ondoren, ura Arequipa (Peru)'ra nagusi ta ni nagusi-ordez Eibar'era joan bearra izan genduan.

Gizaseme argia, Larrea'n zegoela, ainbat itzaldi egin zituen in-guruko errietan. Peru aldean berdin, beti agertu zitzaigun, 12 urtetan, mixiolari erne ta euskaltzale jator: artikulatu bero-beroak bialdu oi zizkigun «Karmel»-era angoen oitura, ekandu siñiskerak txairu azalduz. 1966'an emen zan berriro ere, eta urrengo urtean Zornotza'ko Ikasguan nagusi legez daukagu. Azkenez, eriotzara arte, Markiña'n bizi izan zan, 1980-1-24'an Jaunaren eskuetan bere arnasa utzirik.

Izlari ona zala esan dut. Eta orrela da egia. 1966-10-23'an omenaldi eder bat egin genion Kirikiño'ri Mañari'n. Ogei ta amazapi

urte ziran euskal idazle prestu au il zala. Mañari'n zan egun orretan Euskaltzaindia, erriko etxean egiñik bere illeroko batzarra; an zan Gerediaga Taldea, an euskaltzale ta euskal idazle mordoaz; ango plazan egin ziran itzaldia, bertsolarien saioak; an antzestu zan Kirikiño'ren beraren «Anton Berakatz» teatru-lana. Goizean lenengo eliza beteko meza nagusia: Aita Lon'ek itzaldia; Basarri'k bi egun geroago Donostia'ko egunkari batean zioanez, jendeak argitaratuta ikusi opa zuen itzaldia, alegia; urte batzuk dirala «Karmel»-ek argitara emana.

EUSKAL IDAZLE.- Onela dirakurgu «Karmel»-en (1980-2, 43 orr.). «Aita Lon gazterik asi zan euskerea lantzen. Jator eta polito asi be. Amazazpi urte zituela agertu zituen bertso txukun eta ostean euskal-lan batzuk, India'ra joan aurretixotik, Karmeldar ikasleak Gasteiz'en ateraten eben Etxe-barruko aldizkaritxo batean (*Renacer'en*). Eta India'n etziztaion apeldu euskaltzaletasun au. arako bidea artu zuenean, pozik irakurri oi zuen gure aldizkaria; andik laster «Karmen'go Argia»-ren ixillaldia eta gure mixiolari gaztea nun zer argitaratu ez zeukala gelditu zitzaigun. Okerragoa zana, bere guraso ta anai-arrebakin ere erderaz aitu bearra jazo zitzaion, orduko «censura» zala-ta, andik euskeraz zetozen kartak ez bait zuten etxerabide onik izaten».

Maiz esan dut, baifia bego emen berriz ere: egiaz maite duguna ez zaigu errez aitzutzen. Aipatu idazleak onela darrai: «Alan be, ez eban euki Indian bere umetako euskera aztuteko arriskurik, ez. Praille-Iagun euskaldun mordoaz gaiñera, euskerazko liburu-pillotxoa be aukeran eban. Berak —il zanean— itxitako paperen artean, Indian bere gelan eukazan euskal-liburuzko zerrenda bat agertu da: ogeitik gora, eta euren artean Kirikifio, L. Jauregi, Azkue, D. Agirre, Arrese Beitia, Eguzkitza, Oiartzabal, Olabide, Umandi, Lafitte, Barrenso eta olakoen liburuak, eta Eusko-Olerkiak (lau tomo). Euskalerrria eta euskerea Aita Arteagak beragaz eroiazan edonora» (*Karmel*, 1980, 43 orr.).

Bi liburu aipatu ditzakegu emen:

1) *Meza Deuna ariarentzat*. Arteaga'tar Laurentzi Karmeldarrak bertsoan eratu. Ibargutxi'tar Emiliano apaiz jauanren eta Aita Emiliano karmeldarraren doiñuak (Bilbao, Ordorika, 1957).

Meza oni buruz au idatzi zuen M. Lekuona'k: «Aldi ontan Liturgi-gaiak asko erabilten dira baztarretan. Euskeraz ere bai... Gaur Larrea-ko-edo Karmeldarren txanda degu. Gai beronixe buruzko lan errikoi-errikoi bat eratu digute. Eta bertsoan eratu gaiñera... A. Laurentzi'ren bertsoak oso errikoiak dira: adi-errezak eta biribillak, ritmikoak. Teologi-mufia ere oparo dariote. Bi Emiliano oien doiñuak, berriz, ikas-errezak dira. Eta oso egoki josiak bai-deritzaizkigu, batez ere *rezitatuak*, ots, Kredo ta Aitagurearen doiñuak alegia» (*Egan*, 1958, XI, 108 orr.).

2) *Euskal Aditza Prai Bartolome'gan* (1768-1835). Lan luzea (*Karmel*, 1978-3 eta 1978-4, 65 ta 59 orrialdeetan). Euskal Literaturaz arduratu diran guztiak goretsi izan dute Prai Bartolo, Markiña-Etxebarri'ko karmeldar euskal idazle bipilla; aberatsa bait da bere iztegia, eta bizkaitar itz-lauzko orrialderik bikaiñenak berak idatzi bai zizkigun.

Sagarminaga zeritzan baserrian jaio zan Prai Bartolo, baiña azken urteotan Markiña'tik Iturreta auzunera zabaldu zuten bideak azpian artu zuen etxe ori, leendik ere erreta zegoena. Eta A. Lon'ek onela: «Lurreratua ta birrinduta geratu jaku Sagarminaga. Baiña Sagarminaga'n jaiotako semearen euskal-lanak ez dot uste zori ori izango dabenik, Euskereak dirauan artean beintzat. Noiz arte, baiña, iraungo ete dausku gure mintzo gozo onek? Aspddion oso gaxorik egon arren, geure eskuetan daukagu bizirik iraun-azotea, bizirik, osasuntsu ta gazte. Orretan, eragozpenak eragozpen eta oztopoak oztopo, itxaropentsu gagoz. Itzuliko gara geure sen onera; batez be Euskera bertokoon bizi-biderako bearrezko ta premiñazko biurtu daigunean. Iraun begi, ba, sekulako; baiña sekulatan izan dauan bere egiazko jatortasunean» (*Karmel*, 1978-3, 65 orr.).

Maite zuen Lon'ek Prai Bartolo. Eta beronen lanak aztertu ta aztertu ordu luzeak eman zituen, gaurko ao-goxoak eskatzen ditun

moduan aren lanak oro aztertu ta irarkolarako gertu ipiñirik: Markiña'n dago lan ori nork argitaratu zai. Geroago, ark darabilen euskal aditzari buruz lan berezia osatu zigun, *Karmel-en* datorrena. «Prai Bartolo'k darabiltzan aditz-jokerak azaleratuko dodaz —dio berak—. Leenengo ta bein aditz-bilduak. zortzi *nor-aditz*, eta ama-bost *nork-aditz*. Ona emen bitzuok: *Nor-aditzak*: «Egoki'», «egon», «erion», «etorri», «etzan», «ibilli», «joan» eta «jarraitu». *Nork-aditzak*: «Ekarri», «entzun», «erabilli», «eritxi» (a), «eritxi» (b), «eroan», «euki», «eutsi», «ikusi», «inon», «iraun», «irautsi», «irudi», «jakin» eta «jardun». Lan polita, iraupen aundiz egiña.

Etzan olerkari exkasa ere. Pilloa du, jatorrak eta ingelesetik itzuliak. Ondo menperatua zeukan ingles-izkuntza eta eder zitzaizkion Britain Aundiko olerkariak. Etzuen askorik ondu, baiña ondu zuena arretaz osatua du. «Karmel», «Oleri», «Agur», «Zer»-en, idatzi zuen.

(Ikus S. Onaindia, MEOE, 758 orr.; M. Lekuona, *Egan*, 1959, orr.; J. San Martin, *Escritores euskéricos*, 40 orr.; N. Kortazar, *Cien aulores vascos*, 131 orr.; Auñamendi, *Litera/ura*, IV, 299 orr.; J. Bilbao, *Bibliografía*, I, 335 orr.; K. Etxenagusia, *Euskal Idazleak bizkaieraz*, 1980, 201 orr.).

45.- JAIME KEREXETA GALLASTEGI (1918-...)

Elorriotar au umeak ere ezagun dute, bere idazlanengatik. Liburu asko ditu prosaz eta bertsoz; eta liburuak agertu-ala gorosmenik gurenenak eskaiñi izan diote andik naiz emendik. Urte batzuk dirala, bi poesi-idazti atera zitun Kerexeta'k, idazkera goxo ta errikoiz gairik atsegiñenak erabilliz, eta askuek txaloka artu zuten dalako liburu. Beste zenbaiten artean ona Aita Villasante'k dioskuna: «Artu dut —diotsa egilleari— zure liburuzka txairoa ta bai gozoz irakurri ere. Opilla bezin gozo ta gustogarri aurkitu dut... Danak dira errazak, ariñak eta gustora irakurteko modukoak» (Aranzazu, 1959, 3-16).

GIZONA.- 1918-7-31'an jaio zan Kerexeta, Eliz-buru etxean. Arratia'ko Gaztelu-Elexabeitia'n asi zuen abade karrera, guda aurretxoan; guda amaitzean, berriz, Komillas (Santander)'ko Ikasgura aldatu zan ikasketak jarraitzeko. Burgos'en diardu gero «Schola Cantorum» abes-taldearen zuzendari, eta Sevilla'n organu-jotzaille. 1945'ko urtarrilean Tuy-Vigo (Pontevedra)'ra doa ango katedraleko barne-ogipeko izan zedin. Ementxe izan zan, gaiñera, apaizgaitegian musika erakusle eta organu-jotzaille, eta ementxe amaitu zituen bere eliz-ikasketak ere, 1947-6-13'an meza berria emanik.

An zeuzkan karguak utzi ta Urkiola'n egin zigun organu-jotzea 1952'tik 1956'ra bi tartean. Ondoren Elorrio'ko San Agustin'en daukagu 1956'tik 1960'ra, eta Yrreta'n 1960'tik 1961'ra apaiz-laguntzaille; arrezkeru, Elorrio'n bizi da, leenengo «Funcor» ikastetxean irakasle ta gero olako lotura gabe. Euskaltzaindiko urgazle, eta Liturgi-liburuak euskeraz jarteko Batzordekoa. Pianua erakusteko titulua Bilbo'ko Konserbatorioan atera zuen.

EUSKAL IDAZLE.- Idazle oso ugaria. Zenbait eguneroko ta aldizkaritan idatzi digu: «Euzko-Gogoa», «Eguna», «Jesus'en Biztaren Deia», «Egan», «Olerti», «Anaitasuna», BAP, Buenos Aires'ko «Boletin del Instituto Americano de Estudios Vascos», «Agur», «Zer», eta abar. Naiko izenorde erabilli dizkigu, geien baiña «Arantzibia». Liburu asko dauzka argitara emanak. «Orbelak» eta «Bitargi», olerki-saillak gero aipatzeko utzirik, ona itz-lauzkoak:

1) *Jesukristo Gure Jaunaren Barri Ona. Lau Ebanjelioetatik itzez-itzez atera ta laurak alkartuta* (Donostia, 1960). Lanari buruz egileak onan: «Alegin guztiak egin dodaz euskeraz jartean, al bait ulerterrezena izan dadin... Darabildazan itz batzuei buruz, barriz, ez diñot guztiak len sortuak izan ziranik (beste izkuntzetan bere bardin jazoten da); baiña gure arteko idazlerik geienak onartu ta erabilli dabezan eskeru, neuk bere ba-darabildaz». Mako barruetan itz errezagoak ere jarten dizkigu.

2) *Apostoluen Egiñak* (Donostia, 1961, 137 orr.).

3) *Eguneroko Meza*. Aita Onaindia'rekin batean (Bilbao, 1963, 859 orr.). «Missale Romanum» euskeraz. Txaloka artua izan zan

Bizkaian batez ere. Nolako utsunea bete zuen urteetan! Bost milla ale atera genitun eta urte gutxiren buruan etzan garaurik ere bazterretan. L. Mitxelena'k onan: «Txalogarria da benetan guztiontzat asmo au, baita bizkaitar ez geran euskaldunontzat ere. Kristautliturgia liburu onen bitartez geiagoren irispidean jarri delako, bizkai'ko euskaiki ederra landuaz bidenabar. Eta langilleen izenak aipatze utsak aski adierazten du, noski, lana nolako arduraz eta tajuz burutan atera duten» (*Egan*, 1963, 4-5, 244 orr.).

4) *Gogarteak* (Bilbo, 1963). Aita K. Basabe'ren «San Iñazio'ren Ejertzizu etako Gogarteak, atonduta.

5) *Didajé; Amabi Apoztoluen Irakaspenak* (Bilbo, 1965).

6) *Apostoluen Egiñak eta Idazkiak* (Bilbo, 1965, 281 orr.). 1961'gn. urtean «Apostoluen Egiñak» eta emen bir-argitaratzen dana, bat-bera duzu.

7) *Alkartasun Barriko Itzak eta Gaiak* (Bilbo, 1965).

8) *Argi-bide Txikia*. Anizeto Zugasti'rena bizkaieraz (Bilbo, 1965). Neskato-mutikoentzat eliz-liburua. 116 orr.

9) *Jesukristo Gure Jaunaren Barri Ona*. Lau Ebanjelioak, gipuzkeraz (1967).

10) *Jesukristo'ren Barri Ona*. Lau Ebanjelioak, bizkeraz (Bilbo, 1966).

1) *Itun Berria, gipuzkeraz, Orixe-Kerexeta, Zugasti* (Donostia, 1967; 2 gn. argitalpena, 1974).

12) *Salmudia*. Zugasti apaizarekin batera (Donostia, 1968). 367 orrialde. Gipuzkeraz. «Kristau-bizitzan ba-dira —dio A. Zugasti'k— milla tankeretako goraberak, eta oietako bakoitzari dagokion giroarentzat ba-ditu, Jaungoikoaren argibidez egindako Salmudiak, itz egokiak, gogoeta sakonak eta biotzkada xamurrak: pozaldietan oju egiteko, atsekabeen intziri, bearraldean eskabide; aulerian kemen eskatzeko, ezbearrean erruki, illun-orduan argi, erori-aldian itxaropen, zalantzan zuzenbide, pekatuan barkapen, grazian iraupen eta maitasun».

- 13) *Umeen Biblia*, bizkaieraz (Bilbo, 1969). *Umeen Biblia*, gipuzkeraz, Kerexeta-Zugasti (Donostia, 1969, eta bigarrenez, 1974).
- 14) *Gure Salbaziñoko Egintza* (1972).
- 15) *Alkartasun Barria*. Lau Ebanjelioak (Bilbo, 1972).
- 16) *Jesukristo'ren Barri Ona*. Lau Ebanjelioak, euskeraz eta erderaz. (1972; bigarrenez, 1973'an).
- 17) *Ebanjelio Alkartuak* (1973).
- 18) *Eliz-Guraso Apostolikuak* (1975). 1976'an «Agire-Saria» jazo zuen Baiona'n, liburu ugatik.
- 19) *Euskal-Biblia* (Bilbo, 1976). Bizkaieraz, 800 orrialde.
- 20) *Mezako Irakurgaiak Euskal Biblian* (1976).
- 21) *Astegunetako Meza-otoitzak eta gainko-erriaren otoitza* (1977).
- 22) *Diccionario euskerico* (1977).
- 23) *Diccionario Onomastico y Herldico vasco*. Bost ale (1970-71-72 eta 74).
- 24) *Iparagirre'ren Bizitza* (1978).
- 25) *Gernika'ko beste Arbola* (1979). Itzulpena.

OLERKARI.- Neurtitez ere iru liburu azaldu ditu Kerexeta'k, eta ez iñolaz eguratsa besterik iñarrosi nairik egiñak. Ona:

1) *Orbelak* (Zarautz, 1958, 79 orr.). Aurre-itzak M. Lekuona'renak dakarzki. «Kerexeta tar Jagoba», «Arantzibia» —dio Lekuona'k—, olerkari-olerkaria degu. Gazte. Orrekin, esana dago nolako olerkiak egingo dituan. Gaur dan egunean Lirikan oitzen diran bezelakoak, —Nolakoak itz bitan esateko?— ez bait da errez, gaur dan eguneko Lirika zertan dagon esatea. Lirika oro bezela, gaurkoa ere poesi barrukoia dala esatea, ez da ezer esatea. Lirika oro da ola. Labur dala esatea, zerbait geiago da; bafian azaleko zerbait besterik ez da ori. Bañan, izan, bai, ala da. Gaurko lirikak etzaitu luzez aspertuko, ez dizu itzez eta itz-jarioz burua zoratuko. Gaurko lirika-poesi bat, ez da lore-zelai; lore bakar baizik eskurako. Lore

bitxi; lore aukeratu. Bañan lore bakar. Edota sorta txiki». Olaxen dira Kerexeta'ren olerkiak, izaditik jasotako lore bitxiak, biotz-zelaian bildutako zauskada xamurak.

2) *Bitargi* (Donostia, 1960, 11 orr.). Aurreko liburuan saratu gaiak darabilta emen ere, eskuarki: Jainkoa, gizona, izadia, maitasuna... Ederki dio:

«Maitasunari
gaztaroan
abestu ezik,
noizko utzi?»

3) *Orbelak, Bitargi, Udazken* (Bilbo, 1980, 215 orr.). Euskeraz eta erderaz. Azken urteotako olerki-sorta duzu «Udazken», beste biak lengoak. «Orbelak» 33 olerki dakazki: 1) *Izadikoak*, 8; 2) *Maitetzkoak*, 9; 3) *Biozkadak*, 16; «Bitargi»-k, 47. Eta «Udazken»-ek, 11. Ondoren jarten du XVI-XVII'garren mendeko bizkaierazko maitasun-olerki bat. Eta azkenez, iritziak, M. Lekuona, L. Mitxelena, A. Luis Villasante, Altube'tar Seber, Paris'ko «Euzko-Deya», Aurre-Apr aiz, Zeleta eta A. Ibiñagabeitia'k emandakoak noski.

(Ikus S. Onaindia, MEOE, 736 orr.; San Martin, *Escritores euskericos*, 150 orr.; L. Mitxelena, *Egan*, 1960, 1-2, 110 orr.; idem, 1960, 3-6, 234 orr.; idem, 1961, 1-3, 149 orr.; idem, 1963, 4-6, 244 orr.; J. Beistegi, *Euzko-Gogoa*, 1959, 107 orr.; N. Kortazar, *Cien autores vascos*, 122 orr. eta *Herria*, 704-705 zenbakian; M. Zarate, *Bizkaiko Euskal Idazleak*, 269 orr.; Auñamendi, *Literalura*, IV, 304 orr.; J. Bilbao, *Bibliografía*, IV, 521 orr.; Celia L. Sainz, *Quien es qui4n en Vizcaya*, Bilbao, 1975, 389 orr.; S. Onaindia, *Euskal Elertia*, Euba, 1978, 215 orr.; K. Etxenagusia, *Euskal Idazleak bizkaieraz*, 1980, 225 orr.).

46.- LUIS VILLASANTE KORTABITARTE (1920-...)

Aita frantziskotarra. Jose Artetxe'k au: «Langille porrokatua. Lan bat bukatu orduko besteari ematen dakienetakoa. Bere idazti guztien lixta ataltxo onetan ipinten iñor ausartu al-liteke? Aita

Villasante-k lan tarterik zer dan ez daki. Euskeraz eta erderaz, bietan ongi, sakonki eta ezin ditezken bestelako gaiak» (*Jesukristo'ren* 2gn. azalean).

Gernika'n jaio zan 1920-3-28'an. Leen ikasteak bere errian bertan osatu ondoren, Euskalerriko frantziskotarren artean egin zituen eliz-karrerakoak. Komillas'ko Ikastetxe Nagusitik dugu Lizentziatua eta Teologian Doktor, irakasle. Ia bizitzako egunik geienak Arantzazu'n daramazki Teologia erakusten, urte askotan Euskaltzaindiburu ere izanik.

EUSKAL IDAZLE.- Santimamiñe'ko ur-itogiñak, goitik beera ta beetik gora, jausi ta jausi olako arri borobil bitxiak egin dituzte. Orobat Aita Villasante'k, idatzi ta idatzi konta ezin-da artikulu, itzaldi ta liburu eman dizkigu. Ona beronen idaztirik beñenak:

1) *La Sierva de Dios M. Angeles, Concepcionista Franciscana* (1873-1921). *Estudio místico de su vida* (Bilbao, 1950). Bi ale. Dokteretzarako tesisa duzu. Euskeraz ere (*Gernika*, 1951) zerbait idatzi zuen onetzaz.

2) *En torno al problema del vascuence* (Arantzazu, 1951). 16 orrialde.

3) *Goi-Argi. Ars-ko Erretore Santuaren Erakusaldiak* (Arantzazu, 1955). 168 orrialde. J.L. Iriondo'ren marrazkiak.

4) *Euskal Gramatika llabur eta idazleen pusketa autatuak* (Bilbo, 1956). 60 orrialde.

5) *Kataliñen Gogoetak* (Arantzau, 1958, 162 orr. eta bigarrenez, 1966). P. Arradoi'k idatzi eta A. Villasante'k Gipuzkoa'ko euskeraz jarria.

6) *Biografía espiritual de Bernarda Ruiz de Gamiz* (1745-1781). Betoño-Araba'ko lugin gaztearen bizitza.

7) *Nere izena zan Plorentxi* (Zarautz, 1961, 162 orr.). Angeles Sorazu'ren bizitza. Zumaia'ko alaba zan Sorazu, frantziskotar lekaime, Valladolid'en komentuan santutu zana.

8) *El Padre Palacios* (1727-1804). XVIII'garren gizaldiko mixiolari aundia.

9) *Historia de la Literatura Vasca* (Bilbo, 1961). Liburu ontaz L. Mitxelena'k: «Emen duzu, irakurle, zuk eta nik eta beste askok aspaldian nai eta bear genduan liburua; emen aurkituko dituzu, bestera jo gabe, euskal-idazle eta euskal-obren gaiñean zenituen berri ugari eta zeatzak. Eta ez ori bakarrik. Nai-ta-ezkoa zen, eta orrelaxe ikusi du bere zorrotzez egilleak, euskal-idazleen mintzatzea, gure izkuntzari dagozkion lanak ondu dituzten neurrian beintzat, eta are erbesteko euskalariez, zear eta oraingoz. Nekez bil zezakean bestek Aita Villasante'k bildu duen argitasun-bilduma aberatsa, eta argitasun bakoitza eztator utsik, bere soillean, buruz eta tajuz dago-kion balioari eta lekuari begira neurtua baizik» (*Egan*, 1961, 4-6, 253 orr.). Izan du bigarren argitalpena ere.

10) *Kristau Fedearen Sustraiak*. I. Jainkoa (Arantzazu, 1962, 207 orr.).

11) *Kristau Fedearen Sustraiak* II. Jesukristo (Donostia, 1969, 434 orr.). L. Mitxelena'k *Egan'en*: «Kristau-Ikasbideak gaur eskatzen duen goragoko maillarako euskera lantzen ezpadugu, zokoan geldituko zaigu poliki-poliki bakankako zenbait elizkizunetarako. Ezerk arteгатzen etzuen fedea, gurasoengandik zuzen-zuzenean zertorkigun ura, ederra izanik, ezta gaur aski. Eta oraingo bearkizunetarako nekez sor zitekean Villasante'ren au bezain liburu egokirik... Izkuntzaren aldetik, ezta giza gaiztoz bezala begiratzekoa, astiro eta sakon aztertzekoa baizik».

12) *Aitonaren uzta* (Zarautz, 1961, Kuliska Sorta). Graziano Anduaga'ren bertsoak.

13) *Egunsentiko Txoria eta Bertso-Bilduma* (Tolosa, Auspoa, 1965). Graziano Anduaga'ren bertsoak, A. Villasante'k batuta.

14) *Senpere-n gertatua* (Donostia, 1964). Pierres Larzabal'ek la-purdieraz egiña, A. Villasante'k gipuzkeraz modatua. Teatru-lana. 130 orrialde.

15) *Voces bascongadas diferenciales de Vizcaya, Guipuzkoa y Navarra* (Bilbo, 1963). Aita Añibarro'ren eztegia, argitaratu gabea.

16) *Gramdtica bascongada para el uso y alivio de Pdrrocos y predicadores bizcaino, Guipuzcoanos y Navarros* (Donostia, 1970). Aita Añibarro'ren Gramatika irarri gabea. Juli Urkixo'ren Euskal Mintegiaren laguntzaz argitara emana. 172, orrialde.

17) *Hacia la lengua literaria comun* (Arantzazu, 1970).

18) *Literatura vasca* (Barzelona, 1972). Askoren arteko, A. Villasante'ren ardurapean. 353 orrialde.

19) *Axular-en Histegia*. Euskera-Español-Français (Arantzazu, 1973, «Izarra» irarkolan, 673 orr.).

20) *Gero. Pedro Axular* (Arantzazu, 1976). Aurretik ere (Barzelona, 1964) euskeraz eta erderaz argitaratua. Seigarren edizio au Euskaltzaindiaren babespean eta Gipuzkoa'ko Aurrezki Kutxa'ren laguntzarekin ematen da argitara. 699 orrialde. Argitalpen ederra, Arantzazu'ko *Jakin'ek* egiña.

21) *La Declinación del vasco literario comun* (Arantzazu, 1972, 120 orr.).

22) *Anai Frantzisko-Arreba Klara. Idazkiak* (Ofiate, 1977). Jose Luis Zurutuza'k lagunduta. 239 orr.

Orrezaz gaiñera, lankide izan zaigu «Arantzazu», «Gernika», «Egan», «Euzko-Gogoa», «Euskera», «Cantabria Franciscana», «Gure Herria», BAP, «Anaitasuna» ta abar.

Bere euskera, jaikia, errez ulertzen dana duzu. Ez du bitxikeri geiegirik erabilten: aditza tajuz eta esaerak bear diranak, ez zabar edatuak. «Arantzazu»-n illero ematen dizkigun lanak, eder zaizkit neri, bai galdetik eta bai euskera aldetik.

(Ikus *Gernika*, 1951, 16 zenbakian, 19 orr.; *Euzko-Gogoa*, 1955, 5-12, 142 orr.; M. Le'kuona, *Egan*, 1957, 1-2, 115 orr.; L. Mitxelena, *Egan*, 1961, 1-3, 149 orr. eta 4-6, 253 orr. eta 1962, 1-3, 94 orr.; L. Akesolo, *Bol. Am. Pais*, 1964, 4, 367 orr.; Auñamendi, *Literatura*, IV, 319 orr.; J. Bilbao, *Bibliografía*, VIII, 210 orr.; K. Etxenagusia, J. Kortazar eta A. Etxebarria, *Euskal Idazleak Bizkaeraz*, Bilbao, 1980, 269 orr.).

47.- PEDRO ANASAGASTI URRUTIA (1920-...)

Langille aspergaitz frantziskotar au Bermeo'n jaio 1920-1-5'an. Beronen gurasoak: Pedro eta Kandida. Umetatik ikasteari lotua, Bilbo'ko Komertzi-Eskolan ikasi zuen Sal-erosketa gaia, Santander'en amaituz.

Gerora ikas-gaiok laga ta eliz-karrera egin zuen Frnatziskotarren Ordena barruan. Leenengo meza, 1944-7-9'an abestu zigun. Naimen sendokoa eta buruz argi zetorrelako, Erroma'ra bialdu zuten nagusiak, eta an, Urbano'ren Ikasgua deritzanean atera zigun Zientzi Mixiolaritzan Irakasle (Doktor) titulua, «Asis'ko Frnatzisko Deunaren Mixio-Deia» gaiari buruz bere tesisa egiñik. Geroago, Nabarra'ko Ikastetxean iritxi zuen Gazetaritzan Irakasle titulua ere; bere tesisa: «Egia, albistariaren leen-elburua».

IDAZLE.- Idazle azkarra, euskeraz eta erderaz. Ona batzuk:

I. *Erderaz*: 1) *Mixio-gaiari buruz*; a) *Apostolado franciscano en Marruecos* (Burgos, 1951); b) *Apostatar? ;Jamás!* (La revolucion de los baxer en la China del siglo XX (Bilbao, 1951); c) *El alma misionera de San Francisco de Asís* (Erroma, 1955); d) *San Francisco de Asís busca al hombre* (Bilbao, 1964); e) *Liberacion en San Francisco de Asis* (Arantzazu, 1976); f) *La vocacion misionera de Santa Clara de Asis y su orden* (Bilbao, 1977). 2) *Edestia eta Saioa*: a) *Floreçillas de la Virgen de Ardnzazu* (Arantzazu, 1952); b) *Aranzazu*. Paisaje. Historia. Tradicion (Bilbao, 1958, eta bigarrenez, Burgos, 1977); c) *Reto juvenil a la muerte*. Dima'ko Aita Domingo Iturrate Zubero irukoitzaren bizitza (Bilbao, 1959); d) *Aránzazu*, milagro de piedad y de paisaje (Iruña, 1961); e) *Liebana*, reliquia y paraiso (Bilbao, 1962); f) *La Basñica de Ardnzazu* (Bilbao, 1963); g) *La verdad en el periodismo* (Bilbao, 1969). 3) *Olerkia*: a) *Vuelo inmovil* (Bilbao, 1958), Bizkaiko Kultura Batzarrak 1954'an sarizatua; b) *De varón a hombre* (Bilbao, 1960). Argitaratzeko: *Uno cualquiera* (bertso-liburua).

II. *Euskeraz*. 1951'an asi zan euskal alorrean lan egiten. «Aranzazu» aldizkarian datoz beronen lanak. 1962'tik 1976'ra illeroko

onen zuzendaritza bere gaifi egon zan eta emen argitaratu zituen ainbat eta ainbat erro-lan, berri-emate, batez ere, kritika, bertsolari, literatura idazle, artzain, txistulari ta onakoekin, au da, Euskalerrian zeozer ziranekin izan zituen alkarrizketa ta autu luzeak. Itzaldi asko egiña dugu gaiñera gure errietan.

Azken aldera, tarteka-marteka maminduriko olerkiz osatu nairik, oraintsu, 1980'gn. urtean olerki-txorta batekin etorri zitzaidan, nik itzaurre antzeko bat egin nezaion. Egin nion eta pozik egin ere, olakoren premiñarik ez zuen arren.

Olatuak (Bilbo, 1980, 127 orr.) jarri zion izena, Kantauri itxas-eretzearan jaioa zalako, kresala ta uñiak maite zitulako, txikitatik maite zitulako. Baiña bizitzan beste olatu batzuk ere ezagutu izan dizkiugu eta auek gogo-ematen ditu poesi-liburuan.

Entzun berari. «Olatuak —dio— nere barrenean, nere bizitza gorabera utsa dalarik. Pozezko eta atsegiñezko olatuak... Olatuak nere lagun-urkoetan, bai emakume bai gizonezkoen artean. Eurak ere ni bezelako odolakin egindakoak dira. Orregatik, latu berdiñak euren eta nire ontziaren aurka... Olatuak gure gizartean. Bai mendi ta baserriko bizitzan, bai erri barrukoan. Ezin-ikusi, maitasun, baretasun ta gogorkeri, ogi ta ardo, pake ta guda, aberats eta txiro. Gizarte au olatuen dantzan ari da ta ezin itxaso onen beso ibilkorretatik igesi. Zenbat olatu ikusi ditut eta zenbat bizi! Orra or nere bertsoetan. Itz baten esateko gure bizitza olatu utsa da» {*Sarrera*, 17 orr.).

Lau zati berezi dauzku liburuak, lau biotz-ikara: 1) *Lurra*; 2) *Aberria*; 3) *Gizartea*, eta 4) *Fedea*. Lau saillon asiera ta kuzkur legez Bermio bere jaioterria eta Arantzazu bere Amaren kabi goxoa. Gogape'n sakon interesgarri asko dauzka orrialdeetan barrena, euskera txairroan iraulita. 79 olerki guztiz, neurkera ugaritan.

Onetaz gaiñ, esana dugu, naiko itzaldi mintzatua da euskeraz gure errietan. Eta erderaz, Mixiologi-irakasle izan da Burgos'ko Aspetean zortzi bider eta Berrizkoetan zazpi bider, eta iru urtetan (1977-78-79) Asis'en Teologi-Oraingotze Ikastaroetan. Gaioi buruz,

au da, mixio-istoriari buruzko lan luzeak dauzka or-emen argitaratuta.

Oraintsu Bolivia aldetik ibilli zitzaigun, ikerle legez eta ango mixio-lurretan mixio-lanari josirik dabiltzan aita prantziskotarrak lan gogorra zeukatela, eta langille premifia gorria, aieri laguntzeko gogoa etorri zitzaion, eta gaur an dabilkigu mixiolari. Ara bide artzean agur egin zion bere erriari, «Historia de Bermeo» bere azken liburura eskeiñiaz.

(Ikus BAP, 1957, XIII, 367 orr. eta 1959, XV, 212 orr.; J. Bilbao, *Euskal Bibliografia*, I, 160 orr.; S. Onaindia, *Olatuak* idaztiari egiñiko itzaurrean).

48.- INAKI GOIKOETXEA URIARTE (1920-...)

Euskal idazle ugari ta lekaide jakintsuak ez gutxi eman dizkigun Zeanuri zabal menditsuan munduratua dugu Aita Iñaki Goikoe-txea josulaguna; an jaio zan 1920-3-24'an.

Eliz-ikaskizunak Durango'n asi zituan, bi urte, gerta-urtea eta leenengoa bertan osaturik. Errepublikak eztanda egin zuela-ta, Sangotza (Naparroa)'n egin zituan batxillereko bost urte. 1936'an gerrea sortu zanean Bizkaia'n zegoen. Amazortzi urtekin Jesus'en Lagundian sartu zan, Loiola'n. Emen bete zituan Erretorikako bi urte. Gero Oña'n filosofiako lau urte; ondoren ameriketara, an Karakas'en, iru urtetan maisu bezela, jesuiten ikastetxean irakatsirik.

Oña'ra berriz ere Teologia ikasten; lau urte ikasteari josirik egin ondoren, 1953'an apaiztu zan Oña'n bertan. Karrerako azken urtea Gandia (Valentzia)'n osatu zuen orra or 35 urtekin, ikastaroak bukaturik, edozein Iekutara egaz egiteko gertu. Leenengo Valladolid'en ekin zion lanari bi urtez eta Durango'n gero Lagundiko ikastetxean sei urtez irakasle ta eliz-gauzetan. Ementxe asi bere leenengo euskerazko eskolak ematen ere; izan zuen eragozpenik 1960'tik aurrera: polizia zebilkion atzetik.

Durango utzirik, Donostia'ko arrantzdeekin eman zuen urte bete. Loiola'ra aldatu zuten gero eta gaur ere ementxe daukagu egiazki lanari lotua. Erriz erri itzaldiak aldarrikatu ez-ezen, lan ugari izan du euskal arloan. Loiola'n bizi daiarik ere, ara ta ona aldatu bearra izan du euskal irakasle zurrian: Bilbo'ko Jesuiten Indautxu'ko Ikastetxean leenengo, eta gero, bi urtetan Araba'ko Aldunetxean; Deustu'ko Unibertsitatean eta Gasteiz'ko Jesuiten Eskola profesionalean, berdin euskeraz irakasten.

EUSKAL IDAZLE.- Naiko idatzi du or-emen. Ona beronen liburu batzuk:

1) *Otoitz-abestiak* (Bilbo, 1961).

2) *Nora zoaz* (1969). Konkurtso bat antolatu zan 1969'an Bilbo'ko «Euskerazaleak» taldearen pentzutan. Umeentzat euskerazko gramatika bat eskatzen zan. Eta Aita Iñako Goikoetxea izan zan irabazle, 50.000 pezetaren irabazle noski.

3) *Giza-soña*. Ikastoletan testuak falta ziran eta A. Iñaki'k urte betean jo ta ke ekiñik, utsune ori oparo bete zigun.

4) *Ikastaroa* (Zarautz, 1969, 150 orr.). Itxaropena'k argitaratu zuen arren, A. Iñaki'ren laguntza polita izan zuenik ez dezakegu uka.

5) *Ikas-bidea* adierazten ere jarri zuen bizkarra Araba'ko Diputazioak ume txikientzat egindako argitalpen onetan.

6) *Euskalerrria* (Bilbo, El Mensajero). Geografia eta kondaira zatiak dituzu.

Aldizkarietan atera ditu artikuluak ere, «Jesus'en Biotzaren Deia»-n, «Zeruko-Argia»-n «Zer»-en ez gutxi.

Gaur ere, Loiola'n, aspalditik gordeta dauzkan «lanak apurka argitaratzeko» asmotan dabilkigu. Ezin da geldirik egon geure-geure dan euskera, il-zorian dakusanaren alde, zerbait egiteke. Geroak irri egin ez dezaigun berea erre nai du euskal izkuntzaren onetan.

«Goitarki» ez-izena erabilten du sarri bere lanak izenpe-tzerakoan.

(Ikus J. Martin, *Escritores euskéricos*, 92 orr.; Auñamendi, *Literatura*, IV, 336 orr.; S' Onaindia, *Euskal Elertia* (Euba, 1978, 200 orr.).

49.- NIKOLAS ALTZOLA GEREDIAGA (1922-1981)

Lasailletarren artean Balentin Berriotxo Anai. Gizon argi, eragin, ibilkari, geraka euskal arloan batez ere. Irakasle, idazle, olerkari, pintore ez exkasa. Izurtza'n, Durango ta Mañari bitarteko erritxoan jaio 1922-12-30'an. Eta Irun'en il zan 1981-6-2'an, gaueko amarrak bost gutxiagotan; illetak bertan ospatu ziran andik egun bira, bere Anaidiko lagunak, zenbait senide, ikasle askotxo ta euskaltzale mordoxka bat, mugaz andikoak eta emendikoak noski, inguruan zituala.

BIZITZ-ZEAZTASUNAK.- Altzola anaiak, jitez eta jasez bear bada, maite zuen berariz bere jaiotz-lurra, eta sendia; Izurtza eta bertoko gauzak jasoten etzan gutxi saiatu. Txikitatik zetorren ikasle ta langille. Baita ertilari ere. Leen-ikas-asimasiak bere errian osaturik, Bilbo'n ikasi zuen komertzi-karrera. Bere etxe inguruko edertasunak laister piztu-erazi zioten erti-irrits bizia, eta ikasle gaztetxo zaia asi zan pinturaren ezkuttuak askatzen. Eder-senak joa, bizitzaldi guztian ari izan zan euskal literaturari ta margo-lanari lotua.

Lasailletar egiñik, Irun'en irakatsi zuen lendabizikoz, La Saille-nean eta San Martzial Ikastetxean. Urteak eman zituen ortan, beti zintzo, apal, maitekor. Orixegatik, oso maite zuten ikasleak. zintzotasunak, jakiña, errez irabazten biotza. Ona zan, eta Jainko-zale, eta ederrak ditugu tasun biok gazteen eziketarako; orrela bertatik jausten dira gazteen biotzak maitasunaren saretan, euliak ezti-xarroan bezela.

Irun'etik landa ere, Bilbo'ko Santiago Apostoluaren Ikastetxean eta gero Deustu'n egin zizkigun egotaldi batzuk, beti irakasten. Azkenean, iru bat urte dirala, biotzetik gaixo samar zebilelako, Irun'era bialdu zuten nagusiak, ots, il zan La Saille'eneara, emengo euskal liburutegiaren arduradun. Atsegin zaion arlo onetan ziar-duala jaso zuen Jaunaren deia.

EUSKAL IDAZLE.- Lan aipagarria osatu zuen euskal letretan, ainbat gai arroturik, naiz itz-laurf eta naiz bertsoetan. Apala zan arren, bide ertzeko biltxoak iduri, sail askotan nabarmendu zitzaigun, baiña batez ere euskerak ditun pitxiak jaso ta edatzen: eder zituan lan motzak, errez irakurtzekoak, suspergarriak. Berezkoa zan idazkeran, zabarra ez baiña geiegi landu bagea: mendi-txokoan gorderik dagoen iturriaren ur-aria langotxea. Bere aldetik zebillen, ez ifioren mutil, ez ifioren aurreko.

Emilio Navas'ek zuzenduriko «El Bidasoa»-n eta J. Zaitegi'ren «Euzko-Gogoa»-n azaldu zizkigun bere leenengo lanak, ugari argitaratu ere. Gero, euskeraz ain zuzen, La Saille-nean ateratzen zan «Nora»? aldizkariaren sortzaille ta bultzatzaille errime gertatu zan. 1969'tik aurrera «Egan»-en idatzi zuen, eta «Zeruko Argia»-n, «Karmel»-en, «01erti»-n, «Aranzazu»-n, «Herria»-n eta abarren euskeraz, eta BAP, Vida Vasca ta olakoetan erderaz. Aren lanik ederenetarikoa aldizkarietan sakabanaturik dago.

Orrez gaiñera, ba-dauzka liburu batzuk ere. Ona auek beintzat:

1) *Cien autores vascos* (Donostia, 1966, Colección Auñamendi, 146 orr.). Nik pekatari onek, ainbat bider ortarako nere bizitz-datuak eskatu zizkidan arren, ez nizkion bidali, tamalez. Eta belu dabil-lenak...

2) *Atalak* (Zarautz, 1967, Kuliska Sorta, 64 zenbakia, 150 orr.). E. Erkiaga, L. Akesolo eta J. San Martin'en itzaurrez aberastua. Gaiak: Elezar. Pasaixuak. Saio-oarrak. Badozenak. Jakintza-oarrak. J. San Martin'ek onela: «Arduraz eta leun aztertu ditu gure kondaira, bibliografia, literatura, biografia laburrak, erri-ipui ta abar, ta ez gutxitan gure artisten lan eta bizitzaretzaz. Olerkari saillean be aspalditik dabil, ta azkenengoz artu daben bidetik kimu barriak emongo dautsaz eusko-olerkaritzaren magalari» (27 orr.).

3) *Bigarren Atalak* (Zarautz, 1972, Kuliska Sorta, 75'garren zenbakia, 163 orr.). Gaiak: Ipuñak, elezarrak, saio-oarrak, badozenak, oar laburrak, leku batetik bestera, saioak, adabakiak, oar-sorta.

4) *Hirugarren Atalak* (Bilbao, 1978, 133 orr.). Gaiak: 1) Ipuiak, kontu-kontari; 2) Kantu-berrigintzan, 4 lantxo; 3) Bertsogintzan, 9 lantxo; 4) Olerkigintzan, 11 olerki; 5) Ohar-sorta, 15 lantxo.

5) *Ipuiak* (I). bigarren argitalpena (Bilbo, 1981, 84 orr.). f19 ipuin polit.

6) *Ipuiak* (Bilbao, 71 orr.). 14 ipui ederki landu.

7) *Ipuiak* (III) (Bilbao, 1982, 82 orr.). 16 ipuitxo polit.

«El Mensajero»-k argitaltzen duen «Kimu» saillean datoz iru liburuxkok, Jose Maria Legorburu'ren marrazki adierazgarriz dotoretuta.

Bere lanak eta liburuak izenpetzeko ainbat izen-orde erabili zuten: «Bitaño», «Markue», «N de Kortazar», «Ozerin-Jauregi», «Dolometa», «Oxinondoko Txoria», «Bidaurreta», «Altzarte», «N.A.G.», «H.V.B.», «Unai Anai» eta besteak.

Euskaltzain urgazle, 1957'tik.

Labur: Nikolas Altzola'k, zarata aundiko etzala ere, nekatu barik lanari ekiñaz, balio ederra eman zion euskal literaturari. Or daude aren prosazko artukuluak, errikoï ta jakingarri; or daude, baita, aren olerkiak ere, «Kantuz eta Itxaropenez» titulupekoak, ez bear bada egazkada garai-garaikoak, baiña beren mezua dutenak bai. Erriaren izkera erabili zigun beti, gramatika arauz geiegi axolatu gabe. Euskera zuen elburu, euskerari eutsi, landu, «gogo-bide guztietarako gai egin».

(Ikus San Martin, *Escritores euskericos*, 24 orr.; J. Bilbao, *Bibliografía*, 132 orr.; Auñamendi, *Literatura*, IV, 359 orr.; Celia L. Sainz, *Quien es quien en Vizcaya?*, 27 orr.; S. Onaindia, *Zer*, 1982, dagonilla, 14 orr.; K. Etxenagusia, *Euskal Idazleak bizkaieraz*, 1980, 257 orr.; M. Zarate, *Bizkaiko Euskal Idazleak*, 276 orr.).

50.- XABIER GEREÑO ARRATE (1924-...)

Euskal idazle aberats au Bilbo'n jaio zan 1924-8-12'an. Gran Canaria'ko Las Palmas'eko Komertzi Goi-Ikastetxean eta Bilbo'ko Sa-

leresketa Goi-Eskolan osatu zituen eskola-urteak. Komertzioz kanpo iru urtetan ikasi zuen pianua, baltzu edo enpresa erakundeazko gaiak eta Europa'ko izkuntzarik ezagunenak ere ezagutzen ditu. Cinsa (Coordinacion de Iniciativas, S.A.) zuzendari dala, diskuak, euskal-kantak, irakur-idaztiak eta abar argitaratzen dizkigu. Irratian, teatruan, dantza ta musika arloan ez du lan gutxi egin.

Euskal idazle legez, ordea, gaurko Euskalerriko aldizkarietan, Bilbo'ko euskal folklore ta gauzai buruz batez ere. «Txistulari», «Karmel», «Dantzari», «Zeruko Argia», «Anaitasuna»'n datoz bere lanak. Azken urteotan, berriz, zenbait polizi-nobela ta irakurgai labur eskeifli dizkigu. Euskaldun-berri dalarik ere, naiko ongi menderatzen du euskera eta irakur-errez eta ariñak zaizkigu bere sorpenak.

Onela dakar K. Etxenagusia'k Gerenoz: «Euskaldun berriai gure izkuntza irakasteko asmoz, berak bakarrik daki zenbat lan egiten diarduan Gereñok, euspaldian euskera batuaren bidetik. Gereñoren idazlanak gaurko girokoak izan nai dabe, izkera errez bakunean» (*Euskal Idazleak bizkaieraz*, 259 orr.).

Asko idatzi du Gereño'k, eta argitaratu. Atera ditun liburuen zerrenda osoa egiri nai nuke, baiña etzait errez izango une onetan bere idatzi guztiak 'eskuetan ez ditut-eta. Auek emen dituzu, ala ere:

1) *Arantza artean-deritzana* (Zarautz, 1969, 112 orr., Kuliska Sorta). J. San Martin'en itzaurrea dakar, eta onela dio asiera-asieran: «Uste dot, Xabier Gereño-k, bere nobela lanari ekiterakoan ondo gogoan izan dabela euskal literaturak daukan nobela errezean beharra. Nornahik oztopo bagarik irakurri hal izateko nobelena, gehiegizko konplikazifiorik bage eta euskera errezean. Kontuan izan ez badau be, hau ondo bete dau».

Eta beeratxoago: «Irakurri ondorean galdetu deusat egilleari: Non jazo da historia hau? Ez dozu herririk aitatu. —«Non jazo dan? Baina, zer arraio! Zertarako burua nekatu? Holakoak, edozein tokitan jazo leitekez. Zuzentasuna ez dan bitartean ez da arantza bako lorerik, ez tristura bako maitasunik izango». Gaurko problematika. Gaurko mundua erarik arruntenean, baina oharpen

sentikor eta jakingarriakaz aurkeztuaz. Pasadizu xinpleak, hain garesti joastatzen jakuzenok».

- 2) *Argi bat illuntasunean*. Teatru lana, 1965'an antzeztua.
- 3) *Zein da errudun?*
- 4) *Nobio bat behar dogu* (1965. Teatru lana).
- 5) *Nora naramazu?* (Donostia, 1972).
- 6) *Andereño* (Donostia, 1975). Aurrekoa eta au ere teatru-lanak.
- 7) *Jurgi Kapitaina Hong-Kong'en* (Bilbo, 1982).
- 8) *Teatru-lan* (Bilbo, 1983).
- 9) *8 Teatru-lan* (Bilbo, 1983).

(Ikus J. San Martin, *Escritores euskericos*, 95 orr.; N. Kortazar, *Cien autores vascos*, 126 orr.; S. Onaindia, *Euskal Elertia*, 200 orr.; Enrike Zabala, *Euskal Litteratura*, 1979, 245 orr.; Ibon Sarasola, *Euskal Litteraturaren Historia*, 141 orr.; Ega-tsez (Zarautz, 1971). J. San Martin eta Serafin Basauri'k antolatua, 167 orr.; K. Etxenagusia, *Euskal Idazleak bizkaieraz*, 259 orr.).

51.- BIKTOR KAPANAGA ELORTZA (1925-...)

Ultzegintzan eta olerkigintzan (Arrese-Beitia) durundu aundikoa dan Otxandio'n jaio zan Kapanaga, 1925-10-15'an. Industri-maisua da. Bere kasa osatu zizkigun ikasketak, leenengo bere errian eta gero Eibar'en. Emen ezagutu nuen nik, 1955'an, Umandi (Andoni Urrestarazu)'ren gramatikaz, beronek eta beste eibartar jator batzuk argiratatu zuten gramatikaz, euskera ikasten.

Andik urte batzuetara bere erriraturaz, emen ari izan zan gogotsu, erritarren bizimodua errezago egin naiean, Kooperatibak antolatu eta etxe-mordoak jasorik. Erriak naikoa zor dio Kapanaga'ri, gaur ain txukun eta aurreratua aurkitzen dalako. Gaur, Otxandio'k, aspaldietako baserri-bizitzari uko egin bage, etxe-industria ta sale-rosketa erabat utzi bage, ainbat era dauzka bizibidea erosoago eramán aal izateko. Eta ortan ezin dezakegu uka Kapanaga'k aspertu gabeko lana osatu zuela.

EUSKAL IDAZLE.- J. Zaitegi'k Guatemala'n ateraten zuen «Euzko-Gogo»-n asi zan idazten, 1953'an. Gero, «Zeruko Argia»-n, «Karmel»-en, «Txistulari»-n, «Jakin»-en, eta «Anaitasuna»-n beintzat idazkide ikusi dugu. «Edonor», «Zaltzai», «Kabi», izen-ordeak erabili ditu. Kazetaritza izan da bere lanik geienen arloa.

Liburu bat argitaratu digu: Euskera erro eta gara (Bilbo, 1978, 215 orr., «Printzen» irarkolan). Bitxia da ikerlan au, egilleak berak dioskunez, «hesparru lainotsua», gai jakingarri askoz edertua. Berau irakurritz edozeini ere irudimena arro-azten zaio igarri gabe, eta euskeraganako apeta sortu, erro ta gara funtsez ikasteko gogo bizia jalgi-eraziz. Zentzunez eta sakonki buruturiko lana, ez-pairik gabe. Ba'liteke bertan datozten zer bitxi batzuk egi-antxe besterik ez izatea, baiña or dugu lan eroapentsu ori.

Euskerari buruzko iker-lanean orduak eta orduak xautu dizkigu otxandioar euskaltzaleak, erro-billa ain zuzen. «Ez da sortu — dio berak— gaurdaño, hizkeren arteko lotureen erroak azaldu eta adierazi lituken arauzko ikerbide egoki bat; ez eta, hizkera bako-txak bere barrenean daroan izkututasuna argitaratuko duenik ere. Horrek ez du esan nahi, erro eta izkutukizun hoiek betirako azal-eziñak diranik, ifioiz guztirako izkutuan izan behar dutenik». Eta ontan ari da Kapanaga; ez da, ikusten duzunez, edozelango lana, garrantzi aundikoa baizik.

Gaiok apika ez ditu zientzi-maillatik aztertzen, baiña bere jakin-miñez arakatu bai, ikasi ta ulertu, gauzak euskeraz izki, itz, erro-mami, azal gara ta besteak azaldu ta adierazi. Orainarte inork saratu ez duen soro-arlotik ibillia dugu Kapanaga, eta itsu-itsuan eta ikuspegi estuz ez gero, zabal eta indartuz baizik.

Lan bitxia, irakurri ta gogoan iraultzea merezi duena. Euskal kritikalaria eta komunikabideak ez diote oraindik bear lukean gora-otsa eman liburu oni.

(Ikus, San Martin, *Escritores euskéricos*, 60 orr.; S. Onaindia, *Euskal Literatura*, IV, 386 orr.).

LABURPEN

Atzen-urteotan suster gabeko istillu geitxo aizatzen gabiltza geure izkuntzaren kalte aunditan. Itzez, idatziz eta azpi-janez ain zuzen ere. Ba al dago eskubiderik ortarako? Guztion izkuntza ez ote dugu Euskera? Zertarako ainbeste eztenkada euskalkiak dirala-ta? Naiz zuberotarrez mintzatu, naiz bizkaieraz ez al da berdin? Gaztelerak naiz prantsesak ez ote daukate gauza edo fenomenu berdiañ?

Euskeraren batasuna burutzeko, bizkaiera omen da koska, korapillorik gordiñena. Ala ere, korapilloak eskatu egiten dira, ez sutara bota. Bizkaiera il bear dala esan omen dute. Nolako txaldankeriak esaten ditugun mingain leunegiz!

Eta «Zer»-en au irakurten dut: «Bizkaiera ez dogu guk asmau. Or dago Errian. Or dago elerti ederrean. Bi milla urte ba-dira, gixienez, Bizkaian bizkaieraz egiten dogula eta bi milla urte orreitán, inguruko erriakaz izan doguzan artu-emonak gogoratzeko or daukagu artutako ta emondako itzen kondaira jakingarria. Nor dator guri ondasun ori kentzera? Nor dator gure amari bizia kentzera? Betor. Emon bear dautsogun lako erantzuna emongo dautsogu. Eta jakin begie bein betiko iltzaille madarikatuok, gudaldi bat galtzea ez dala gudea galtzea. Eta... zori txarrez... gudea galtzea ba'litzake be, euskaldunok lar ondo dakigu, kondairea lekuko, gudea galtzen dauan erriak zer egin bear dauan eta zer egin dauan».

Eta bizkaieraz mintzo diranak zenbat ditugun adieraziz onela amaitzen du: «Yrizar'tar Pedro jaunak egin dauan billaketa zeatzean, Euskalerraren barruan 200.494 euskaldun agertzen dira bizkaieraz berba egiten, Bizkai-barruan 140. 229, Gipuzkoa'n 58.402 eta Araba'n 1.863. Eta ez dakigu Euskalerritik kanpoan gure izkuntzaz berba egiten daben 80.000'k zein euskalki darabillen. Kanpo ta barru euskeraz 613.500'ek egiten dabe. Gipuzkeraz guztiz, 200.049. Olan dala, euskaldunik geienak euskeraz egiten dabenean bizkaiera darabille» (1982, epailla, 1 orr.).

BIZKAITAR IDAZLEAK.- Asko ta onak izan ditugula, gizaldiak zear, aldarrikatu dezakegu ezereen lotsaizun gabe. Liburu ontan da-

tozenak, gerra aurretik eta ondoren idatzi zutenak, ez dituzu oskol, ez ipotxak. Iraizean eta azaletik begiz jota ere, on xamarrak baiño geiagotzat dauzkagu A. Ibiñagabeitia, Bizente Batiz, Lino Akesolo, Eusebio Erkiega, Balendin Aurre-Apraiz, Sabin Muniategi, Anes Arrinda, Paulin Solozabal, S. Onaindia, Agustin Zubikarai, J. Antonio Goiria, Lon Arteaga, Jaime Kerexeta, Krutvrig, Luis Villasante eta besteak. Leengoak legez oraingoak ere, ez al dute aspertzeke idatzi Euskalerriko aldizkari ta egunerokoetan? Eurotatik asko ez ote dira dozenaka libururen jabe?

Auek, gaiñera, bizkaieraz idatzi dute geienbat, gipuzkera bazterturik utzi ez ba'dute ere. Ez digute jokabide berdiña erakutsi gipuzt idazle askok. Lotsagarria da, baiña azal lodirik gabe esan dezagun emen: Bordari'k, adibidez, agirian aitortu zigun batzar batean berak ez zuela bizkaierazko ezertxo irakurten, eta L. Mitxelena'k «Bizkai'ko euskeraz gutxi dakit» idazten du «Egan»-en (1960, 1-2, 111 orr.). Orretan ere, ba, «or dago» botatzeko mudoan daude bizkaitar idazleak. Baiña ez dago ordagoka zertan asirik; ikas ditzagun guk euskalkietan dauzkagun diferentzi ñiminoak, idatz dezagun lasai ta orra or euskera batua. Euskera idatzia noski, erria ez bait da egundo euskera batuan mintzatuko. Espaiñeraz era andaluzak, extremeñoak, burgalesak, aragoitarrak, erri-erria diot, nork bateratu?

OLERKARIAK.- Poeta legez, ba-ditugu ale ontan datozanean artean, iñori ere zorrik ez diotenak, Bizkai'ko saillean alegia. Or E. Erkiaga, gerra osteko onenetarikoa; or B. Aurre-Apraiz, bere poema ederrakin ainbat sari jasoa; or L. Arteaga, B. Batiz, Krutwig, Zubikarai... Or poesi-liburu mardulak argitara eman dituztenak: J. Kerexeta («Orbelak», «Bitargi», «Udazken», 1980, 215 orr.), S. Muniategi («Goiz-Aize», 1935, 80 orr. ta «Bidean gora», 1970, 184 orr.), Paulin Solozabd (6 olerki-liburu), S. Onaindia («Goiz-nabar», 1970, 242 orr.), A.P. Anasagasti («Olatuak», 1980, 127 orr.).

NAFARROA ETA MUGAZ ANDIKOAK 1908-1925

«Fubolari, korrilari eta indarkarien aintza, igeskorra da. Aien ospea, egun batekoa bizirik ez da, ez du aztarrenik ere uzten aberri-edestian. Zenbait kirolzale purrukatuen buruan bai, ez luzaroko ale-re. Bitxia litzake, aberri-indarrez soilik errien yakin-mailla eta aurre-rapena neurtuko ba'litz. Bitxiagoa oraindik, indarkari zenbaiten ize-nez bere yakin-maillaren aundiera sendotu nai lukean erria. Ortik ez da iñoiz ere mundu-aurrerapenik sortu. Gaixoak gu, zaldi-lasterren omenez eta egitez askituko ba'giña!.

«Yakintzaren arloa zabal eta muga-gabea da. or daude philo-sophuak, or matesilariak, or kimi-lariak, or phisi-lariak. Nik da-kita? Nolarebait gizonaren adimena eta antzea azkartu detzaketen ikas-sail guztiak. Iñoiz ere agortzen ez diren iturriak, agortu ere ezin ditezkenak.

«Iturri oietan bear luke erri bakoitzak murgildu, bere ospea, bere aintza gaindegietaraño iasotzeko. Or ematen du erri bakoitzak bere argitasunaren izaria.

«Eta gure erri txiki eta ostikopetu onek bere almenik erakutsi ote du yakintza-bidean? Ifioiz mundu-aurrerapenerako gai zitezkean argitasunik sortu ote du?» (Elentxu).

LABURPEN

Gure kultur-uztak arduraz bildu ta gordailu autaturetan zaintzeko, ez gaitezen iñoiz ere nagi agertu. Olan egiñik bada, asko luzatu gabe, dauzkagun puskatekin altxortegi joria osatu dezakegu; ez izan ezpai-txakadarik. Orixe egin dute besteen literaturak ere, eta guk zergatik ez? Nire gazte denboran, gure soroetan garia artzen zan garaian, osterata osterata ikusi nuen nik, garia jo ondoren, larra-ino edo buio ertzetan, gorderik naiz zapalduta geratzen ziran galburuak batzen eskuz edo-ta eskubaraz, oiek ere imiñea gizentzen zutelako. Era berean guk.

1) *Nafarroa'n*.— Nafarroa'n ba-ditugu, aspaldi bateko ariari jarraituz, euskal lumeari lan eragin diotenak.

Auek beintzat merezi dute aipamena: Arriba'ko seme Migel Intxaurren apaizak, Mariano Izeta gaur ere euskal azkar danak; ezin ditzakegu ixillik utzi Setoain Luzaide'ko andre prestua, Aralar'ko santutegian euskal kezkak inarrosita bizi dan I. Aierbe jauna, Jose Estornes Isabatarra, Pedro Diaz eta gaiñerakoak.

2) *Mugaz andikoak*.— Gaur ain urbil eta ain urruti bizi geran euskaldunok, luza ditzagun geure begiak mugaz bestaldera ere, eta an ditugu lapurditar, baxenapartar eta zuberotarrak, asko ta onak idazlaritza saillean. or batzuk:

a) *Kalonje ta bikario euskal idazleak*.— *P. Arnart*, Endaia, Hazparne, Maute, Bidarte, Kanbo ta Biarritze'n erretore, «Eskualduna» ta «Gure Herria»'n idazle ta liburu argitaratzaille; *P. Narbaitz*, «Elizako liburua», «Eskual Egutegia», «Kattalinen Gogoetak», «Lurdeko Lorea», «Elizako predikua» ta abar idatzi zituna; *Gilen Eppherre*, zuberotarra, «Katexima», «Elizako libria», «Botzez eta bihotzez» eta «Haurren lehen Katexima» osatu zituna, eta onen anai *G Eppherre*, ainbat berri Zubero'tik «Herria» asterokora bialtzen zizkiguna.

b) *Arduradun eta olerkariak*.— *Xabier Iratzeder*, Beloke'ko abata, idazle ugaria ta olerkari leun-samurra, ango muiño argitsutik barne-gai bizi goxoz jantzita «Otoizlari» bialtzen diguna; eta onen inguru J. Babaki, mee ta arin, eta S. Erramuzpe, Aldude-Banka'ko semea.

z) *Pastoral eta teatru-idazleak*.— *M. Egiaphal*, ainbat pastoral egille, «Eskualounak Ibaifietan» bereziki; *P. Lartzabal*, Azkaine'ko semea ta Zokoan erretore, konta-ezin-ala antzerki osatu dituna, mami ta azal beti bikain; *P. Bordazuri*, «Etxahun», Iruri'ko seme pastorgille porrokatua.

d) *Bertsolariak*.— Ahetze'ko seme *Mattin Treku*, bertsolari alai sonatua, «Ahal dena» ta «Ene xokotik kantari» koplak liburuen egille; *Fernando Aire*, «Xalbador», Urepel'en jaioa ta bizia, bertsolari samur oparotsu, «Ezin bertzean» ta «Odolaren mintzoa» utzi ziz-

kuna, eta *P. Adrien Duny*, Donibane Garazi'koa, or-emengo aldizkarietan, itz-lauz ta bertsoz, zenbait lan osotua.

e) *Mixiolariak*.— Baigorri aranekoa dugu Josep Oltzomenedi, Beloke'n biziarren, Euskalerrrian zear mixiolari asko ibillia. Eta onen inguruko beste ixil asko.

f) *Senadore ta kantari*.— Euskaltzale zintzoa, aberriaren alde lan egiñez eta berau kantatuz bizi izan zana; euskal idazle, Kanbo'ko alkate ta Paris'en senadore.

g) *Irakasle ta ikerlari*.— Donoztebe'ko seme ta Baigorri'ko alkate. Euskal literatura erakusle Bordele'n. Euskeraz ta frantsesez idatzi du. Bere ikerlan askoren artean, ederrena, «L'Oeuvre poetique de Pierre Topet Etchahun».

NAFARROA

I.- MIGEL INTXAURRONDO ARRIARAN (1897-1979)

Betelu'tik urnil xamar daukazu Arriba napar erritxoan jaiotua. Apaiza. Iruña'ko seminarioan osatu zuen eliz-karrera, meza-kotu ondoren, Etulain'en arima-zaintza egiñik lendabizi.

Eder-zale zan eta erretore zegoelarik asi zan olerkiak erderaz eta euskeraz idazten. Donosti'ko aldizkari «Euskalerrriaren Alde»-n daukazu aren erderazko bat, *Sembrando el trigo marzal* deritzana (1924, XIV, 216 orr.), eta euskerazko bat «Euskal Esnalea»-n (1926, XVI, 143 orr.), *Aingeruaren iltzean* deritzana.

Euskaltzale porrokatua zanez, 1924'n Iruña'ko apaiztegiko euskera irakasle izentatu zuten. Emen idatzi zizkigun bere libururik jakingarrienak. Ikastegi oni eta Nafarroa'ko eliz-barruti oseari begira, kementsu jokatu zuen napar izkuntzaren onerako.

Azken gudak Madrid'en atzemanik, Guinea'ra bialdu zuten guda-taldeen kapellau. Geroztik, samiñetan jakiña, napar erri maietik kanpo, urrats illun ibilli bearra izan zuen Guinea'n, Kartagena'n eta Puerto Rico,ko Humakoa'n; an itzi zituen, beti arima-zai bere ezurak aberritik urruti.

Euskal-idazle.— Bereak ditu ondorengo liburuok:

1) *La Iglesia y el euskera. Obligacion de hablar al pueblo en su lengua nativa y de cultivarla.* (Iruña, 1927). 100 orr. Liburuxka mamietsu egokia. Mateo Urrestarazu gotzaiari eskeiñia. Iruña'ko Apia-gaitegian 1926-1927 ikastaroa irikitzean irakurria

2) *Metido prdctico del euskera* (Iruña, 1928). XXIV. 452 orr. Jose Aramendi'ren irarkolan. Zentzunez eta sustraiz antolaturiko euskal gramatika, H. Gavel'ek «Gure Herria»-n goratua.

3) *Jerusalen*, Silbia Baleztena'k erderaz egiña euskeraz ipifia, baiña etzuen argitara eman aal izan.

4) *Palabras vascas que no se encuentran en el Diccionario V.E.F. del Sr. Azkue.* Zazpi erritan Araiz, Goizueta, Larraun, Lesaka, Baztan ibarrean eta inguruetan bilduak dira. Itz-biltze au Bilbo'ko Euskaltzaindiaren artxiboan dago.

(Ikus Leon Leon, *Gure Herria*, 1927, vil, 130 orr.; J. Urkixo, RIEV, 1927, XVIII, 203 orr.; H. Gavel, *Gure Herria*, 1929, IX, 227 orr.; J.A. Arana Martija, *Euskera*, 1979-2, 861 orr.).

2.- FELIZIANA SETOAIN AROSTEGI (1912-...)

Luzaide-Nabarra'n jaio zan 1912-1983'an. Bere euskal lanak izenpetzean «Feli Setoain» jarri oi du. Luzaide'n bertañ, Ondarrabi'n eta Uztaritze'n osatu zitun bere ikasketak. Ondoren Uztaritze'n egin zuen irakaslaritza.

Mugako kargudun batekin ezkondu zan; gaur, alargunduta, Madrid'en bizi da. Ogibidez pianua erakusten du, eta musika zalea danez, euskal musika errikoiak bilduz xorta politak dauzka egiñak.

«Luzaide» aldizkarian asi zan idazten 1960'n. Gerora Iruña'ko «Principe de Vaina»-n, euskal aldizkarian agertzen dira bere euskerazko lanak, noizetik noizera.

(Ikus J. San Martin, *Escritores euskericos*, 158 orr.; Auñamendi, *Lileraiura*, IV, 202 orr.).

3.- INOZENZIO AIERBE IRANETA (1912-...)

Naparru'ko Uarte-Arakil'en jaio zan 1912-12-28'an. Apaiz-karrera Iruña'ko Eliz-ikastetxean egin zuten. Eta aspaldiko urteotan Aralar'ko Mikel Deunaren Santutegian daukagu txauburu.

Umetatik euskaldun, «Amayur» aldizkarian asi zan euskeraz idazten, 1933'an. Arrezkero guztian beti zerbait idatzi du, «Zeruko Argia», «Egan», «Principe de Viana» ta olakoetan.

Luma jatorra du, eta bere izparrak beti zaizkigu interesgarri. Irakur *Iñere zuria* (*Egan*, 1956, 5-6, 82 orr.).

(Ikus J. San Martin, *Escritores euskericos*, 45 orr.; Auñamendi, *Literatura*, IV, 222 orr.; J. Bilbao, *Eusko Bibliographia*, I, 399 orr.).

4.- JOSE ESTORNES LASA (1913-...)

Isaba'n jaio zan 1913-4-17'an. Merkatalgorako irakasle da. Zaragoza'n eta Karakas'en burutu zitun bere ikasteak. Gaur Donostia'n bizi da, bere anai Bernardo ta Mariano'rekin lanean, «Auñamendi» argitaletxea osaturik.

Garai aretan euskeraz mintzatzen zan arren Isaba'n, Estornes anaiak atzerrian asi ziran beren izkuntza ikasu ta sakontzen, Jose'k Venezuelan idatzi zitun bere leen euskal lanak; gero, berriz Donostia'ko «Zeruko Argia»-n eta Iruña'ko «Principe de Viana»-n (*J. Estornes Lasa*).

Lanik geienak, baina, erderaz moldatuak ditu. Ona batzuk:

1) *La Real Compañía guipuzcoana de Navegacion de Caracas* (Buenos Aires, 1948). EKIN, 32garren alea. Liburu jakingarria.

2) *Como aprender el vasco fdcilmente* (Donostia, 1960). Bigarrenez ere, 1964'an. Lan eder, osoa.

3) *Metodo elemental de vasco* (Zarautz, 1961).

4) *Erronkari'ko uskara* (Donostia, 1968). Euskal gramatika, tar-
teka jarritako marrazki ernegarriz apainduta.

5) *Los Vascos y la Universidad* (Donostia, 1970). «Auñamendi
liburu txortan, ale bi 77 ta 78 garrenak. Leenengoak 156 orrialde
daukaz eta 164 bigarrenak.

Ba-ditu oraindik beste lan batzuk ere, *Zaraitzu 'ko uskara ta Eus-
kal Aditza*, adibidez.

Eta olerki batzuk, *Ezta ilen Erronkari'n uskara* deritzana ta abar.
Iñoiz erabilli zigun «I. de Obanos» ezizena.

(Ikus F. Arozena, BAP, 1948, IV, 299 orr.; L. Mitxelana, *Egan*, 1960, 3-6, 235
orr.; J. San Martin, *Apendice a Escritores euskericos*, 20 orr. eta *Egan*, 1969, 1-3,
109 orr.; J.M. Satrustegi, *Diario de Navarra*, 1968-5-24; Auñamendi, *Literatura*, IV,
227 orr.; J. Bilbao, *Eusko Bibliographia*, III, 220 orr.).

Oarra. E. Lasatarrek iru anai dituzu: Bernardo, Jose ta Maria-
no. Mariano onek ere merezi du aipamen labur bat. «Euskalerra-
ren Alde»-n idatzi zuen leenengo ta «Batasuna» aldizkarian gero.
Bereak ditu bi noblea auek ere: *Oro del Ezka* (Zarautz, 1958),
«Auñamendi» sortan, 1-2an; eta *Los Errotazar-Larralde* (Zarautz,
12960), «Auñamendi» sortan au ere 15'gn. alea.

(Ikus J. Bilbao, *Eusko Bibliographia*, III, 220 orr.).

5.- MARIANO IZATEA ELIZALDE (1915-...)

Baztan ibar ederrean sortua duzu, ots, Elizondo'n, 1915-7-14'an,
bere «Mutilenea» deritzan etxean. Gaur ere iri ortan bizi da erloju-
denda baten jabe dalarik. Aita zarautzitarra zuen gaztetxotik Elizon-
do'n kokatua; ama, berriz, Elizondo'ko alaba.

Bere errian artu zituen dakizkin eskolak, gero irakurritz eta pix-
kanaka sakondu ta erreztu egin zigun, bai mintzatuz eta bai lanak,
euskal lanak biribildu ta apainduz.

Baztandarrak ez dira txur ez murriz ibilli euskal literaturan. Ona A. Irigarai'k gogorazten dizkigun auek: Axular'ek Azpilkueta'koa zuen ama; Elizondo'ko «Datugarai»-n bizitu zan Bruno Etxenike, Bonaparte'ren laguntzaille gorenetakoa; Frantzisko Lapitze idazlaria Arizkun'goa zan sortzez; Frantzisko Elizaondo aita kaputxinoa, bertakoa zan; Amaiur'ko erretore izan zan Kruz Goienetxe apaiza Elbete'koa zan; Irurita'n egon zan sendalari urteetan «Larreko» (Paulo Fermin Irigarai) euskal idazle ezaguna; Elizondo'ko semea ainbat urtez Ziga'n erretore egon zan Xabier Lazkoz; eta ainbat urtetan Lekarotz-en bizi izandako Aita Donosti, bardin Aita Rietzu eta beste asko; Juan Martin Hiribarren, olerkari ospituearen ama Eratzu'koa zan eta Elizanburu'rena Zugarramurdi'koa. Auen artekoa dugu Izeta idazle aspergaitza ere.

Baiaona'ko «Herria»-n etertu gabe idatzi du, leen eta orain, ots, 1960'tik gaur arte. Donostia'ko «Zeruko Argia»-n maiz, «Aranzazu»-n eta Iruña'ko «Principe de Viana»-n berdintsu. Euskaltzaindikoa dugu.

Badu liburu bat ere, *Dirua galgarri* (Zarautz, 1962), «Auspoa», liburutegiak, Itxaropena'n, bere 13'garren alean argitaratua, 128 orrialdekin, A. Irigarai'ren itzaurrearekin noski.

Polizi-nobela polita, interes aundiz irakurten dana. Euskera errez errikoian osotua. Ipui asko dauzka, argitaratu gabe.

Sarri ematen dizkigu Baztan inguruko izparrak batez ere.

(Ikus J. San Martin, *Escritores euskericos*, 99 orr.; A. Irigarai, *Auspoa*, 13'grn. zenbakia, 9 orr.; Añamendi, *Literatura*, IV, 261 orr.; L. Mitxelena, *Egan*, 1962, 1-3, 92 orr.).

6.- PEDRO DIEZ (DIAZ) ULZURRUN ETXARTE (1924-...)

Iruña'n jaio zan 1924-12-27'an. Ogibidez osalaria. Batxilera Iruña'n ikasi zuen, eta Osakintza Zaragoza'n, gai ortaz ikasketa bereziak Bilbo'ko Gaixotetxean egiñik.

Euskaltzaindikoa. Naparruko Foru Aldundian «Principe de Viana» euskal aldizkaria zuzendu zuen luzaro xamar, idazlan ederrak, napartar idazleen ekarri asko ta an ospaturiko bertsolari konkurtsoetako bertso-sail galantak ere argitara emanik.

Euskaltzaindiak ateraten duen «Euskera» aldizkarian ere badu lan jakingarri bat berak izenpetzen duena: *El Catecismo Manuscrito de Maquirriain de 1828* (Bilbao, 1960, 377 orr.).

Ezkabarte'ko ibarrean, Zildozen, «Perutxena» etxean idoro zuten. Makirriain'go eskolan maisu zegoen Frantizsko Gofii'k eskuz idatzitakoa duzu. Idazle au ez dakigu nungoa zanik. Dotrifiek darabilen euskera, ordea, Iruñeri edo Iruña ingurukoa dala, aitortu bear. 76 orrialde dauzka esku-idatziak, eta Makirriain'en dago izenpetua 1828-2-23'an, larunbata arratsaldean.

(Ikus J. San Martin, *Escritores euskericos*, 66 orr.; *Euskera*, 1960, 377-403 orr.; *Principe de Viana*, 1970, 50'gn. zenbakian, 2 orr.; J. Bilbao, *Eusko Bibliographia*, III, 12 orr.).

2 MUGAZ ANDIKOAK

7.- PHILIPPE ARNART KALONJEA (1901-1982)

Baigorri'ko semea, 1901-9-9'an sortua. Zuberotarrak zitun gurasoak; aita, jendarme aintzindari, nunbait.

Beloke'n osatu zituen apaizteko eskolak lendabizi, eta gero Baiona'n. Mezakotu zanean Tolosa'ra bialdu zuten letretako lizentziatura egin zezan. Ala ere bizitzak aiña iraun zion ezurretako gaitza etorri zitzaion eta, bere errira itzulirik, Uztaritze'ko apaizgaitegira izentatu zuten.

Ementxe asi zan Aranart euskal lanetan, Lafitte irakasle lagunarekin baitik bat. «Eskualduna» kazetan eta ondoren «Aintzina»-n argitaldu zitun idazlan batzuk

Baiña kalomje oni aipurik garaiena ekarri ziona zera izan zan: P. Lafitte'kin batera bi lanok burutu zizkigun:

1) *Vocalulaire français-basque* (Baiona, 1941). «Gure Herria»-n zatika.

2) *Maiatza*. Julien Heguy (1860-1930), Aiherre'ko seme, apez euskaltzaleak, luma ederdunak egiña eta 1890'an titulu onekin, Andredena Mariaren hilabetia eta Arrosarioko hilabetia onekin Baiona'n argitaratua, berriz argitara emana.

Baiona'ko lizeora aldatu zuten 1936'an. Geroztik ere, osasunez makal zebilela-ta, lekuz ta karguz aldatua izan zan sarririo. P. Xarritton'ek gaiñaratzen du: «Sekula ere omore ona galdu gabe».

Endaia'n egon zan erretore (1948), Hazparne'n (1952), Maule'n (1955); 1958'tik apez-lagun izango da Bidarte'n, Kanbo'n, Miarritz'en eta azkenik Maule'n.

(Ikus J. Bilbao, *Eusko Bibliographia*, I, 220 orr.; *Euskera*, 1981-2, Bilbao, 1025 orr.).

8.- JOAN-BATISTA LERTXUNDI ILEZALDE (1908-...)

Gizaseme jakintsu trebea, aspaldian Beloke'ko bakartademuiñotik euskal musikan langille aspergaitz.

Ziburu'n jaio zan 1908'ko epaillaren 11'an. Leen-ikaskizunak sorterrian osatu ta goi-deiari erantzunik, eliz-karrera egin zuen goxoki. Au bukatu ondoren, zerbait geiago bereziki ikasi naian, Beloke'ko beneditarrak bialduta, ziriak-izkuntza ikasi zigun Jerusalem eta Charfe'n, Libano'ko Daroun-Harissa'n berriz liturgi-kantu siriakarra, 1933'tik 1953'ra bitartean.

Beloke'ko komentura itzulirik, emen daukagu arrezkero guztien lekaide bizitzari ta euskal musikari emana. Ipar-euskal-erriko musikan, egia esan, bultzada izugarria artu izan du, eliz-musikak batez ere, Aita Lertxundi'ren eskutik. Euskal liturgia, eresi aldetik, berak berriztatu ta indartu duela esan genezake, Beloke'ko beste ainbat fraideren laguntzaz.

Lan ugaria burutu digu. Eta lan ontatik sail eder bat aldizkarietan aurkitzen da, «Aintzina», «Eusko-Jakintza», «Ezkila» ta «Otoizlari»-n geienbat. Iratzeder'ek lagunduta, bereak ditu lan auek: «Meza nausia», «Sainduen Litaniak», «Besta berriko meza», «Salbatore», «Salmoak», eta abar. 1964'an «Ezkila» argitaldaria atera zizkion, irakurgaiak nola kantatu erakutsi nairik, lantxo auek: «Irakurgaik I, Mendekostetik eta hamahirugarren iganderaino», «Irakurgaiak II, Mendekoste ondoko hamalagarrenetik eta hogoitau-laugarren iganderaino». «Gure Herria» aldizkarian ere lan eder bat argitara zuen 1970'an, Eusko-Ikaskuntzaren Batzarrerako 1947'an aurkeztu zuen lana noski.

Baiña Aita Lertxundi'k eskaiñi digun eresi-lanik bikaifiena «Kantikak» deritxaiona du. 1948'an Beloikan argitaldua. 629 orrialde. Zazpi zati dauzka, pnela: 1) *Kristau bizitza*; 2) *Eukaristia*; 3) *Jesus'en Biotza eta Kristo Errege*; 4) *Andre Maria*; 5) *Liturgi-aroa*; 6) *Santu batzuen omenezkoak*, eta 7) *Noiz-nolako kantuak*.

Eliz kantutegi gotor onek izan zuen nork goretsi. Bear ere bai. Emen baten edanak jarriko ditut, liburu berrietaz zentzuzko iritzia ematen zekian Ibifiagabeitia'tar Andima'ren, ain zuzen. «Euskalerrian —idazten du— eliz abestietaz egin dan libururik ederrena duzute noski, Beloke'ko beneditano, Aita Dom Gabriel Lertxundi'k orain iru urte argitarazi zuena.

«Esan gabe doa, «Kantikak» liburua Pyrene'z unaindiko eliz kantikaz osotua dela. Lertxundi Abak, eskualde aietan, amazpigarren euntaroa ezker argitara diran kantika liburu guziak arakatu ditu. Baita ere, erriz-erriz ibilia dugu xaar eta xumeei kantarazten zenbait berri, xaarren artean, atxeman naiez.

«Azkue ta Donosti Abaren bilduma okituak ere erabili ditu; aiek egin lan jakingarria euskal eresiaren oiñarri gertatu baita, ardatz orren inguru euskal eres-zaleak bearko dute lan osogorik agertzen ez dan artean. Labur, Lertxundi'k bere bilduma ospetsua osatzeko euskal eres-agiri danak bildu, ikasi ta arakatu ditu. Lan gaitza beneta.

«Kantika batzu, batez ere itzak, irotuta zeuden. Itz asko utsak zenituten, eta musika aunitz ere bai. Letra ta musika oro, zearo aztertu ondoren, bear zuten egokitasunera erakarri ditu eta dagokien inera» (*Euzko Gogoa*, 1951, 9-10, 59 orr.).

Geroago, 1963'an, argitaratu zuen «Salmoak» deritzana, Iratzeder'ekin batean, 854 orrialdeko liburu onuragarria, Baiona'ko «Ezkila»-k aterea. Edozein salmu abesteko, letra ta musika, bilduma atsegiña. Onekin batera, agertu ziran beste bi liburu titulu berdiñekoak: «Salmoak» Aita I. Baztarrika'k gipuzkoeratuak eta «Salmoak» Aita L. Akesolo'k bizkaieratuak.

(Ikus P. Lafitte, *Eusko Jakintza*, 1948, 563 orr.; J. Lohiague, *Eusko Jakintza*, 1948, 566 orr.; A. Ibiñagabeitia, *Eusko Gogor*, 1951, 9-10, 59 orr.; L. Villasante, *Egan*, 1964, 1-6, 177 orr.; J. San Martin, *Escritores euskericos*, 1968, 121 orr.; Añamendi, IV, 137 orr.).

9.- PIERRE BORDAZARRE (1908-1979)

«Etxahun» izenez geiago azagun dugun au Iruri'n jaio zan 1908-5-28'an. Zuberotarra, ango pastorgintzan ospetsu. Berak bere burua eskolatu zuen eta berezkoari lagunduz koplakari bikaiña bilakatu zitzaigun, letra ta musika zenbait abesti biribildurik.

Santa Grazi'ko alaba batekin ezkondurik, bere sortetxe «Etxahun» baserrian eman izan zuen bizitza osoa. 1979-10-1'an il zan Pau-be'ko ospitalean gaitz oker batek eratsita.

Aren eriotza iragarrean Jean Haritschelhar'ek onela: «Larrazken hastapenaren egun ederretan, urzo xuriak hegaldatzerat doatzilarik Euskal Herriko mendiak iragan bearrez, kanpoak oraino berde, horailtzen hasiak direla, bet-betan, uste gabetan bezala Xiberuko txori erresiñula Lxildu zauku. Euskal Herriak ezagutzen duen sasoinik ederrenean Etxahun Iruri, euskaldun guzien adixbidea, itzali da. Hor ditu bere azken egoitzarat laguntzek, begitarteak zimur, bihotzak ilun, bere familia lehenik, eta haren inguruan

ahaideak eta Euskalherri guzitik jinikako adixkideak. Hor daude ere berak kantatu dituen Xiberuko bazter ederrak, egun sekulako baino hobeki edertuak, ibar eskuina eta ezkerria. Maidalena eta Bostmendieta, unhurritze eta Orhi. Hor daude ere Xiberuko oiha eta ur xirripak, hor dago Uhaitze eta haize hegoa oihaetan, ur lasterak erreketan soinuari bihurtu dirateke Etxahunek berak sekulan gehiago joko ez duen txulularen joiteko» (*Euskera*, 1979, 2, 851 orr.).

Etxahun, Xalbador eta Mattin'en laguna zan bertsolaritzan; orrela ezagutu nuen nik. Baiña bertsolari bezela baiña ezagunago dugu Pastoral-egille bezela. Pastoralgintzan ari izan gogotsu; aue-tariko bederatzi utzi zizkigun.

Barkotzeko «Etxahun» olerkari trajikoari buruz egin zuen gure Etxahun'ek bere leenengo pasterala; ez zuen onek arekim zer ikusirik, ala ere atsegin izan zitzaion poeta jagorraren bizi-zeatzasunez eta abar, lan aipagarri ori burutzea. Gero etorri ziran besteak: «Matalas» (1955), Mitikileko erretor xiberutar zuzenen zaintzaillea; «Beretxerretxe» (1956), XV'garren mendeko Larraindar sonatua; «Iru-ri'ko kontea» (1960), uri ontako zalduna; «Santxo Azkarra» (1965), euskaldun ororen errege; «Kanbo'ko Txikito» (1967), Euskalerriko plazetan pelotari legez oso ezaguna; «Pette Beretter», XVI'garren mendeko napartar gudaria; «Ximena eta Iparragirre» ditu azken ordukoak.

Ura il ondoan idatzi zuten au ere ez datorkigu gaizki emen. Artista mitiku bat galdu dugula idatzi zuten. Zuberora Erdi-Aroko erri bat da oraindik. «Herri horren semea genuen Etxahun —Idazten dute— Euskal Herri zaharraren lekuko. Ile zuriko, gizon haundi hau, begiak itxirik eta ezpainak biurri bildurik, kantari hasten zitzaigunean, Erdi Aroko artista erdi-mitiko baten aurrean geundela iruditzen zitzaigun».

Gaztetatik erakutsi oi da urteakin nor zer izango dan. Etxahun'i eder zitzaion mutikotik euskal kulturak ditun baserrigaiak oro: abots ederreko zanez, kantatzen ikasi zuen, txirula jotzen, eresiak antolatzen. Eta jakin ezazu zuk ere «Agur, Zuberora», gaur bazter guz-

titan kantatzen dena, berea duela; baita «Goizian argi hastian», «Sorlekura itzultzia», ta abar ere.

Euskaltzaindiko urgazle zan.

(Ikus J. San Martin, *Escritores euskéricos*, 1968, 58 orr.; Auñamendi, IV, 147 orr.; J. Haritschelhar *Euskera*, 1979-2, 851 orr.; S. Onaindia, *Karmel*, 1979-3, 11 orr.).

10.- SAUVEUR NARBAITZ (1908-1979)

Behauz'en sortu zan Narbaitz, eta bertan il zaigun 1979-9-12'an. Maisu izan zan, »errient ohia», bobernuko eskoletan. Maite zuen bere izkuntza, eta aurrei eskola-gaiak azaltzerakoan, arrotz-izkeraz ulertzen ez zutena beren izkuntzaz argitu-azten saiatzan zana genuen.

«Amikuzeko euskerari arras atxikia zen —diosku P. Lafitte'k—, bai eta eskualde hortako ohidura gehieneri». Berezkoa! Sort-erria maita duenaklorri dagozkion doai guztiekin maite izango du bai.

Politikaz sozialista zan, ez geldi egotekoa gero. Bere alderdiko «Le Travail» astekaria zuzendu zuen luzaro. Lagunak orrez gain maiz aurkeztu zuten beren kargudun-gai bezela ere auteskundeetan. Baiona'n erriko gizon, aolkari ere izan zan, alderdiari esker.

Azken gudatez, demanak Frantziatz jabetu ziranean, bere lanean jarraitu zigun. Arrapatu zuten, baiña etsaiak eta Alemania'ra eramanez, Buchamvald'eko zigor-zelaietan gorriak ikusi bear izan zituen.

Euskaltzale errime izanik, eskotan itzegin ezeze, idatzi ere euskeraz eta erderaz egin zigulako, euskaltzain urgazle izendatua izan zan. Euskaltzaleen Biltzarrak, L. Dasanze jaunaren denboran «Ikas» batasuna eraiki zuenean, S. Narbaitz ere batzorde ortakoa bilakatu zan. P. Lafitte'k onela: «Bere gin ahalak oro egin zituen bere «arrient lagunak euskeraren eraksterat bildu beharrez»,

Aurraz zeuzkan gogotan, euskeraren etorkizunak noski, eta auek euskalzaletu nairik, etxuen egundo ere nagirik erakutsi. Auentazt

liburutxuak gertatu, atondu eta moldatzen, euskera errez lauan, orixe zan arentzat asmo eder, guren, nagusiena.

(Ikus P. Lafitte, *Euskera*, 1979-2, 849 orr.; J. Bilbao *Eusko Bibliographia*, V, 571 orr.).

11.- PIERRE NARBAITZ (1910-...)

Beigorri'ko aranean, Azkarate erritxoan jaio zan P. Narbaitz 1910-3-25'an. Apaiz-karrera burutu zuen, onela: Beloke'n (1923)4926), Ustaritze'n (1926-1928), Baiona'n (1928-1934) eta Toulouse'n (1935-1938). Filosofia eta Letretan lizenziadura ere lorturik.

Ikastaroak amaitu ondoren, Baiona'ko Seminario Nagudian erakutsi zuen, 1938'tik aurrera. Ez zigun erakutsi bakarrik egiten, 1945'an Eliz-Barrutiko, ango egintzaen zuzendari izendatu zuten; 1946'an, berriz, «Etcheai-ren zuzendari: «Euskal emakumeen egintza Katolikuaeren illerokoa zan berau. 1952'an azkenik Baiona'ko Bikario orokorra egin zuten.

Euskaltzale.— Umetatik zekarren euskeraganako lera. Ori zalarik, ainbat liburu argitara eman zituen euskeraz.

1) *Elizako liburua* (Baiona, 1948). 334 orrialde. Berton datoz Meza saildua, igande eta festa-buruetako ofizioak, bezperak, otoitzak eta kanta beharrenak. Liburu ederra, garai artan guztiz premiñazkoa.

2) *Eskual Egutegia*. (Baiona, 1950), ormarako alamanaka.

3) *Kattalinen Gogoetak* (Baiona, 1955), 106 orrialde. Liburu baliotsu ta ederra, pentsamentu bikaiñez ornitua; euskera «errikoi, bero, sutsu ta etorri andikoa» darabil. «Gure etxeko-andrearen biotza iñork gutxi azaldu al izan du idaztiño onek bezela. Guziok eza-gun izan dugu alango andrea: gure ama, alegia. Aren maitasunaren beroa, aren adimenaren egaldiak pozetan ezartzen digu biotza. Eguneroko bizibidearen goraberak guzitarikoak dira ta aren iduri-

menaren egon-aziñak ez du bazterrik ezagutzen: aldiz, etxean ego-
nean gogo ta aldiz lanean jarraiki, etxeko-andrearen ikuspegia za-
baltzenagotuz ari zaigu. Bera bakarrik ari zaigu mintzalari ta
gogoetolari, gurean etxeko-andrea bait da etzeko buru ta biotz.
Etxeko-andre orren egunerokoa edo duzu gogo baten eten bageko
gogoezti ta ederrak ematen dizkigu, uste baiño pilosopi aundiagoz
igurtzi ta ondurik, eman ere» (Euzko Gogoa, 1956, II-ots., 112 orr.).

4) *Ama Birjina Lurdekoari* (Baiona, 1957). Kantak dira.

5) *Lurdeko Lorea* (Baiona, 1957). Kantak auek ere.

6) *Elizako predikua* («*Gure Herria*», 1956, 325 orr.). Axular'en
omenezkoa Sara'n.

7) *Kataliñan Gogoetak* (Arantzazu, 1958), 110 orrialde. Aita Vi-
llasante'k gipuzkera jarrita.

8) *Charamela* «Baiona, 1951). Berea du daraman aintzin-solasa.

9) *Ixtorio ederrena* (Baiona, 1948). P. Arradoi'k euskerara it-
zulita.

Ba-dauzka oraindik beste lan jakingarri batzuk ere, «*Gure He-
rria*»-n eta argitaratuak.

Eusakaltzaindiko urgazle.

(Ikus J. Zaitegi, *Euzko Gogoa*, 1956, U-ots., 112 orr.; L. Mitxelena, *Egan*, 1956,
1, 57 orr.; L. Villasante, *Egan*, 1958,1-2 108 orr.; Añamendi, 1974, 179 orr.; J. Bil-
bao, *Euzko Bibliographia*, V, 571 orr.).

12.- MARZELIN EGIAPHAL (1910-...)

Sohiita'n bizi da Marzelin aspaldi, Maule ondoan dagoen errit-
xoan. Pastoralgintzari emana bizi da, alegia. Errejenta duzu gaiñera.

Donostia'ko «*Argia*»-n irakurtan dugu egunokaz: «Etxetik ber-
tatik datorkio pastorelekiko gustoa; etxeko batek sartu omen zi-
tuen lehen aldiz satanak pastorelean, bere aitañik hirurogeitaka pas-
toral idatzi zuen, aitak hogeitamar bat, berak hamahiru».

Auñamendi'z andik Xeraute'n jaio zan euskal idazle au ez da aomen txikikoa. Bere emaztea ere, txikitatik, gutziz pastoral zalea; beronek dio: «1927'an guk egin genuen «Napoleon», hamabi ehu bertso bazuen, goizeko bederatzia t'erdietan hasi eta zazpirak arte pastoralka». Jentea bertan zegoen tinko, bertan janez.

HegiaphaJen antzerki batzuk: «Robert le Diable», «Roland», «Jeanne d'Art», «Eskualdunak Ibañetan» eta aurten uztailaren ogeita bederatzian eta dagonillaren zortzian Sohiita'n emango duten «Aimun'en lau semik».

Pastoral au iru orduz luzatuko da. Ogeitabi antzezlarik artuko dute parte; sei-zazpi artzaiñek, danak gizonezkoak.

Or Zuberoa'n bizi-bizi antziñako pastoral-griña. Ez dakigu noizkoa dan, batzuk dagokion antziñatasuna ta jatortasuna zitaldu nairik txakurrenak esanda ere, euskal txoko zoragarri artan iraungo du oraindik Erdi-Arotik datorren oitura orrek.

(Ikus J. San Martin, *Escritores euskéricos*, 97 orr.; Auñamendi, *Literatura*, IV, 182 orr.; *Argia*, 1984, Uztaila 8, 20 orr.).

13.- GILEN EPPHERRE (1911-1974)

Altzuruku-Etxeberri'n jaio zan 1911-10-19'an eta Baiona'n il zan 1974-10-17'an, gaixotasun luze-semintsu baten ondotik.

Leen maillako eskolak bere errian eta bigarren maillakoak Maule'n eta Ustaritze'n emanik, Baiona'ko apaizgaitegian sartu zan goideiari erantzunez. Emen Teologi-gaiak ikasi zituen eta Tolosa'n, 1936-1937'an, Matematikak, aurreko urtean, 1936-7-5'an apaistu ondoren. 1937-1949'ra Baiona'ko Gotzaitegian idazkari daukagu. 1949'an ohorezko kalonje izentaturik, Saint-Bernard ikastegian arima-zain ezarri zuten. 1967'an tituluzko kalonje egiñik.

P. Lafitte'k onela osatzen digu aren marrazkia: «Apez argitu eta goxo bat zen, itzal handiko: apezak gogotik dei egiten zioten

baren arteko predikari gisa, eta jende asko joaitenzitzaion etxera kontseilu galdez; alabainan famatuak ziren haren gixakotasuna eza-gutzale ona, nahiz «manexa» ere, hala beharrez, bazerabilan. haatik, hego-aldeko euskalkiak frango arrotz zitzaizkon» (*Euskera*, 1975, 550 orr.).

Idetzle.— Naiko idatzi zuen euskeraz. Iker-lanak ere burutu zizkigun euskal literaturari ekiniez, bereziki «Etxahun-Barkoxe», «Ligueix» eta «Aita Lhande». Ain zuzen, Lhande, euskaltzain osoa zana il zanean, Gilen Eppherre'k artu zuen 1951'an aren Iekua Euskaltzaindian; eta aikarte onetan sartzeko itzaldiaren itzaldiaren gaita, au izan zan: «Aita Lhande ziberotar euskalzaiñaren orhitzapenez».

Bereak dira liburuok:

- 1) *Katexima* (1941). Kristau-dotriña zuberoraz.
- 2) *Elizako libria* (1943). Deboziazko esku-liburua, zuberoraz.
- 3) *Botzez eta bihotzez* (1949). Euskal kantu txorta.
- 4) *Haurren lehen katexima* (1955). Umetxientzat dotriña zuberotarrez.

Orrez gaiñ, zenbait urtez, Xubero'ko apaizentzat astero prestatzen zuen euskaraz igandetako meza, polikopiaturik aien artean banakatuz.

«Gure Herria» aldizkaria zuzendu zuen, Saint-Pierre jaun gotzaia ilez gero, au da, 1951'tik bere biziaren azkeneraiño. Urte askoz «Eskualzaleen Biltzarra»-ko buruzagien arteko izan da. «Herria» asterokoan idazten zuen.

(Ikus J. Elizalde, *Gure Herria*, 1959, 26 orr.; J. San Martin, *Escritores euskercos*, 79 orr.; J. Bilbao *Eusko Bibliographia*, III, 156 orr.; Auñamendi, *Literatura*, IV, 192 orr.; P. Lafitte, *Euskera*, 1975, 590 orr.; S. Onaindia, *Euskal Abeslia*, 1978, 199 orr.).

14.- GREGOIRE EPPHERRE (1929-1974)

Gilen Eppherre kalonje jaunaren anaia. Apaiza au ere. Altzuruku'n sortua 1929-10-22'an. Maule'n ikasi zizkigun leenengo eskola asi-masiak, eta gero Baiona'ko apaizgategian eliz-karrera. 1952-6-29'an apaiz egin zan.

Apaiztu ta bertatik, Baiona'ko «Saint Louis de Gunzague» ikastegirako izandatu zuten; urrengo urtean, 1953'an, Tolosa'ko Kato-liku Ikastetxera bialtzen dute eta 1958'an, an «zientzilazenziadura» lorturik, Maule'ko ikastegian irakasle jarten dute.

Biotzeko gaitzez zebillen aspaldi, ta azkenez 1974-10-5'an bertan itzali zan aren bizia. Illeta ederrak ospatu ziren aren gorpuari lurra ematean, «jaun kargudun hainitzekin, ehun apezzez goiti bazeen, jaun apezpikua buru, kantu guziak eskuaraz».

P. Lafitte'k idazten digu: «Gregoire Eppherre, bere apez dohai-nak bestalde, gizon argitua zen bai matematiketan, bai filosofian bai musikan; alemanez ederki mintzatzen zen; astero biltzen zituen Xubero-ko berriak eta «Herria» astekarina «iiskaraz» emaiten. Mauleko ikastolan laguntzale herriz-herriz iiskal kantore xahar biltzale eta erakusle, euskara batuaren sustatzale, asmatzen ginuen euskaltzaindiak lagun langile sukar bat ukanen zuela urte askorentzat» (P. Lafitte, *Euskera*, 1975, 549 orr.).

(Ikus P. Lafitte, *Euskera*, 1975, 549 orr.).

15.- JEAN BABAKI (1913-...)

Lapurdi'ko eritxo Arrangoitze'n jaio zen 1913'an.

Apaiz-karrera egin zigun, eta Uharte'n erretore bezela daukagu 1954'an.

Itz-lauz ta bertsoz idazten du, «Gure Herria»-n adibidez.

Olerkari legez mazala. Nik onela «Milla euskal Olerki eder» liburuan: «Olerkari mee, gozo, ariña, esan-naia sen ta zentunez, ezti dariola, diñosku». Eta eredutzat «llhuntzia» ta «Xaramela ekarri nitun.

Illuntzea poeta askok abestu digu: bazterrak illunez estaltzen, txoriak bere musika ixiltzen, izarrak pizten, illargia zeruan gorantz emeki, lo pisu batek bakez beteten lurra...

Irakur sei aspaldi ditun Ian txanbelin onen leenengo estrofa. Onela duzu:

«Igzuzkiak oren bat badu joana dela;
denbora bat goxoamhaize bat epela.
Airean ibilki da loreen usaina;
gorriturik, histen da orai zeru-gaina».

«Xaramela»-ren gaia berriz illuntasun ixiltsuan aditzen dan uri-inguruko soñuaren ederra da, zortzi estrofatan, 7/6, banakatua.

(Ikus *Gure Herria*, 1932, 491 orr.; S. Onaindia, *Milla euskal Olerki eder*, 1.145 orr.; Auñamendi, *Literatura*, IV 225 orr.).

16.- AITA JOSEP OLTZOMENDI (1913-...)

Baigorri'ko aranean jaioa. Eliz-gizon jator; Beloke'n Euskalerriko mixiolari ta bakar-zale. Ustaritze'n ikasketak osotu ondoren, ango bizitzaz lilluraturik.

Onela egin nuen nik Aita Josep'en bizi-berri emate laburra: «Euskalzale jatorra esan bearke baigorritar au. Beloke'n bizi da gaur ixil ta baketsu, aritz-tantaien babes gozoan. Alan ta guzti be, maitez ixil zoragarri ori aldikoz lagarik, euskal erritzo barna ibilli oi da, oin bizkor Kristo'ren irakatsazia arima-alorretan erein bearrez. Maite dau euskera, ta barnemuiñetik gero; ta, jakiña, iñoiz kanta ditu eresi samurrak bertso gartsuetan borobilduta. Amasei urteko zala egin eban ondorengo koplau, Uztaritze'ko apeztegian ikasle zala».

«Goizeko lana» deritzaio poesi oni, amar aspaldiko Piarres ne-kazariak, goizetik jaikita, bere bei ta godez dagian egitekoa, soloak landu ta girotuz noski, abesten digu poliki.

(Ikus *Euskalduna*, 1929-VI-21; S. Onaindia, MEOE, Zarautz, 1954, 1.143 orr.; Auñamendi, *Literatura*, IV, 237 orr.).

17.- PIERRE ADRIEN DUNY PETRE (1914-...)

Beste gizaseme argi asko legez, Donibane Garazi'n sortu zan Duny, 1914-4-3'an. Gaztetarik ikasteari emana. Ogiatabost urtetik aurrera, sei urtez, alemanen aurkako gudan gogor jojatu zuen. 1946'an Clermont-Ferrand'en daukagu Poliziko Komisaria legez; gero, Marsella'koa, Amenis'koa ta Akizekoa, Perigueux'koa ta abar.

Iholdi'n ezkondu zan. 1951'n, Jeanne Idiede'ekin.

Euskal idazle.—Kargu askorekin zamatua bizi dalarik ere, maitu du euskera, bere izkuntza, eta zor zaiona ematen beti saiatu izan da, idatziz et mintzoz zenbait lan eder osatuz.

Ango ta emengo aldizkarietan atera ditu bere lanak: «Gure Herria», «Herria», «Elgar», «Enbata», «Gure Almanaka», «Pan-Pin», Principe de Viana», BAP eta abar. Konkurtso askotan esku artu du ta sariak irabazi.

Aren poesi asko datoz «Gure Herria»-n eta beste aldizkarietan. Ona batzuk: «Olhutzeko Andere Dena Mariaren ithurria» (1961); «Oi Eskualdunak» (1962), 1961'an Baiona'ko Museu-Baskok saritua; «Geraziko hiri nausi zaharrari» (1963), Museu-Baskok saritua; «Santibate Garazin» (1964); «Etxe xaharra» (1965); «Artaldia bada» (1966); «Manexen marrikak» (1966); Pilotariak (1967); «Nafarroari» (1969), eta abar.

Irufia'ko «Principe de Viana»-n badu olerki mordoa.

1963'an, euskaltzain urgazle izentatua izan zan.

Erabili dizkigun izen-ordeak: «Heguitoa», «Piarres», «Piarres Heguitoa».

(Ikus «Gure Herria», 1960, 94 or.; Auñamendi, *Literatura*, IV, 238 or.).

18.- PIERRE LARZABAL (1915-1989)

Donibane Lohitzune'tik sei kilometrora dagoen Azkaine eritxoan sortua dugu, 1915-5-7'an. Uztaritze'n eta Baiona'n eliz-ikasteak burutu ondoren, apaiztu zalarik, Hazparne errira bialdu zuten arima-zai eta antxe egon zan bikario amabi urtez. Europa'ko gerra gertatu zan artean, burruka oiñetan ibilli zitzaigun, baita atzillotu ibilli ere Alemania'n; andik, baina, askatu zuten guda bukatu baiño lehen eta Hazparne'ra biurtu zan.

Hazparne'tik Zokoa'ra eta emen daukagu gaur ere. Urreña'ko ta Ziburu'ko bi errien egal bat zan orduan Zokoa, erretorik eta etzuen; kapilla txiki bat zegoen ta urrufia'ko apaiz batek ematen zuen meza igandetan. «Larzabal izan da hau eman duten lehen erretora, eliza egin behar, apez-etxea egin behar, eta bertzalde arimetan asko lan egiteko: horko jendea baita kanpotik etorria, nunahitik, arrantzaleak, Frantziak behereko Bretanistik, baita ere Espaini aldetik», irakurten dugu «Auspoa», Il'garren zenbakian.

Orain eliza eder bat dauka amaiturik; apez-etxe politZokoa'ko etxerik geienak legez, eliz-ondoan egiña. Erritarrak, naiz arrotz naiz bertako, maite dute beren erretora, Dakar'era ta doazten arrantza-leak batez ere.

Teatru-idazle.—Euskeraz ederto daki. Euskal antzerkia du egiazki maite. Asko idatzi du, «Herria»-n eta «Gure Herria»-n, «dela antzerki, dela kondaira, dela lehengo orhoitzapen edo paper zaharretako ikertze». Gazteak maite ditu, eta bera gazteak. Eskualdun Gazteria» deitu Ekintza Katolikuaren jaietan Larzabal'i dei egiten diote «denetarik eta denentzat zerbait asmatzen du bere talentu ederrarekin».

Hazparne'n zegoelarik asi zan teatru-lanean eta ainitz lan osatu zuen ortan ango gazteekin. Berak ere ez daki zenbat antzerki idatzi ta antzeztu ditun, konta ezin-ala bait dira. Batzuk laburrak ditu, beste batzuk txit luzeak; batzuk argira emanak eta beste batzuk argitara gabeak.

Ona erdizkako zerrenda bat aren lanez osatua: 1) «Etxahun» («Gure Herria»-n); «Bordaxuri» (1962), «Hiru ziren» (1962), «Herriko bozak edo nor alkate» (1962), «Senperen gertatua» (1964), «Hila esposatu» (1965), bostok «Auspoa»-n argitaratua; «Portuxoko», «Basabeltz», «Urriki latza», «Berterretxe», «Mugari tiro», «Mila espo», «Paper mende», «Nork hil du Oyanalde», «Sarako lorea» «Lehen eta orai»... Eta gertaldi bateko auek: «Okilomendi jaun mera» (Egan, 1952), «Xirixiti-mirixiti», «Amerikanoaren ilhobak», «Merkatutik merkaturat» (*Gure Herria*, 1937)... Plaza agirian antzezututeko auek: «Bihotz bero», «Tuta jotze», «Kontrabandixtaren alaba»... Eta auek: Pirri eta nigar» (*Gure Herria*, 1934), «Muthil berri» (*Gure Herria*, 1960), eta abar. «Infernuko dirua» lanak, 1966'an «Agora» sariketara bialdu zuenak lehenengo saria eskuratu zuen.

Orrez gaiñera baditu beste lan asko «Gure Herria»-n, «Herria»-n, «Enbata»-n, «Otoizlari»-n, «Aintzina»n, «Eskualduna»-n eta beste. «Gure Herria»-n auek, adibidez: «Aldaira» (1959), «Allanda ta hiru astronomuak» (1938), «Euskal teatroaz» (1960), «Eskualduna miriku» (1934), «Eskuarazko teatroa» (1955), «Larrun, ene mendia» (1958), Pertsulari aipatu bat: «Txirrita» (1958), «Pierre Lotu eta gu» (1960), «Salutatzen zauztegu, jaun pertsulariak» (1958), «Sorginak Lapurdin» (1937), «Urdea hil dugu» (1964) eta abar. «Herria»-n, ordea, «Mugako apez» (1968). «Orreaga» pastoralara (Baiona, 1964) eta «Gure Pastoral» (*Egan*, 1965, 1-6, 3-13 or.) ere aipagarri dira.

Larabal'en dramak naiz komerikak, ederki biribilduak daude aren lanan iritzi-emalleak diotenez. Izkera arin errikoan egiñak. «Auspoa»k *Senperen gertatua* argitaratu zuenean, L. Mitxelena'k idatzi ziugun: «Larabal apaiz jaunaren izena ongi ezaguna da gure artean, eta merezi onez ezaguna, bere teatro-lanei eskerrak. Bere antzerkiak, besterenak ez bezala, errikoaik eta ikasiak baitira, jende landu eta jende arruntarentzat egiñak. Maik ikusiak eta txalotuak izan dira, bai Bidasoa'z alde onetako euskaldunen artean ere, bere lanak, eta orietan ezagunenetako bat da noski...Senpere'n gertatua deritzan au».

Euskaltzain osoa. Ez-izen aukerak beintzat erabili ditu: «Aldai-ko», «Kostatarra», «Haritzgain».

(Ikus G. Garriga, *Bol. am. E.V.*, 1958, 133 or.; N. Kortazar, *Cien aulores vascos*, 109 or.; L. Mitxela, *Egan*, 1962, 1-3, 91 or. eta *Egan*, 1964, 1-6, 167 or.; Antonia M. Labaien, *Teatro euskaro*, 1 eta 2'garren aletan; Bitáño, *Aranzazu*, 1964 otsailla, 125 or.; J. San Martín, *Escritores euskericos*, 115 or.; J. Bilbao, *Esuko Bibliografía*, V, 3 or.; Auñamendi, *Literatura*, IV, 255 or.; S. Oñaindia, *Euskal elertia*, 1978, 228 or.).

19.- EUGENE GOIENETXE (1915-...)

Uztaritze'n jaio zan 1915-6-15'an. Gizaseme eskolatua, Letretan, Artxibo-arazoetan eta Paleographian lizenziatua. Pariseen burutu zituen ber ikasteak, Chartes-Sorbonne'ko Ikastetxean. Iker-lanetan aitua.

Idazle bezela «Gure Herria»-n, «Herria»-n, «Bulletin de la Societe de Sciences, Letres et Arts de Bayonne»-n, «Bulletin de Musée, Basque»-n eta abar lanak agertazi ditu.

Libur jakingarri bat ere badu, «Notre terre basque» (Ikas argitaldaria, Baiona, 1861).

(Ikus J. San Martín, *Escritores euskericos*, 94 or.; Auñamendi, *Literatura*, IV, 261 or.)

20.- ANDRE OSPITAL (1915-...)

Aldude'n sortua, 1915-11-22'an. Salerostuna, «Herria» astero-koaren diru-kontua daramana.

Euskeraz eta erderaz idatzi digu, aldizkari auetan batez ere: «Herria», «Gure Herria», «Sud-Oest», «Chasses et Migrations», «Basque-Eclair», «Gure Alamanaka».

Orrez gain, badu lan jakingarri bat *Traditions des Aldudes* deritzana (*Gure Herria*, 1965).

(Ikus J. San Martin, *Escrilores euskericos*, 146 or.; Auñamendi, Literature, IV, 285, or.).

21.- SIMON ERRAMUZPE (1915-...)

Aldude-Banka'koa, Peio bertsolari ernearen semea.

Aspaldi ixil egona izan arren, beste orduz, apez-ikasle zalarik, 1933'garren urteruntz, *Eskualduna* asterokoak eratu zuen norgeiagokan, oraindik gatetxo, jaso zuen leen-seria ta laugarren garait-saria. Geroztik, damuz, ez digu gauza aundirik ondu.

Nire *Milla euskal Olerki eder* liburuan (1142 or.) dator *Bakarririkjenden erdian* deitzan zortzi aapaldi ederto biribildutako lana.

(Ikus S. Onaindia, MEDE, 1142 or.; P. Lafitte, *Le Basque...*, 63 or.; Aunamendi, Literatura, IV, 287, or.).

22.- MATTIN TREKU (1916-1981)

Oraintsu arte galanki bertsotan egin digun Mattin bertsularia Lapurdi'n Ahetze'koa genuen, laborari seme ain zuzen. Gazterik zekarren dei berezia, maite zituen bertsoak; eta bera ere bertsolari izango zan. marzortzi urteko zalaeste gizaseme argi asko legez, Donibane Garazi'n sortu zan Amazortzi urteko zala, beraz, bertsoetan asi zan, tabernetan leenengo ta plazetan gero. Irripartsu ta umore oneko beti, jitez eta itxuraz euskaldun beti.

Lapurdi'k ugari eman dizkigu bertsolariak. Mattin'ek an bertan, bere erritik urbil zeukan, ots, Senpere'n, Mattin irabola koplari omenduna. Maiz joan oi zan ari entzuten. Orrela, bera ere, pizkanaka pizkanaka, plazaratu zitzaigun, beste asko ere bizkortu

izan ditun Teodoro Hernandorena ondarrabitarrak eraginda diote-
nez. Eta, bein ortarako ezker, nork menderatu ta ixilazi gure bert-
solariak? Belar guria irentsu duen ardiak pentzerako irrika bizia
du, alegia.

Arrez gero, kanta ta kanta, Euskalerra osoan ibilli zitzaigun Mat-
tin, adiskide miña zuen Urepel'eko seme Xalbador Aire zenarekin
batez ere. Ongi artua zan nainun, eta txalotua; bertsolari bertso-
laria bait genuen, irripar gogoz aldioro, sakon eta eztitsu, etorri opa-
rotsuko, aditzaillen biotzak dardaratu, birloratu ta irabazten zi-
tuena. Iñon jairik ba'zan, ara deitua.

Beronen bertso liburu bi ezagutzen ditugu, Aita Zabala'k bere
«Auspoa» idazti saillean argitara emanak. Ona:

1) *Ahal dena* (Tolosa, 1981).

2) *Ene Xokotik kantari* (Tolosa).

Lanari ekiola, eguneroko lanari, zorigaitzez il zan.

Eriotz ondoren amalauko polit bat eskeiñi zion Alfonso Irigoien
olerkariak. 1981'ko garagarrilleko *Euskeran* daukazu.

(Ikus *Euskeran*, 1981-2, 1013 or.)

23.- JEAN M. DIHARZE, «IRATZEDER» (1920-...)

Donibane Lohitzune'n jaio zan 1920-1-4'an. Bertako Josep San-
tuaren eskolan 1925'tik 1927'rako ikasketak, gero Sta. Maria ikas-
tetxean jarraituz 1933'rarte. Urte onetan Uztaritze'ko apaiztegia
sartzen daeta Baiona'koan 1938'an. Opor-aldian Larresoro'n zeu-
kan geienik bere egeitza. 1941'an, Bekoke'ko komentuan sartu zan
benetitarra nairik; arrezkero, antxe dago mendi-gaintxo atseginga-
rri aran.

1943'an, Europa'ko gudatean, Lazkano beneditar komentuan
igaro zuen aldikada bat: emen zegoela osotu zitun olerki eder bat-

zuk. Beloke'ra itzuliz, 1945'an, apaiz sagaratua izan zan, eta gerroztik, asi-berrien maisu izan zan; gaur, batera bertako Abata da.

Gaztetatik euskaltzale, eta tarteka-marteka idazlan ugariengatik Euskaltzaindiak euskaltzain oso izentatu zuen 1963'an. Bertan aartzea aundikiro ospatu zen Beloke'n bertan urte ortako maiatze-ren 18'an. Bere itzaldiaren gaia: «Beloke euskaldun bidean».

Euskal idazle eta olerkari.— Norberak bere bizia alaitu ta apaindu bearra dugu negar-erri onetan. Eta Iratzeder kantuz bizi da, olerkiz eta ederrez, naiz soroan lan-egin naiz koruan salmo-kantari. Kantuak eta bertsoak eta arimaz jainkotiar danarena.

Apaiztu zanetik asi zan euskeraz idazten, eta poesiz bereziki «Ezkila», «Otoizlari», «Gernika», Euzko Gogo», «Gure Herria» «Egan», «Olerti», «Aintzina», eta abar. Idatzi ezezik, sariak jaso ere bai; «Eskualtzaleen Bitzarrak» saritu zioten, *Zakalar*, bertsozko drama, lendabizi ta *Pinclar eta Lanho* (1920-1941) gero, «Gure Herria»-an (1957) agertua. Ondoren etorri ziran besteok:

1) *Eguerri* (1946), Gabonetako misteriozko laukiak.

2) *Zeru-menditik* (1941-1946). Editions «Ezkila», Urt, 1959). A. Arrue'k onela: «Olerkari bikaña da, ta *Zeru-menditik* berriz goieneko mallako bertso-bilduma» (*Egan*, 1-4, 1959). 44 poesi dira guztiz, iru ataletan bereiztuta: 1) *Munduari ihes*; 2) *Munduari gogorreta* 3) *Munduari nausi*.

3) *Mortutik oihu* (1946). KOveria, Donibane Lohitzune'n antzeztua.

4) *Kantikak* (Urt. 1948). Kantu berri asko dakartzi Iratzeder'ek onduak.

5) Antzerki-lanak: *Pasiones*, *Aphez*, *Piztu zauku*, *Maria eta Kurutzea*, *Arrapaillu*, *Miss Mach*, *Iturrian eta Tontoleiko hiru semeak*, *Herrimina* (1950'tik 1960'ra egiñi lanak).

6) *Ezkongai* (1954), ezkontzarako gertakuntza.

7) *Salmoak* (Urt, Editions «Ezkila», 1963). 854 orrialdeko liburu mardula, Aita. I. Baztarrika'k gipuzkeraz eta AITA L. Ake-solo'k bizkaieraz jarrita. A. Villasante'k onela: «Asko zor dio Euskal-erriak Belokeko fraide-etxeari, eta egunetik egunera zor ori

berrituz dijoa. Oker ezpanago, etorkizun aundiko lana da oraingo au. Elixak bere Liturgian berebiziko estimutan izan ditu Salmoak. Testamentu Zaarreko otoitz-liburu au, otoitz-libururik ederrena bezala erabilli irabilli izan du beti. Orain euskeraz eman dizkigute Salmoak, eta beren doiñu ta guzti gaifiera, gizataldeak kanta al ditzan. Geiegikeria gabe esan diteke iratzederrek itzulpen miragarri bat lortu duela. Ez nuen siñistuko ikusi ezpanu, testu beneragarri oiek orrenbesteko indar, gozo ta argitasun euskeraz izan zezaketenik» (*Egan*, 1-6, 1964, 176 orr.).

8) *Argiz argi* (Urt, Editions «Ezkila», 1969). 1947-1957 tarteko olerki-lanak, prosaz eta bertsoz. 91 guztira. Auetatik asko «Gure Herria»k argitaratu zizkigun 1967'an eta 1968'an.

9) *Uhaineri nausi* (1958-1971). 47 olerki, iru ataletan berezita: 1) *Lanopetik*; 2) *Uhainen artean*, eta 3) *Uhainetarik argirat*. Iru goragokoen gisako bertsoxorta bikaiña.

Aspaldi danik berak zuzentzen du, eta zati eder bat idatzi, Beloke'ko beneditarrak ateratzen duten «Otoizlari» aldizkari goxo mamintsua. Illero datorkigu ezitia darion frutuz gaiñezka. Diharze'k bere idaztietan agertzen duen goxotasun ori P. Lapitze ta Jean Barbier'gandik artua omen du, eta oso musika-zale danez, ditekena da Aita Donosti'ren euskal musikeaz ere zer-ikusia izatea. E. Allan Poe'k esaten zuen: «Musikea, oldozkun samur batekin naste, olerkia duzu». 1983'an argitaratu zuen «Biziaren Olerkia» bere poesi guztien bilduma.

Lanak firmatzeko «Iratzeder» eta «Xabier Diharze» maiz erabilli dizkigu.

(Ikus A. Ibiñagabeitia, *Eusko Gogo*, 1952, 3-4, 54 orr.; S. Onaindia, MEOE, 1.146 orr.; L. Villasante, *Egan*, 1957, 1-2, 12 orr., eta *Egan*, 1964, 1-6, 176 orr.; A. Arrue, *Egan*, 1959, 1-4, 94 orr., eta *Eusker*, 1963-64, 182 orr.; J. San Martin, *Escritores euskericos*, 66 orr.; N. Kortazar, *Cien aulores vascos*, 137 orr., ta «Aranzazu», 1964, 128 zenbakian, maiatz; J. Bilbao, *Eusko Bibliographia*, III, 13 orr; Auñamendi, *Literatura*, IV, 313 orr.; S. Onaindia, *Euskal Elertia*, 217 orr.).

24.- TOMAS ITURRI (1920-...)

Atarratze-Zuberoa'n jaio zan 1920-12-28'an. Eliz-gizona. Maule'n ikasi zuen batxillera eta Tolosa'n Teologia. Irakaslaritza egin du Akize'ko Apaizgaitegian.

Euskaltzaindikoa.

Euskal idazle legez, «Gazte», «Etchea» eta «Herria»-n idatzi du. Aren liburu bat: *Un grand souletin, le chanoine Inchauspe* (Baiona, 1950).

(Ikus J. San Martin, *Escritores euskericos*, 166 or.; Auñamendi, Literatura, IV, 341, orr.).

25.- FERNANDO AIRE, «XALBADOR» (1920-1977)

Urepel'en jaio zan 1920-6-19'an eta bertan il zan, oraindik gazte zala. Bere sortetxean laborari izanik ere, bertsolari ospe aundikoa, Euskalerra osoan kantari ibillia.

Kantatzen ezezik luma erabilten ere ba-zekien, eta or-emen dauzka olerki sakon-zorrotzak argitaratuak, «Gure Herria»-n, esate baterako.

«Auspoa» bildumak liburu eder bi atera dizkio; *Ezin bertzean* (1969, 85'gn. zenbakia) bata *Odolaren mintzoa* (1977) bestea.

Aita Zabala'k lenengoaren itzaurrean: «Xalbador eta Mattin izan dira Bidasoaren bi alderdiak bertsolaritzarako josi dituztenak. Ta emengoak ere era berean siatu dira lan orretan. Len ez bezela, orain angoak onera eta emengoak ara, eten gabeko jardunean ari zaizkigu. Ezta izango euskeraren onerako ori zer mesede dan ikusten ez-tuanik... Esan bearrik ere ezta, bat ez-ezik, milla liburu ere osatu zitezkeala Xalbadorren bertso guziak batuko balira».

Bigarrena, berriz, ots, *Odolaren mintzoa*, bera ilda laster lake-ratua, oso ederki egindako argitalpena duzu. Azalez eta mamiz obe-

ki izan. Egilleak merezi zuen bezela, noski baiño noskiago.
Gaur jai asko ta omenaldiak egin oi dira aren gomutaz. Baita euskal olerki, bertso, ipui ta olakozko konkurtsoak ere.

(Ikus S. Onaindia, MEOE, 487 orr., eta *Euskal Elertia*, 204 orr.; J. San Martin, *Escrilores euskericos*, 19 orr.; Aunamendi, Literatura, IV, 338 orr.; *Euskeria*, 1977, 2 aldia, 3.).

26.- MIXEL LABEGERIE TRATZET (1921-1980)

Euskalerrriaren zerbitzari bipil au Uztaritze'n jaiio zan 1921-3-4'an. Bizitza osoa eman zuen kezka batek eraginda: arnas aundiko nai zuen gure erria.

Labur adierazten digu Aingeru Irigarai'k aren irudia. Onela: 25endakina, Eskualzaleen Biltzarreko buruzagia, Euskalzaina, senadorea, eta euskal eragile aundia».

Sendakuntza ikasi zigun gaztetan, «Doktor» titulua erdi-etsirik gai orretan, Pneumo-physiologian batez ere.

Euskaltzale zintzoa zan, eta «Eskualzaleen Biltzar buru zlarik ainbat lan burutu zuen bai euskeraren onerako eta bai elkarte ori sustatzeo. 1959'an, beste batzukaz batera, «Enbata» sortu zuen. Erri-aldetik sarri izan zan kargudun: 1960'an, Euskalerriko Alduna Paris'ko Batzar Nazionalean, gero aolkari orokor eta, azkenik, Kanbo'ko alkate edo auzañez.

Itzali zanean, il-meza, 1980-7-31'an, goretetik emana izan zan. An izan zan A. Irigarai'k onela: «4.000 yende baino geyago ba omen ziren etorriak, elizan ezin kokatuz. Doluaren buru lebeguerie andere alarguna. Mixelen aitatama eta ahaideak. Kargudun aunitz, Chaban-Delmas, Bernard Marie, Petit, Kontseilari jenerala eta alkate zernai; mediku asko, jendarme burua, euskaltzale eta euskalzain andana». Meza euskeraz. Bertsolari Mattin, Esponda, Xanpun eta Alkate; Larroke erretorak meza ta predikua. Ondoren, Mixel Itzaina, Errikoetxeko idazkariaren euskal-agur sentikorra, illaren

zuzentasuna, zerbitzu-leia, fede azkarra, erriaren aldeko berotasuna baiña bereziki ark barne zeraman bake aundi baten griña bizia, aipatu ta goretsiz.

Euskal idazle legez, «Aintzina»-n eta «Gure Herria»-n idatzi zuen. Euskeraz eta frantsesez, prosa-lanak eta olerkiak. «Aintzina»-n eman zizkigun: 1) *Corteges et danses du carnaval en Soule, Basse-Navarre et Labourd* (1942, bost lan); 2) *La danse au Pays Basque* (1942, III, 13 orr.; *Le Fandango* (1943, IV, 17 orr.; *Kadira dantza* (1942, III, 12 orr. Eta «gure Herria»-n: 1) *Aita Donostia* (1960, 381 orr.; *De l'interet psycho-pedagogique du bilinguisme* (1959, 161 orr.); 3) *Eskualzaleen Biltzarra. Arboti'ko egun ederraz* (1960, 357 orr.; *Mintzaldia* (1958), 371 orr.).

Aberri kantu berriz adoretu nairik, ainbat eresi ta diska dauzka, guztiz ernegarriak.

Ikus L. Villasante, *Historia de la Lit. Vasca*, 319 orr.; J. Bilbao, *Eusko Bibliographia*, IV, 538 orr.; Auñamendi *Literatura*, IV, 343 orr.; A. Irigarai, *Egan*, 1-6, 139 orr.).

27.- JAKE ETXEBERRI (1921-...)

Donibane-Lohitzune'n jaio zan 1921-12-16'an. Filosofian eta Psikosoziologian lizenziatura Sorbona'tik, ekonomista ta kazetari. Euskaltzaindiko urgazle.

Paris'en ikasle zala asi zan euskeraz idazten, 1955'an. «Berria» asterokoan zerbait idatzi duen arren, ez du askorik egin euskaraz; beronen lanik geienak argitara gabe daude oraindik.

Ikus J. San Martin, *Escritores euskericos*, 83 orr.; Auñamendi, *Literatura*, IV, 350 orr.).

28.- PIERRE XARITTON (1921-...)

HazparNE'N SORTUA DUGU 1921-10-19'an. Apaiz-karrera ikasi zigun, leenengo ikasketak Uztaritze'n eta elizari buruzkoak Baiona'n egiñik. Erroma'tik Teologian lizenziatua ta Filosofian Paris'tik. Baiona'n Eusko Gaztediaren kapellau.

Euskal arloan gaztetatik daukagu langille, beti gogotsu ta kez-kati. «Aintzina», «Gazte», «HERRIA», «Etchea» ta beste aldiz-kari batzuetan idatzi du. Euskaltzaindikoa da.

Bernardo Estornes Lasa'ren *Euskal-Edestia* laburdierara itzuli ta bost ikasgai geiagoz orniturik, *Eskualdunak* tituluz argitara zuen (Baiona, 1943), «Chavier Gazteiz» izen-ordearekin.

Frantsesez ere badu liburuxka bat titulu onekin: *Petit Histoire Religieuse du pays Basque* (Baiona, 1946), 71 orrialdekoa.

Idazle ona duzu Xaritton. Ona ikusburu zatiño au euskal fedeari ta kulturaz Larresoro'ri erantzunez idatzia. «Atzoko Euskal Herrian bizi izan diren euskaldunek kristau fedean aurkitu omen zuten misterioaren funtsa eta bizieraren sentidua; orduko euskal kulturari kristau fedea eman zion bere zigiloa. Bainan atzoko kultura hori, artzain edo laborari kultura hori puskatu egin dela ba dakizu... Askok gutartean ez dute ikusten ahal edo ikusi nahi gure kultura zahrra joan egin dela eta kultura berri bat, nahi ta nahi ez, sortzen ari dela. Kultura berri hori feddegabea dela eta agnostikoa, jakiña. Bainan egundainotik gizasemeak bataiatu gabeak jaio egin dira. Zuk aipatzen duzun fedearen krisis horixez dut ukatuko, binnan ez, otoi, uka zuk ere kulturaren krisisa. Kultura berri hori zuk eta nik, adiskide Larresoro, nahi ginuke Euskal Herrian euskalduna» (*Jakin*, 5, 226 orr.).

Ikus J. San Martin, *Escritores euskericos*, 64 orr.; Auñamendi, *Literatura*, IV, 345 orr.; S. Onaindia, *Euskal Elertia*, 200 orr.).

29.- ERNEST BIDEGAIN UHARRIET (1922-...)

Aldude'n jaio zan 1922-11-13'an.

Irakasletzarako ikasketak egin zituen Uztaritze'en eta Baiona'n, gero Uztaritze'n bartan irakasle izanik.

Euskeraz idatzi izan du «Eskualduna»-n, «Herria»-n, «Gure Herria»-n eta abar.

Antzerki-zale danez, teatru-lanok bereak ditu: *Manex Azeri eta Ustegabeko jendarmak*.

«Gure Herria»-n dator lan au: *Aldudeko ixtorio xahar zenbait* (1964, 4-5, 252 orr.). «E.B.» zan aren izenpea.

(Ikus J. San Martin, *Escritores euskericos*, 57 orr.; A.M. Labaien, *Teatro Euskara*, II, izen-zerrendan; Auñamendi, *Literatura*, IV, 357 orr.).

30.- PIERRE ANDIAZABAL (1923-...)

Urruña'n jaio 1923-1-18'an. Uzturitze'n eta Baiona'n ikasi zuen apaiz-karrera. Euskalzaindikoa.

Euskal idazle legez, «Herria»-n eta «Otoizlari»-n agertzen dira bere lanak.

Badu euskeraz elizarako liburu oneratsua: *Meza denborako deiak* (1961).

(Ikus J. San Martin, *Escritores euskericos*, 1968, 27 orr.; Auñamendi, *Literatura*, IV, 364 orr.).

31.- JEAN GRATIEN HARITSXELHAR (1923-...)

Baigorri aldean, Donostebe'n sortua dugu 1923-5-31'an. Sorbona'n eta Saint-Cloud'eko Eskola Nagusian egin zituen bere ikas-teak. Bordele'n euskal literatura erakutsi izan du. Baigorri'ko alkate. Euskaltzaiña, eta Euskaltzain-burxu ordeko. Baiona'ko «Musee Basque»-ko zuzendari. Ainbat itzaldi eman ditu or-emen.

«Gure Herra»-n, BAP-en, «Herria»-n, «Bulletin du Musee Basque»-n idatzi du.

Lanok aurkitzen dira «Gure Herria»-n:

1) *Deux chansons perdues d'Etchahun-Barkoche* (1960, I, 2 orr.J).

2) *Le rythme poetique (4 + 7)-(4 + 6) dans la chanson* «Inchauspeko alhaba dendaria» (1961, I, 1 orr.).

3) *Etchahun et Chamisso* (1962, 2 eta 3 zenbakiak, 99 orr.).

4) *Contribution a l'etude de la Litterature basque: M. Larralde-Bordachuri, le poete-galerien* (1963, V, 257 orr.).

5) *Etchahunen mandoa* (1960, 32, 221 orr.).

6) *Etchahun eta Otxalde II*, 65 orr.).

7) Euskaltzaindian artua izan zaneko Mintzaldia, 1963, 4'garen zenbakian.

8) BAP'en *Etchahun et Chamisso*, 16, 71 orr.).

9) *L'Oeuvre poetique de Pierre Topet Etchahun (Euskera, 1969-1970, Bilbao, 710 orr.)*. Testua, frantses itzulpena, aldakuntzak eta oarrak. Argitalpen bikaiña, Etxahun'ek merezi zuena.

Zabalki goratu izan dute baigorritar jakintsu onen lana, iker-lana bereziki. Funtsez eta gizonki egindakok ikerketak nunbait. Gure Izurtzar Bitaño, euskal bitxi-zaleak, onela idatzi zigun *M. Larralde-Bordaxuri* zala-ta: «Eztoguz larregi ezagutzen XIX gizaldiko gure olerkariak, Bidasoaz beste aldekoak batez be. Orraitifio astiro-astiro bada be benetako meritudun lanak agertzen dira noiz beinka, eta orain Baigorriko Euskaltzain jakintsuak dakarguna onen-

onenetariko bat dogu. Eredutzat artu geinke lan au, bere antzera besteak egiteko» (*Egan*, 1963, 4-6, 239 orr.).

Etzahun'i buruzkoagatik naiko geiago esan geinke.

(Ikus J. San Martin, *Escritores euskericos*, 97 orr.; L. Villasante, HLV, 168 orr.; *Gure Herria*, 1963, 4 zenb., eta 1969, 2 zenb. 65 orr.; N.A.G., *Egan*, 1963, 4-6, 239 orr.; Auñamendi, *Literatura*, IV, 369 orr.; J. Bilbao, *Eusko Bibliographia*, IV, 211 orr.).

32.- ALEXIS ETXEKOPAR (1934-...)

Zuberoa'n, Barkoxe'n jaiotako 1924-2-10'an. «Attuli» deitzen diote.

Errimiñak eta kezkek eraginda, kantari dabillena duzu. Gure erria bere izatea, bere nortasuna galduz doalako kezkek larri darabil eta orixe da bere kantagai arrunta.

Kantu-xortetan agertzen diran aren abesti sentikorrak. Lau, xalota geiegi landu gabeak bear bada, baiña barneraiño sartzen diranak.

(Ikus J. San Martin, *Apndice a Escritores euskericos*, 1969, 21 orr.; Auñamendi, *Literatura*, IV, 371, orr.).

AURKIBIDEA

AURKIBIDEA

Sarrera Antxo	7
Gipuzkoa 1920-1950	13
1.- Migel Iturbe Alderdi (1900-1976)	14
2.- Jose Antonio Garate Mujika (1900-1974)	15
3.- Alejandro Ezkurdia (1902-1979)	16
4.- Migel Maria Zubiaga Imaz (1903-...)	17
5.- Jose Maria Burgaña Belaustegi (1905-...)	18
6.- Iñaki Goenaga Alberdi (1905-...)	19
7.- Erraimun Argarate (1906-...)	20
8.- Jokin Zaitegi eta Plazaola (1906-1979)	23
9.- Elbira Zipitria (1905-1982)	29
10.- Juan Thalamas Labandibar Enparan (1906-1981)	30
11.- Jose Artetxe Aranburu (1906-1971)	31
12.- Jose Domingo Arana Arana (1906-1970)	34
13.- Maria Julia Orbegozo ta Otaño (1906-...)	35
14.- Plazido Muxika Berrondo (1906-1982)	37
15.- Pedro Sarriegi Larburu (1906-1968)	41
16.- Txomin Jakakortajarena (1906-...)	42
17.- Inazio Maria Barriola Irigoien (1906-1987)	47
18.- Erramon Murua Arruabarrena (1906-...)	48
19.- Inazio Maria Manzisidor (1907-1961)	49
20.- Jesus Erramon Elozegi Irazusta (1907-1982)	54
21.- Antonio Arotzena Gomendio (1907-1989)	57
22.- Txomin Amasorrain Zenitagoia (1908-...)	58

Ziriako Gabilondo F. Arroiabe (1908-...)	59
24, Juan Iñazio Goikoetxea Olaondo (1908-1983)	60
25, Basilio Iraola Zabalo (1908-...)	64
26, Demetrio Garmendia Otegi (1908-...)	66
27, Paben Loidi Peña (1909-1985)	66
28, Karlos Santamaria Ansa (1909-...)	69
29, Txomin San Sebastian (...-1964)	70
30, Elias Koro (1909-...)	72
31, Estanislao Urruzola eta Bitoria (1909-...)	72
32, Jose Maria Lojendio Irure (1910-1979)	75
33, Domingo Irigoien Larrañaga (1910-1983)	76
34, Fernando Artola Sagarzazu (1910-1983)	78
35, Pedro Irizar Barnoia (1910-...)	81
36, Jon Oñatibia Audela (1911-1979)	81
37, Jose Antonio Arkotxa Martija (1911-...)	84
38, Juan Beistegi Ugalde (1911-...)	87
39, Frantzisko Zalakain Illarramendi (1911-...)	88
40, Ambrosio Zatarain Etxebeste 1912-...)	88
41.- Ziriako Andonegi ta Andonegi (1912-1982)	90
42, Biktor Andueza ta Zangitu (1912-...)	91
43, Insausti ta Urkirizar'tar Jesus (1912-...)	92
44, Sebastian Alustitza (1912-...)	93
45, Rodolfo Bozas Urrutia (1913-1981)	94
46, Erromana Elustondo Otaño (1913-...)	96
47, Julian Alustitza Jauregi (1913-...)	97
48, Iñazio Eizmendi Manterola, «Basarri» (1913-...)	98
49, Migel Pelai Orozko (1913-...)	101
50, Jose Antonio Garate Unanue (1914-...)	103
51, Xabier Peña Albizu (1914-1980)	105
52, Balendiñe Albizu Aizpurua (1914-...)	106
53, Juan Agustin Zumalabe Mendiburu (1914-1981)	108
54, Sebastian Salaberria (1915-...)	109
55, Anastasio Albisu eta Aierdi (1915-...)	111

56.- Miren Aranzazu Urreta Zulaika (1915-...)	113
57.- Luis Mirxelena Elisalt (1915-1987)	114
58.- Antonio Valverde Casas (1915-1970)	117
59.- Gotzon Goenaga ta Gorriti (1915-1974)	119
60.- Jose Antonio Loidi Bizkarrondo (1915-...)	121
61.- Jose Manuel Estonba Arruabarrena (1916-1982)	123
62.- Manuel Oñatibia Audela (1916-...)	126
63.- Martin Ugarte eta Azurmendi (1916-...)	127
64.- Salvador Barandiaran Balanzategi (1916-...)	129
65.- Luis Egia Errezola (1917-1984)	131
66.- Jesus Maria Arozamena Berastegi (1918-1974)	133
67.- Josu Oregi Aranburu (1919-...)	134
68.- Bizente Latiegi (1919-...)	135
69.- Salvatore Mitxelena Lazkano (1919-1965)	136
70.- Pedro Berrondo Lasarte (1919-...)	139
71.- Andoni Astigarraga eta Larrañaga (1920-...)	140
72.- Jesus Atxa Agirre (1920-...)	141
73.- Fidel Sarriegi Unanue (1920-1969)	142
74.- Jon Etxaide Itarte (1920-...)	142
75.- Eujenio Agirretxe Azpillaga (1920-...)	145
76.- Martin Ugalde (1921-...)	146
77.- Jesus Arkotxa Martija (1921-...)	149
78.- Iñazio Begiriztain Albizu (1922-...)	149
79.- Juan San Martin Ortiz Zarate (1922-...)	149
80.- Pedro Zelaia Olabarria (1922-...)	152
81.- Manuel Juaristi Azpiazu (1923-...)	154
82.- Gurutz Ansola Larrañaga (1924-...)	155
Laburpen	156

Bizkaia 1920-1950.....	157
1.- Eulojio Artetxe (1904-...)	158
2.- Estanislao Gisasola Artamendi (1905-...)	159
3.- Parada'tar Ixidor (...-1932)	159
4.- Jesus Uruñuela (...-...)	160
5.- Juan Gorostiaga Bilbao (1905-...)	161
6.- Andima Sabin Ibinagabeitia Idoiaga (1906-1967)	163
7.- Gallastegi Zenarruzabeitia Kauldi (1906-1984)	169
8.- Julen Urkidi Urriz (1906-...)	172
9.- Balendin Enbeita Goiria (1906-1986)	173
10.- Bizente Batiz Bilbao (1907-...)	175
11.- Jose Abasolo Atutxa (1907-1965)	177
12.- Juan Maguna Goikoetxea (1907-1975)	179
13.- Txomin Agirre Ozerin (1908-...)	180
14.- Frantzisko Atutxa Bikarregi (1908-1973)	182
15.- Jose Antonio Goiria Muniozguren (1908-...)	186
16.- Josu Altuna eta Mendiola (1909-1989)	189
17.- Sebastian Atutxa ta Atutxa (1909-1964)	191
18.- Santiago Onaindia Baseta (1909-...)	193
19.- Iñazio Omaetxebarria Martitegi (1909-...)	200
20.- Martin Arrizubieta Larrinaga (1909-1988)	202
21.- Gerardo Gerenabarrena Agirrebengoa (1910-1982)	203
22.- Lino Akesolo Olibares (1911-...)	204
23.- Jose Basterretxea (1911-...)	208
24.- Pedro Elorrieta Zenikaonaindia (1910-1984)	211
25.- Eusebio Erkiaga Alastra (1912-...)	212
26.- Balendin Aurre-Apr aiz (1912-...)	216
27.- Gotzon Azpeitia Amezti (1912-...)	221
28.- Anastasio Arrinda Albisu (1912-...)	221
29.- Sabin Muniategi Astoreka (1912-...)	225
30.- Paulin Solozabal eta Solozabal (1912-...)	229
31.- Antonio Armentia Agirrezabal (1913-...)	232

32.- Jose Maria Elxaburu Etxaburu (1913-...)	233
33.- Iñaki Zubiri (1913-...)	234
34.- Andoni Amutxategi (1913-...)	236
35.- Martin Gartzia- Alkorta, «Gorri» (1913-...)	238
36.- Agustin Zubikarai Bedialauneta (1914-...)	239
37.- Imanol Berriatua (1914-1981)	242
38.- Anton Landajuela (1914-1982)	245
39.- Sabin Alonso Ariño (1915-...)	246
40.- Maortua eta Garitazelaia'tar Miren (1916-1971)	247
41.- Anjel Bideguren Arrien (1916-...)	248
42.- Josu Arregi (1916-...)	249
43.- Federiko Karl Krutvvig (1921-...)	250
44.- Lon Arteaga Bilbao (1917-1980)	252
45.- Jaime Kerexeta Gallastegi (1918-...)	255
46.- Luis Villasante Kortabitarte (1920-...)	259
4 ⁷ .- Pedro Anasagasti Urrutia (1920-...)	263
48.- Iñaki Goikoetxea Uriarte (1920-...)	265
49.- Nikolas Altzola Gerediaga (1922-1981)	267
50.- Xabier Gereño Arrate (1924-...)	269
51.- Biktork Kapanaga Elortza (1925-...)	271
Laburpen	273

Nalarroa eta Mugaz Andikoak 1908-1925	275
Laburpen	275
Nal'arroa .	
1.- Migel Intxaurren Arriaran (1897-1979)	277
2.- Feliziana Setoain Arostegi (1912-...)	278
3.- Inozenzio Aierbe Irañeta (1912-...)	279
4.- Jose Estornes Lasa (1913-...)	279
5.- Mariano Izatea Elizalde (1915-...)	280
6.- Pedro Diez (Diaz) Ulzurrun Etxarte (1924-...)	281
Mugaz Andikoak	
1.- Philipe Arnart Kalonjea (1901-1982)	282
8.- Joan-Batista Lertxundi Ilezalde (1908-...)	283
9.- Pierre Bordazarre (1908-1979)	285
10.- Sauveur Narbaitz (1908-1979)	287
11.- Pierre Narbaitz (1910-...)	288
12.- Marzelin Egiaphal (1910-...)	289
13.- Gilen Eppherre (1911-1974)	290
14.- Gregoire Epphere (1929-1974)	292
15.- Jean Babaki (1913-...)	292
16.- Aita Josep Oltzomendi (1913-...)	293
17.- Pierre Adrien Duny Petre (1914-...)	294
18.- Pierre Larzabal (1915-1989)	295
19.- Eugene Goienetxe (1915-...)	297
20.- Andre Ospital (1915-...)	297
21.- Simon Erramuzpe (1915-...)	298
22.- Mattin Treku (1916-1981)	298
23.- Jean M. Diharze, «Iratzeder» (1920-...)	299
24.- Tomas Iturri (1920-...)	302
25.- Fernando Aire, «Xalbador» (1920-1977)	302
26.- Mixel Labegerie Tratzet (1921-1980)	303
27.- Jake Etxeberri (1921-...)	304
28.- Pierre Xariton (1921-...)	305
29.- Ernest Bidegain Uharriet (1922-...)	306

30.- Pierre Andiazabal (1923-...)	306
31.- Jean Gratien Haritsxelhar (1923-...)	307
32.- Alexis Etxekopar (1934-...)	308

